

Mark Twain

Huckleberry Finn-en abenturak

(Tom Sawyer-en adiskidea)

euskaratzailea: Aintzane Ibarzabal

Fitxategi hau “liburu-e” bildumako alea da,
liburu elektronikoen irakurgailurako prestatua.

Liburu gehiago eskuratzeko:

<http://armiarma.com/liburu-e>

Itzulpena: Aintzane Ibarzabal.

Euskarazko edizioa: Literatura unibertsala, 1990

Jatorrizkoaren data: 1884

Mark Twain euskaraz:

<http://ekarriak.armiarma.com/?i=143>

Informazio gehiago:

<http://armiarma.com/emailuok/?p=1454>

MARK TWAIN

Samuel Lagghorne Clemens Floridan sortu zen, Missourin, 1835. urteko azaroaren 30ean; aita, John Marshal Clemens, abokatua, jaiotzez Virginiakoa; ama, Jane Lampton, Kentuckykoa. Lau urte zituenean, familia Missouriko Hannibaleran joan zen bizitzera, Mississippi ibaiaren ondoan herri txiki batera, eta bertan bizi izan zen hemezortzi urte egin zituen arte. Eskola heziketa laster amaitu zitzaion, aita 1847an hil baitzen. Orduan inprentari ikasle bilakatu zen, tarte batean Missouriko *Curier*-en lan egin zuelarik, Orion anaia zaharrenaren esanetara. 1835tik aurrera bidaia ugari egin zituen, inprimategiko bidai gizona zenez gero, ekialdeko eta mendebaldeko estatuetara.

Mississippin barrena egin zuen bapore bidaian Horace Bixby ezagutu zuen, ontziko kapitaina, eta ibaira aldatu zuen lanbidea. Urte t'erdiko ikasketak egin ondoren, 1859an ontzi gidari bilakatu zen. Mississippia utzi behar izan zuen Gerra Zibilak eztanda egin zuenean, eta

txandaka-txandaka soldadu, Nevadan urre bila-tzaile, egur tratugile eta kazetari izan zen. Artemius Ward eta Bret Harte ezagutu zituen garai horretan eta literaturgintzara hurbiltzen hasi zen Virginiako *City Enterprise*-rako lanean artiu zen bitartean «Mark Twain» ezizena erabili zuen, alegia, uraren sakontasuna neurtzen duen ontzi gidariaren oihua, izenak bi besalditako (hiru bat metro) neurria esan nahi duelarik, Hamabi oin. Izenaren hautaera ironiko xamarra ere bada, sakontasun hori ez baita oso egokia bapore handi batentzat. Bere lehenengo liburua *Jumping Frog* 1865ean argitaratu zuen. Sandwich Uharteetara, eta gero Mediterraneora eta Erdialdeko Ekialdera kazetari gisa egin zituen bidaiak arrakasta eman zioten jende aurreko hitzaldietan eta baita ere bere lehenengo literatur lan handia idazteko materiala, *Innocents Abroad* (1869).

Olivia Langdonekin ezkondu zen hurrengo urtean, eta 1871an idazle arrakastatsu bilakaturik, Connecticuteko Hatforden etxe dotore batean bizi izan zen hurrengo hamazazpi urteetan. Garai horretan idatzi zituen lanik ezagune-

nak: *Roughing It* (1872), *The Gilded Age* (1873), *The Adventures of Tom Sawyer* (1876), *Life of The Mississippi* (1883) eta *The Adventures of Huckleberry Finn* (1884-85).

Idazle lana hitzaldiekin tartekatu zuen eta atzerrira bidaiak egitearekin, enbaxadore amerikar bilakatu zelarik eta mundu osoan ibili zen baita ere Charles L. Webster argitaletxea erazten. Bere literatur izena gero eta ezagunagoa egin zen arren, ezkortasun intelektuala eta giza-diarekiko etsipena areagotu egin zitzaizkion arrakastarekin batera. *The Gilded Age*, C. Dudley Warnerrekin batera idatzitakoa, hemeretzigarren mendeko gizarte amerikarrari bere aurkakotasuna adierazteko idatzita dago. *Pud'nhead Wilson* (1894) idatzi zuen urtean porrot egin zuten bere argitaletxe eta idazteko tresnen negozioek, eta berriro ere bidaiak egin behar izan zituen dirua irabazi eta zorrak ordaintzeko. Horietako bidaia batean zegoela hil zen Susy bere alaba. 1898an, zorrak ordaindu zituen urtean, hiru liburu idatzi zituen, hiruretan bere ezkortasun neurrigabea adierazten digularik, *The Man that Corrupted Hadleyburg* (1900an

argitaratua), *What is Man?* (1906an argitaratua) idazlan filosofikoa, eta *The Mysterious Stranger* (1916an argitaratua). Garai horretatik hil zen arte sinisgabekeria gogorra erakutsi zuen beri, zenbaitetan munduko arazoez iritzi zorrotzat eman zituelarik, batez ere Congoan belgikarrek egin zituzten astakeriei zegozkienak eta amerikarrek Filipinetan. Azken urtea tamalgarria izan zuen; emaztea 1904ean hil zitzaion, jean alaba 1909an. 1906an bere *Autobiografia* idazteko materiala biltzen hasi zen, eta 1907an ohorezko doktore izendatu zuen Oxfordeko Unibertsitateak. Connecticuteko Reddingen hil zen, 1910eko apirilaren 21ean, hirurogeita hamabost urte zituelarik.

HUCKLEBERRY FINN-EN ABENTURAK

(Tom Sawyer-en adiskidea)

Lehenengo atala

Ez duzu nire berri izango, baldin eta ez baduzu *Tom Sawyerren abenturak* izeneko liburua irakurri, baina lasai horregatik. Liburua Mark Twain jaunak idatzi zuen, eta hark egia esan zuen, gehienetan. Zenbait gauza berak asmatu zituen, baina ia beti egia esan zuen. Horrek ez du batere garrantzirik. Ez dut inor ezagutu inoiz gezurrik esan ez duenik, une batean edo bestean, izeba Polly ez baldin bazen, edo alarguna, edo beharbada Mary. Izeba Polly —Tomen izeba Polly, alegia— eta Mary, eta Douglas alargunari buruzko guztia liburu horretan esana dago eta gehien bat egia esaten digun liburua da, zenbait gehiegikeria baditu ere, lehentxeago esan bezalaxe.

Zera, hauxe da liburuaren amaiera: Tom eta biok lapurrek leize-zuloan gordetako dirua aurkitu genuen, eta hala aberastu egin ginen. Sei mila dolar hartu genituen bakoitzak... dena urrea. Ikaragarritzko diru ikuskizuna zen dena batera pilaturik zegoenean. Bada, Thatcher epaileak dirua

hartu eta interesak emateko moduan jarri zuen, eta egunean dolar bana ematen zigun, urte osoan zehar... diru guzti harekin zer egin ere inork asmatuko ez lukeelarik. Douglas alargunak semetzat hartu ninduen, eta uste zuen zibilizatu-ko ninduela; baina gogorra zen etxean bizi behar izatea denbora guztian, kontutan harturik ze goibel, arrunt eta txukuna zen alarguna bere ohitura guztietan; eta hura gehiago jasan ezin izan nuenean, hanka egin nuen. Nire jantzi zaharretan eta lotarako kanaberazko kupelean sartu nintzen berriz, eta aske eta pozik nengoen. Baina Tom Sawyerrek aurkitu egin ninduen eta esan zidan lapur talde bat eratu behar zuela, eta beraiekin elkartu nintekeela baldin eta alargunarengana joan eta errespetagarri bilakatzen baldin banintzen. Hala bada itzuli egin nintzen.

Alarguna negarrez hasi zitzaidan, eta ardi galdu gaixoa deitu zidan, eta bestelako gauza asko deitu ere bai, baina ziur ez zuela asmo txarrik izan. Arropa berrian sartu ninduen berriz, eta izerditu eta izerditu besterik ezin nuen egin, eta dena estu-estu egon. Eta, orduan betiko kontu zaharra hasi zen berriro. Alargunak afaltzeko txi-

rrina jotzen zuen, eta berehala han egon behar zenuen. Mahaira iritsi orduko ezin zenuen bazkaltzen hasi, aitzitik itxaron egin behar zenuen alargunak burua makurtu eta janariaren aurka ahopeka esandakoak amaitzen zituen arte, nahiz eta jatekoari ezer ez gertatu. Hau da, gauza bakoitza leku batean prestaturik zegoela besterik ez. Kondarren balde batean ez da hala izaten, gauzak nahastu egiten baitira, eta ur zukuak batak bestearekin elkartu, eta dena hobea izaten da.

Afalondoan liburu bat atera zuen eta Moise eta Ihien berri eman zidan; eta izerdia zeridan han buruzko guztia jakin minez, baina geroxeago ihes egin zion Moise aspaldi xamar hilik zegoela, eta beraz ez nuen hartaz ezer gehiago jakin nahi izan, ez baitiet hildakoei kasurik egiten.

Handik pixka batera erretzeko gogoia izan nuen, eta baimena eskatu nion alargunari. Baina ez zidan eman. Ohitura zabarra zela hura esan zidan eta ez zela garbia, eta ahaleginak egin behar nituela berriz ez erretzeko. Halakoxeak izaten dira batzuk. Gauza bati buruz aritzen dira hartaz ezer jakin gabe. Hementxe duzu alarguna

Moiserengatik kezkaturik, bere sendikoa izan gabe, eta inori ezertarako balio ez ziolarik, desgerturik baitzegoen, eta ikusten duzu, dena niri errua gogor bota nahian zebilelako, onik ere bazuen zerbait egiten aritu nintzelako. Eta berak sudur-hautsa hartzen zuen, noski hori zuzen zegoen, berak egiten zuen eta.

Ahizpa, Watson andereño, neskazahar argal xamarra eta betaurrekoduna, iritsi berria zen berarekin bizitzera. Hark ere niri eraso egin behar alfabetoa irakatsi nahian. Nahikoa gogor lan egin erazten zidan ordubetez edo, baina orduan alargunak lana erraz erazten zion. Ezin izango nuen luzaroan jasan. Gero beste ordubete aspergarri baino aspergarriagoa izaten nuen eta ni oso urduri egoten nintzen. Watson andereñok esaten zuen: «Ez jarri oinak hor gainean, Huckleberry», eta «Ez horrela makurtu, Huckleberry... jarri tente»); eta berehalaxe esaten zuen, «Ez ahorik zabaldu eta ez nagiak atera, Huckleberry... zergatik ez zara zintzo egoten?» Orduan zoritxarreko lekuari buruz hasi zitzaidan, eta nik esan nion han egotea gustatuko litzaida-keela. Hura entzun ondoren bere onetik atera

zen, baina nik ez nion hura asmo txarrez esan. Nonbaitera joan besterik ez nuen nahi. Aldaketa nahi nuen besterik ez eta horretarako ez nuen gehiegi eskatzen. Esan zidan halako gauzak gaizkileek esaten zituztela eta berak ezergatik ere ez zituela esango. *Berak* zorioneko lekura joateko moduko bizitza izango zuen. Bada, alegia, ez nion alde onik ikusi hark aukeratutako tokira joateari, eta erabaki nuen haren atzetik ez ibiltzea. Baina ez nion ezertxo ere esan, buruhaustek besterik ez baitzituen ekarriko eta batere gauza onik ez.

Harekin hasi zenez gero, aurrera egin zuen eta zorioneko lekuari buruzko gorabehera guztiak esan zizkidan. Batek han egin behar zuen guztia egun osoa harpa eskutan hartu eta musika jotzen eta abesten ibiltzea zela esan zidan, behin eta betiko. Horrenbestez ez nuen hura oso gogokoa. Baina ez nion ezer esan. Galdegin nion berak zer uste zuen, ea Tom Swayer bertara joango zen, eta ezetz esan zuen, ezta pentsatu ere. Horrek poza eman zidan, hura eta biok elkarrekin egotea nahi nuen eta.

Watson andereñok niri zirikatzen aurrera egin zuen eta orduan nekagarria eta bakartia bilakatu zizkidan guzti hori. Handik tarte batera beltzei dei egin zieten, otoitz egiten hasi ziren eta gero ohera joan ziren denak. Gelara igo nintzen kandela mutur bat eskutan hartuta eta mahai gainean jarri nuen. Orduan leiho ondoko aulki batean eseri nintzen eta gauza alairen batez pentsatzen ahalegindu nintzen, baina alferrik izan zen. Hain bakarrik ikusten nuen neure burua ezen hilik egon nahi bainuen. Izarrak zeruan distiratzten zuten eta hostoak basoan marmarka ari ziren gogaiturik baleude bezala. Ontza entzun nuen orduan, urrutian, oihu egiten ari zela hildako batengatik, eta gaubele bat eta zakur bat negarrez hiltzera zihoan norbaitengatik; eta haizeak zerbait esan nahi zidan nik uleretzen ez niona, hotzikarak hartu ninduelarik. Orduan basoan urruti oihu bat entzun nuen, arimek beren baitan zerbait dutenean eta ongi adierazi ezin dutenean egiten duten oihu horietako bat, eta hala, hilobian ezin egonik gau osoan atzera eta aurrera aieneka ibili behar izaten dute.

Hura nahigabea eta beldurra, lagunena bat izan nahi nuen ondoan. Berehalaxe armiarma bat bizkar gainera tapa-tapa igotzen ari zitzaidala ikusi nuen. Eskua gainean jarri, kanpora bota eta hantxe kandela gainean geratu zen; eta mugitu ahal izan nuenerako kiskalita zegoen. Ez zidan inork esan behar hura ikaragarritzko seinale txarra zela eta zoritxarra etorriko zitzaidala atzetik. Beldurrak akabatzen nengoen eta arropak galdu nituen ia. Zutik jarri eta hiru itzuli egin nituen nire oin arrastoen inguruan eta aldi bakoitzean aitaren egin nuen; eta gero hari puska bat harturik ile-xerlo bat lotu nuen sorginengandik libre egoteko. Baina ez nuen batere uste onik. Hori egiten da aldeztu aurretik aurkitutako zaldiferra, atearen gainean zintzilik jarri ordez, galdu egiten baldin baduzu, baina ez nion nik inori entzun hura ere zori txarra uxatzeko modua zela armiarma hiltzen zenuenean.

Berriro eseri nintzen, goitik behera dardarka, eta pipa atera nuen erretzeko, etxea isil isilik baitzegoen orduantxe eta alargunak ez zuen ezer sumatuko. Bada, tarte luze baten ondoren, urrutian herrian erlojua entzun nuen dan

...dan...dan... hamabi danbateko; eta ondoren isiltasun osoa...; inoiz baino handiagoa. Berehalaxe zuhaitz-adar bat karrak egiten entzun nuen, han ilunpean arbolen artean..., zerbait ari zen mugitzen. Geldi-geldirik geratu nintzen, entzuten. Orduantxe doi-doi entzun nezakeen *miau! miau!* hotsa, han behean. Hura bai zela berri ona! Nik, *miau! miau!*, ahal izan nuen bezain modu isilenean esan nuen. Gero argia itzali eta leihotik arrastaka atera nintzen estalpe gainera. Ondoren lurreraino irristatu eta arbolen artean lau oinetan ibili nintzen, eta zalantzarik gabe, hantxe nuen Tom Sawyer nire zain.

Bigarren atala

Hanka punttetan joan ginen bidexkan barrena arbolen artean alargunaren baratzea bukatzen zen lekuraino, makurturik zuhaitz adarrek geure buruen kontra karrask egin ez zezaten. Sukalde aurretik igarotzerakoan sustrai batekin oztopo egin genuen eta zarata entzun zen. Makurtu eta ez ginen mugitu. Watson andereño-ren beltz handia, Jim izena zuena, sukaldeko ate ondoan eserita zegoen. Ederki ikus genezakeen, argia baitzuen atzean. Zutitu, eta minutu bat eman zuen lepoa luzatuta, adi-adi.

— Nor dabil hor? —galdetu zuen.

Pixka batean entzuten geratu zen; gero hanka punttetan hurbildu eta hain zuzen ere gu bion artean geratu zen; ia-ia ukitu genezakeen. Izan ere, minutuak eta minutuak izango ziren batere hotsik entzun gabe, eta gu hantxe denak elkarren ondoan. Txorkatilak azkura ematen zidan leku batean, baina ez nintzen ausartzen hatz egitera. Gero belarria hasi zitzaidan azkura ematen eta ondoren bizkarra, juxtu-juxtu sorbal-

den artean. Hil egingo nintzela uste nuen hatz egiten ez banuen. Beno bada, orduz gero askotan sentitu dut gauza bera. Handikien artean zaudenean, edo hiletetan, edo lo egin nahi duzunean logurarik izan gabe..., edozein lekutan zaudela ere, baina gaizki ikusita baldin badago hatz egiten hastea, bada orduan gorputzean goitik behera mila tokitan izango duzu azkura. Berehalaxe esan zuen Jimek:

— Esan, nor zara zu? Non zaude? Deabruak naramala zerbait ez badut entzun. Ederki, nik badakit zer egingo dudan. Hementxe eseriko naiz eta erne egongo naiz berriz entzuten dudan arte.

Halaxe bada, lurrean eseri zen ni eta Tomen artean. Bizkarra arbola baten kontra jarri zuen, eta hankak luzatu zituen, bere hanka batek ia nirea ukitu zuelarik. Sudurra azkura ematen hasi zitzaidan. Azkura eta azkura ematen zidan begiak malkoz bete zitzaizkidan arte. Baina ez nintzen hatz egitera ausartzen. Gero barrualdetik sentitzen nuen azkura. Ondoren azpialdetik hasi zitzaidan. Ez nekien nola geldirik egon han eserita. Zoritxar honek sei edo zazpi minutu

iraun zituen, baina askoz luzeagoa egin zitzaidan. Hamaika leku desberdinetan sentitzen nuen azkura. Iruditu zitzaidan minutu bakar batean ere ezingo nuela jasan, baina hortzak ongi estutu eta ahalegin guztiak egin nituen. Orduantxe bertan Jim arnasa indarrez hartzen hasi zen; gero zurrunka... eta berehala lasaitu nintzen berriz.

Tomek keinu bat egin zidan —soinu txiki baten antzeko zerbait ahoa erabiliz— eta eskuak eta hankak lurrean jarrita aurrera egin genuen arrastaka. Hiru metrotara edo ginenean, isil isilik esan zidan Tomek belarrira arbola batera lotu nahi zuela Jim, barre pixka bat egiteko, baina nik ezetz esan nuen; esna zitekeen eta iskanbila sortu, eta orduan ni etxean ez nengoela konturatuko ziren. Gero Tomek esan zuen ez zituela kandela nahikoak eta sukaldean sartuko zela beste batzuk hartzeko. Nik ez nuen horrelakorik nahi. Esan nion Jim esna zitekeela eta etxera sartu. Baina Tomek bere burua arriskuan jarri nahi zuen; eta halaxe poliki-poliki sukalde barrura sartu ginen. Hiru kandela hartu genituen eta Tomek haiek ordaintzeko bost xentimo utzi

zitzen mahai ganean. Orduan handik kanpora irten ginen; ni gogo biziz nengoen handik ihes egiteko. Baina Tomek ez zuen nahi Jimengana lau oinetan arrastaka joatea besterik, eta derri-gorrez, hari nolabait iseka egin. Zain geratu nintzen eta denbora luzea iruditu zitzaidan, dena isiltasunean eta bakardadean zegoen eta.

Tom iritsi bezain laster, bizkor joan ginen bidexkan barrena. Baratzeko atea igaro eta etxearen beste aldean zegoen mendixka baten tontorreraino iritsi ginen. Tomek esan zuen kapela kendu ziola Jimi burutik eta bere ganean zegoen zuhaitz-adar batean zintzilikatu zuela, eta Jim pixka bat mugitu zela, baina ez zela esnatu. Geroago Jimek esan zuen sorginek azti-keriak egin eta estualdian jarri zutela, eta Estatu osoan ibili zirela bere ganean. Gero arbolen azpian eseri zutela eta kapela adar batean zintzilikatu ziotela hura nork egin zuen jakin zedin. Eta berriro kontatu zuenean sorginek New Orleanse-raino eramán zutela esan zuen. Eta haren atzetik, gertakizun hura kontatzen zuen bakoitzean gero eta gehiago luzatzen zuen. Eta azkenean, behin eta berriro kontatuz, mundu osoan zehar

eraman zutela esan zuen, eta leher eginik ia hiltzeko zorian utzi zutela, eta bizkarra zelak egingdako zauriz josita zuela. Jim harro baino harroago zegoen gertakizun hartaz, eta hain harro ere ezen ia inguruko beltzei kasurik ez baitzien egiten. Urrutitik etortzen ziren beltzak Jimi pasadizo hura kontatzen entzutera, eta lurralde honetako beste edozein beltz baino miretsiagoa izan zen. Inork ezagutzen ez zituen beltzak bere aurrean jartzen ziren ahoa zabal-zabalik, gizona gauza miragarria balitz bezalaxe. Beltzak beti sorginez hizketan aritzen ziren iluntasunean sukaldeko sutondoan, baina bat hizketan hasten bazen eta adierazten baldin bazuen berak bazekiela gai horretaz jakin beharreko guztia, Jim aurrean azaltzen zitzaion eta esaten zion: «Tira! Zer dakik hik sorginei buruz?», eta beltz hura ahoan kortxo bat jarrita bezalaxe geratzen zen eta atzeko eserlekura joan beharra izaten zuen. Jimek beti izaten zuen lepoan hari batetik zintzilik bost xentimoko txanpon hura; deabruak berak bere eskuz emandako kutuna zela esaten zuen, eta harekin edozein senda zezakeela eta sorginei noiznahi dei egin ziezaiekeela esan ziola

deabruak, txanponari zerbait esate hutsarekin. Baina Jimek ez zuen inoiz esan txanponari esan behar zitzaiona. Nonahitik etortzen ziren beltzak eta edozein gauza ematen zioten Jimi bost xentimoko txanpona hura ikustearren, baina ez zuten ez ukitzen, deabruaren eskutan egona zen eta. Jim bukatuta zegoen zerbitzari lanetarako. Harroputza bilakatu zen deabrua ikusi eta sorginek alde batetik bestera eraman omen zutelako.

Beno bada, Tom eta biok mendixkaren tontorreko ertzera iritsi ginenean, herri txikirantz begiratu genuen eta hiru edo lau argi distiratzen ikusi ahal izan genituen, jendea gaixorik zegoen lekuetan, beharbada; eta izarrak ederrak bentean geure gainean dir-dir egiten. Eta han behean herri txikiaren ondoan ibaia ikusten genuen, mila osoa zabalean, eta ikaragarri isila eta harrigarria. Mendixkan behera joan eta Jo Harper eta Ben Rogers aurkitu genituen beste bi edo hiru mutilekin, larru biltegi zaharrearantz ezkutaturik. Txalupa bat askatu eta ibaian behera bi mila eta erdi egin genituen mendialdeko harkaitz handiraino, eta lehorrera iritsi ginen.

Zuhaixka pila batera hurbildu ginen, eta Tomek guztiei zin egin erazi zien isilpean gordeko zutela, eta gero mendian zulo bat erakutsi zien, hain zuzen ere zuhaixken inguru itxienean. Orduan kandelak piztu eta lau oinetan barrura sartu ginen arrastaka. Berrehun metro edo egin genituen eta han leize-zuloa zabaldu egiten zen. Tom hango bideetan begiratzen ibili zen eta berehala horma baten ondoan makurtu zen, han beste zuloa zegoenik inork pentsatuko ez zuen lekuan. Bide estu batetik aurrera joan ginen eta gela antzeko batera iritsi, guztiz hezea, izerditsua eta hotza, eta hantxe geratu ginen. Esan zuen Tomek:

— Orain lapur taldea eratuko diagu eta Tom Sawyerren banda deituko zioagu. Elkartekoak izan nahi duten guztiek zin egin beharko diate eta odolarekin izenpetu.

Denek nahi zuten. Beraz Tomek paper bat atera zuen bertan zin egin beharrekoa idatzita zegoelarik, eta irakurri egin zuen. Mutil bakoitzari zin egin erazi zion taldeko partaide izango zela eta ez zituela inoiz hango sekretuak kanpoan esango; eta inork taldekoren bati ezer egiten

baldin bazion, taldeko edozein mutil izan zitekeela aukeratua pertsona hura eta bere familia hiltzeko, eta hala egitera beharturik zegoela, eta ezingo zuela ez jan ezta lo egin ere haiek hil eta bularrean gurutze baten arrastoak egin arte, taldearen ezaugarria baitzen gurutzea. Eta inork ezingo zuela seinale hori erabili taldekoa ez baldin bazen, eta hala egingo balu salatua izan beharko zuela; eta bigarren aldiz egingo balu hil egingo zutela. Eta bandakoa zen edonork sekretuak handik kanpora esaten bazituen, lepoa moztuko zioten, eta hezurak erre eta haren hautsak airean sakabanatu, eta izena zerrendan odolez estaliko zuten, eta taldeak ez zuen inoiz aipatuko, aitzitik madarikatua izango zen eta betiko ahaztua.

Oso juramentu polita iruditu zitzaien denei, eta Tomi galdegin zioten ea berak asmatutakoa ote zen. Esan zuen zati bat baietz, baina gainontzekoa pirata liburu batetik atera zuela, eta lapurreta liburuetatik, eta goi-mailako banda guztiek erabiltzen zutela.

Batzuen ustez ona litzateke sekretuak esaten zituzten mutilen sendikoak hiltzea. Tomek esan

zuen ideia ona zela, eta arkatza hartu eta hura idatzi zuen. Gero Ben Rogersek esan zuen:

— Hemen diagu Huck Finn, horrek ez dik sendikorik, zer egingo duk horrekin?

— Beno, ez al dik aitarik? —esan zuen Tom Sawyerrek.

— Bai, aita badik, baina ezinezkoa duk orain inon topatzea. Mozkorra harrapatu eta zerrien artean etzan ohi huen larru-apaindegian, baina ez diate inguru hauetan ikusi urtebetez edo gutxienez.

Hartaz aritu ziren, eta taldetik kanporatu nahi ninduten, esaten baitzuten familiakoren bat edo hiltzeko norbait izatea nahitaezkoa zela, eta bestela ez litzatekeela zuzena eta garbia izango besteentzat. Inork ezin zuen erabaki zer egin —denak kezkatuak zeuden eta geldi-geldirik—. Ia negarrez hasi nintzen, baina halako batean irtenbidea bururatu zitzaidan, eta Watson andereño proposatu nuen —hori hil zezaketen—. Denek esan zuten:

— Ondo zegok, ondo zegok. Ederki. Huck taldekoa izan litekek.

Gero orratza hartu eta hatzetan zulatu zuten handik sinatzeko odola atera zedin, eta nik ere seinalea utzi nuen paperean.

— Eta orain —esan zuen Ben Rogersek—, zein izango diagu bandaren zeregina?

— Lapurretak eta hilketak besterik ez —esan zuen Tomek.

— Baina zer lapurtu behar diagu? etxeak, edo abereak, edo...

— Huskeriak, zera! Abereak eta antzekoak harrapatzea ez duk lapurreta, horiek lapurreta txikiak dituk. Gu ez gaituk lapurtxoak. Horiek ez diate batere estilorik. Gu bide-erasotzaileak gaituk. Aurpegiak maskaraz estalita, dilijentziak eta gurdiak geldituko ditiagu bideetan, jendea hilko diagu, eta horien erloju eta diruak eramango ditiagu.

— Beti hil beharko al diagu jendea?

— A, bai. Hobe duk. Aditu batzuek bestela uste diate, baina gehienek hiltzea hobe dela esaten diate. Ez badira behintzat hona leize-zulora ekarritako gutxi batzuk, erreskatatzera bila etorri arte hemen gorde beharrekoak.

— Erreskatatzera? Zer duk hori?

— Ez zekiat. Baina hori duk egiten dutena. Liburuetan ikusia diat; eta noski horixe duk guk ere egin beharko duguna.

— Baina nola egingo diagu zer den jakin gabe?

— O, madarikatu alaena, hala egin behar diagu. Ez al diat esan liburuetan irakurri dudala. Zer nahi duk, liburuetan jartzen ez duena egitea, eta gauza guztiak nahastea?

— Bai, ondo zegok hori, Tom Sawyer, baina nola demontre erreskatatuko ditiztek lagun horiek, ez badakigu nola egien den hori? Horretara nahi zian iritsi. Eta hik zer uste duk izan daitekeela hori?

— Beno, ez zekiat. Beharbada hemen gordetzea erreskatatuak izan arte, hil arte gordetzea esan nahiko dik.

— Horrek antzik badik. Balio dik. Zergatik ez duk lehenago esan? Hemen gordeko ditiagu hiltzeko erreskatatuak izan arte, eta ikusiko duk nolako lanak emango dizkiguten dena jan nahian eta beti ihes egiteko ahaleginetan dabilzanean.

— Zer diok, Ben Rogers. Nola alde egingo diate gainean zaindaria badute izpi bat mugitzen badira tiro egiteko prest.

— Zaindaria. Hori ederki zegok. Orduan norbaitek gau osoa esna egon beharko duk behin ere loak hartu gabe, horiek zaintzeko besterik gabe. Hori lelokeria iruditzen zaidak. Zergatik ezin dik batek makila hartu eta horiek erreskatatu iristen diren bezain laster?

— Hori ez zetorrek liburuetan, eta horregatik. Eta orain Ben Rogers, gauzak ohiko moduan egin nahi al dituk, ala ez? Hori duk koska. Ez al duk uste liburuak egiten dituztenek badakitela gauzak egiteko modu zuzena zein den? Horiei erakustea pentsatzen al duk? Ezta pentsatu ere, ez jauna, segi ezak eta erreskatatu itzak ohiko moduan.

— Konforme. Berdin zio, baina zorakeria iruditzen zaidak hala ere. Esan, emakumezkoak ere hil behar al ditiagu?

— Zera, Ben Rogers, hi bezain ergela banintz ez nuke agerian utziko. Emakumezkoak hil. Ez, inork ez dik liburuetan halakorik ikusi. Leizezuloraino lagunduko diek, beti ezta bezain gozo

haien aurrean, eta pixkanaka-pixkanaka hitaz maiteminduko dituk, eta ez diate etxera itzuli nahiko.

— Hala bada, konforme, baina ez zioat horri kasu gehiegi egingo. Laster leize-zuloa emakumez, eta erreskatatzeko zain daudenez josita izango diagu, eta lapurrak lekurik gabe geratuko gaituk. Baina segi aurrera, ez diat ezer esango.

Tommy Barnes txikia lotan zegoen, eta esnatu zutenean ikaratu, eta negarrez hasi zen. Etxera amarengana joan nahi zuela esan zuen, eta ez zuela berriz lapur izan nahi.

Orduan denek haren kontura barre egin zuten, eta negarti esan zioten. Bere onetik atera zen, eta sekretu guztiak esango zituela mehatxu egin zuen. Tomek, orduan, bost xentimo eman zizkion isilik egon zedin, eta etxera joango gine-la, eta hurrengo astean norbaiti lapurretan egin, eta zenbaitzuk hilko genituela esan zuen.

Ben Rogersek esan zuen ezin zuela askotan irten, igandeetan besterik ez, eta hurrengo igandean hastea proposatu zuen. Baina mutil guztiek erantzun zuten igandean hastea gaiztakerian erortzea izango litzatekeela, eta horrek konpon-

du zuen guztia. Bat etorri ziren ahal bezain pronto elkartuko zirela eguna jartzeko, eta gero Tom Sawyer aukeratu zuten bandako lehenengo kapitaina eta Joe Harper bigarrena, eta etxerantz abiatu ziren.

Estalpean gora igo eta leihotik sartu nintzen eguna argitu baino pixka bat lehentxeago. Arro-pa berriak koipez eta lokatzez zikinak nituen, eta ni leher eginda nengoen.

Hirugarren atala

Goizean astindu ederra jaso nuen Watson andereño zaharraren eskutik, nire jantziak zirela eta, baina alargunak ez zidan errierta egin, koi-pea eta lokatza garbitu besterik ez; eta pixka batetan, ahal izanez gero, zintzo ibiltzea pentsatu nuen, hain goibeldurik zirudien. Gero Watson andereñok gelara eraman ninduen eta otoitz egin zuen, baina ez zuen ezer lortu. Esan zidan egunero errezatzeko, eta eskatzen nuen guztia izango nuela. Baina ez zen hala gertatu. Ahaleginak egin nituen. Behin batean arrantzan egiteko haria jaso nuen, baina amurik ez ordea. Ez zuen ezertarako balio amurik ez bazuen. Eskatu nituen amuak hiru edo lau alditan, baina horrek ez zuen ondorio onik ekartzen. Hori gertatu eta handik egun batzuetara Watson andereñori eskatu nion nire ordeaz otoitz egin zezan, baina esan zidan astakirtena nintzela. Ez zidan esan zergatik, eta nik ezin nuen hori inondik ere ulertu.

Behin batean basoan eseri nintzen, eta luze aritu nintzen hartaz pentsatzen. Esaten nuen nirekiko, jendeak errezatuz gero eskatutako edozer gauza eskura badezake, zergatik Winn diako-noak ez du lortzen txerrikietan galdutako dirua? Zergatik ezin du alargunak lapurrek eramandako sudur-hautsetako zilarrezko kutxa berreskuratu? Zergatik ezin du Watson andereñoak gizendu? Ez, esan nion neure buruari, honek ez du zentzurik. Alargunarengana joan eta horretaz galdegin nion, eta berak esan zidan errezatuz lortu zitezkeen gauzak «opari izpiritualak» zirela. Hau gehiegi zen nik ulertzeko, baina horren esanahia azaldu zidan: jendeari lagundu egin behar niola, eta ahal nuen guztia egin besteei laguntzeko, beti besteen ardura izan, eta inoiz ez kezkatu neure buruaz. Horrek Watson andereño ere barruan uzten zuen, nik ulertu nuen moduan behintzat. Basora irten eta denbora luzean erabili nuen gai hura buruan, baina ez nion aurrerapenik ikusten —beste jendearentzat ez bazen— beraz, erabaki nuen gehiago ez kezkatzea eta hura alde batera uztea. Batzuetan alargunak hartu eta berarekin eramaten ninduen. Jaungoiti-

koaren Probidentziaz hitz egiten zidan inor pozez zorutzen jartzeko moduan, baina hurrengo egunean Watson andereñok hartu eta guzti hori goitik behera botatzen zuen. Erabaki nuen bi Probidentzia mota ikusten nituela, eta gizajo bat ongi xamar ibiliko zela alargunak erabiltzen zuen Probidentziarekin, baina Watsonenak harrapatzen bazuen inoiz ez zuela gauza onik aterako. Ongi aztertu nuen guztia, eta alargunarenarekin gertzea erabaki nuen, hark onartzen baninduen, izan ere ez bainuen ulertzen ni onartuz gero ezer aurreratzen zuenik, kontutan hartuz ezjakina, behe mailakoa eta buruhandia nintzela.

Aita urtebete baino gehiago zen ez nuela ikusi, eta horrek lasaitu egiten ninduen. Ez nuen hura ezertarako ikusi nahi. Gogor astindu ohi ninduen edana ez zegoenean eta horrenbestez ni harrapatzea lortzen zuenean. Hala ere basoan egoten nintzen inguruan zebilen denbora guttian. Alegia, egun horietan ibaian itota aurkitu zutela zioten, herritik gora hamabi milatara, hala zioen jendeak. Bera zela uste zuten, edozein modutara ere. Bere neurriak omen zituen itotako gizonak, zarpail jantzita zegoen, eta ilea oso

luzea omen zuen —dena aitaren berdin berdina— baina ezin izan omen zioten aurpegiaren ezaugarri bakar bat ikusi, izan ere, uretan horrenbeste denbora igaro zuenez gero, aurpegiaren antzik ere ez zuelako. Uretan bizkar gainean etzanda zihoala esan zuten. Handik atera eta ibai bazterrean lurperatu zuten. Baina ni ez nengoen lasai, zerbait bururatu zitzaidan eta. Oso ongi nekien gizon bat itotzen denean ez dela bizkar gainean gorantz begira geratzen, behe-rantz baizik. Orduan konturatu nintzen, hura ez zela aita, gizon jantziak zeramatzan emakume bat baizik. Berriz kezkatu nintzen. Agurea noiznahi azalduko zitzaidala uste nuen, nik nahi ez banuen ere.

Hilabetean ibili ginen batean edo bestean lapurretetara jolasten, eta gero utzi egin nion. Mutil guztiek gauza bera egin zuten. Ez genion inori ezer lapurtu, ezta inor hil ere, itxurak egin besterik ez. Basotik jauzi egin eta arrapaladan joaten ginen eraso egitera zerri-eramaile eta gurdietan barazkiak azokara eramatera zihoazen emakumeei, baina ez genuen inoiz horietako bakar bat preso hartu. Tom Sawyerrek zerriei

«lingote» esaten zien, eta arbi eta barazkiei «bitxiak». Gero leize-zulora joaten ginen eta egindakoaz hitzaldiak ematen genituen, alegia, zenbat jende hil eta zenbat jenderi egin genizkion marrak gorputzean. Baina jokoari ez nion abantailarik ikusten. Behin batean Tomek mutil bat bidali zuen herrian atzera eta aurrera korrika ibiltzera zuzia zeramala, eta esaten zuen hori dei bat zela (taldea biltzeko seinalea, hain zuzen ere), eta gero adierazi zuen espiek ekarritako berri sekretuak zituela. Hurrengo egunean Espainiako merkatari asko eta arabiar aberatsak leize-zuloak egiten zuen tartean ezarriko zirela berrehun elefante, seiehun ganbelu, eta mila asto mandotik gora zituztelarik, guztiak diamantez zamaturik, eta lauhun soldadu besterik ez omen zituzten zaintzeko, horrenbestez bat-batean eraso egin geniezaiekeen enboskadan, hark esaten zuen bezala, eta jendea hil eta gauzak eraman. Esan zuen ezpatak eta pistolak garbitu eta txukundu beharko genituela, eta pronto izan. Ez zion arbiz betetako gurdi bati ere eraso egingo ezpatak eta pistolak lanerako txukun eta ongi prestatu gabe, langa eta erratzak besterik

ez baziren ere; eta lehertu arte nahi zenuen guztia igurtzita ere horiek ez zuten garbitu aurretik balio zuten errauts piloak baino gehiago balioko. Ez nuen uste espainiar eta arabiarren jendetza hura astindu genezakeenik, baina elefanteak eta ganbeluak ikusi nahi nituen, eta horregatik enboscada egiteko zain egon nintzen hurrengo egunean, larunbata zen. Aginduaren hitza iritsi zitzaigunean, korrika abiatu ginen basotik mendian behera. Baina han ez zen ez espainiar ez arabiarrik, ez ganbelu, eta ez elefanterik. Igan-deetako eskolaren egun-pasa besterik ez zen, eta lehenengo urteko ikasleak ziren. Festa hankaz gora jarri genuen, eta umeak harrapatu eta zulora eramán genituen, baina opilak eta mermelada pixka bat besterik ez genuen lapurtu, Ben Rogersek trapuzko panpina bat harrapatu bazuen ere, eta Joe Harperrek mezetako kantu liburua, eta elizako paperak. Orduan irakaslea etorri zitzaigun, dena bertan utzi erazi zigun, eta handik etxera bidali gintuen. Nik ez nuen han inongo diamanterik ikusi, eta Tom Sawyerri hala esan nion. Esan zuen ehunka zeudela, izan ere;

eta arabiarrak ere bazirela bertan, eta elefanteak, eta gauzak. Orduan esan nuen:

— Eta zergatik ez ditiagu ikusi?

Berak esan zidan hain tentela izango ez banintz, eta «Don Kixote» izeneko liburua irakurri izan banu, galdera egin gabe jakingo nuela zergatik. Esan zuen dena sorginkeriaz gertatzen zela. Ehunka soldadu zeudela han, eta elefanteak, altxorak, eta abar, baina etsaiak, hark zioenez, sorginen antzekoak genituen, eta horrela gauza guzti horiek haurren igandeetako eskola bihurtu zituztela, amorruez besterik gabe. Esan nuen, konforme nengoela, eta orduan guk egin behar genuena sorgin horiek harrapatzera joatea zela. Tom Sawyerrek esan zuen txoriburua nintzela.

— Baina —esan zuen—, sorgin batek jeinu askori dei egin ziezaiekek, eta horiek txiki-txiki egin hazakete, hik hitz erdia esan baino lehena-go. Zuhaitzak bezain luzeak dituk, eta eliza bezain handiak.

— Beno —esan nuen—, pentsa ezak horietako jeinu batzuk gure alde borroka egiteko lortzen

ditugula, ez al geniezaiekean orduan beste horiei irabazi?

— Nola eskuratu behar dituk?

— Ez zekiat. Nola eskuratzen ditiztek besteek?

— Berunezko lanpara zaharra edo burdinazko eraztuna igurtzi egiten diate, eta orduan jeinuak azaltzen dituk bat-batean, tximistak eta trumoiak inguruan dituztelarik, eta kea alde guztietan, eta esaten zaien guztia egiten diate. Ez zaiek zaila iruditzen dorre astun bat sustraietatik atera, eta harekin igandeetako eskolako irakasleari, edo beste gizon bati buruan ematea.

— Eta nork mugi erazten ditik era horretara?

— Lanpara edo eraztuna igurzten duenak. Lanpara eta eraztuna igurzten duenarenak dituk, eta berak esandakoa egin behar diate. Hark esaten badu hogeita mila luzera neurtzen dituen jauregia eraiki behar dutela, diamantez egin ere, eta hura txikiez bete, edo beste edozer gauzaz, edo Txinara hirekin ezkontzeko enperadorearen alabaren bila joan, hori egin beharra diate, eta gainera hurrengo egunean eguzkia atera aurretik egin behar diate. Are gehiago, jauregia alde

batetik bestera eraman behar diate lurralde osoan zehar hik nahi duan lekuraino, ulertzen al duk?

— Bada —esan nuen—, nik uste diat txoriburu galantak direla jauregia beraientzat ez gorde-tzeagatik, eta alferrik galtzeagatik. Gainera, horietako bat banintz ezta erotuta ere ez nuke nire zeregina utziko berunezko lanpara zaharren igurzketara joateko.

— Zer diok, Huck Finn. Ba hantxe azaldu beharko huke, nahi izanda edo nahi gabe.

— Zer? Eta ni zuhaitza bezain luzea eta eliza bezain handia izanik? Ederki bai, azalduko nintzateke, baina gizon horri lurraldeko arbolarik luzeenera igotzeko aginduko nioke.

— Arraioa, alferrik duk hirekin hitz egitea, Huck Finn. Ezer ez dakiala dirudi, txepela, ez bestena!

Guzti horretan aritu nintzen pentsatzen bi edo hiru egunetan, eta inongo zentzurik ba ote zuen aztertzea erabaki nuen. Berunezko lanpara zahar bat nuen eta burdinazko eraztuna. Horiek hartu, basora joan, eta igurtzi eta igurtzi aritu nintzen izerdi patsetan jarri arte, jauregia eraiki

eta saltzeko ametsetan, baina alferrik, ez zen inongo jeinurik azaldu. Orduan erabaki nuen saltsa guztia Tom Sawyerren asmazioetako bat zela. Nik uste dut berak arabeetan eta elefantee-tan sinesten zuela, baina nik beste era batera ikusten nituen gauzak. Igandeetako eskolaren itxura guztiak zituen hark.

Laugarren atala

Igaro ziren hiru edo lau hilabete, eta negu neguan ginen garai hartan. Ia denbora guztian izan nintzen eskolan, eta letrak ezagutzen nituen, irakur nezakeen, pixka bat idatzi ere bai, eta biderketako taulak ikasi nituen zazpi bider sei hogeita hamabost arte. Ez dut uste inoiz hori baino gehiago ikastea lortuko nuenik betiko bizi izango banintz ere. Matematika bost axola zait, dena den.

Hasieran eskola gorrotatzen nuen, baina pixkanaka eraman ahal izan nuen. Oso nekaturik nengoenean piper egiten nuen, eta hurrengo egunean jasotzen nuen astinduak on egiten zidan eta indarberritzen ninduen. Beraz zenbat eta eskolara maizago joan orduan eta errazagoa egiten zitzaidan joatea. Jarri nintzen alargunaren ohituretara, eta ez zitzaizkidan hain gogorak egiten. Etxean bizi, eta ohean lo egin beharrak traba egiten zidan gehienetan, baina eguraldi hotzak iritsi aurretik ihes egin eta basoan lo egiten nuen, batzuetan, eta honek lasaitu egiten

ninduen. Nahiago nituen ohitura zaharrak berriak baino, baina horiek ere gustura hartzen nituen, neurri batean. Alargunak zioen pixkanaka ari nintzela aurrera egiten, eta ongi gainera. Ez zuela niregatik lotsarik sentitzen esaten zuen.

Goiz batean gatzontzia mahai gainera botanuen gosaritan. Berehala gatz pixka bat jasotzeko ahaleginak egin nituen, ezkerreko sorbalda gaintetik bota, eta zoritxarra uxatu asmoz, baina Watson andereño aurrez aurre nuen, eta ez zidan utzi. Esan zuen:

— Kendu eskuak hortik, Huckleberry! Hori iskanbila sortzen duzuna beti.

Alargunak nire alde esan zuen zerbait, baina horrek ez zuen zoritxarra niregandik uxatuko, ongi nekien, bai. Gosaldu ondoren kanpora irten nintzen, kezkatu eta beldurtu, non eroriko ote zitzaidan zerbait gainera eta zer izango ote zen neure buruari galdezka. Badira zoritxarra uxatzeko moduak, baina horren aurka ez zegoen zereginik. Horrenbestez ez nuen ahaleginik ere egin, poliki nenbilen, ordea, goibel eta kontuz.

Etxe aurreko lorategira jaitsi nintzen, eta egurrezko hesitik beste aldera igarotzeko dau-

den eskailerak igo nituen. Elur-lapasta egin berria zegoen lurrean, eta norbaiten aztarnak ikusi nituen han. Harrobitik zetorren eta eskaile-ra inguruan geratu zen pixka batean, eta gero lorategiko hesiaren ondotik aurrera egin zuen. Harrigarria zen sartu ez izana, han ondoan egon ondoren. Ezin nuen ulertu. Oso bitxia zen, izan ere. Atzetik joateko prest nengoen, baina hori egin aurretik makurtu eta aztarnak aztertu nituen. Hasieran ez nuen ezer sumatu, baina gero bai. Gurutze bat zuen ezkerreko botako takoiak bi iltze handiz egina, deabrua uxatzeko.

Istant batean zutik jarri eta aldapan behera abiatu nintzen lasterka. Sorbalda gainetik atzera begiratu nuen noizean behin, baina ez nuen inor ikusi. Thatcher epailearen etxera ahal izan nuen bezain azkar iritsi nintzen. Esan zuen:

— Zer duzu, gazte, horrela ito beharrean egoteko? Interesen bila al zatoz?

— Ez, jauna —esan nuen—. Ba al dago ezer niretzat?

— Bai, bai, sei hilabetekoa bart jaso nuen. Ehun eta berrogeita hamar dolarretatik gora dira. Dirutza galanta zuretzat. Hobe duzu diru

hori niri inbertitzen uztea beste sei mila dolarrekin batera, bestela zuk hartzen badituzu gastatu egingo dituzu eta.

— Ez, jauna —esan nuen—, ez ditut gastatu nahi. Ez ditut ezertarako nahi, ezta beste sei milak ere. Dena zuk edukitzea nahi dut. Zuri eman nahi dizkizut, sei mila dolarrak eta denak.

Harritu egin zela zirudien, eta ezin zuela ezer ulertu. Esan zuen:

— Zer, zer esan nahi duzu, mutiko?

— Ez egin galderarik, mesedez —esan nuen—. Hartuko duzu, ezta?

— Beno nahasturik nago. Zer gertatzen da?

— Hartu mesedez —esan nuen—, eta ez ezer galdetu. Horrela ez dut gezurrik esan beharko.

Pixka batean aztertu ondoren, esan zuen:

— Hara, uste dut ulertzen dudala. Ondasun guztiak saldu nahi dizkidazu, eta ez eman. Hori dugu zuzenena.

Gero zerbait idatzi zuen paper batean, irakurri eta esan zuen:

— Ikusi hemen «ordainketa moduan» dioela. Horrek esan nahi du zuri zerbait erosi eta ordain-

du egin dizudala. Hemen duzu dolarra. Orain, sinatu hemen.

Sinatu eta alde egin nuen.

Jim, Watson andereñoren beltzak, ilezko pilota bat zuen. Ukabila bezain handia zen, idi baten laugarren urdailetik ateratakoa, eta horrekin sorginkeriak egiten zituen. Esaten zuen izpiritua zuela barruan, eta hark dena zekiela. Bereganatzen joan nintzen gau hartan, eta esan nion aita berriro inguruan zebilela, elurretan haren aztarnak aurkitu baintuen. Zer egingo ote zuen, eta gertatzeko asmorik izango ote zuen jakin nahi nuen. Jimek ile matazaren pilota atera eta zerbait esan zion, eta gero altxa eta lurrera bota zuen. Sendo xamar erori zen, eta zentimetro gutxi batzuk egin zituen. Jimek berriro egin zuen gauza bera, eta beste behin, eta berdin-berdin mugitu zen. Jim belaunikatu, belarria hurbildu eta entzuten geratu zen. Baina ez zuen ezer lortu, ez zuela hitz egingo esan zuen. Esan zuen batzuetan dirurik hartu gabe ez zuela hitz egiten. Gezurretako laurdeneko txanpona zahar lau bat nuela esan nion, baina ez zuela ezertarako balio latoia zilarezko azaletik pixka bat ikusten zitzaiolako, eta

inork ez zuela hartuko, baita latoia ikusiko ez balitz ere, hain zuzen ere oso laua izanik koipe-tsua gertatzen zelako, eta hori beti antzematen zitzaion. (Iruditu zitzaidan ez nuela ezer esan behar epaileak emandako dolarrari buruz). Esan nion ez zela batere diru ona, baina beharbada ilezko pilotak hartuko zuela, agian ez zuela alde sumatuko. Jimek usaindu egin zuen, eta kosk egin, eta igurtzi, eta esan zuen moldatuko zela ilezko pilotari ona zela sinets erazteko. Esan zuen patata gordin bat erdibituko zuela eta laurdenekoa han sartu eta gau osoan han utziko zuela. Hurrengo goizean ez latoirik ikusi, eta koipe-tsua ere ez zela gertatuko esan zuen, eta horrenbestez herriko edonork berehala hartuko zuela, eta zer esanik ez ilezko pilota batek. Nik banekien patatak horretarako balio zuela, baina ahazturik nuen.

Jimek laurdenekoa pilotaren azpian jarri zuen, makurtu eta berriz entzuten geratu zen. Oraingoan esan zuen pilota zuzen zebilela. Nahi izanez gero etorkizun osoa jakin eraziko zidala esan zidan. Aurrera egiteko esan nion. Ilezko

pilotak Jimi hitz egin zion, eta Jimek niri adierazi zidan. Honela esan zidan:

— Aitak ez daki oraindik zer egingo duen. Batzuetan iruditzen zaio alde egingo duela, eta gero berriz geratu egingo dela. Onena duzu lasai egon eta zaharrari nahi duena egiten uztea. Bi aingeru dabilta bere inguruan. Bata zuria eta distiratsua da, bestea beltza. Zuriak tarte batean esaten dio zuzen ibiltzeko, gero beltza azaltzen zaio eta dena apurtzen du. Inork ezin du esan azkenean nork bereganatuko duen. Baina zu ongi zaude. Arazo ugari izango duzu bizitzan zehar, eta une alaiak ere bai. Zauriak izango dituzu, gaixorik egongo zara, baina beti gaindituko duzu. Zure bizitzan bi neska dabilzkizu inguruan hegan egiten. Bata ile argia eta bestea beltzarana. Bata aberatsa eta bestea pobrea. Pobrearekin ezkonduko zara lehenik eta gero aberatsarekin. Uretatik urruti egon behar duzu ahal duzun guztietan, eta arriskutan ez ibili, idatzita dago eta paperetan urkatu egingo zaituztela.

Gau hartan kandela piztu eta gelara igo nintzenean, han zegoen aita eserita, huraxe bera!

Bosgarren atala

Atea itxi nuen. Gero atzera begiratu, eta hantxe zegoen. Beti beldurrak airean izaten ninduen, hainbestetan berotzen ninduen. Iruditu zitzaidan orduan ere izaturik nengoela, baina berehala konturatu nintzen oker nintzela. Alegia, lehenengo kolpearen ondoren, esan dezagun, arnasa hartu ezinean nengoela, ez bainuen espero aita han agertuko zitzaidanik; bada, hori gertatu eta berehala, konturatu nintzen kezkatzea merezi zuen inolako beldurrik ez nuela sentitzen.

la berrogeita hamar urte zituen, eta itxura ere tankerakoa zuen. Ilea luzea, nahasia eta koi-petsua, eta bizkarretik behera zintzilik. Begien distira ikusten zitzaion ile-tartean, aihen-belarren atzean gordeta balitu bezala. Bel-beltza zuen ilea, ez grisa; eta itxura berekoa zen haren bizar luze eta nahasia. Aurpegiak ez zuen kolorerik, aurpegirik ikusten zitzaion tarteetan. Zuria zen; ez edozein gizonaren zuria gero, inor gaixo erazteko moduko zuria baizik, hotzikarak hartzeko

modukoa —zuhaitzetako zapoaren zuria, arrainaren urdaileko zuria—. Jantziei dagokionean, trapu zaharrak, besterik ez. Txorkatila zuen beste hankaren belaun gainean. Hanka horretako bota txikituta zuen, eta bi behatz irteten zitzaizkion, eta behin eta berriz mugitzen zituen. Sonbreirua lurtean zuen, zahar eta malgua zen, goia barnerantz zuelarik, estalki baten modura.

Begiratu bota nion, eta hantxe nuen niri begira, aulkia pixka bat atzerantz okertuta. Kandelak mahai gainean utzi nuen. Leioa irekita zegoela ikusi nuenez gero, estalpetik gora igoko zela pentsatu nuen. Goitik behera begiratu zidan. Azkenean esan zuen:

— Arropa almidoiztuak... ederki. Handi-mandi horietako bat zarela uste duzu, ezta?

— Beharbada izango naiz, beharbada ez — esan nuen.

— Ez lotsagabea izan gero —esan zuen—. Harropuztu zara ederki ni joan nintzen gero. Apalduko zaitut nik, bai, zureak egin aurretik. Ikasia omen zara, gainera; irakurtzen eta idazten ba omen dakizu. Aita baino hobea zarela uste duzu orain, horrelakorik ez dakielako, ezta? Nik

kenduko dizut hori burutik. Nork esan dizu muturra sar zenezakeela txorakeria harro horietan, e? Nork bultzatu zaitu?

— Alargunak. Berak esan zidan.

— Alargunak, e? Eta nork esan dio alargunari bere zereginetatik kanpo dauden gauzetan muturra sartzeko?

— Inork ez dio ezer esan.

— Erakutsiko diot nik besteen gauzetan sudurra ez sartzen. Eta begiratu ongi, eskolara joateari utziko diozu, entzun duzu? Erakutsiko diot nik jendeari mutiko bat nola hazten den, bai, aitaren aurrean harro-harro jartzen eta aita baino hobea izan dadin bultzatzen. Harrapatzen bazaitut berriz eskola ingurutan txorakeriak egiten ikusiko duzu. Aditu al duzu? Amak ez zuen idazten ikasi, eta ezta irakurtzen ere, hiltzeko ordua etorri zitzaion artean. Familiako inork ez zuen ikasi eta hala hil ziren. Nik ere ez, eta zu hor harro-harro jarrita. Ez nago hori ikusteko, entzun? Aizu, irakur ezazu zerbait nik entzuteko.

Liburu bat hartu nuen eta Washington jenerala eta gerrateaz zerbait irakurtzen hasi nintzen. Gutxi gorabehera minutu erdia irakurtzen egin

nuenean, liburuari zartada bar eman zion eta etxearen beste alderaino bidali zuen. Esan zuen:

— Hala da. Gai zara. Zalantzak izan ditut esan didazunean. Orain, entzun ongi. Utzi txorakeria horiei, bestela nik erakutsiko dizut zuri. Emango dizut, bai, kaskarin hori. Eta eskola ingurutan harrapatzen bazaitut ederki berotuko zaitut. Gero erlijioa ere jakin beharko duzu. Ez dut inoiz honelako semerik ikusi.

Paperezko irudi urdin eta hori txiki bat hartu zuen mahai gainetik, behiak eta mutiko bat marraztuta zituelarik, eta esan zuen:

— Zer dugu hau?

— Ikasgaiak ongi jakiteagatik eman didaten gauza bat.

Txiki-txiki egin zuen.

— Zerbait hobea emango dizut —esan zuen—, zartailua emango dizut.

Han egon zen mitutu batean marmarka eta ahopeka hizketan, eta gero esan zuen:

— Gizon dotore artobero galanta ere egina zaude, e? Ohea, eta ohe jantziak, eta ispilua, eta tapiza lurrean... eta zure aitak zerriekin joan behar du lotara larru-lantegira. Ez dut inoiz

honelako semerik ikusi. Apustu egingo nuke harrokeria batzuk kenduko dizkizudala zureak egin baino lehen. Ez al dute handinahikeria horiek bukaerarik? Aberatsa zarela diote, e? Zer da hori?

— Gezurretan ari direla, hori da.

— Aizu, kontuz gero nola hitz egiten didazun; neure eraman onaren mugara iristen ari naiz, beraz ez niri lotsagabekeriarik erantzun. Bi egun egin ditut herrian, eta zu aberatsa zinela beste konturik ez dut entzun. Ibaian behera nindoala ere gauza bera entzun nuen. Horregatik etorri naiz. Bihar emango didazu diru hori. Nik behar dut.

— Ez dut dirurik.

— Gezurra da. Thatcher epaileak du. Hartu. Nik behar dut.

— Ez dudala dirurik, esan dizut. Galdetu Thatcher epaileak, gauza bera esango dizu.

— Ongi. Galdetuko diot, eta ederki ordain eraziko diot, arrazoirik ez badit ematen. Esan, zenbat diru duzu poltsikoetan? Nik behar dut.

— Dolar bat besterik ez dut, eta nik ere behar dut...

— Berdin dio zertarako behar duzun; atera eta kito.

Txanpona hartu eta kosk egin zion ona zen ikusteko, eta gero whisky pixka bat edatera behera zihoala esan zuen; ez omen zuen ezer edan egun osoan. Estalpe gainera irten ondoren, burua sartu zuen berriz leihotik, eta madarika-zioka hasi zitzaidan harropuzkerietan ibiltzeagatik eta bera baino hobea izaten ahalegintzeagatik, eta alde egin zuela iruditu zitzaidanean, berriz itzuli eta burua sartu zuen, eta esan zidan kontuz ibiltzeko eskola horrekin, nire atzetik ibiliko zela eta astindu egingo ninduela ez banion joateari uzten.

Hurrengo egunean mozkortuta zegoen, eta Thatcher epailearen etxera joan zen eta indarke-riaz dirua kendu nahi izan zion, baina ezin izan zuen, eta gero zin egin zion legeak epailea behartzea lortuko zuela.

Epaileak eta alargunak epaitegira jo zuten aita niregandik urrundu eta bietako bat nire zaindari izan zedin, baina epailea herrira iritsi berria zen eta ez zuen agurea ezagutzen, eta esan zuen auzitegiek ez zutela familietan trabarik

egin behar eta ezta horiek bereizi ere, ahal izanez gero; esan zuen nahiago zuela umea aitarengandik ez bereiztea. Beraz Thatcher epaileak eta alargunak etsi egin behar izan zuten.

Honek agurea poztu zuen eta ez zion atsedetik hartzen uzten. Zartailua hartu eta zigortu egingo ninduela esaten zuen goitik behera beltza eta urdina utzi arte ez banion dirurik ematen. Hiru dolar eskatu nizkion Thatcher epaileari, eta aitak dirua hartu zuen, eta mozkortu egin zen. Hantxe joan zen biraoka, madarikazioka, garrasika eta eztabaidaka, eta herri osoan halaxe ibili zen berunezko zartagina eskutan zuelarik, ia gauerdia arte. Gero atxilotu egin zuten. Hurrengo egunean epailearen aurrera eraman, eta espetxera bidali zuten astebeterako. Baina pozik zegoela adierazi zuen, semearen jabea bera zela, eta berak erakutsiko ziola.

Kanpora irten zenean epaile berriak esan zion behar bezalako gizona bihurtuko zuela. Bere etxera eraman, eta garbi eta txukun jantzi zuen, eta etxean izan zuen gosaltzen, bazkaltzen eta afaltzen familiarekin batera, eta denek ondo baino hobeto tratatzen zuten. Afalondoan

edan gabe egoteaz eta horrelako gauzez aritu ziren hizketan agureak negar egin zuen arte, eta esan zuen artaburua izan zela, eta hala jokatu zuela bizitza osoan, baina orain bizimodu berria hastera zihoala eta inor lotsatuko ez zuen gizona izango zela, espero zuela epaileak lagunduko ziola eta ez zuela gutxietsiko. Epaileak esan zion besarkatuko zuela hitz horiek esateagatik, eta negar egin zuen, eta emazteak ere negar egin zuen. Aitak esan zuen inoiz ez zutela ongi ulertu, eta epaileak esan zion sinesten ziola. Agureak esan zuen lur jota zegoen gizonak laguntza behar zuela, eta epaileak baietz erantzun zuen. Orduan negar egin zuten berriz. Oheratzeko orduan agureak zutik jarrita eskua luzatu zuen, eta esan zuen:

— Begira iezaiozue, jaun eta andere guztiok; eman eskua, estutu. Esku hau zerri baten eskua izandakoa da, baina ez da hala izango hemendik aurrera; bizitza berri bati ekin dion gizon baten eskua duzue, eta hiltzeko prest dago horretan atzera egin baino lehen. Ongi entzun hitz hauek, ez ahaztu nik esandakoa. Esku garbia duzue orain, eman, ez beldurtu.

Eskua eman zioten denek, batak bestearen atzetik, eta negar egin zuten. Epailearen emazteak musu eman zion eskuari. Gero agureak zin egitea sinatu zuen eta bere ezaugarria jarri zion. Epaileak esan zuen inoiz jasotako gertakizunik santuena zela hori, edo horrelako zerbait. Gero agurea gela dotore batean sartu zuten, gonbidatuen gelan alegia, eta gauean egarri indartsuak hartu zuen eta atariko teilatura atera zen leihotik eta euskarri batetik irrist egin eta berokia *berrehun metroko* baten truke eman zuen, eta berriz igo zen gelara, nahi izan zuen bezala ibili ondoren.

Egunsenti aldera berriz irten zen kanpora, zahagia baino mozkorrago, eta zilipurdika erori zen teilatutik behera. Ezkerreko besoa bi tokitan puskatu zuen, eta hotzak akabatzen oso larri zegoen norbaitek egunak argitzean aurkitu zue-nean. Eta konbidatuen gela ikustera joan zire-nean, saioak egin behar izan zituzten hango uretan sartu aurretik.

Epailea minduta zegoen. Ba omen zekien agurea bide onera ekartzeko modua fusila hartu-

ta izan zitekeela, beharbada, baina ez zuela horretaz gain beste biderik ezagutzen.

Seigarren atala

Berehalaxe jaiki eta osatu zen agurea, eta Thatcher epailea auzitegira eramane zuen, epailea berari dirua ematera behartu zezaten, eta niri ere eraso egin zidan eskolara joateari ez nio-lako utzi. Pare bat aldiz harrapatu ninduen eta ederki berotu, baina ni berdin-berdin joaten nintzen eskolara, eta agurea txuliatu egiten nuen edo ihes egiten nion gehienetan. Ez nuen eskolara joateko gogo handirik, baina esan behar dut orduan joateko prest nengoela aita amorrarazteagatik bakarrik. Auzia oso gauza motela zen, horretan hasi ere ez zirela hasiko zirudien, eta noizean behin epaileari bi edo hiru dolar eskatzeko nizekion aitari emateko, zartailuaren astindurik ez jasotzeagatik. Dirua zuen guztietan mozkortu egiten zen; eta mozkortzen zen guztietan bazterrak nahasten zituen; eta bazterrak nahasten zituen guztietan atxilotu egiten zuten. Horretara jarrita zegoen, bizimodu hori primeran zetorkion.

Alargunaren etxera joateko ohitura handia hartu zuen, eta honek azkenean esan zion, hobe zuela han gehiago ez ibiltzea, bestela arazoak izango zituela. Horrek bere onetik aterako ez zuen bada? Esan zuen berak erakutsiko ziola nor zen Huck Finnen nagusia. Horrela udaberriko egun batean nire bila ibili zen, eta baita harrapatu ere, eta hiru mila edo ibaian gora eraman ninduen, txalupa batean, Illinoiseko ibai bazterrera. Han zuhaitz ugari zegoen eta ez zen etxerik, txabola bat ezik. Basoa erabat itxia zen leku horretan, eta hain itxia ere, ezen txabola aurkitzea ezinezkoa bailitzateke haren leku zehatza jakin ezean.

Bere ondoan eraman ninduen denbora guztian, eta ez nuen inoiz ihes egiteko aukerarik izan. Etxe zahar horretan bizi ginen, eta atea beti giltzatu eta giltza buru azpian gordetzen zuen gauetan. Lapurtutako fusila zuen, hala ustedut, eta arrantzan eta ehizan egiten genuen, eta horrela bizi ginen. Maiz ixten ninduen han eta dendara joaten zen, hiru milatara edo, aldaontzia zegoen lekura, eta ehiza eta arrainak whiskyren truke saltzen zituen. Edaria etxera

eramaten zuen han mozkortzeko, eta atsegin hartu ondoren astindu egiten ninduen. Alargunak gerora jakin zuen non nengoen, eta gizon bat bidali zuen ni handik ateratzeko, baina aitak fusila hartu eta bidali egin zuen. Handik pixka batera ohitzen hasi nintzen han egoten, eta gustura nengoen hango bizimoduarekin, guztiarekin zartailuarekin ezik.

Alferkerian eta pozik bizi nintzen, etzanda egun osoan, erretzen eta arrantzan, ez libururik ez ikasgairik. Bi hilabete edo gehiago igaro ziren, eta arropak puskatuta eta zikinak zeuden, eta ezin nuen ulertu inoiz gustura egon izana alargunaren etxean. Han garbitu, platerean jan, eta orraztu egin behar izaten nuen; ohera joan eta ordu jakinetan jaiki, eta liburu batekin kezkatu ibili, eta Watson andereño aldamenean zirikatzen izan denbora guztian. Ez nuen itzuli nahi. Utzi nion birao egiteari, Watson andereñori ez zitzaiolako gogoko, baina berriro hasi nintzen aitari ez zitzaion axola eta. Orokorrean garai polita izan zen basoko hori.

Handik pixka batera aitari eskua arindu egin zitzaion makila erabiltzen, eta ezin nuen era-

man. Ubelduz josita nengoen. Askotan joaten zen gainera, eta itxita uzten ninduen. Behin batean itxita utzi ninduen eta hiru egunetarako joan zen. Bakardade jasangaitza zen hori. Pentzatu nuen ito egingo zela eta ez nintzela handik inoiz aterako. Beldurturik nengoen. Handik alde egiteko modua bilatu behar nuela erabaki nuen. Askotan egin nituen ahaleginak handik irteteko, baina ez nuen modurik aurkitzen. Zakur bat handik igarotzeko moduko leihorik ere ez zen. Tximi-niatik gora ere ezin nuen joan, estuegia zen eta. Atea lodia zen, haritz sendoko oholez egina. Aita kontuz ibiltzen zen txabolan ez labainik eta ez ezer uzteko kanpoan zen bitartean. Gutxienez lekua ehun aldiz arakatu nuela uste dut; bada, hala ere beti gauza bera egiten nuen, ez bainuen beste zereginik denbora pasatzeko. Baina azkenean topatu nuen zerbait: egurra mozteko zerra zahar, herdoildua, eta kirtenik gabea. Habe baten eta sabaiko ohol txiki batzuen artean zegoen. Hura ongi koipeztatu ondoren lanean hasi nintzen. Zaldi burusi zahar bat zegoen iltzaturik egurretan txabolaren bazter batean mahaiaren atzean, zuloetatik haizerik sar ez

zedin eta kandela itzali ez zezan. Mahai azpian sartu nintzen, burusia altxatu nuen, eta lanari ekin nion, eta zerra hartu eta beheko egurrari ni handik pasatzeko moduko zulo bat egiten ahalegindu nintzen. Lan luzea izan zen, baina amaierara iristen ari nintzen basoan aitaren fusilaren hotsa entzun nuenean. Lanaren seinaleak ezabatu nituen, burusia erortzen utzi nuen, zerra ezkutatu, eta berehalaxe sartu zen aita.

Aitak ez zuen umore onik, baina hori berezkoa zuen. Esan zuen herrira jaitsi zela eta gauzak oker zebiltzala. Legegizonak esan zion gatazka irabaz zezakeela eta dirua eskuratu, behingoz auzia hastea lortzen bazuten, baina denbora luzean atzeratzeko bideak baziren, eta Thatcher epaileak bazekien horretarako zer egin behar zuen. Esan zuen jendeak ziola beste auzia izango zela ni beregandik urrunduz eta alargunaren zaindaritzapean uzteko, eta uste zutela oraingoan irabazi egingo ziotela. Honek nahikoa asaldatu ninduen, ez nuelako itzuli nahi alargunaren etxera han itota eta zibilizaturik bizitzeko, haiek esaten zuten bezala. Orduan agurea birarka hasi zen, eta bururatzen zitzaion edozein

gauza nahiz pertsonaren aurka gaizki esaka aritu zen, eta gero berriz birao egin zien guztiei inork ihes egin ez ziola ziurtatzeko. Orduan guztientzat madarikazioak bota zituen, izenez ere ezagutzen ez zuen jende multzoa tartean, eta halako-eta-halako esaten zuen horiengana iristen zenean, madarikazioka aurrera egiten zuelarik.

Esan zuen ikusi nahiko ninduela alargunaren eskutan. Erne ibiliko zela eta halako azpikeriarik egin nahiko baliote ezagutzen zuela handik sei edo zazpi milatara ni ezkutatzeko leku bat, eta indar guztiak galdu arte bila ibilita ere ez nindutela aurkituko. Honek berriro kezkatu ninduen, baina minutu batez besterik ez. Iruditu zitzaidan aitak aukera hori izaterako ez nintzela haren eskueran izango.

Agureak txalupara joan erazi ninduen hark erositako gauzen bila: berrogeita hamar libratako zakua arto irin, hirugihar xerra, munizioa, hamabost litrotako whisky pitxarra, liburu zahar bat, bi egunkari fusilaren kartutxoak estutzeko, eta soka. Lehenengo zamaldia eramán ondoren, berriz itzuli, eta txaluparen brankan eseri nin-

tzen atseden hartzeko. Ongi pentsatu, eta erabaki nuen fusila eta arrantzan egiteko haria hartu, eta basora eramango nituela handik ihes egiterakoan. Kontuak atera nituen ezingo nuela beti leku berean egon, eta mendian zehar ibili beharko nuela, gehienetan gauez, eta ehizan eta arrantzan egin beharra izango nuela bizirik irauteko, eta urrutira joan, ez agureak ez alargunak inoiz aurkituko ez ninduten lekura. Ziur aski gau horretan zuloa zerratzen bukatu, eta ihes egingo nuen, baldin eta aita nahikoa mozkortzen bazen, eta baietz iruditzen zitzaidan. Pentsakizun horietan buru belarri nengoen, eta ez nintzen konturatu zenbat denbora egin nuen han, agureak garrasika lotan ala mozkorturik nengoen galdetu zidan arte.

Txabolaraino gauza guztiak eramanez nitueneko ia ilundu zuen. Afaria prestatzen ari nintzen bitartean agureak zurrupada bat edo beste egin zituen eta berotu zen pixka bat. Orduan berriz hasi zen biraoka. Mozkortuta ibili zen herrian, gaua bide bazterrean etzanda egin zuen, eta itxura ikusteko modukoa zuen. Edonork pentsa zezakeen Adan bera izan zitekeela, lokatza pila

besterik ez baitzen. Edariak indar hartzen zue-
nean, gobernuaren kontra hasten zen hizketan.
Oraingoan esan zuen:

— Eta hori al da gobernu? Begira, begira
zein tankeratakoa den eta zer egiten duen.
Hemen duzue lege bat prest gizonari bere
semea eskutatik kentzeko, gizonaren seme
berezkoa, hura hazteko lanak, nekeak eta diru
guztiak erabili dituelarik. Bai, eta azkenean gizo-
nak semea hazi duenean, lanera joateko prest
duenean eta aitari zerbait eskaintzeko garaia
iristen zaionean eta honek atsedean hartzeko
ordua duenean, orduan legea etortzen zaio
semea eramatera. Eta honi gobernu esaten
diote? Eta hori ez da dena. Legeak epaile zahar
hori babesten du neureak diren ondasunak bere
eskutan izateko. Hori da legeak egiten duena.
Legeak sei mila dolar edo gehiago balio dituen
gizon bat hartu, eta honelako sagu-zulo batean
sartzen du, eta zerri batentzat ere ez diren arro-
pak jantzita ibil erazten du. Eta honi gobernu
esaten diote! Gizonak ezingo du eskubiderik izan
honelako gobernu dugun bitartean. Batzuetan
burutik pasa zait lurralde honetatik betiko alde

egitea. Bai, eta horixe esan diet. Thatcher epaile zaharrari aurpegira bota diot. Askok entzun didate hori esaten eta nik zer esan nuen badakite. Hara; bi xentimoren truke lurralde madarikatu honetatik alde egingo nuke berriz ez itzultzeko. Horiek dira hitz zehatzak. Eta gero esan dut; begira nire sonbreiruari, honi sonbreiru esaterik baldin badago. Estalkia altxa eta gainontzekoa beheraino erortzen zaio, kokots azpiraino, eta orduan sonbreirua baino gehiago berogailuaren kebideko elkarguneetako batetik burua aterata dudala dirudi. Begira sonbreiru honi, nik hori eraman beharra ere, herri honetako gizonik aberatsenetakoa, baldin eta nire eskubideak onartuko balira.

Oi, bai gobernu zoragarria da, zoragarria. Eta entzun hau. Ba omen zen beltz libre bat, Ohiokoa, mulatoa, gizon zuria baino zuriagoa ia. Bada, honek inoiz ikusi duzun alkandorarik zuriena zeraman, eta sonbreirurik distiratsuen. Herri osoan ez da gizon bakar bat bera baino arropa dotoreagoa duenik. Urrezko erlojua eta katea zituen, eta zilarrezko kirtena zuen makila ere bai. Estatu osoko nabab ile zuri nazkagarriena.

Eta zer iruditzen zaizu? Unibertsitateko irakasle omen zen, eta hizkuntza guztietan hitz egiten omen zuen, eta dena omen zekien. Eta ez zen hori okerrena.

Etxean zenean botoa eman zezakeela zioten. Horrek nire onetik atera ninduen. Baina nora doa gure herria? Hauteskunde eguna zen, eta ni neu botoa ematera joateko prest nengoen, bertara joateko mozkortuegia egon ez banintz, baina esan zidatenean gure lurraldeko Estatu batean beltzek botoa eman zezaketela, atzera egin nuen. Neure buruari esan nion ez nuela berriz botorik emango. Hitz horiexek esan nituen. Denek entzun zidaten, eta lurraldeak usteldu nahi badu ere berdin zait, ez dut inoiz botorik emango bizi naizen artean. Eta ikustekoa zen beltzaren patxada, ez zidakeen pasatzeko lekurik egingo bidetik kanpora bultza izan ez banu. Esaten nion jendeari, zergatik ez duzue beltz hori enkantera eramaten eta han saltzen? Hori jakin nahi nuke. Eta zer uste duzu esan zidatela? Ezin zutela saldu Estatuan sei hilabete egiten ez zituen bitartean, eta ez zuela oraindik denbora hori bete. Hara, hortxe duzu, adibide bat. Horri

gubernua esaten diote eta ezin du beltz aske bat saldu Estatuan sei hilabete egin arte. Bere buruari gobernu esaten dion gobernu duzue hor, gobernuaren itxurak egiten dituen, eta gobernu dela pentsatzen duena, sei hilabete oso osotan hildako baten antzera geldi-geldirik egon behar duena alkandora zuridun beltz ibiltari, lapur, eta deabruzkoa harrapatu ezinik, eta..

Horrela egin zuen aitak aurrera, bere hanka zaharrek nora zeramaten konturatu gabe, eta buruz behera erori zen txerriki gatzatuaren askara. Bi hankezurak urratu zituen, eta handik aurrerako hizketaldia hizkera zakarrez osatu zuen, gehienbat beltzen eta gobernuaren kontra, noizean behin askari ere zerbait esaten zio-larik. Saltoka ere ibili zen txabolan, lehenik hanka baten gainean, eta gero bestean, aurrena hankezur bati eutsiz eta gero besteari. Azkenean ezkerreko hanka altxa zuen bat-batean eta osti-kada bikaina eman zion askari. Baina ez zuen asmatu, hori baitzen aurrealdetik bi behatz kanpoan zituen bota. Orduan hark egin zituen deia-darrak edozeini ileak lazteko modukoak izan ziren. Ilunpetan erori, eta zilipurdika ibili zen

lurrean behatzak estutzen zituelarik; eta orduko biraoak aurreko guztiak baino gogorragoak izan ziren. Geroago berak ere hori esango zuen. Strawberry Hagan zaharrari entzun omen zion birao egiten haren unerik onenetan, eta bera baino hobea zela esaten zuen, baina gehiegi esatea zela uste dut.

Afalondoan aitak pitxerra hartu zuen, eta esan zuen whisky nahikoa zuela bi mozkorraldi eta delirium tremens baterako. Beti erabiltzen zuen hitz hori. Ordubetean edo erabat mozkortuta egongo zela pentsatu nuen, eta orduan giltza kenduko nion, edo bestela zerra hartu eta zuloa egin, bietako bat. Edan eta edan aritu zen, eta burusien gainean erori zen azkenean, baina zorte onik ez nuen. Ez zuen zerraldo loak hartu, eta ez zegoen lasai. Marmarka, hasperenka, eta alde batetik bestera ibili zen denbora luzean. Azkenean logurak nengoen eta ezin nituen inola ere begiak irekita eutsi, eta konturatu gabe lotan geratu nintzen, kandela piztuta nuelarik.

Ez dakit lotan zenbat denbora egin nuen, baina halako batean garrasi izugarria entzun nuen eta esnatu egin nintzen. Aita zen, zoro aur-

pegia zuen, eta saltoka ari zen leku batetik bestera sugeak zirela eta garrasika. Hanketan gora igotzen zitzaizkiola esaten zuen, gero jauzi eta garrasi egiten zuen berriz. Batek aurpegi masailan kosk egin ziola esaten zuen, baina nik ez nuen inongo sugerik ikusten. Txabolan batetik bestera korrika hasi zen. Kendu! kendu! Lepoan kosk egin dit! oihu egiten zuen bitartean. Ez dut inoiz inorengan begirada zoro hori ikusi. Berehalaxe leher eginik zegoen, eta arnasestuka lurre-ra erori zen; itzulipurdika ibili zen lurrean, abiadura bizi-bizian, gauza guztien kontra ostikoka eta eskuak astindurik airea eutsi nahian. Oihuka ari zen, eta deabruak harrapatu zutela esaten zuen. Indarrak bukatu zitzaizkion, eta pixka batean geldirik egon zen hasperen egiten zuen bitartean. Gero lasaiago geratu zen, eta ez zuen batere soinurik egin. Ontzak eta otsoak entzuten nituen basoan urrutian, eta isiltasuna ikaragarria zen. Bazter baten ondoan zegoen etzanda. Geroxeago pixka bat zutitu, eta burua alde batera jarrita entzuten geratu zen. Isil isilik esan zuen:

— Taka... taka... taka, hildakoak dira, taka... taka... taka, nire bila datoz, baina ez naiz joango.

O, hemen dira! Ez ukitu, ez! Kendu eskuak hortik, hotzak dituzue. Utzi! Utz ezazue deabru giza-jo hau bakean!

Gero makurtu eta lau oinetan jarri zen lurrean bakean uzteko esan eta esan, eta burusian bildua pinu egurrezko mahai zaharraren azpian jirabiraka ibili zen, oraindik ere bakean uzteko eskatzen. Gero negar egin zuen. Burusiarren beste aldetik negarrez ari zela entzuten nuen.

Geroxeago burusitik askatu eta zutik jarri zen begirada zoroa zuelarik. Orduan ni ikusi ninduen eta bila etorri zitzaidan. Gelan zehar ni harrapatu nahian ibili zen, eragingailua zuen labaina eskutan zuelarik. Heriotzaren Aingerua nintzela esan zidan, eta hil egingo ninduela eta horrela ezingo niola handik aurrera eraso egin. Erregutu, eta esan nion Huck besterik ez nintzela, baina orduan barre algara, orro, eta birao egin zuen, eta harrapatu nahian atzetik segika etorri zitzaidan berriz. Jira egin nuen batean eta haren besoetatik ihes egin nahi izan nuenean, harrapatu egin ninduen jakako bizkar gainetik. Amaiera iritsi zela pentsatu nuen. Baina irrist egin eta ziztu

bizian jaka kendu, eta bizia salbatu nuen. Laster nekatu, eta erori egin zen bizkarra atearen kontra botata. Esan zuen minutu bateko atsedena hartuko zuela eta gero hil egingo ninduela. Labaina bere azpian jarri zuen, eta indarrak hartzeko lo egingo zuela esan zuen, eta gero ikusiko genuela nork agintzen zuen.

Erdi lotan geratu zen berehala. Aulki kulunkaria hartu nuen orduan eta gainera igo nintzen, poliki-poliki, soinurik ez egitearren, eta fusila jaitsi nuen. Ziria sartu nion kartutxorik bazuela ziurtatzeko. Gero fusila arbien kupelaren gainean jarri, eta aitari tiro egiteko zuzendu nuen. Atzean eseri eta aita mugitzeko zain geratu nintzen. Eta bai poliki eta isilik igaro zuela orduan denborak.

Zazpigarren atala

— Jaiki! Zer zabilta?

Begiak ireki eta ingurura begiratu nuen non nengoen jakin nahian. Egunak argitu zuen, eta ni zerraldo egon nintzen lotan. Aita zutik nuen aurrean, haserre eta gaixo itxura zuelarik. Esan zuen:

— Zertan ari zara fusila eskutan duzularik?

Garbi ikusi nuen ez zuela ezertarako gogoan hark egindako gauzarik, eta orduan esan nuen:

— Norbaitek txabolan sartu nahi zuen, eta ni prest nengoen sartzen ez uzteko.

— Zergatik ez nauzu esnatu?

— Ahaleginak egin ditut, baina alferrik. Ezin izan zaitut mugitu.

— Ederki. Orain ez geratu hor egun osoan berriketan, eta segi kanpora eta ikusi arrainik ba ote den harietan gosaltzeko. Berehalaxe joango naiz ni.

Atea ireki zuen eta kanpora joan nintzen ibai bazterrean gora. Zuhaitz adar puskek eta halako gauzak ikusi nituen uretan, eta arbola azalak

nonahi, beraz banekien ibaia hazten hasia zela. Herrian banintz oso garai onak bizi izango nituzkeela kontuak egin nituen. Ekaineko uraldiak zorte ona ekartzen zidan beti. Izan ere, ibaia hazten hasi orduko, ibaiak beherantz ekartzen zituen egur pilak, eta enborrez eginiko almadia zatiak... batzuetan izaten ziren dozena bat enbor batera, orduan egur horiek hartu eta egurtegitara eta zerrategira eramanez besterik ez zenuen egin behar.

Ibai bazterrean aurrera joan nintzen begi batez aita ba ote zetorren begira eta besteaz uraldiak zer ote zekarren. Halako batean kanoa bat ekarri zuen, ederra benetan, hamahiru edo hamalau oin luze izango zituen, tente ahate baten moduan. Ibai bazterretik buruz behera jauzi egin nuen uretara, igelek egiten duten bezala, arropak eta guzti, eta kanoarantz igeri egin nuen. Espero nuen norbait izango zela barruan etzanda, jendeak hori egiten baitu adarra jotzeko. Alegia, beste gizonak txalupa ahal duen gehiena hurbiltzen duenean, barruan ezkutuak daudenak zutik jarri eta barre egiten diote. Baina orduan ez zen hala gertatu. Norabiderik

gabeko kanoa zen ziurrenik, eta nik barrura jauzi egin eta bazterrera eramateko arraun egin nuen. Bururatu zitzaidan agurea poztu egingo zela hura ikustean; hamar dolar balioko zituen. Baina ibai bazterrera iritsi nintzenean aita ez zen ageri, eta dena huntz eta sahatsez beteta zegoen zulo baten moduko errekatxo batera sartzen ari nintzenean, beste zerbait etorri zitzaidan burura. Kanoa ongi ezkutatzea pentsatu nuen, eta horrela, ihes egitean basora joan beharrean, ibaian behera abiatuko nintzen berrogeita hamar mila edo egin arte, eta leku bakar batean geratuko nintzen betiko, mendian oinez batetik bestera modu txarrean ibili gabe.

Txabolatik hurbil nengoen, eta denbora guztian iruditzen zitzaidan agurea azalduko zela, baina azkenean ezkutatu nuen. Gero sahatz batzuen artetik begiratu, eta bidean aita zetorrela ikusi nuen fusila txori bati zuzentzen ziolarik. Beraz hark ez zuen ezer ikusi.

Hurbildu zitzaidanean, lan eta lan ari nintzen tretzak jasotzen. Erriertan egin zidan horren motela izateagatik, baina esan nion ibaian erori nintzela eta horrek atzeratu ninduela. Banekien

bustita nengoela ikusiko zuela, eta galderak egin ten hasiko zitzaidala. Bost katuarrain jaso genituen harietatik eta etxera joan ginen.

Gosaldu ondoren etzan eta atsedean hartzen genuen bitartean, biok nekatuta ginen eta, pentsatzen aritu nintzen alarguna eta agurea atzetik bila ez etortzeko modurik ba ote zen, gauza ziu-ragoa zen hori, haiek konturatu baino lehen nahikoa urruti egoteko zorte onean itxaropenik izatea baino. Badakizu, gauza asko gerta daitezke. Hasieran ez nuen modurik ikusten, baina orduan aita zutitu zen beste ur kupela edateko, eta esan zuen:

— Beste batean gizon bat inguruan sumatzen baduzu, esna nazazu, aditu al duzu? Gizon horrek ez zuen asmo onik ekartzen. Nik tiro egingo niokeen. Hurrengoan esna nazazu, aditu?

Gero etzan egin zen eta loak hartu zuen berriz. Baina hark esandakoak nik behar nuen ideia garbi ikus erazi zidan. Esan nuen nirekiko, dena konpondu dezaket inor nire atzetik bila ez etortzeko.

Hamabiak inguruan jaiki eta ibai bazterrean gora egin genuen. Ibaia azkar ari zen hazten, eta

egur pila zihoan uraldian noraezean. Geroxeago, enborrezko almadia baten puskak ekarri zituen urak, bederatzi enbor lotuta. Txalupan sartu eta abiatu ginen, eta bazterrera ino eraman genituen arrastaka. Gero bazkaldu egin genuen. Aita ez beste edonork itxarongo luke bertan egun osoan gauza gehiago hartzeko, baina hori ez zen aita-ren izaerari zegokiona. Bederatzi enbor nahikoak zituen behin baterako. Herriraino bultzaka eraman eta saldu egin behar zituen. Horregatik etxean itxi ninduen, txalupa hartu, eta enborrezko almadia atzetik uretan arrastaka eraman zuen hiru t'erditan edo. Kontuak atera nituen ez zela gau hartan itzuliko. Zain egon nintzen urrutian egongo zela iruditu zitzaidan arte, orduan zerra hartu eta egurra mozteari ekin nion. Aita ibaiaren beste aldera iritsi baino lehen zuloatik kanpora irten nintzen. Bera eta enborrak uretan urrutian arrasto txiki bat ziren.

Arto irinaren zakua hartu eta kanoa gordeta nuen lekuraino eraman nuen, eta huntzak eta adarrak gaintetik kendu eta barruan sartu nuen, gero gauza bera egin nuen hirugihar xerrarekin eta whisky pitxerrarekin. Hartu nuen han zegoen

azukre eta kafe guztia, munizioa, eta fusila betetzeko behar zena, ur ontzia eta kalabaza. Hartu nituen kazola txikia eta berunezko edalontzia, nire zerra zaharra eta bi burusi, zartagina eta kafe ontzia. Arrantzan egiteko hariak eta pospoloak eta beste gauzak ere hartu nituen, xentimorik balio zuen edozer gauza. Lekua garbi-garbi utzi nuen. Aizkora nahi nuen, baina han ez zen aizkorarik, kanpoan egur pilan zegoena besterik ez, eta banuen arrazoirik hori bertan uzteko. Fusila hartu, eta besterik ez nuen behar.

Lurra harrotu nuen dezente, zulotik kanpora irten eta hainbeste gauza arrastaka ateratzera koan. Horrenbestez ahal izan nuen neurrian kanpotik berdindu egin nuen zuloa, eta horretarako lurra bota nion ganean, zapaldutako guztia eta zerrautsa estali nahian. Gero enbor puska bere lekuan jarri nuen, eta azpian bi harri jarri nizkion, bat euskarri moduan, leku horretan oker xamar baitzegoen, eta bestela ez zuelako lurra iristen. Metro pare batera edo begiratur gero, eta zerraturik zegoela jakiii gabe, ez zion inork antzeman-go. Gainera, txabolaren atzealdea zen eta ez

zirudien inor inguru horretan denbora galtzen ibiliko zenik.

Kanoaraino zihoan bide guztia belarrez zegoen estalita, eta ez nuen aztarnarik utzi. Inguruan begiratu nuen badaezpada ere. Bazterrean zutik ibai ingurura begiratu nuen. Ez zen arriskurik. Fusila hartu eta basorantz abiatu nintzen. Txoriak harrapatu nahian ari nintzen, eta halako batean zerri basati bat ikusi nuen. Zerriak basati bihurtzen dira erreka zulo hauetan lautadetakoko etxaldeetatik ihes egin ondoren. Animaliari tiro egin nion, eta kanpamendura eraman nuen.

Aizkora hartu eta atearen kontra astindu nuen. Atea jo eta jo aritu ondoren nahikoa puskatu nuen. Zerriaren bila joan eta ia mahaia zegoen lekuraino eraman nuen. Aizkora hartu eta eztarria zulatu nion, eta lurrean etzanda utzi nuen odolusten. Lurra esan dut, lurra baitzen, izan ere; lur trinko eta gogorra, eta ez oholez estalia. Orduan zaku zahar bat hartu nuen eta harri handi asko sartu nizkion barruan, arrastaka eraman nezakeen pisurik handiena. Zerria zetzan lekutik hasi eta zakua ateraino eraman nuen, eta gero basoan zehar arrastaka ibairaino,

eta han uretara bota nuen. Urperatu egin zen eta begien aurretik desagertu. Erraz antzeman zitekeen zerbait eraman zela lurrean arrastaka. Tom Sawyer bertan egon zedin nahi nuen, bane-kien gustuko zituela saltsa horiek, eta irudime-nezko ukitua ere emango ziela. Inori ez litzaioke Tom Sawyerri adina ahoa berotzen horrelako gauzen aurrean.

Azkenean ile batzuk kendu nituen, aizkora odolez ederki zikindu, eta ileak aizkoraren atzealdean itsatsi nituen. Gero aizkora bazterre-ra bota nuen. Zerria hartu, jakan bildu eta bular-raren kontra estutu nuen —odol tantorik eror ez zedin— etxetik beherantz nahikoa urrutiratu nin-tzen arte eta gero blast ibaira bota nuen. Orduan beste zerbait bururatu zitzaidan. Joan eta irin zakua eta zerra zaharra kanoatik atera nituen. Zakua bere ohiko lekura eraman nuen, eta zerra hartu eta azpian zuloa egin nion, ez baikenuen ez labaina eta ez sardexkarik: aitag sukaldeko lan guztiak bere poltsiko labaina erabiliz egiten zuen. Gero zakua etxearen ekialdetik ehun metrotan edo eraman nuen belar gainean eta sahatsen artean etxearen ekialdetik, bost mila

zabaleran zituen aintzira txiki bateraino, ihiz beterik zegoelarik, eta baita ahateaz ere, garaia zenean. Zingira edo errekatxo bat irteten zitzaion beste aldetik, eta mila askotara urrutiratzzen zen. Nik ez dakit nora zihoan, baina ez zen ibaian amaitzen. Irina kanpora erortzen zen eta aintziraraino zihoan bide guztian aztarna uzten zuen. Gero erortzen utzi nuen aitaren zorrozta-
rria, nahigabe erorita balego bezala. Irin zakua-
ren zuloa lokarri batekin itxi nuen, irin gehiago eror ez zedin, eta zakua eta zerra berriz eraman nituen kanoara.

la ilundu zuen, kanoa ibian behera irristatzen utzi nuen ibai bazterreko sahatsen azpitik, eta ilargia azaldu zain geratu nintzen. Kanoa sahats batetan lotu, eta janari mokadu bat hartu nuen. Geroxeago kanoan etzan, pipa erre, eta plana eraiki nuen. Esan nion neure buruari, harriz bete-
tako zaku horren aztarnaren atzetik joan eta ibaia dragatuko dute nire bila. Irin arrastoei segi eta aintziraraino iritsiko dira, eta handik abiatzen den errekatxoan bilaketan aurrera egingo dute ni hil eta gauzak eraman zituzten lapurrak aurkitu nahian. Nire gorpuaren bila besterik ez dira

ibiliko ibaian. Azkar nekatuko dira, eta ez dira nitaz gehiago kezkatuko. Ederki, nahi dudan lekuan gera naiteke. Jackson uhartea leku ona da niretzat. Lekua ongi ezagutzen dut, eta bertan ez da inor ibiltzen. Gainera gauez herrira joateko arraun egin dezaket, ezkutuan ibili eta nahi ditudan gauzak hartu. Jackson uhartea da lekua.

Nekatu xamarra nengoen, eta ia konturatu nintzenerako loak hartu ninduen. Esnatu nintzenean une batez ez nekien non nengoen. Eseri eta ingurura begiratu nuen zertxobait beldurtuta. Orduan etorri zitzaidan gogora. Bazirudien ibaiak milak eta milak zituela zabaleran. Ilargiak distira bizia zuen, eta ezin nituen ibaian behera, beltz eta isilak, irristaka zihoazen enborrak zenbatu, ibai bazterretik ehunka metrotara. Isil isilik zegoen dena, eta berandu zela zirudien, berandu izango zela usaina antzeman nion. Badakizu zer esan nahi dudan, ez dakit zein hitz erabili hori esateko.

Ahoa ongi zabaldu, nagiak atera, eta soka askatzera eta abiatzera nindoan uretan urruti hots bat entzun nuenean. Adi egon nintzen. Berehalaxe konturatu nintzen. Hots motel eta

errepikatzen diren horietakoa zen gau isiletan arraunek toletean mugitzen ari direlarik egiten dutena bezalakoa. Sahats adarren artetik begiratu, eta hantxe zegoen, txalupa bat, uretan urruti. Ezin nuen esan zenbat izango ziren barruan. Niregana zetorren, eta parean nuenean gizon bat besterik ez zegoela ikusi nuen. Nik nire artean: «Beharbada aita izan daiteke», hura etortzea espero ez banuen ere. Uraren indarrak beherago eraman zuen, eta geroxeago jira egin eta bazterrerantz etorri zen ur patxadatsuetan. Hainbesteraino hurbildu zitzaidan, ezen fusila eta gizona bera ere uki bainezakeen. Bada, aita zen, ziur, eta gainera arraunak hartzeko moduagatik jakin zitekeen ez zihoala mozkortuta.

Denborarik ez nuen galdu. Hurrengo minuturako jirabiraka ari nintzen ibaian behera arraunean leun baina bizi-bizi urbazterreko itzalpean. Bi mila eta erdi egin nituen, eta gero mila laurdena edo gehiago egitera jo nuen ibai erdirantz, izan ere, bizkor igaro behar bainuen ontzi garraiotzailearen geltokitik, han jendeak ikus nintzakeen eta agurtu. Norabiderik gabe zihoa-zen enborren artean sartu, kanoaren barruan

etzan, eta hura uretan nahi zuen bezala joan zedin utzi nuen. Etzanda atsedean hartu eta pipa erre nuen zeruari begira. Ez zen hodei bakar bat ere ageri. Zerua benetan sakona dirudi gorantz begira etzanda jarri eta ilargiak distiratzten due-nean. Ez nintzen horretaz ordura arte ohartu. Eta bai urrutira entzun daitekeela uretan horrelako gauetan! Jendea entzuten nuen hizketan ontzi garraiotzailearen geltokian. Zer esaten zuten ere entzun nezakeen, hitz bakoitza. Gizon batek zioen hurbiltzen ari zirela egun luzeak eta gau motzak. Beste batek esan zuen hura ez zela, bada, bere ustez motz horietakoa, eta barre egin zuten, eta berriz gauza bera esan zuen eta berriz barre egin zuten. Gero hango lagun bat esna erazi zuten eta hori esan zioten, barre egin zuten, baina hark ez zuen barrerik egin. Zerbait bota zuen indarrez eta bakean utz zezatela esan zien. Lehenengo gizonak atsoari kontatuko ziola esan zuen, ona irudituko zitzaion, baina hori ez zela ezer bere gazte denboretan esan ohi zituen beste gauzen aldean. Gizon bati entzun nion esaten ia hirurak zirela, eta espero zuela egun-sentia astebete edo igaro baino lehenago iritsiko

zela. Ondoren hizketaldia urrunduz eta urrunduz joan zen, eta jadanik ezin nituen hitzak ulertu, baina zurrumurrua bai, eta noizean behin barre algararen bat, baina oso urrutitik zetorrela zirudien.

Ontzi garraiotzailea igaro eta ibaian beherago nindoan. Zutitu eta bi mila eta erdi edo ibaian beherantz, Jackson uhartea ikusi nuen: arbolez bete betea eta ibaiaren erdian tente, handi, ilun eta tinko, argirik gabeko bapore-ontzia balitz bezala. Ez zen aurrean hondarrik ikusten. Dena urpean zegoen.

Ez nuen denbora gehiegi behar izan bertara iristeko. Uhartearen burutik ziztu batean igaro nintzen, ur-tira oso bizia baitzen, eta gero ur moteletan sartu eta Illinois aldeko bazterrean lehorreratu nintzen. Kanoa nik ezagutzen nuen urbazterreko zulo sakon batetik sartu nuen. Handik sartzeko sahasen adarrak baztertu egin behar izan nituen, eta kanoa lotu ondoren inork ezin zezakeen hura kanpotik ikusi.

Mendian gora igo eta enbor batean eseri nintzen uhartearen buruan eta ibai handiari, norabiderik gabeko enbor beltzei, eta urrutian, hiru

milatara edo, zegoen herriari begira geratu nintzaion, zeinean hiru edo lau argi ari baitziren keinuka. Ikaragarritzko enbor almadia zetorren ibaiaren goiko aldetik mila batera edo, poliki-poliki beherantz, erdian linterna zekarrelarik. Beherantz zetorrela ikusten nuen eta ia ni zutik nengoen lekura iritsi zenean, gizon baten ahotsa entzun nuen: «Txopako arraun horiek! Jira aurrealdea istriborrerantz! Gizona aldamenean izango banu bezain garbi entzun nituen hitz horiek.

Zeruan kolore gris xamarra ikus zitekeen orduan, basoan barrena abiatu nintzen eta gosaldu aurretik lo kuluxka egiteko etzan egin nintzen.

Zortzigarren atala

Esnatu nintzenerako eguzkia oso goian zegoen, eta zortziak baino gehiago Mango zirela pentsatu nuen. Belarretan eta itzal freskoan etzanda geratu nintzen, zenbait gauzatan pentsatzen, lasai, eta baita ere gustura eta pozik sentituz. Eguzkia ikus nezakeen zulo batetik edo bestetik, baina inguruan gehien bat arbola handiak nituen, eta horien artean ilun xamar zegoen. Lurrean leku ttittakatuak zeuden argiak hosto artetik igarotzea lortzen zuen lekuetan, eta ttittak mugitu egiten ziren alde batetik bestera, goian haize pixka bat zebilela erakusten zutelarik. Katagorri bikotea adar batean ezarri eta berriketan aritu zitzaizkidan lagunen antzera.

Alferkeria osoan nengoen eta gustura. Ez nuen jaiki nahi eta gosaria prestatu. Erdi lotan nengoen berriro ere, danbateko handi bat entzun nuela iruditu zitzaidanean: «danba», ibaiaren goiko aldean. Zutitu, ukalondo gainean jarri eta entzuten geratu nintzen. Berehalaxe zalaparta hori entzun nuen berriz. Jauzi egin eta

hosto arteko zulo batetik begiratzena joan nintzen. Ke aldia ikusi nuen ur gainean urruti, ontziraletan parean edo. Eta ontzia zatorren jendez beterik, ibaian beherantz. Banekien orduan zer gertatzen ari zen. «Danba!» Kea ikusi nuen ziritan ontziaren albo batetik irteten zela. Hara, kanoiaz ari ziren uretara su egiten, nire gorpua urgainera igo erazi nahian.

Gosetu nintzen nahikoa, baina ez zitzaidan komeni sua piztea, kea ikus baitzezaketen. Beraz hantxe geratu nintzen kanoi-suari begira, danbatekoak entzuten nituelarik. Ibaiak mila bat zuen zabaleran, leku horretan, eta udako goizetan ederra zirudien beti. Izan ere, gustura izan nintzatekeen haiek nire hondakinen bila zebiltzala ikusten, jateko mokaduren bat izan banu. Gero burura etorri zitzaidan zilarbizia jarri ohi zutela ogi zatien gainean eta ur gainean utzi, ogi puskak urperatutako gorpua zegoen lekuraino joaten baitziren beti eta bertan geratu. Orduan esan nuen nirekiko, erne ibiliko naiz, eta horietakoren bat bila etortzen bazait, ba hortxe neure burua azaldu beharko dut. Uhartearen Illinois aldeko bazterrera joan nintzen nolako zortea

nuen ikusteko, eta ez nintzen bihotz gabetu. Ogi xerra bikoitz handia zetorrela ikusi nuen, eta ia harrapatu nuen, makil luze bat hartuta, baina oinak irrist egin zidan eta ogia uretan urrutiratu zen. Jakina, ur-tira ibai bazterrera gehien hurbiltzen zen lekuan nengoen, horretarako adina banekien. Baina geroxeago beste bat etorri zen, eta oraingoan nik irabazi nuen. Estalkia kendu, zilarbizi pittina astindu eta kanpora bota nuen, eta orduan hortza sastatu nion. «Okindegiko ogia» zen, hori bai jateko kalitate ona, eta ez pobreon taloa.

Hosto artean leku egokia bilatu nuen eta enbor baten gainean eseri nintzen ogia jan eta ontziari begiratzeko, oso gustura. Orduan zerbaitetik astindu ninduen. Esan nuen nire artean, iruditzen zait alargunak edo apaizak edo norbaitek errezatu egin duela ogi honek aurki nazan, eta hara horixe egin du. Beraz, zalantzarik ez dago gauza horrek zerbaiterako balio duela. Alegia, balio du alarguna edo apaiza bezalako batek errezatzen duenean, baina niretzat ez du balio, eta uste dut jende mota horrentzat besterik ez duela balio.

Pipa piztu eta errealdi luzea egin nuen eta begira geratu nintzen. Ontzia ur-tirarekin batera zihoan, eta pentsatu nuen barruan zihoazenak ikusteko aukera izango nuela hura aurretik igarotzean, hurbiletik egingo zuen eta, ogiak hori bera egin zuen lekuan. Niregana nahikoa hurbildu zenean, pipa itzali eta ogia harrapatu nuen lekura joan nintzen. Ur bazterrean enborraren atzean etzan nintzen leku argi batean. Enborra erdibitzen zen lekutik begira nezakeen.

Geroxeago aurretik igaro zen, eta hain gertutik gainera, non pasabide txikia jarri eta lehorre-
ra oinez iritsi baitzitekeen. Ia denak zeuden ontzian: aita, Thatcher epailea, Bessie Thatcher, Jo Harper, Tom Sawyer, Polly bere izeba zaharra, Sid eta Mary, eta jende gehiago. Denak hilketaz ari ziren hizketan, baina halako batean esan zuen kapitainak:

— Ongi begiratu orain. Ur-tira hemen hurbiltzen da gehiena bazterrean, eta beharbada lehorrean bultzatu eta sasi tartean trabatua egon daiteke ibai ertzean. Hala espero dut behintzat.

Nik ez nuen hala espero. Pilatu egiten ziren denak eta maratiletan zintzilik jarri, ia nire aur-

pegian bertan, eta isil isilik zeuden, begira jarri eta ahalegin guztiak egiten. Bete-betean ikus nitzakeen, baina haiek ni ez ordea. Orduan kapitainak oihu egin zuen: «Kaitik atera!» Kanoiak danbateko ikaragarria egin zuen nire aurrean, eta hotsak gorra utzi ninduen, eta ia itsua keak, eta iruditu zitzaidan nireak egin zuela. Barruan balak izan balitu, ziur nago hantxe aurkituko zutela bila zebiltzan gorpua. Zauririk ez nuela ikusi nuen, Jaungoikoari eskerrak. Ontziak aurrera egin zuen eta nire begien aurretik desagertu zen uhartearen mutur batean jira egin zuenean. Noizean behin danbatekoak entzun nitzakeen, gero eta urrutiago, eta handik ordubetera ez nituen gehiago entzun. Uharteak hiru mila luze zituen. Uste nuen uhartearen behe alderantz joanak izango zirela, eta etsi egingo zutela, baina tarte batean behintzat ez zuten hala egin. Uhartearen beheko aldeari bira egin zioten eta Missouri aldeko ibai adarrean gora jo zuten, bapote indarrez, urrutiratzean noizean behin zalapartaren bat entzuten zelarik. Alde horretara zeharkatu eta hantxe ikusi nituen. Uhartearen buruaren parera iritsi zirenean su egiteari utzi

zioten, Missouri aldera itzuli, eta herrira joan ziren beren etxeetara.

Banekien lasai egon nintekeela. Beste inor ezin zitekeen nire bila etorri. Gauzak kanoatik atera eta kanpamendu polita jarri nuen baso hostotsuan. Kanpadenda antzekoa egin nuen mantak erabilia eta azpian jarri nituen gauzak busti ez zitezen. Katu arraina harrapatu eta zerra hartu eta jakia garbitzeko ireki egin nuen. Eguzkia sartzera zihoanean sua piztu eta afaldu egin nuen. Gero haria bota nuen gosaritarako arrainik izan nezan.

Ilundu zuenean sutondoan eseri nintzen erreztzera, eta nahikoa gustura nengoen. Baina geroxeago nolabaiteko bakardadea sumatu nuen, altxa, eta ibai bazterrean eserita uraren hotsa entzun nuen aurretik igarotzean, izarrak zenbatu nituen, eta beherantz zetozen enborrak eta almadiak ere bai, eta gero lotara joan nintzen; denbora pasatzeko modu hobetik ez dago bakardadea sumatzen denean. Ezin duzu hala geratu, gainditu egin beharra dago.

Eta horrelaxe hiru egun eta hiru gauetan. Aldaketarik batere ez; beti gauza bera. Baina

hurrengo egunean uhartearen beheko aldeaz aztertzen joan nintzen. Hango nagusia nintzen; nirea zen dena, nolabait esateko, eta ongi eza gutu nahi nuen guztia; baina batez ere denbora pasa nahi nuen. Marrubi ugari aurkitu nuen, helduak eta primerakoak, udako mahats berdea, magurdi berdeak, eta masusta berdeak ateratzen hasiak ziren. Berehala izango ziren hartzeko moduan, pentsatu nuen.

Baso ilunean batera eta bestera begira ibili nintzen iruditu zitzaidan arte uhartearen beheko muturretik ez nenbilela urruti. Fusila neraman, baina ez nion ezer tiro egin. Babesa egiteko nuen, hala ere etxe inguruan animalia bat akabatzea espero nuen. Une horretan gutxi gorabehera ia suge puska eder bat zapaldu nuen. Sugeak belar eta lore tartean irrist egin eta alde egin zuen, eta ni atzetik joan nintzaion hari tiro egiteko aukera bila. Arin ibili nintzen, eta halako batean jauzi egin nuen hain zuzen ere oraindik kea zerion sutzar baten errautsen gainean.

Bihotza biriken artean saltoka hasi zitzaidan. Ez nintzen han geratu besterik ikusteko, eta fusi-

laren gatu askatu eta oin punttetan atzera egin nuen ahal izan nuen bezain azkar. Noizean behin unetxo batean geratu, eta entzun egiten nuen hosto ugarien gainean jarrita, baina arnasa oso azkar egiten nuen, eta ezin nuen besterik entzun. Beste pixka batean ezkutuan aurrera egin, eta berriz entzuten geratu nintzen, eta horrela behin eta berriz. Zuhaitz errondoak ikusi eta gizona zela iruditzen zitzaidan; makila zapaldu eta hausten banuen norbaitek arnasa erdibitzen zidala sentitzen nuen, eta arnas erdia besterik ez nuela, eta erdi eskasena gainera.

Kanpamendura iritsi nintzenean ez nuen neure burua ausartegi ere ikusten, *papoa* ez nuen puztuegia, baina esan nuen nire artean, hau ez da denbora galtzen ibiltzeko garaia. Beraz tramankulu guztiak kanoan sartu nituen inork ikusi ez zitzan, eta sua itzali eta errautsak inguruan sakabanatu nituen kanpamenduak zahar eta iraganeko itxura izan zezan, eta gero zuhaitz batera igo nintzen.

Iruditzen zait zuhaitz gainean bi ordu egin nituela, baina ez nuen ezer ikusi, ezta ezer entzun ere. Pentsatu nuen, hori bai, mila gauza

desberdin entzun eta ikusten nituela. Baina ezin nuen betiko han geratu, beraz azkenean jaitsi behar izan nuen, baina baso ilunean eta alde guztietara begira ibili nintzen denbora osoan. Garau ale batzuk eta gosarian utzitakoa besterik ezin jan izan nuen.

Gauerako nahikoa gosetu nintzen. Horregatik ongi ilundu zuenean, kanoa poliki-poliki hartu eta ilargia atera baino lehen Illinois aldeko bazterreraino arraun egin nuen, mila laurdena edo. Basora joan eta afaria egin nuen, eta ia erabakia nuen bertan gau osorako geratzea, baina halako batean taka-taka, taka-taka, entzun nuen, eta pentsatu nuen, zaldiak datoz; eta horren atzetik jendearen ahotsak entzun nituen. Gauza guztiak kanoan sartu nituen ahal bezain bizkor, eta basoan arrastaka joan nintzen ezer aurki neza-keen ikustera. Ez nintzen oraindik gehiegi urrun- du gizon baten ahotsa entzun nuenean:

— Hobe dugu hemen geratzea, leku egokia bilatuz gero. Zaldiak leher eginda daude. Goazen ingurua ikustera.

Ez nintzen han geratu. Alde egin eta isil isilik arraun egin nuen. Lehengo leku zaharrear lotu

nuen kanoa, eta hobe izango nuela han barruan lo egitea pentsatu nuen.

Ez nuen ongi lo egin. Ezin nuen, pentsatzen ari bainintzen. Eta esnatzen nintzen guztietan iruditzen zitzaidan norbaitek lepotik hartuta ninduela. Beraz lotara joanda ere, ez nuen ezer onik atera. Geroxeago esan nion neure buruari, ezin dut horrela bizi; jakin egin behar dut uhartean nor dagoen nirekin batera. Asmatu edo bestela lehertu egingo dut. Berehalaxe lasaitu nintzen.

Arrauna hartu, lehorretik urrats bat edo bi bereizi, eta kanoa bakarrik joaten utzi nuen itzal artean. Ilargiak distiratu egiten zuen, eta itzaletatik kanpo egun argia zirudien. Ia ordubetez guztia usaintzen aurrera egin nuen, dena harkaitzak bezala isil isilik eta lotan zegoela zirudien. Ordurako ia uhartearen oinera iritsi nintzen. Olatu txiki batzuk baziren, eta haize hotz xamarra atera zuen. Hori gaua ia amaitu zela esatea bezalaxe zen. Arrauna hartu, bira egin, eta kanoa lehorreratu nuen. Gero fusila hartu, kanoatik atera eta basoko ertzera abiatu nintzen. Enbor baten gainean eseri eta hosto artean begira geratu nintzen. Ilargiak begiztatze lanari

uzten ziola ikusi nuen, eta iluntasuna ibaia estal-
tzen hasi zen. Baina berehala marra zurbila ikusi
nuen arbolen punta gainean, eta eguna zetorre-
la banekien. Fusila hartu nuen, eta isil isilik
sutzar horrekin topo egin nuen lekura abiatu nin-
tzen, minuturo entzuteko gelditzen nintzelarik.
Baina ez nuen zorte handirik izan, ezin nuen
lekua aurkitu. Orduan, ziur xamar, sua ikusi
nuen urrutian zuhaitz artean. Harantz abiatu nin-
tzen, kontuz eta poliki. Geroxeago zerbait ikuste-
ko adina hurbildu nintzen, eta gizon bat ikusi
nuen lurrean. Ia bihotzekoak eman zidan. Buru-
sia zuen buruan jarrita, eta burua ia sutan sartu-
ta. Zuhaixka batzuen atzean geratu nintzen,
gizona zegoen lekutik sei oinetara edo, eta tinko
begira geratu nintzaion. Eguna argitzen ari zen
kolore grisetan. Berehala ahoa zabaldu zuen,
nagiak atera, eta burusia gaineratik kendu.
Watson andereñoen Jim zen! Hori poza hartu
nuena hura ikustean. Esan nuen:

— Kaixo, Jim! —eta jauzi egin eta aurrean
azaldu nintzaion.

Kolpetik zutik jarri eta zoro aurpegia jarrita begiratu zidan. Gero belauniko erori zen, eskuak batera jarri eta esan zuen:

— Ez minik eman gero! Ez diot nik inoiz kalterik egin mamu bati. Beti maite izan ditut hildakoak, eta ahal izan dudan guztia egin dut horien alde. Joan eta sartu zaitez berriz ibaian, zure lekua duzu hori eta. Ez ezer egin Jim zaharrari, beti zure laguna izan da eta.

Ez nintzen gehiegi luzatu ez nengoela hilik ulertarazten. Benetan pozik nengoen Jim ikusteaz. Jadanik ez nintzen bakarrik. Esan nion ez nintzela beldur berak jendearengana jo eta non nengoen esango zuelako. Luze hitz egin nuen, baina izpirik mugitu gabe niri begiratu besterik ez zuen egiten. Ez zuen ezer esan. Orduan esan nuen:

— Egunak argitu du. Goazen ba gosaltzera. Piztu ezazu kanpamenduko sua.

— Baina zertarako sua piztu marrubiak eta antzekoak jateko? Baina eskopetarik baduzu, ezta? Orduan marrubiak baino gauza hoberik ere eskura dezakegu.

— Marrubiak eta antzekoak —esan nuen—.

Hori al da jaten duzun guztia?

— Ezin dut besterik jan —esan zuen.

— Zer ba, noiztik zaude uhartean, Jim?

— Zu hil eta hurrengo gauaz gero.

— Zer, denbora guztian?

— Bai ba.

— Eta zikinkeria horiek besterik ez dituzu jan.

— Ez, jauna, besterik ez.

— Ia goseak hilda egongo zara orduan.

— Iruditzen zait zaldi bat jango nukeela. Bai, jango nukeela uste dut. Zenbat denbora darazazu zuk uhartean?

— Hil ninduten gauaz geroztik.

— Ene, eta zuk zer jan duzu? Baina eskopeta duzu eta. Oi, bai, eskopeta duzu. Ongi dago hori. Orain zuk zerbait harrapatu eta nik sua piztuko dut.

Kanoa nuen lekuraino joan ginen, eta berak leku belartsu batean zuhaitz artean sua egiten zuen bitartean, irina, hirugiharra, kafea, kafeontzia, azukrea eta latorrizko katiluak eramanez nituen. Beltza asaldatu xamarra zebilen, izan ere iruditzen zitzaion sorginkeria hutsa zela guztia.

Gainera katu-arrain ederra harrapatu nuen eta Jimek labaina hartu, garbitu eta frijitu egin zuen.

Gosaria prest zegoenean, lurrean etzan eta oraindik kea zeriola jan genuen dena bero-bero. Jimek ahal zuen guztia irentsi zuen, ia goseak hiltzen zegoen eta. Nahikoa bete ginenean, jateari utzi eta alferkerian etzan ginen.

Geroxeago Jimek esan zuen:

— Baina, esan, Huck, nor hil zuten txabolan zu ez bazinen?

Orduan dena kontatu nion, eta oso modu argian jokatu nuela esan zidan. Esan zidan Tom Sawyerrek ez zukeela nik baino plan hobetik asmatuko. Gero nik esan nion:

— Eta zu zergatik zaude hemen, Jim, nola etorri zinen hona?

Ez zirudien oso lasai, eta minutu batean edo ez zuen ezer esan.

— Agian hobe dut ezer ez esatea.

— Zergatik, Jim?

— Beno, badira arrazoiak. Baina ez duzu ezer esango kontatzen badizut, ezta, Huck?

— Madarikatua izan nadila ezer esaten badut, Jim.

— Ederki, sinesten dizut, Huck. Ihes egin dut.

— Jim!

— Gogoan izan ez zenuela ezer esango zin egin duzula, badakizu ez duzula ezer esango agindu didazula, e, Huck.

— Bai, hala esan dut. Ez nuela ezer esango agindu dizut, eta horretan nago. Hitza ematen dizut baietz. Jendeak abolizionista zikina dei nazake eta gutxietsi isilik gorde dudalako, baina berdin da. Ez dut ezer esango, ez dut inolaz ere atzera egingo. Eta orain konta iezadazu dena.

Begira, horrela gertatu zen. Etxeko andere zaharra —alegia Watson andereño— zirikatzen aritzen zitzaidan denbora guztian, eta gogor xamar erabiltzen ninduen, baina beti esaten zidan ez ninduela Orleans aldean salduko. Baina konturatu nintzen etxe inguruan maiz zebilela beltzak salerosten ibiltzen ziren horietako bat, eta kezkatzen hasi nintzen. Gau batean ate ondora hurbildu nintzen, berandu xamar, eta atea ez zegoen ongi itxita. Entzun nuen etxeko andere zaharrak alargunari esaten ziola saldu egingo ninduela Orleansen, ez zuela nahi, baina zortziehun dolar emango zizkiotela eta halako

dirutzaren aurrean ezin zuela ezezkorik eman. Alarguna ezin zuela hori egin esaten hasi zitzaion, baina ez nintzen han geratu gainontze-koa entzuteko. Azkar alde egin nuen, ikusten duzu.

«Hartu eta mendian behera joan nintzen las-terka herrian gora zegoen ibai bazterretik alma-dia bat lapurtzeko esperantzatan, baina jendea zebilen inguruan eta horregatik upeltegian ezku-tatu beharra izan nuen ibai ondoan eta denak alde egin arte itxaron. Gau osoa pasa nuen. Nor-bait zebilen denbora guztian. Gero goizeko seiak aldera, almadiak hasi ziren handik igarotzen, eta zortziak edo bederatziak jo zutenean ibaitik pasatzen zen almadia bakoitzean hizketan ari ziren, eta zioten zure aita herrira joan zela eta hil egin zintuztela esan zuela. Azken almadiak, jaun eta anderez beterik, gertakizunen lekua ikustera zihoazen. Batzuetan ur bazterrera jotzen zuten atsedean hartzera ibaia gurutzatzen hasi aurretik, eta horrela berriketaldi horiek entzunez hilketaren berri zehatza izan nuen. Min handia eman zidan zure heriotzak, Huck, baina orain joan egin zait.

«Txirbil artean eman nuen egun osoa. Goseak nengoen, baina ez nuen beldurrik, izan ere banekien andere zaharra eta alarguna mendiko bilera batera joango zirela gosalduta ondoren eta egun osoa han igaroko zutela, eta bazekiten goizaldean ni kanpora irteten nintzela animaliekin, eta horregatik ez zitzaien harrigarria irudituko ni han inguruan ez ikustea, eta nitaz ez ziren gogoratuko arratsean ilundu arte. Beste morroiak ere ez ziren konturatuko, haiek ere alde egin eta jai hartuko zutelako atsoak handik desagertu bezain pronto.

«Ilundu zuenean ibaiko bidean gora abiatu nintzen, eta bi mila edo gehiago egin nituen etxerik ez zen lekuan. Erabakia hartu beharra nuen. Alegia oinez aurrera egiten baldin banuen zakurrak atzetik izango nituen; txalupa lapurtuz gero ibaiaren beste aldera pasatzeko, txalupa bere lekuan aurkitu ez, eta jakina, gutxi gorabehera beste aldean non lehorreratu nintzen asmatuko lukete eta berriz atzetik izango nituzke. Beraz esan nuen, almadia behar dut; horrek ez du arrastorik uzten.

«Argi bat ikusi nuen ur muturretik zetorrela. Orduan uretan sartu eta enbor bati bultza eginenez, igeri egin nuen ibaiaren erdiraino edo gehiago, eta ibaian behera zihoazen enborren artean ezkutatu nintzen, burua ongi makurtuta. Uraren indarraren kontra igeri egin nuen almadia iritsi bitartean. Gero igeri egin nuen haren atzeko alderantz, eta eutsi egin nion. Lainoturik eta ilun xamar egon zen zerua tarte batean. Igo eta oholen ganean etzanda geratu nintzen. Gizonak erdian zeuden, linterna zegoen lekuan. Ibaia gora genuen eta urak indarra zuen, horregatik kontuak atera nituen goizeko lauretarako ibaian behera handik hogeita bost milatara izango nintzela. Gero egunak argitu aurretik uretara bota, eta ibai bazterreraino igeri egingo nuen eta Illinois aldeko basoetara joko nuen.

«Baina ez nuen zorte onik izan. Uhartearen burura iristen ari ginenean, gizon bat atzerantz zetorrela ikusi nuen linterna eskutan zuelarik. Konturatu nintzen alferrik izango zela han gertatzea, eta ohol ganean irristatuz uretara jauzi egin eta uharterantz jo nuen. Iruditzen zitzaidan edozein tokitan lehorrera nintekeela, baina ezin

nuen, ibai bazterra aldapatsuegia baitzen. Ia uhartearen muturreraino iritsi nintzen leku egoki bat aurkitu nuenerako. Basoan sartu eta almadiekin gehiago ez nahasteko erabakia hartu nuen, linterna atzera eta aurrera mugitzen zuten bitartean bederen. Pipa nuen, tabako tauleta eta pospolo batzuk kapela barruan. Ez ziren busti, beraz pozik nengoen.»

— Orduan ez duzu ez haragirik, ez ogirik jan denbora guzti honetan? Zergatik ez dituzu dortokak harrapatu?

— Nola hartu ordea? Ezin dituzu ezustean harrapatu; eta nola astindu harri bat hartuta? Nola egingo duzu hori gauez? eta nik ez nuen neure burua ibai bazterrean egun argiz azaldu nahi.

— Bai, hala da. Orduan basoan egon beharra izango zenuen denbora guztian. Entzun al duzu beste horien kanoia su egiten?

— A, bai. Banekien zure atzetik zebiltzala. Aurretik pasatzen ikusi nituen zuhaixken atzean jarrita.

Txori gazte batzuk hurbiltzen ikusi genituen. Metro bat edo beste hegan egiten zuten eta gero

pausatu. Jimek esan zuen euria egingo zuen seinale zela. Oilo txitak horrela ibiltzen zirenean hala gertatzen omen zen, eta iruditzen zitzaiola gauza bera izango zela txori gazteek egiten zutenean. Horietako batzuk harrapatzera joan behar nuen, baina Jimek ez zidan utzi. Heriotza ekarriko zuela esan zuen. Behin batean aita oso gaixorik zutela norbaitek txoria harrapatu omen zuen. Orduan amona zaharrak aita hil egingo zela esan zuen, eta hala gertatu zen.

Eta Jimek esan zuen bazkaritarako izan behar ziren gauzak ez zirela zenbatu behar, horrek zorte txarra ekarriko zuelako. Gauza bera mahai zapia eguzkia sartu ondoren astintzen baldin bazen. Eta baita ere esan zuen erlauntza baten jabe den gizona hiltzen denean, erleek horren berri hurrengo egunean eguzkia atera baino lehenago izan behar dutela, edo bestela erleek lan egiteari utziko ziotela, ahuldu, eta hil egingo zirela. Jimek esaten zuen erleek ez zietela tuntu-nei eztena sartzen, baina hori ez nion sinetsi, izan ere askotan saiatu nintzen, eta niri ere ez zidaten eztenik sartzen.

Era horretako gauza batzuk aurretik entzunik nituen, baina ez denak. Jimek seinale guztiak ezagutzen zituen. Ia dena zekiela esaten zuen. Nik esan nion iruditzen zitzaidala seinale guztiak zori txarra ekartzekoak zirela, eta galdegin nion ea zori ona ekartzeko seinalerik ez ote zen. Hark esan zuen:

— Baten batzuk... eta gainera horiek ez dute ezertarako balio. Zertarako jakin nahi duzu zori ona noiz datorren? Uxatu nahi duzu ala? —eta gero esan zuen—: Besoak eta bularra iletsuak badituzu, aberatsa izango zaren seinale da. Horrelako ezaugarriak zerbaitetarako balio dezake, gauzak oso gerora gertatzen direlako. Izan ere, beharbada pobrea izan zaitezke denbora luzean, eta horregatik etsi eta zeure burua hil ere bai jakingo ez bazenu, seinale hori dela medio, etorkizunean aberastu egingo zarela.

— Beso iletsuak eta bular iletsua al duzu, Jim?

— Zertarako galdetzen didazu hori? Ez al duzu baietz ikusten?

— Eta, aberatsa al zara?

— Ez, baina behin batean izan nintzen, eta berriro ere izango naiz. Behin batean hamalau dolarren jabe izan nintzen, baina tratuetan sartu, eta dena galdu nuen.

— Zertan sartu zinen, Jim?

— Ba, hasieran abereetan saiatu nintzen.

— Ze abere mota?

— Ba, abeltzaintza. Abereak, badakizu. Hamar dolar eman nituen behi baten truke. Baina ez noa diru gehiago abereetan ezartzea. Behi hori eskutan hil zitzaidan.

— Orduan hamar dolarrak galdu zenituen.

— Ez, ez nuen dena galdu. Horietako bederatzirekin ez nituen galdu. Larrua eta bilgorra hamar xentimotan saldu nituen.

— Bost dolar eta hamar xentimo geratu zitzaizkizun. Beste zer baitetan sartu al zinen?

— Bai. Ezagutzen al duzu Bradish jaunaren beltz herren hori? Ba, bankua eraiki zuen, eta esan zuen dolar bat jartzen zuten guztiek urte amaierarako lau dolar gehiago jasoko zituztela. Beltz guztiak joan zitzaizkion, baina ez zuten gauza handirik. Nik nuen gehiena. Horregatik lau dolar baino gehiago eskatu nizkion, eta ez baziz-

kidan ematen nik neuk bankua jarriko nuela mehatxu egin nion. Noski, beltzak bere lanbide-tik kanpora nahi ninduen, esaten baitzuen bi bankutarako adina lan ez zela, eta esan zidan bost dolar uzten banituen urte bukaeran hogeita hamabost jasoko nituela.

«Hark esandakoa egin nuen. Gero kontuak atera nituen berehala berriz hogeita hamabost dolarrak sartuko nituela eta hala gauzek aurrera egingo zutela. Baina, bazen Bob izena zuen beltz bat eta, bere nagusiak ezer jakin gabe, egur garraiorako txalupa zapala zuena. Harekin tratu egin eta esan nion urte bukaerarako hogeita hamabost dolar izango zituela; baina norbaitek gau horretan txalupa lapurtu zuen, eta hurrengo egunean beltz herrenak esan zidan bankuak porrot egin zuela. Eta horrela geuretako inork ez zuen dirurik jaso.»

— Zer egin zenuen hamar xentimoekin, Jim?

— Erabili egin behar nituen, baina amets egin nuen, eta ametsak esan zidan dirua Balum ize-neko beltz bati emateko —Balumgo astoa esaten zioten—; txoriburu txepel horietako bat, badakizu. Baina zorte ona du, hala diote, eta nik bate-

re zorterik ez nuela garbi zegoen. Ametsak esaten zuen Balumi emateko hamar xentimoak hark ezar zitzan eta irabaziak ekarriko zizkidala. Balumek dirua hartu zuen, eta elizan zegoen batean entzun zion predikariari esaten pobreari ematen zitzaion guztia Jainkoak jasotzen zuela, eta zalantzarik gabe diru hori ehun aldiz irabaziko zuela. Beraz Balumek hamar xentimoak hartu eta pobreentzat eman zituen, eta han geratu zen ezkutuan handik zer ateratzen zuen ikusteko.»

— Eta, zer atera zuen, Jim?

— Ezer ez zuen handik atera. Ezin izan nuen dirua berreskuratu, eta Balumek ezta ere. Ez diot hemendik aurrera inori dirurik utzi behar ziurta-sunik ikusten ez badut. Ehun aldiz jasoko duzu diru hori, dio predikariak! Hamar xentimoak berreskura banitza, bostekoa luzatu eta pozaren pozez jarriko nintzateke.

— Beno, ez kezkatu, Jim, lehenago edo beranduago aberastu behar duzu eta.

— Bai... eta orain aberatsa nauzu, ongi begiratzuz gero, neure buruaren jabe naiz, eta zortziehun dolar balio ditut. Diru hori izan nahi nuke, ez nuke besterik nahi.

Bederatzigarren atala

Uhartearen erdian zegoen leku bat ikustera joan nahi nuen, bertan miaketan aritu nintze-nean aurkitutakoa; abiatu, eta berehala iritsi ginen, uharteak hiru mila luze eta mila laurdena zabalera besterik ez baitzuen.

Lekua muino edo mendi tontor luze eta alda-patsu xamarra zen, berrogei oinetako mendi gaina. Nahikoa lan izan genuen tontorrera iristeko, mendi hegalak zorrotzegiak ziren eta zuhaixkak itxiegiak. Mendian gora ibili ginen arrastaka eta oinez, eta geroxeago leize-zuloa aurkitu genuen harkaitzetan, Illinois aldeko ia goiko tontorrean. Leize-zuloa bi edo hiru gela batera jarrita bezain handia izango zen, eta Jim zutik egon zitekeen barruan. Hotz egiten zuen han. Jimek gauzak han gorde nahi zituen lehenbailehen, baina nik esan nion ez nuela ongi ikusten denbora guztian han gora eta behera ibili beharra.

Jimek esan zuen kanoa leku egokian gordez gero, eta gauza guztiak leize-zuloan gordeta, bertan ezkutatu gintezkeela inor uhartera etor-

tzen bazen, eta ez gintuztela inoiz aurkituko zakurrak erabili ezean. Eta gainera, txori txikiek esan omen zioten euria egingo zuela, eta ea gauzak bustitzea nahi nuen.

Horrenbestez berriro itzuli ginen, kanoa hartu, leize-zuloaren pareraino arraun egin, eta gauzak gainean hartu eta handik gora eramán genituen. Gero kanoa gordetzeko lekua aurkitu genuen, sahas hostotsuenen artean. Harietatik arrain batzuk atera, hariak berriz utzi, eta afaltzeko prestaketak egiten hasi ginen.

Leize-zuloko atea upela handi bat handik jirabiraka sartzeko adina neurtuko zuen, eta ate ondoko alde batean lurra kanpora egiten zuen pixka bat eta gainera laua zen, leku egokia beraz bertan sua pizteko. Hantxe piztu genuen sua afaria egiteko.

Burusiak lurrean zabaldu genituen tapiz moduan, eta barruan afaldu genuen. Gauza guztiak eskuera jarri genituen leize-zuloaren atzealdean. Berehalaxe ilundu zuen eta tximista eta trumoiak hasi ziren, txoriek asmatu zuten, beraz. Orduantxe bertan euria hasi zuen, eta indarrez gainera. Ez nuen inoiz ikusi halako haize

indartsurik. Udako ekaitz horietako bat genuen. Ilundu zuen erabat kanpoan eta urdin-beltza ikusten zen dena, oso ederra. Euria alde batera eta bestera ari zuen barra-barra, eta oso urruti ez zeuden zuhaitzak ere ilun ikusten ziren eta armiarmaz beterik; orduan haize boladak jo eta zuhaitzak okertu eta hostoen barruko alde zurbi-la agerian uzten zuen; gero euri-jasa ikaragarria berriz, eta zuhaitz adarrei besoak astin erazten zien zoroen moduan; eta orduan, zeruak kolore urdinena eta beltzena zuenean, fst! dena argi baino argiago jarri eta zuhaitz gainak okerturik ikus zitezkeen, urrutian ekaizpean, lehenago baino ehunka metro aurrerago; infernua baino ilunago berriz instant batean, eta trumoia urrun-tzen entzun zenezakeen leherketa ikaragarriarekin batera, ondoren zerutik munduaren beste alderaino dunba, dunba... burrunbaka, marmarka, zilipurdika zihoazelarik, eskaileretan behera upel hutsak jirabiraka eskailera luzeak direnean eta jauzi handiak egiten dituztenean ibiltzen diren bezala, badakizu.

— Ederra da hau, Jim —esan nuen—. Hemen beste inon ez nuke egon nahi. Emadazu beste arrain puska eta arto ogi bero pixka bat_

— Ez zinateke hemen izango Jimengatik izan ez balitz. Hor behean egongo zinateke jatekorik gabe, eta ia itotzen; halaxe da, motel. Oiloek badakite noiz egingo duen euria, eta txoriek ere bai, ume.

Ibaia hazi eta hazi aritu zen hamar edo hamabi egunetan, azkenean gainezka egin zuen arte. Urak lau edo bost oin bazituen sakonean uhartearen beheko lekuetan eta Illinois aldeko behean. Alde horretan ibaiak mila dezente hartuak zituen zabalean, baina Missourikoan lehen-go neurri bera zuen zeharka, mila erdia, hain zuzen ere, Missouriko ibai bazterra aldapa zorrotzeko horma luzea besterik ez baitzen.

Egunez uhartearen inguruan ibili ginen kanoan arraunean. Hotz xamar zegoen eta itzaltsu baso ilunean, kanpoan eguzkiak kixkali egiten bazuen ere. Zuhaitz bati eta besteari itzuri egin ez ibili ginen; eta zenbaitetan atzera egin behar izan genuen eta beste bidea hartu, zintzilik zeuden aihen-belarrak oso lodiak zirelako. Zuhaitz

zahar erori bakoitzean untxiak, sugeak, eta horrelakoak ikus zitezkeen; eta uhartea egun bat edo bi ur-gainezka igaro ondoren, animaliak apal-apal zeuden goseak zirelako, eta orduan horiengana hurbildu zitezkeen arraun eginez eta eskua gainean jarri, nahi izanez gero; baina ez sugeei edo dortokei... uretara ihes egiten zuten. Leize-zuloko aldapa animaliaz bete-betarik zegoen. Pila ederra bat genitzakeen etxean izateko nahi izan bagenu.

Gau batean almadia baten zati txiki bat aurkitu genuen, pinu ohol ederrak. Lau metro zituen zabaleran eta sei edo luzeran, eta goiko aldeak ur gainean hamabost bat zentimetro hartzen zituen, lur sendo eta laua. Batzuetan ikusten genituen enbor zerra-gaiak egun argiz gure aurretik pasatzen, baina joaten uzten genituen; ez genuen geure burua egunez azaldu nahi.

Beste gau batean, uhartearen buruan ginelarrik, egunak argitu baino lehentxeago, hegoalde-tik egurrezko etxe bat zetorrela ikusi genuen. Bi solairutakoa zen, eta okertu xamarra zihoan. Arraun eginez hurbildu, eta goiko leiho batetik sartu ginen. Baina ilunegi zegoen oraindik ezer

ikusteko, beraz kanoa lotu eta bertan geratu ginen egunsentiaren zain.

Argitu zuen gu uhartearen beheko muturre-raino iritsi baino lehenago. Gero leihotik etxe barrura begiratu genuen. Ohea, mahaia, eta bi aulki zahar, eta gauza asko lurrean erorita antze-man zitezkeen; eta arropak zeuden horman zintzilik. Urrutiko bazter batean zerbait zetzan lurrean. Gizon bat zirudien. Orduan Jimek esan zuen:

— E, aizu!

Baina ez zen mugitu. Orduan nik berriz oihu egin nion, eta Jimek esan zuen:

— Gizona ez dago lotan, hilik dago. Hemen egon, ni ikustera joango naiz.

Joan, makurtu eta begiratu zion.

— Hilik dago —esan zuen—. Bai, hilik, eta larru-hutsik gainera. Atzetik tiro egin diote. Bi edo hiru egun daramazkiela hilik esango nuke. Sartu, Huck, baina ez iezaiozu aurpegira begiratu, beldurgarria da eta.

Ez nion ezertarako begiratu. Jimek jantzi zahar batzuk bota zizkion gainera, baina ez zuen beharrezkoa; nik ez nion begiratu nahi. Karta

zahar bikeztatu pila zeuden lurrean sakabanaturik, eta whisky botila zaharrak, eta oihal beltzez eginiko maskara pare bat. Hormetan nonahi hitz eta marrazki arruntenak ageri ziren ikatzez eginak. Perkalezko bi soineko zikin eta zaharrak, eta eguzkitako kapela, eta emakume aldagarriak, horman zintzilik, eta gizonezko baten arropak ere bai. Kanoan sartu genuen dena; ongi etor zitekeen. Mutiko baten lastozko kapela zahar motaduna zegoen lurrean; hori ere hartu nuen. Eta barruan esnea izan zuen botila ere bazen, ume txikiak xurgatzeko behar zuen oihailezko tapoi eta guzti. Botila har genezakeen, baina puskatuta zegoen. Bazen arasa zahar hondatu bat, eta erroak lehertuta zituen larruzko maleta zaharra ere bai. Zabalik zeuden, baina barruan baliorik izan zezakeen gauzarik ez zen batere geratzen. Gauzak modu horretan sakabanaturik zeudenez gero, kontuak atera genituen jendeak presaka alde egin beharra izan zuela eta ez zuela modurik izan gauza gehienak eramateko.

Latorrizko linterna zaharra hartu genuen, eta sukaldeko labaina kirtenik gabea, eta edozein

dendatan bi erreal balioko zituen Barlow labaina berria, bilgor kandela pila, latorrizko argiontzia, eta kalabaza bat ura gordetzeko, latorrizko argimutila, ohe gainetik hartutako estalki zahar zarpaildua; orratzak, buruorratzak, argizaria, botoiak, haria, eta antzeko gauzak gordetzen zituen zorroa; eta aizkora, eta iltze batzuk; arrantzarako haria nire behatz txikia bezain lodia, amu ikaragarriak zituelarik, ante larruzko erroilua, zakurraren lepoko larruzkoa, zaldiaren ferra, paperik ez zuten sendagai poto batzuk; eta abiatzera nindoanean zaldi orraze egoki xamarra ere aurkitu nuen, eta Jimek biolina jotzeko arku zahar hondatua, eta egurrezko hanka eranskina. Lokarriak ez zituen, baina bestela, hanka ona zen, niretzat luzeegia, eta Jimentzat motzegia bazen ere, eta ez genuen bere parea aurkitu, leku batean eta bestean begira ibili ginen arren.

Horrenbestez, denera etekin egokia atera genuen. Handik ateratzeko prest ginenean, uhartetik behera mila laurdenera edo ginen, eta egun argia zen; beraz, Jim kanoan etzan erazi nuen eta ohe estalkia gainean jarri nion, eserita

joanez gero, jendeak urrutitik ere beltza zela ikusiko baitzuen. Illinoiseko bazter aldera arraun egin nuen, eta bitarte hartan uraren indarrak mila erdia baino gehiago eramanez ninduen ibaian beherantz. Poliki-poliki hurbildu nintzen ibai bazterreko ur geldoetara, eta ez nuen ez istripurik izan eta ezta inor ikusi ere. Bizirik eta onik iritsi ginen etxera.

Hamargarren atala

Gosaldu ondoren hilik zegoen gizonaz hitz egin nahi nuen eta nola hil ote zuten asmatu, baina Jimek ez zuen nahi izan. Esan zuen horrek zorte txarra ekarriko zigula, eta gainera, azal lekigukeela; esan zuen lurperaturik ez dagoen gizona errazago azal zitekeela lurpean eta lasai dagoena baino. Arrazoizkoa iruditu zitzaidan, eta ez nuen hari buruz beste ezer esan. Baina ezin nuen burutik kendu eta jakin nahi nuen nork hil zuen gizona eta zergatik.

Arropak arakatu, eta zortzi dolar aurkitu genituen burusi oihalaz eginiko beroki baten barruan josita. Jimek esan zuen uste zuela etxekoek berokia lapurtu egin zutela, izan ere, jakin izan balute berokiak dirua zuela ez zuketean barruan utziko eta. Nik esan nuen iruditzen zitzaidala gizona ere beraiek hil zutela, baina Jimek ez zuen horretaz hitz egin nahi. Nik esan nuen:

— Hori zorte txarra iruditzen zaizu, baina zer esan zenidan herenegun mendi kaskoan aurkitu nuen sugearen azala ekarri nuenean? Munduko

zorterik txarrena zela esan zenidan eskuekin suge azala ukitzea. Hara, ba, hemen duzu zorte txarra! Zamaketa guzti hau bildu dugu eta gainera zortzi dolar. Horrelako zorte txarra nahi nuke nik egunero, Jim.

— Lasai, motel, lasai. Ez horrela hitz egin. Etorriko da. Barkatu esatea, baina etorriko da.

Eta etorri zen, bai. Asteartea zen horretaz hitz egin genuenean. Ostiralean afalondoan, belarretan etzanda ginen mendi tontorrean, eta tabakoa amaitu zitzaigun. Leize-zulora joan nintzen tabako bila, eta barruan kriskitin sugea aurkitu nuen. Animalia akabatu, eta Jimen burusiarren beheko aldean bildu nuen, bizirik zirudielarik, Jimek han aurkitzerakoan biok barrealditxoazateko asmotan. Gauerako ahazturik nuen kontua, eta nik argia piztu bitartean Jim burusi gainera etzan zenean, sugearen laguna han zen, eta kosk egin zion.

Jauzi egin zuen garrasi bizian, eta argiak erakutsi zuen lehenengo gauza animalia karabilkatua izan zen beste eraso egiteko pronto. Makil bat hartu eta bertan akabatu nuen, eta Jimek

aitaren whisky txarroa hartu eta edan eta edan
hasi zen.

Oinutsik zegoen, eta sugeak txorkatilan bete
betean kosk egin zion. Nire erruz gertatu zen
guztia gogoan ez izateagatik suge hila nonbait
uzten denean bere laguna beti etortzen dela eta
inguruan biribilkatzen zaiola. Jimek esan zidan
sugeari burua moztu eta kanpora botatzeko,
gero gorputza soildu eta zati bat erretzeko. Hala
egin nuen, eta berak jan egin zuen, eta senda-
tzeko laguntza izango zela hori esan zuen.
Sugeari kriskitinak kendu erazi zidan eta gero
eskumuturrean lotu. Horrek lagundu egingo
omen zion. Gero isil isilik atera nintzen, eta
sugeak urrutira bota nituen sasiartera, izan ere,
ez nuen nahi Jimek jakitea nire erruz gertatu zela
guztia, ahal baldin banuen behintzat.

Jim txarrotik zurrupatu eta zurrupatu aritu
zen, eta noizean behin burua galdu eta astinal-
diak izaten zituen eta oihu egiten zuen, baina
bere onera etorri orduko zurrupadaka hasten
zen berriz. Oina hazi hazita jarri zitzaion, eta
hanka ere bai, baina handik pixka batera mozko-
rraldia etorri zitzaion, eta iruditu zitzaidan ongi

zegoela, nik ordea nahiago nuen sugeak kosk egitea aitaren whiskya edatea baino.

Lau egun eta lau gau egin zituen Jimék ohean. Gero handitua jaitsi zitzaion eta suspertu zen. Erabakia hartu nuen ez nuela berriz suge azala eskutan hartuko, gertatutakoa ikusi ondoren. Jimék esan zuen hurrengo aldian sinetsiko niola ziur aski, eta suge azala ukitzeak zorte txar ikaragarria ekartzen zuenez gero, beharbada azken muturrera ez ginela oraindik iritsi. Esan zuen nahiago zuela ilargi berria ezkerreko sorbalda gainetik berrogei aldiz ikusi suge azala eskutan hartu baino. Halaxe ari zitzaidan iruditzen niri ere, beti uste izan arren ilargi berria ezkerreko sorbalda gainetik ikustea inork egin zezakeen gauzarik arduragabe eta zentzugabee-netakoa zela. Hank Bunker zaharrak hori egin zuen behin batean, eta harropoztua ibili zen horregatik. Bi urte pasa baino lehenago mozkor-tu, tiro egiteko dorre batetik behera erori, eta papertxo bat bezalakoxea geratu zen, geratu ere. Aletegiko bi ate artean zeharka jarrita eraman zuten hilkutxan eramango balute bezala, eta halaxe lurperatu zuten, hori esaten dute

behintzat, baina nik ez nuen ikusi. Aitak esan zidan. Dena dela, ilargiari horrela, inozoak bezala, begiratzeagatik gertatu zitzaion guztia.

Egunek aurrera egin zuten, eta ibaia lehen-gora itzuli zen. Egin genuen ia lehenengo gauza amu handi horietako batean koneju soildua beita moduan jartzea izan zen. Uretara bota eta gizon baten neurriko katu arrain ikaragarria hartu genuen; izango zituen errez bi metro luze eta ia ehun kilo pisatuko zituen. Ezin genuen menperatu, noski; astindu eta Illinoiseraino bidali gintuzkeen. Han geratu ginen nola tiratzen zuen alde batera eta bestera begira ito zen arte. Sabelean kobrezko botoi bat aurkitu genuen, eta pilota borobila eta hondakin ugari. Aizkora hartu eta pilota erdibitu genuen, eta txirrika bat zuen barruan. Jimek esan zuen denbora luzea egina izango zuela bertan, modu horretan estali eta pilota bilakatu zela ikusita. Mississippian inoiz harrapatutako arrainik handienetakoen neurria zuen, nire iritziz. Jimek esan zuen ez zuela inoiz ikusi horren arrain handirik. Balio handia izango zuen han herrian. Etxez etxe saltzen ibiltzen zirenek libratan saltzen zituzten herriko azokan;

denek erosten zuten arrainaren zatiren bat. Haragia elurra bezain zuria du eta frijitua jateko oso ona da.

Hurrengo goizean Jimi esan nion gauzak motelak eta aspergarriak bilakatzen ari zirela, eta nik atzera edo aurrera bizkortu nahi nituela. Esan nion ibaiaren beste aldera ezkutuan pasa eta zer gertatzen ari zen jakingo nuela. Jimi proposamena gustatu zitzaion, baina esan zuen gauzez joan beharko nuela eta oso kontuz ibili. Gero hartaz pentsatu eta esan zidan, ea zergatik ez nituen janzten gauza zahar haietako batzuk eta neskaz mozorrotzen. Hori ere proposamen ona zen. Beraz perkalezko azpiko gonetako bat moztu genuen eta nik prakak belaunetaraino bildu eta jantzi nuen soinekoa. Jimek atzean krisketak lotu zizkidan, eta ondo zetorkidan. Eguzkitako kapela jantzi eta kokots azpian lotu nuen. Orduan nire aurpegiari begiratzea berogailuaren tututik begiratzea bezalaxe zen. Jimek esan zuen nekez ezagutuko ninduela inork, ez eta egunez ere. Egun osoan aritu nintzen saioak egiten gauzari maina hartzeko, eta azkenean ongi moldatzen nintzen. Baina Jimek esan zidan ez nituela

neskaren ibilerak, eta ez nuela gona altxa behar eskua praken poltsikoan sartzeko. Aintzat hartu nuen hark esandakoa, eta hobetu nuen.

Ilundu bezain pronto kanoa hartu eta Illinoiseko bazterrerantz abiatu nintzen.

Ibaia gurutzatzen hasi nintzen herrirantz alda-ontziaren geltokia baino pixka bat beherago nintzenean, eta uraren indarrak herriraino eramanez ninduen. Kanoa lotu nuen eta ibai ondotik hasi nintzen ibiltzen. Argia ikusi nuen aspalditik inor bizi ez zen etxetxo batean, eta ez nekien nork hartua izango zen. Hurbildu eta leihotik begiratu nuen. Berrogei bat urteko atsoa zegoen barruan trikota egiten, pinu egurrezko mahai baten gainean zegoen kandela alboan zuelarik. Ez nuen aurpegia ezagutzen; kanpotarra izango zen, herri osoan ez baitzen aurpegi bakar bat nik ezagutzen ez nuenik. Ongi etorri zitzaidan hori, izan ere bihozgabetzen hasia bainintzen. Han egoeraz beldurturik nengoen; jendeak nire aho-tsa ezagut zezakeen eta nor nintzen asmatu. Baina emakume horrek bi egun egin bazituen herri txiki horretan esango zidan jakin nahi

nituen guztiak. Atea jo, eta neska nintzela beti
gogoan izateko asmoa hartu nuen.

Hamaikagarren atala

— Sartu —esan zuen andreak. Eta nik hori egin nuen. Berak esan zuen:

— Har ezazu aulkia.

Hori egin nuen. Goitik behera begiratu zidan bere begi txiki distiratsuekin, eta esan zuen:

— Nola duzu izena?

— Sarah Williams.

— Non bizi zara? Auzo honetan?

— Ez, andrea. Hookervillen, zazpi mila beherago. Oinez egin dut bide osoa eta oso nekaturik nago.

— Goseak ere bai, iruditzen zait. Aterako dizut zerbait.

— Ez, andrea. Ez nago goseak. Goseak nengo oso, eta bi mila beherago dagoen etxalde batean geratu behar izan dut, horregatik orain ez nago goseak. Horrek atzeratu egin nau. Ama gaixorik dago, eta ez du ez dirurik eta ez ezer, eta nire osaba Abner Moorereengana noa hori esatera. Herriko goiko aldean bizi da; amak hala

esan zidan. Ez naiz inoiz hemen izan. Ezagutzen al duzu?

— Ez, baina ez dut oraindik jende guztia eza-
gutzen. Ez dira bi aste izango hona etorri ginela.
Tarte handi xamarra duzu herriko goiko muga-
raino iristeko. Hobe duzu gaua hemen pasatzea.
Ken ezazu sonbreirua.

— Ez —esan nuen—, pixka batean geratuko
naiz, eta gero aurrera egingo dut. Ez nau ilunta-
sunak beldurtzen.

Esan zidan ez zidala bakarrik joaten utziko,
senarra geroxeago etorriko zela, handik ordu
t'erdira edo, eta nirekin bidaliko zuela. Orduan
senarraz hasi zen hizketan, eta ibaiaren goiko
sendikoez, eta ibaiaren beheko sendikoez, eta
lehen hobe bizi zirela, eta jakin gabe gaizki egin
zutela gure herrira etortzen, gauzak bere hartan
utzi ordez... eta abar eta abar. Eta ia beldur nin-
tzen ez ote nuen oker jokatu herriko berrien bila
harengana joateagatik; baina geroxeago hasi
zen aitaz eta hilketaz, eta orduan gustura utzi
nion berriketan aurrera egiten. Nik eta Tom Saw-
yerrek aurkitutako sei mila dolarrez aritu zen
(hamarreraino gehitu zituen, baina) eta aitari

buruzkoak eta nolako gizatxarra zen, eta nolako gizatxarra nintzen ni, eta azkenean iritsi zen nire hilketara. Nik esan nuen:

— Nork egin zuen? Gauza asko entzun ditugu gertakizun horietaz, behean Hookervillen, baina ez dakigu nork hil zuen Huck Finn.

— Ba, uste dut hemen ere badela jende pila nork hil zuen jakin nahiko lukeena. Batzuek uste dute Finn zaharrak berak hil zuela.

— Ez. Egia al da hori?

— Ia denek hori uste zuten hasieran. Ez du inoiz jakingo zein gertu ibili zen lintxamendutik. Baina gaua egin baino lehenago iritziz aldatu egin zuten eta erabaki zuten Jim izena zuen beltz iheslari batek egin zuela.

— Zergatik egin...

Isildu egin nintzen. Iruditu zitzaidan hobe nuela isilik egotea. Aurrera egin zuen, eta ez zen ezertarako konturatu eten egin niola.

— Beltzak Huck Finn hil zuten gauean bertan egin zuen ihes. Horregatik saria jarri dute harra-patzen duenarentzat: hirurehun dolar. Eta beste saria jarri dute Finn zaharrarentzat: berrehun dolar. Hara, hilketa gertatu eta hurrengo goizean

etorri zen herrira, eta gertakizun horretaz hitz egin zuen, eta besteekin joan zen haren bila alda-ontzian, eta hori egin eta berehala desageratu zen. Ilundu baino lehen jipoitu nahi zuten, baina ez zuten aurkitu. Hurrengo egunean konturatu ziren beltzak ihes egin zuela; konturatu ziren inork ez zuela ikusi hilketa gertatu zen gaueko hamarrak geroztik. Orduan hari egotzi zioten errua, eta horretan ari zirela bete betean, hurrengo egunean Finn zaharra itzuli zen eta Thatcher epaileari joan zitzaion negar zotinka Illinois osoan beltza harrapatu ahal izateko diru eske. Epaileak eman zion zerbait, eta arratsalde hartan mozkortu egin zen eta gauerdia baino beranduago arte ibili zen itxura txarreko kanpotar bikote batekin, eta gero beraiekin alde egin zuen. Bada, ez da geroztik azaldu, eta ez dute ikustea espero gauzak baretu artean, jendeak uste baitu berak hil zuela mutila eta gainera gauzak antolatu zituela jendeak pentsa zezan lapurrek egindako gauza zela, eta horrela Hucken dirua hartuko zuen auzitan denbora luzea itxaron beharrik gabe. Jendeak dio horrelakorik ez egiteko bezain zintzoa ez zela. Zuhurra da, bai,

nik uste. Urtebetean agertuko ez balitz, gauzak ongi lihoazkioke. Frogarik ez legoke bere aurka, badakizu; dena bare-bare egongo litzateke, eta erraz baino errazago harrapatuko luke Hucken dirua.

— Bai, nik ere hori uste dut. Ez dut horretarako eragozpenik ikusten. Denek baztertu al dute orduan beltzak egin zuela?

— Ez, ez, denek ez. Badira batzuk berak egin zuela uste dutenak. Baina laster harrapatuko dute beltza, eta agian beldurtu egingo da eta egia esan eraziko diote.

— Zergatik dabilta oraindik bere atzetik?

— Hara berriz, bai inozoa zarela! Egunero jartzan al dituzte hirurehun dolar jendeak eskura ditzan? Batzuek uste dute beltza ez dabilela hemendik urruti. Ni nauzu horietako bat..., baina ez dut horretaz hitzik esan. Duela egun batzuk aldamenean enborren etxetxoan bizi den bikote zahar batekin hizketan aritu nintzen, eta uste gabean aipatu zuten ez zela ia inor joaten han urrutian dagoen uhartera, Jacksonen uhartera deritzoten horretara. Ez al da han inor bizi?, galdegin nuen. Ez, inor ez, esan zuten. Ez nuen bes-

terik esan, baina pentsakor geratu nintzen. Ia erabat ziur nengoen han kea ikusi nuela, uhar-tearen kaskoan gutxi gorabehera, egun bat edo bi lehenago, eta horrenbestez esan nuen nirekiko, ez al da beltz hori han ezkutatua egongo? Dena dela, iruditzen zait pena merezi duela lekua miatzeak. Geroztik ez dut kerik ikusi, eta agian alde egingo zuen, bera izatekotan ere; baina senarra han dagoen ikustera joatekoa da, bera eta beste gizon bat. Ibaian gora ibili da, baina gaur itzuli da eta, duela bi ordu edo, eta iritsi bezain laster dena esan diot.

Estu-estu jarri nintzen, eta ezin nuen geldirik egon. Eskuak mugitu behar nituen. Mahai gainetik orratz bat hartu eta haria sartzen hasi nintzaion. Eskuak dardarka nituen, eta ez nintzen ongi ari. Orduan emakumea isildu egin zen, gorantz begiratu, eta modu bitxian begiratu zidan, irribarrez. Orratza eta haria utzi, eta jakinminez entzuten niola itxura egin nuen —eta hala entzuten nion gainera—, eta esan nuen:

— Hirurehun dolar ez da diru makala. Amak lortzea nahi nuke. Senarra gaur gauean bertan joango al da?

— Bai, bai. Herrira joan da lehen esan dizudan gizonarekin txalupa bat eskuratu eta beste eskopeta norbaiti eskatzera. Gauerdia pasa eta gero joango dira.

— Ez al lukete hobe ikusiko egun argia egin arte itxaronez gero?

— Bai. Eta beltzak ere ez al luke hobe ikusiko? Gauerdiaz gero lotan egongo da ziur aski, eta orduan zuhaitz artean ezkutatu eta ilunpetan errazago aurkituko dute kanpamenduko sua, sua egin baldin badu behintzat.

— Ez nuen hori kontutan hartu.

Emakumeak modu bitxian begiratzen zidan orduan ere, eta ni ez nengoen oso lasai. Berehalaxe esan zuen:

— Nola esan duzu zela zure izena, maitea?

— M... Mary Williams.

Ez zitzaidan iruditu aurrekoan Mary esan nuenik, eta horregatik ez nuen burua altxatu; iruditzen zitzaidan Sarah esan nuela, eta estualdian ikusten nuen neure burua, eta hori agerian uzteko beldurrez. Emakumeak zerbait gehiago esan zezan nahi nuen; zenbat eta denbora luzea-

goa isilik egin, kezkatuagoa nengoen. Baina orduan esan zuen:

— Maitea, iruditu zait sartu zarenean Sarah izena zenuela esan duzula.

— A, bai andrea, hala esan dut. Sarah Mary Williams. Sarah dut lehenengo izena. Batzuek Sarah esaten didate, besteek Mary

— Hara, horregatik al zen?

— Bai, andrea.

Lasaiago geratu nintzen, baina dena dela handik kanpora egon nahi nuen. Ezin nuen oraindik burua altxatu.

Emakumea garai txarrak zirela eta hasi zen hizketan, eta oso gaizki bizi zirela, arratoiak han jaun eta jabe ibiltzen zirela, eta abar eta abar, eta orduan berriz lasaitu nintzen. Arrazoi zuen arratoiez esandakoaz. Bazterreko zulotik muturra ateratzen ikus zenezakeen animalia horietako bat edozein unetan. Esan zuen gauzak eskueran izan behar zituela arratoiei botatzeko baka-rik zegoenean, bestela ez zutela bakean uzten. Goiko muturrean korapiloa zuen berunezko barra bat erakutsi zidan, eta esan zuen apunte-ria ona zuela gehienetan, baina egun pare bat

lehenago besoa bihurritu zuela, eta ez zekiela asmatuko ote zuen orduan. Baina aukera izan zuenean, hartu eta arratoi baten kontra bota zuen, baina arratoiaren lekutik oso urrutira, eta ai! esan zuen besoak jaurtiketan min eman baitzion. Gero esan zidan hurrengoarekin ni saiatzeko. Agurea itzuli baino lehen alde egin nahi nuen handik, baina noski ez nuen hori adierazi. Tresna hartu, eta muturra atera zuen lehenengo arratoiari zuzendu nion, eta leku berean geratu izan balitz ez litzateke hura oso arratoi osasuntsua izango. Esan zuen primerako jaurtiketa izan zela hura, eta iruditzen zitzaiola hurrengoari emango niola ederra. Berunezko tresna hartzera joan, eta hari mataza batekin batera ekarri zuen, eta hura askatzen lagundu niezaion nahi zuen. Bi eskuak zabaldu nituen eta mataza jarri zidan eskuen gainean eta aurrera egin zuen bera eta senarraren arazoez hizketan. Baina halako batean eten egin zuen eta esan:

— Ez arratoiak begi bistatik galdu gero. Hobe duzu barra magalean gordetzea, eskueran.

Tresna magalera bota zidan, une horretan bertan, nik hankak elkartu nituen hura harrapa-

tzeko eta andreak hizketan aurrera egin zuen. Baina minutu bat edo besterik ez. Gero eskutatik kendu zidan mataza eta aurpegira bete betean begiratu zidan, baina oso modu atseginean, eta esan zuen:

— Zatoz, eta esan... zein duzu benetako izena?

— Zer, andrea?

— Zein duzu benetako izena? Bill al da, ala Tom, ala Bob? Edo zein da?

Esan behar dut dardara bizian nengoela, eta ez nekiela oso ongi zer egin. Baina esan nuen:

— Mesedez ez barre egin ni bezalako neska gaixo baten kontura, andrea. Traba egiten badut hemen, ni...

— Ez, ez zara joango. Eseri eta zauden lekuan geratu. Ez dizut ezer egingo, eta ez diot ezta ere inori ezer esango. Zure sekretua esan, eta nigan uste ona izan. Isilik gordeko dut; eta are gehiago, laguntza emango dizut. Nire senarrak ere gauza bera egingo du, zuk nahi izanez gero. Ikusten, ofizio ikasle iheslaria zara, besterik ez. Hori ez da ezer asko. Ez du horrek kalterik sortzen. Nolanahi erabili zaituzte, eta horrekin

bukatzea erabaki duzu. Bedeinkatua zu, mutiko, nik ez zintuzket salatuko. Konta iezadazu guztia, tira, mutil zintzoa zara eta.

Horrenbestez esan nion ezin nuela gezurretan gehiago luzatu, eta hobe nuela aitortu eta dena esan, baina berak hitza bete beharko zuela. Esan nion aita eta ama hilak nituela, eta legeak nekazari zahar zeken baten eskutan utzi ninduela, mendian ibaitik hogeita hamar milatara; oso gaizki hartu ninduela eta ezin nuela gehiago jasan; kanpora joan zela egun pare bat igarotzeko asmotan, eta orduan izan nuela auke-
ra alabaren arropa zahar batzuk lapurtu, eta ihes egiteko, eta hiru gau behar izan nituela hogeita hamar mila horiek egiteko. Gauez ibili, eta egunez ezkutatu eta lo egiten nuen, eta etxetik hartutako ogi eta haragiz betetako zorroak bide osorako iraun zidan eta behar adina izan nuen. Esan nion iruditzen zitzaidala Abner Moore osaba nitaz arduratuko zela, eta horregatik Goshen herri horretara jo nuela.

— Goshen, ume? Hau ez da Goshen. Hau St. Petersburg da. Goshen ibaian gora hamar milatara dago. Nork esan dizu hau Goshen dela?

— Zer bada, goizean egunak argitu duenean topatu dudan gizon batek, basora eguneroko loaldia egitera sartzera nindoan unean. Esan dit bideak bereiztean eskuinetara hartu behar nuela, eta bost mila egin eta Goshenera iritsiko nintzela.

— Mozkorra egon behar zuen. Juxtu-juxtu kontrakoa esan dizu.

— Bai, mozkorren itxurak zituen, baina orain horrek berdin dio. Aurrera egin behar dut. Egunak argitu baino lehenago izango naiz Goshenen.

— Itxaron pixka bat. Ogitartekoa jarriko dizut. Ongi etorriko zaizu behar bada.

Ogitartekoa jarri eta esan zidan:

— Esan, behia etzanda dagoenean, zein alderdi altxatzen du lehenengo? Erantzun azkar, ez pentsatu. Zein alderdi altxatzen du lehenengo?

— Atzealdea, andrea.

— Eta, orduan, zaldiak?

— Aurrealdea, andrea.

— Arbolari zein aldetan hazten zaio goroldiorik gehiena?

— Iparraldean.

— Hamabost behi mendi-lepo batean larrean daudenean, horietako zenbatek jango dute belarra burua zentzu berera begira dutelarik?

— Hamabostak, andrea.

— Ederki, ikusten dut mendialdean bizi izan zarela. Pentsatzen nuen ziria sartu nahian zenbiltzala berriro ere. Eta, zein duzu benetako izena?

— George Peters, andrea.

— Ba, ondo gogoratu, George. Ez ahaztu gero, eta ez esan hemendik alde egin baino lehen Elexander duzula izena, eta harrapatzen zaitudanean ez aitzakiarik atera George-Elexander dela esanez. Eta ez ibili emakumeen inguruan perkal zahar hori jantzita. Neskarena ez duzu batere ongi egiten, baina beharbada gizonen ziria sar zeniezaieke. Ene Jainkoa, umea, orratzean haria sartzerakoan, ez hariari eutsi eta orratza hurbildu; orratza geldirik utzi eta haria sartu zuloan; emakumeak gehienetan horrela egiten du, baina gizonak alderantziz beti. Eta arratoiari edo beste gauza bati zerbait botatzen diozunean jar zaitez hanka punttetan, eta altxa

eskua buru gainera ahal duzun modurik trake-
tsenean, eta bota tresna arratoia dagoen lekutik
bi metrotara gutxienez. Jaurtiketa sorbaldatik
egin besoa zuzen-zuzen jarrita, besoak jiratzeko
ardatza balu bezala, nesken tankeran; ez bota
eskumuturretik edo ukalondotik, besoa alde
batean jarrita, mutilek egiten duten bezala. Eta
barkatu, neskak magalean zerbait hartu nahi
duenean, belaunak zabaltzen ditu, eta ez ditu
zapla ixten, zuk egin duzun bezala berunezko
barra harrapatu duzunean. Horregatik, orratzean
haria sartzerakoan konturatu naiz mutila zinela,
eta gainontzeko gauzak hori ziurtatzeko asmatu
ditut. Orain segi hemendik zure osabarengana,
Sarah Mary Williams George Elexander Peters,
eta nahaspilaren batean sartuz gero Judith Loftu-
sen bila joateko eskatu, neu nauzu eta, eta ahal
dudana egingo dut zu istilutik onik ateratzeko.
Ibai ondoko bidetik ez alde egin bide guztian, eta
hurrengo batean ibilaldia egitea erabakitzen
baduzu, hartu galtzerdiak eta zapatak. Ibai
ondoko bidea harritsu da oso, eta Goshenera
iristerako oinak itxura onean izango dituzu, bai
horixe.

Ibai bazterrean gora jo nuen berrogeita hamar metro edo egin arte, eta gero aztarnetan atzera egin eta ezkutuan joan nintzen kanoa zegoen lekuraino, txabolatik beherantz tarte handi xamarrera. Barrura jauzi egin eta presaka alde egin nuen. Ibaian gora arraun egin nuen uhartearen buruaren parera iritsi arte, eta orduan ibaia zeharkatzen hasi nintzen. Eguzkitako sonbreirua kendu nuen, ez nituen eta begilarrurik behar une horretan. Erdialdean nengoenean, erloju bat entzun nuen hasi zela orduak jotzen; gelditu eta entzun egin nuen. Hotsa motel xamar entzuten zen uretan, baina garbi... hamaikak. Uhartearen burura iritsi nintzenean arnasa hartzeko ere ez nintzen geratu, erdi itota banengoen ere, aitzitik nire ohiko kanpamendua zegoen zuhaitzira sartu nintzen, eta leku garai eta lehor batean su ederra piztu nuen.

Gero kanoan azkar sartu eta arraun egin nuen ibaian behera mila t'erdi edo egin arte, ahal nuen bizkorren. Lehorreratu, eta sasi artean gorantz jo nuen leize-zulora iritsi arte. Han zetzan Jim lurrean lo zerraldo. Esnatu egin nuen eta esan nion:

— Jeiki eta azkar mugitu, Jim! Ez dugu minutu bakar bat alferrik galtzeko. Gure bila dabilta!

Jimek ez zuen ezer galdetu, ez zuen hitzik esan, baina ondorengo ordu erdian haren lan egiteko moduak garbi adierazten zuen beldurrak airean zebilela. Ordurako munduan genituen gauza guztiak bilduta zeuden almadian eta hura ezkutaturik sahas ondoko ur bazterretik ateratzeko prest. Lehenik leize-zulo atariko sua itzali genuen, eta harrez gero ez genuen kanpoan kandela bakar bat ere agerian utzi.

Kanoa ibai bazterretik pixka bat kanporatu eta ingurura begiratu nuen; inguruan txaluparik ote zen ezin ikus nezakeen, izarrak eta itzalak ez baitira gauzak argitzeko laguntzaile onak. Gero almadia handik atera eta itzalpean ibaian ziri-zara beherantz jo genuen, isiltasun osoan uhar-tearen beheko muturra igaro arte, hitzik ere esan gabe.

Hamabigarren atala

la goizeko ordu bata zen azkenean uhartetik urrundu ginenean, eta almadia oso poliki zihoala zirudien. Ontziren bat azalduz gero kanoa hartu beharko genuen eta Illinoisko ibai bazterrera azkar jo; eta eskerrak ez zela ontzirik etorri, ez baitzitzaigun bururatu eskopeta, arrantzarako hariak edo jateko zerbait kanoan sartzea. Larriegi ibili ginen hainbeste gauza kontutan hartzeko. Ez zen oso zentzuzko erabakia izan gauza guztiak almadian jartzea.

Gizonak uhartera joan baziren, nik piztutako sua aurkitzea espero nuen, eta limen zain gau osoa han igarotzea. Dena dela, gugandik urrun zeuden, eta nik egindako suak ez bazituen engainatu ez zen nire erruz izan. Nik ahal izan nuen modu zitalenean jokatu nuen.

Egunsentiaren lehenengo seinaleak azaldu zirenean, iztupa mutur batean lotu genuen almadia Illinois aldeko bihurgune handi batean, eta zumar zuri adarrak moztu genituen aizkora erabilita eta horiekin almadia estali, eta horrela ibai

bazter horretan lur-jauzia izan zela zirudien. Iztupa muturra hondar barra bat da, eskuarearen hortzak bezain lodiak diren zumar zuriz osatuta dagoelarik.

Missouriko aldean mendiak dituzu, baso ugariak Illinoisekoan, eta leku horretan ontzi-ubidea Missouriiko bazterretik igarotzen da, beraz ez ginen inork aurkituko gintuen beldur. Egun osoa bertan eman genuen, eta almadiak eta baporeak bizkor ikusten genituen Missouriiko bazterretik beherantz zihoazela, gorantz zihoazen baporeak berriz, ibaiaren erdian aurrera egin ezinean borrokan. Jimi emakumearekin izandako berriekta osoaren berri eman nion; eta Jimek esan zuen azkarra zela andrea, eta bera gure bila hasiz gero, ez zela kanpamenduko suari begira gertuko, ez, jauna, zakurra eramango zuela. Orduan, esan nuen, senarrari zakurra eramateko ere esan ziezaiokeela. Jimek esan zuen apustu egingo zuela gizonak abiatzeko orduan emakumeari hori bera bururatuko zitzaiola, eta uste zuela herrira joanak izango zirela zakurraren bila eta horrela denbora galdu zutela, eta horri esker, bestela ez ginatekeela han eztopa mutur

batean herritik behera hamasei edo hamazazpi milatara egongo, ez, horixe, herri zahar horretan egongo ginatke berriz. Orduan nik esan nuen bost axola ziola zergatik ez gintuzten harrapatu, harrapatzen ez gintuzten bitartean.

Iluntzen hasi zuenean, buruak atera genituen zumar zurien sasitetik eta gora, behera, eta aurrera begiratu genuen; ezer ez agerian; eta horrenbestez Jimek eguraldi bero eta euritsueta-tik babesteko eta gauzak lehor gordetzeko almadia-ko goiko ohol batzuk hartu zituen indioen tankerako kanpadenda eroso egiteko. Jimek zorua egin zion kanpadendari, eta leku horretan hamabost zentimetro edo gehiago altxa zizkion almadia-aren gainari, eta horrela burusi eta gauza guz-tiak baporeen olatuak iristen ez ziren lekuan jarrita zeuden. Kanpadendaren erdian hamabi edo hamalau zentimetrotako lur geruza jarri genuen, inguruan egitura bat zuelarik, lurra bere lekuan egon zedin. Hori eguraldi euritsu eta hotza egiten zuenean sua pizteko izango zen. Kanpadendak sua ezkutatuko zuen. Beste arraun nagusia ere egin genuen, besteetako bat puska zitekeen eta, urperatutako enbor bat edo beste

edozer gauza jota. Sarde tankerako makilatxoak jarri genuen tente linterna zaharra gainean zintzilikatzeko. Izan ere, linterna piztu behar izaten genuen baporeak ibaian behera zetozen guztietan, haiek harrapa ez gintzaten; baina ez zen beharrezkoa piztea baporeak gorantz ari zirenean, «bidegurutze» esaten dioten horretan ez baginen behintzat; alegia, ibaia hazi xamarra zegoen oraindik, beheko bazterrak zertxobait ur azpian zeudelarik; horregatik gorantz zihoazen ontziek ez zuten ontzi-bidetik aurrera egiten, eta horren ordean ur errazagoak bilatzen zituzten.

Bigarren gauean zazpi edo zortzi orduz ibaian behera aritu ginen, uraren indarrak orduko lau milatako abiadura baino gehiago hartzen zituelarik. Arrantzan egin genuen, eta noizean behin uretan sartzen ginen loak ez hartzeko. Ospe handiko gauza zen ibai isil handi horretan behera joatea, eta lurrean etzanda izarrei begira egotea. Ez genuen ahots ozenean hitz egiteko gogorik, eta ez genuen askotan barre egiten, barre isilen bat besterik ez. Eguraldi ona izan genuen, gehienetan, eta gau horretan ez zitzaigun ezer gertatu, ez hurrengoan, eta ez hurrengoan ere.

Gauero herrien aurretik igarotzen ginen, batzuk goi batean urrutian zeuden mendialde beltzetan, argiz osatutako ohe distiratsua besterik ez zen, eta etxe bakar bat ere ez zen bereizten. Bosgarren gauean St Louisen aurretik pasaginen, eta hura mundu osoa argiztatua ikustea bezalakoxea zen. St Petersburgen esan ohi zuten St Louisen hogeit hamar mila pertsona bizi zirela, baina nik ez nuen sinesten goizeko ordu bietan gau isil horretan argi eremu zoragarri hori ikusi nuen arte. Ez zen soinu bakar bat entzuten, denak lo zeuden.

Gauero, hamarrak inguruan, ibai bazterrera isil isilik atera, eta herriren batera joaten nintzen, eta hamar edo hamabost xentimo irin, hirugihar, edo jateko beste zerbait erosten nuen. Batzuetan makil gainean gustura kokatua ez zegoen oiloren bat hartu, eta eraman egiten nuen. Aitak beti esaten zuen: oiloa hartu aukera duzun guztietan, zuk ez baduzu nahi ere beti izango da eta nahiko duen norbait, eta mesede on bat ez da inoiz ahazten. Ez nuen aita inoiz ikusi oilorik behar ez zuen unean, baina, dena dela, hori esan ohi zuen.

Goizean, egunak argitu aurretik, ezkutuan joaten nintzen arto soroetara eta sandiaren bat, meloia, kalabaza, artaburuak, edo tankera hone-tako gauzak hartzen nituen. Aitak beti esaten zuen gauzak hartzeak ez zuela kalterik egiten, noizbait ordaintzeko asmoa izanez gero; baina alargunak lapurretaren izen dotoreagoa besterik ez zela zioen, eta pertsona zintzoa zenak ez lukeela hori egingo. Jimek esan zuen iruditzen zitzaiola alargunak neurri batean arrazoi zuela, eta aitak neurri batean ere bai; horrenbestez onena genuen zerrendatik bi edo hiru gauza kentzea eta gehiago ez genituela hartuko esatea; hartara ez zuen uste beste gauzak hartzeak inori kalterik egingo zionik. Horretaz hitz egiten jardun genuen gau osoan, ibaian behera gindoazelarik, sandiak, meloiak, kalabazak edo zerrendatik zer kendu erabaki nahian. Baina egunsentirako dena ongi erabakita genuen, baso-sagarrak eta kakiak botatzeari ongi iritzi genion.

Hori erabaki baino lehen ez ginen oso lasai, baina orain dena primeran zegoen. Gainera poztu egin nintzen emaitzarekin, basoko sagarrak ez zirelako inoiz onak izaten, eta kakiak bi

edo hiru hilabete pasa arte heldugabe egongo zirelako.

Goizean goiz jaiki edo gauean garaiz oheratu ez zen ur hegaztiari tiro egiten genion, noizean behinka. Orokorrean hartuta, aberatsak bezalatsu bizi ginen.

Bostgarren gauean St Louis igarota gauerdia-
ren ondoren ekaitz ikaragarria izan genuen, txi-
mista eta trumoi pila ederra eta guzti, eta euria
barra-barra ari zuen, oihal tinkoa osatzen zuela-
rik. Kanpadenda barruan geratu ginen, eta alma-
dia bere kabuz joaten utzi genuen. Tximistak
argitzen zuenean ibai zuzen eta handia ikusten
genuen aurrean, eta mendi garai harritsu eta
aldapatsuak bi aldetara. Handik tarte batera
esan nuen: «Hara, Jim, begira han urruti! Har-
kaitz baten kontra bazterra jo zuen baporea zen.
Zuzen-zuzen gindoazen harengana. Tximistak
oso garbi erakusten zuen. Okertuta zegoen,
goiko ontzi-bizkarra ur gainean zegoelarik. Argi
distira agertzen zen bakoitzean garbi-garbi ikus
zitezkeen tximiniako haize euskarri txikiak bana
banan, eta bizkarrean sonbreiru zaharra zintzilik
zuen aulkia kanpai nagusiaren ondoan.

Gau iluna izanik, ekaitz eta misterio giro horretan, beste edozein gaztek sentituko lukeen gauza bera sentitu nuen, ibaiaren erdian itsas ontzia goibeldurik eta bakardadean ikusi nuen. Ontziratu nahi nuen eta ezkutuan ibili hango gauzak ikusten. Eta esan nuen:

— Ontzira gaitezen, Jim.

Baina Jim hasieran horren aurka zegoen erabat. Esan zuen:

— Ez dut tontakerietan ibili nahi inongo ontzi urperatutan. Ongi ari gara, demonio, eta hobe dugu hura bakean uztea, liburu santuak esaten duen bezala. Ziur aski zaindaria izango du ontzi horrek.

— Zaindaria hire amona, zera —esan nuen—; ez dago zaintzeko ezer ofizialeen gelak eta lemaren etxetxo ez bada, eta zuk uste al duzu inork bere burua arriskuan jar dezakeela ofizialeen gela eta lemaren etxetxo batengatik gaugiro honetan, ontzia hausteko zorian egonik eta edozein unetan urak arrastaka eramanez dezakeelarik? Jimek ezin zion honi ezer erantzun, beraz saiatu ere ez zen egin.

—Eta gainera —esan nuen—, agian gauza baliagarriren bat bat genezake kapitainaren ontzi-gelatik. Zigarroak, apustu egingo nizuke, eta bost xentimotan saltzen da alea, esku dirua, zera. Baporetako kapitainak aberatsak izan ohi dira, hirurogei dolar irabazten dituzte hilean, eta ez zaie axola gauza batek zenbat balio duen, badakizu, gauza hori lortu nahi badute behintzat. Sar ezazu kandela poltsikoan. Ez naiz lasai egongo, Jim, ontzian miaketa egiten ez dugun bitartean. Zuk uste al duzu Tom Sawyerrek horrelako aukera alferrik galtzen utziko lukeenik? Ez eta pentsatu ere, ez luke egingo. Abentura izena emango lioke, bai halaxe esango luke; eta bere azken ekintza izango balitz ere ontzi horretan sartuko litzateke. Eta bai tankera dotorea emango liokeela!, eta ederki luzatu ere gauzak azaltzen! Cristobal Colonen antza emango zenioke hari beste munduko Erreinua aurkitzen. Tom Sawyer hemen izan nahi nuke.

Jim marmarka aritu zen, baina azkenean amore eman zuen. Esan zuen oso premiazkoa zenaz besterik ez genuela hitz egin behar, eta hori ere isil isilik. Tximistak ontzia argitu zuen

berriz, une egokienean, istriborreko txirrika hartu, eta almadia bertan lotu genuen.

Ontzi gainak kanpora egiten zuen leku horretan. Ilunpetan aldapan beheara arrastaka joan ginen ontziaren ezker alderantz, ofizialeen gelarantz, poliki-poliki bidea oinen bidez haztamuka aurkitzen genuelarik, eta eskuak zabal-zabal jarrita sokekin traba ez egiteko, izan ere, iluntasun horretan ez baitzen horien arrastorik aurkitzen. Berehala sabaileihoaren aurreko muturra-ekin egin genuen topo, eta gainera igo ginen. Hurrengo urratsak kapitainaren gelaren ate aurrera eramán gintuen, eta irekita zegoen, eta, arraioa! ofizialeen pasabidetik harantz argia ikusi genuen; eta aldi berean barruan ahotsak marmarka entzun genituela iruditu zitzaigun.

Jimek ahopeka esan zuen oso gaizki zegoela, eta handik kanpora ateratzeko. Baietz esan nion; almadiarantz abiatzera gindoazen, baina orduantxe ahots bat entzun nuen orro egiten zuela esanez:

— Oi, ez mesedez, mutilak; zin egiten dizuet ez dudala ezer esango!

Beste ahotsak esan zuen, modu ozen xamarrean:

— Gezurra, Jim Turner. Aurrekoetan ere gauza bera esaten zenuen. Beti nahi izan duzu zegokizuna baino diru gehiago, eta beti eskuratu duzu gainera, zin egiten zenuelako dirua lortzen ez bazenuen salatu egingo gintuzula. Baina oraingoan gehitxo jokatu duzu. Lurralde honetako gizatxar zeken eta azpisugeena zara.

Ordurako Jim almadiara joana zen. Ni jakininez irrika bizian nengoen; eta esaten nuen nirekiko, Tom Sawyerrek ez luke orain atzera egingo, eta nik ere ez. Hemen zer gertatzen den ikustera noa. Belaun eta esku gainean jarri nintzen lurrean pasabide txikian, eta ilunpetan txoparantz joan nintzen lau oinetan, ni nengoen lekutik ontzi gaineko pasabide bidegurutzeraino iristeko ontzi-gela bakarraren tarte geratu zen arte. Orduan gizon bat ikusi nuen lurrean luze etzanda eskuak eta oinak lotuta, eta bere aurrean bi gizon zituelarik. Horietako batek lintera ahula zuen eskutan, eta besteak pistola. Honek arma lurrean zegoen gizonaren burura zuzenduta zuen eta zioen:

— Nahi nuke! Hobe nuke, gainera, gizatxar zeken alaena!

Lurreko gizona bihurritu egiten zen, eta esaten zuen:

— Ez, Bill, mesedez. Ez dut inoiz hitzik esango.

Eta hori esaten zuen aldiro, linterna zuen gizonak barre egiten zuen esanez:

— Noski ez duzula ezer esango! Ez duzu inoiz egia handiagorik esan, apustu egin dezakezu. Eta orduan esan zuen:

— Hara nola erregutzen duen! eta menperatu ezin izan bagenu eta lotu, biak hilko gintuzkeen. Eta zergatik? Ezergatik ere ez. Geure esku-bideen alde jokatzegatik besterik ez, horregatik. Baina apustu egiten dizut ez duzula hemen-dik aurrera inor mehatxatuko, Jim Turner. Gorde pistola hori, Bill.

— Ez dut nahi, Jake Packard —esan zuen Billek—. Hil egin behar dut. Ez al zuen berak Hatfield zaharra ere horrelaxe hil. Ez al du, bada, merezi?

— Baina nik ez dut hilik behar, eta arrazoiak ditut hori esateko.

— Bedeinkatua izan zaitez, Jake Packard, hitz horiek esateagatik! Ez zaitut inoiz ahaztuko, bizi naizen artean —esan zuen lurreko gizonak, negar muzinka.

Packardek ez nion jaramonik egin, linterna iltze batean zintzilikatu, eta ilunpetan ni nengoen lekura hurbiltzen hasi zen, Billi bere atzetik joateko keinuak egin zizkiolarik. Karramarroen tankeran atzerantz egin nuen ahal bezain azkar, bi metro edo, baina ezin nuen azkarregi ibili, ontzia hain zegoen okerturik. Horrenbestez harrapatu ez nintzaten goiko aldeko ontzi-gela batean sartu nintzen lau hanketan arrastaka. Gizona haztamuka etorri zen ilunpetan, eta Packard nire ontzi-gelaraino iritsi zenean, esan zuen:

— Hona, sartu hona!

Sartu egin zen, eta Bill bere atzetik. Baina horiek sartzerako goiko ohean nengoen igota, bazterrean eta inguratuta, eta han egoteagatik damaturik. Gero zutik geratu ziren, eskuak ohe ertzean jarrita eta hizketan. Ezin ikus nintza-keen, baina non zeuden esan bai, edan zuten whiskyari eskerrak. Poztu nintzen whiskya eda-

ten ez nuelako, baina, dena dela, ez nion alde handirik ikusten, denbora gehienez ezingo ninduten eta harrapatu arnasarik ez nuelako hartzen. Beldurtuegia nengoen. Eta gainera, inork ezingo luke arnasa hartu eta aldi berean horrelako hizketaldia entzun. Ahopeka eta zinez ari ziren hitz egiten. Billek Turner hil nahi zuen, eta esan zuen:

— Esan zuen hitz egingo zuela, eta hala egingo du. Bioi dagokigun zatia emango bagenio ere alferrik izango litzateke istiluaren ondoren, eta hura erabili dugun bezala erabilita. Ziur baino ziurrago egon zaitezke auzitan salatu egingo gaituela. Orain entzun ongi. Bere kezka guztietatik libre utzi nahi dut betiko.

— Nik ere bai —esan zuen Packardek, isil isilik.

— Eskerrak; ez zenuela nahi pentsatzen hasita nengoen. Ederki orduan. Goazen, bada, eta egin dezagun.

— Itxaron minutu bat. Ez dut amaitu oraindik. Entzun. Tiro egitea ongi dago, baina badira modu isilagoak hori bera egiteko. Hau duzu nire iritzia: ez deritzot zentzuzkoa urka sokaren ingu-

ruan ibiltzeari, gauza bera modu egokian eta aldi berean arriskutan ibili gabe egin daitekeenean. Ez al da hala?

— Ez da izango, bada? Baina oraingo honetan nola moldatuko zara?

— Hara, nire ideia hau da: azkar inguruak begiztatu eta ontzi-geletan ikusi gabe utzitako gauzak hartuko ditugu, ibai bazterrera gauzak txalupan eraman eta zamaketa ezkutatu egingo dugu. Gero zain egongo gara. Nik uste dut bi ordu baino gehiago ez dituela ontzi honek egingo txikitu eta urak ibaian behera arrastaka eraman baino lehen. Ikusten? Ito egingo da, eta bere burua besterik ez du izango errua egozteko. Nik uste dut gizona hiltzea baino gauza erosoagoa dela hori. Gizona hiltzearen aurka nago besterik egiterik dagoen bitartean; zentzurik ez luke, eta gizalegezkoa ere ez litzateke izango. Ez al nago zuzen?

— Bai, baietz uste dut. Baina jo dezagun ontzia ez dela txikitzen eta urak ez duela eramaten.

— Berdin-berdin zain egon gaitezke, eta bi ordutan zer gertatzen den ikusi, ezta?

— Ederki, goazen.

Gizonak irten ziren, eta ni izerditan eta hotzak abiatu nintzen lau oinetan ontziaren brankarantz. Infernua baino ilunago zegoen, baina ahopeka eta zakar xamar esan nuen, Jim! eta arrenkuratsu erantzun zidan, sorbalda ondo ondotik hain zuzen ere, eta esan nion:

— Azkar, Jim, denborarik ez dago lelokerietan eta kexuka ibiltzeko. Hiltzaile talde bat dago hor barruan, eta ez badugu horien txalupa bilatu eta ibaian behera joaten uzten, itsasontzitik ihes egin ezinean uzten ditugularik, horien arteko batek estualdi larriak ezagutuko ditu. Baina txalupa aurkitzen badugu denak jar ditzakegu estualdian, sheriffak harrapatuko dituelako. Azkar, mugi! Nik ababorrean begiratuko dut, zuk istriborrean. Almadia dagoen lekutik hasi, eta...

— Ene Jauna, Jauna! Almadia? Ez dugu almadiarik, soka hautsi eta joan egin da! Eta gu hemen!

Hamahirugarren atala

Arnasari eutsi eta ia zorabiatu nintzen. Itsa-sontzi batean harrapatuta, eta honelako banda-rekin! Baina denborarik ez genuen samurkerietan aritzeko. Txalupa aurkitu behar genuen, geuk behar genuen. Beldurrez eta hotzak dardarka ibili ginen istribor aldetik, eta poliki ibili gainera; astebetetz aritu ginela iruditu zitzaigun brankara iristerako. Ez zen inon txaluparen arrastorik. Jimek esan zuen ez zuela uste gehiago egin zezakeenik, beldurrak airean zegoela eta amaitu zitzaizkiola indarrak. Baina, nik esan nion, mugi, ontzi honetan geratzen bagara larri ibiliko gara eta. Eta berriro katuka ibili ginen. Gainaldeko branka bilatzen hasi ginen, aurkitu, eta atzaparka igo ginen sabaileiho gainera, kontraleiho bati eta besteari eutsiz, sabaileihoaren muturra uretan baitzegoen. Pasabidearen atetik gertu ginelarik, hantxe ikusi genuen txalupa, bai horixe! Ia ezin nuen ikusi. Esker onez aserik nengoen. Segundo bat igaro eta txalupa barruan egon nintekeen, baina orduantxe bertan atea

ireki zen. Gizonetako batek burua atera zuen, nigandik metro eskas batera, eta nireak egin zuela pentsatu nuen, baina berriz sartu zuen, eta esan:

— Kendu linterna madarikatu hori nire begien aurretik, Bill!

Poltsa bat edo horrelako zerbait bota zuen txalupara, eta gero bera sartu eta eseri zen. Packard zen. Gero Bill atera zen eta txalupan sartu. Packardek esan zuen ahopeka:

— Prest. Askatu txalupa!

la ezin nion neure buruari eutsi kontraleihotan zintzilik, oso ahuldurik nengoen eta. Baina Billek esan zuen:

— Itxaron. Gizona aztertu al duzu?

— Ez. Zuk ere ez?

— Ez. Ziur berak izango duela orduan diruaren zati bat.

— Orduan, etorri. Alferrik da gauzak hartu eta dirua uztea.

— Eta, ez al du susmatuko zertan gabiltzan?

— Beharbada. Baina hala ere hartu egin behar dugu. Goazen.

Txalupatik irten eta barrura joan ziren.

Atea kolpetik itxi zen, ontzia okertzerakoan ur ganean geratu zen aldean zegoelako; segundo erdian txalupan nengoen, eta Jim atzetik hantxaz gora sartu zen. Labaina atera eta soka moztu nuen, eta hantxe abiatu ginen!

Ez genuen arraunik ukitu, ez hitz egin, ezta ahopeka ere, ia arnasarik ere ez genuen hartu. Uretan irristaka joan ginen, isiltasun osoan, palatxoaren gurgilaren ertza eta brankaren aurretik pasa ginen; gero segundo pare bat igaro eta itsasontzitik ehunka metrotara ginen ibaian behera, eta iluntasunak ontzia xurgatu egin zuen, azken arrastoa ere, eta gu osorik eta bizerik ginen, eta bagenekien.

Ibaian behera hiru edo laurehun metrotara ginenean, ontzi gaineko atean unetxo batean linterna argia ikusi genuen txinparta txikia balitz bezala, eta horrela jakin genuen petral horiek txalupa galdu, eta jabetzen hasiak zirela, Jim Turnerrek bezalatsu, beraiek ere arazoak zituztela.

Gero Jimek arraunak hartu zituen, eta gure almadiaren bila abiatu ginen. Orduan hasi nintzen lehenengo aldiz gizonengatik kezkatzen...

uste dut denborarik ere ez nuela izan ordura arte. Pentsatzen hasi nintzen ikaragarria zela, baita hiltzaileentzat ere, horrelako estualdian egotea. Esan nuen nire artean, ezin daiteke esan baina ni neu ere hiltzaile izan naiteke egunen batean, eta orduan, zer, gustatuko al litzaidake? Horrenbestez esan nion Jimi:

— Lehenengo argia ikusten dugunean, lehorreratu egingo gara, argia baino ehun metro lehenago edo aurrerago, txalupa eta zu ezkutatzeke leku egokiren batean, gero ni joango naiz eta istorioren bat asmatuko dut, eta hirukotearen bila joateko norbait bilatuko dut eta estualditik libratuko ditu, horrela urkatuko dituzte beraien garaia iristean.

Baina ideiak ez zuen aterabide onik izan. Berehala ekaitzak lehertu zuen berriz, eta inoiz baino gogorrago. Euria barra-barra ari zuen, eta ez zen argirik ikusten; denak ohean izango ziren, noski. Trumoi hotsen artean gindoazen, argi bila eta gure almadia aurkitu nahian. Denbora luzea igaro eta euriak atertu zuen, baina hodeiak han geratu ziren, eta tximistak muzinka ari ziren etengabe. Geroxeago distira batek gure aurrean

gauza beltz bat erakutsi zigun, ur gainean, eta haren atzetik joan ginen.

Almadian zen, eta poztu egin ginen bertara berriz igo ginenean. Argia ikusi genuen orduan, aurrerago eskuinetan, ibai bazterrean. Bertara abiatuko nintzela esan nuen. Txalupa hirukoteak itsasontzian lapurretan harrapatutako gauzez erdi beterik zegoen. Azkar-azkar jarri genuen dena almadian pila batean, eta Jimi esan nion ibaian aurrera egiteko, eta argia pizteko bi mila edo egin zituela iruditzen zitzaionean, eta piztuta uzteko ni iritsi bitartean. Gero arraunak hartu nituen eta argiaren alderantz abiatu nintzen. Hurbildu ahala beste bizpahiru argi agertu ziren mendi hegalean. Herrixka bat zen. Argi ondoraino iritsi nintzenean arraunak utzi eta ur gainean txalupa joaten utzi nuen. Aurretik pasatzerakotan, linterna bat ikusi nuen zintzilik gorpuzkera bikoitzeko alda-ontzi baten banderaren makilatik zintzilik. Inguruan ibili nintzen zaindariaren bila, lotan non ote zegoen neure buruari galdezka. Ontzi gaineko langetan, aurrealderantz etzanda aurkitu nuen, burua belaunen artean zuelarik.

Bizkarrean eman nizkion bi edo hiru astindu txiki, eta negarrez hasi nintzen.

Mugitu egin zen, asaldaturik nolabait. Ni nintzela ikusi zuenean, ahoa zabaldu eta nagiak atera zituen, eta gero esan zuen:

— Kaixo, zer dugu? Ez negar egin, motel. Zer duzu?

Esan nuen:

— Aita, eta ama, eta arreba, eta

Orduan negarrez hasi nintzen berriz. Hark esan zuen:

— Aizu, ez horrela jarri, denok izaten ditugu arazoak eta zurea ere konponduko da. Zer gertatzen zaie?

— Joan dira... joan dira... ontziaren zaindaria al zara?

— Bai —esan zuen, bere buruarekin nahikoa harro zegoela adieraziz bezala—. Neu nauzu kapitaina eta jabea, eta laguntzailea, eta lema-zaina, eta zaindaria, ontzi gaineko marinelen burua; eta batzuetan zama eta bidaiaria. Ez naiz Jim Hornback bezain aberatsa, eta ezin dut bera bezain eskuzabal madarikatua izan Tom, Dick eta Harryri laguntza emateko, eta ezin dut berak

egiten duen bezala dirua han eta hemen alferrik galtzen ibili; baina askotan esan diot ez niokeela leku hau trukatu. Nik esaten diot, bada, mari-nelaren bizitza da niretzat bizitza, eta zoritxarrekoa izango nintzateke herritik bi milatara bizi behar izango banu inoiz ezer gertatzen ez den lekuan, ezta bere diru zikin guztiarengatik ere. Nik esaten dut, bada...

Hizketaldia moztu eta esan nion:

— Larrialdi ikaragarrian daude, eta...

— Nortzuk?

— Bada, aita, ama, arreba, eta Hooker andereño; eta alda-ontzia hartu eta bila joango bazina...

— Bila nora? Non daude?

— Hondoa jo duen itsasontzian.

— Zein itsasontzi?

— Bat besterik ba al dago?

— Zer, Walter Scottean daudela esan nahi duzu?

— Bai.

— Ene! Zertan ari dira, Jaungoikoaren ize-nean?

— Ez ziren nahita joan.

— Pentsatzen dut ez zirela joango! Baina, ene, ez dute salbabiderik izango ez badira berehala ateratzen! Nola demontre bururatu zaie horrelako estualdian sartzea?

— Hara, Hooker andereño ikustaldia egitera etorri zen herrira...

— Bai, Booth's Landingera... segi.

— Ikustaldia egiten ari zen, hor Booth's Landingen, eta arratsaldearen azken orduan ibaia-
ren beste aldera joaten hasi zen zaldien zamaon-
tzian bere emakume laguntzaile beltzarekin,
gaua lagun baten etxean igarotzeko asmotan,
andereño «ez dakit zer», izena ahaztu zait.
Arraun nagusia galdu zuten, bira eman eta nora-
biderik gabe zihoazen, popa aurrean zutelarik, bi
mila inguru egin, eta itsasontzi urperatuarekin
danba topo egin zuten. Alda-ontziko gidaria,
andre beltza, eta zaldiak desagertu egin ziren,
baina Hooker andereño nonbait heldu eta ontzi-
ratzea lortu zuen. Ilundu eta handik ordubetera,
geure ontzi zamarian ibaian behera gindoazen,
eta hain ilun zegoenez gero, ez genuen ontzi
hondoratua ikusi haren gainean izan ginen arte.
Guk ere danba topo egin genuen, baina denak

osorik atera ginen Bill Whipple ezik... hara, munduko gizonik onena zen! Nahiago nuke niri gertatu balitzait.

— Alajaina! Inoiz entzun dudan gauzarik bitxiena da hori. Eta gero zer egin duzue?

— Garrasi egin eta geure onetik atera, baina ibaia oso zabala da, eta inork ezin gintuen entzun. Orduan aitak esan du norbaitek ibai bazterrera joan beharko zuela laguntza bila. Neu nintzen igeri egin zezakeen bakarra, eta ziztu batean atera naiz. Hooker andereñok esan dit berehala laguntzarik lortzen ez banuen, hona etorri eta osaba aurki nezala, eta berak konponduko zuela dena. Mila bat beherago gutxi gorabehera lehorreratu naiz, eta orduz gero batean eta bestean denbora galtzen ibili naiz jendearen laguntza eskuratu nahian, baina esaten zidaten, «Honelako gaugiroan eta ur laster honekin? Ez da zentzuzkoa, joan zaitez alda-ontziaren bila». Zu joango bazina, eta...

— Alajainkoa, nahi nuke, eta ez dakit zer arrazoirengatik, baina joango naiz. Nork demonstre ordea ordainduko dit? Aitak uste al duzu...

— Hori ez da arazoa. Hooker andereñok garbi esan zidan Hornback osabak egingo zuela.

— Arraioa! Osaba al du? Bai zorte ona berea. Begira joan zaitez azkar han urrutian ikusten duzun argi horretarantz, eta bertara iristean jo mendebaldera, eta mila laurdena egin eta taberna bat topatuko duzu. Bertan daudenei esan ziztu batean eraman zaitzatela Jim Hornbacken etxera eta berak ordainduko duela kontua. Ez denbora alferrik galdu gero, hark berriak jakin nahiko ditu eta. Esan iezaiozu iloba bizirik eta onik izango duela bera herrira iritsi baino lehen. Azkar ibili. Ni izkina horren atzera noa makinaria esnatzera.

Argirantz abiatu nintzen, baina gizonak izkinari bira eman bezain laster atzera egin eta txalupan sartu nintzen. Ura xukatu eta gero ibaian gora seiehun metro egin nituen ur geldoan. Egur zamaontzien artean ezkutatu nintzen, ezin bainuen atsedean hartu alda-ontzia abiatzen ikusi arte. Baina bestela, esango nuke, gustura nengoela hirukoteak eman zizkidan buruhauste guzti horiekin, edozeinek ez bailuke lan hori hartuko. Alargunak haren berri izan zezan nahi

nuke. Nitaz harro egongo litzateke gaizkileei laguntza emateagatik, gaizkileak eta besteen kontura bizi direnak baitira alargunari eta jende onari kezka handienak sortzen dizkien jendea.

Denbora luzea igaro gabe, hor azaldu zen ontzi hondoratua, ilun eta itzalpean, ibaian behe-
ra irristaka! Hotzikarak goitik behera astindu nin-
duen, eta hurbildu egin nintzaion. Oso urperatu-
rik zihoan, eta berehala konturatu nintzen
barruan inor bizirik egoteko itxurarik ez zuela.
Bira eman nion eta oihu egin ere bai, baina ez
zen erantzunik izan. Bihozgabetu nintzen pixka
bat hirukoteari gertatutakoagatik, baina ez
gehiegi, izan ere neure buruari esan nion beraiek
jasan ahal izan bazuten, nik ere halaxe egingo
nuela.

Orduan alda-ontzia azaldu zen. Ibai erdirantz
arraun egin nuen ibaian behera eta zeharka, eta
ikusmiratik kanpo nengoela iruditu zitzaidanean,
arraunak utzi, eta atzera begiratu nuen. Alda-
ontzia hondoa jo zuen itsasontziaren ondora hur-
biltzen ikusi nuen, Hooker andereñoren gorpua-
ren bila inguruan zebilelarik, kapitainak bazekien
eta Hornback osabak nahiko zituela. Gerorxeago

alda-ontziak amore eman zuen eta ibai bazterre-
ra itzuli zen. Ni lanari ekin eta ibaian behera
arrapaladan egin nuen arraun.

Ikaragarri luze egin zitzaidan Jimen argia dis-
tiratzen ikusi arteko tartea, eta ikusi nuenean,
iruditu zitzaidan mila milatara baino urrutirago
zegoela. Bertara iristerako zerua ekialdean gris
xamarra jartzen hasia zen, eta horregatik uharte
batera abiatu ginen. Almadia ezkutatu, txalupa
urperatu, oheratu eta lo zerraldo egin genuen.

Hamalagarren atala

Gero, jaiki ginenean, bandakoek ontzi hondoratuan lapurtutako zamaketa hustu genuen. Botak aurkitu genituen, burusiak, arropak, eta bestelako gauza asko, liburu pila, kataloga, eta hiru zigarro kaxa. Ez ginen inoiz hain aberatsak izan geure bizitza osoan. Zigarroak primerakoak ziren. Arratsalde osoa basoan hizketan eman genuen, ni liburu bat irakurtzen aritu nintzen, eta oso ondo pasa genuen. Jimi esan nion ontzi hondoratuan eta alda-ontzian gertatu zen guztia; eta esan nion horrelako gauzak abenturak zirela, baina berak esan zuen ez zuela abentura gehiagorik nahi. Esan zuen ofizialeen gelan sartu nintzenean, eta bera lau hanketan almadiara itzuli zenean eta ez zegoela ikusi zuenean, ia bertan hil zela; izan ere, iruditu zitzaion nolabait guztia amaiturik zegoela berarentzat. Handik ateratzen ez bazuten ito egingo zen, eta bizirik irtenez gero, salbatu zuenak etxera bidaliko zuen atzera dirusaria jasotzeko, eta orduan zalantzarik gabe Watson andereñoak Hegoaldera

salduko zuen. Zuzen zegoen. Ia beti zuzen egoten zen. Jimék, beltza izateko, buru aparta zuen benetan.

Gauza asko irakurri nizkion Jimi errege, duke, konte, eta halakoez, eta nolako jantzi nabarmenak zerabiltzaten, nolako jarduera zuten, eta batak besteari nola esaten zion maiestate, jaun eder hori, jaun goren, eta abar, jauna esan beharrean. Jimi begiak ia bere lekutik irten zitzaizkion, eta buru belarri entzuten zuen. Esan zuen:

— Ez nekien halako pila zirenik. Ez nuen horien berririk, Salomon errege zaharrarena besterik ez, kartetako erregeak ez baditugu kontutan hartzen behintzat. Zenbat irabazten du errege batek?

— Irabazi? —esan nuen—; hilabetean mila dolar bai, nahi izanez gero. Nahi duten guztia irabaz dezakete; gauza guztien jabe dira.

— Ez al da pozgarria? Eta zer egin behar dute, Huck?

— Ez dute ezer egiten! Hori gauzak esaten dituzunak. Hor nonbait eseri, besterik ez.

— Bai zera!

— Baietz ba. Eserita egoten dira, baldin eta gerrarik ez badago; bestela gerrara joaten dira. Baina gainontzean alferkerian ibiltzen dira; edo hegazti harrapariak hazten dituzte, hegaztiak hartu eta... Xoo! Ez al duzu ezer entzun?

Presaka irten ginen eta begiratu genuen, baina ez zen bapore baten gurpilen algara besterik, ibaiaren beheko aldean lurmuturrari bira ematen zetorrelarik, eta berriro itzuli ginen.

— Bai —esan nuen—, eta beste batzuetan, gauzak aspergarri egiten zaizkienean, parlamentua zirikatzen dute; eta jendeak ez badu zuzen jokatzeko burua mozten diete. Baina gehienetan *haremen* inguruan ibiltzen dira.

— Zeren inguruan?

— *Haremen* inguruan.

— Zer da *harema*?

— Emazteak gordetzen dituzten lekua. Ez al zenuen *haremen* berri? Salomonek bazuen bat; milioi bat emazte izango zituen.

— Bai, hala da... ahazturik nuen. *Harema* ostatuaren antzeko zerbait dela uste dut. Gehienetan iskanbila garaiak izango dituzte haurren gelan. Eta emazteek eztabaida franko izango

dituzte, eta horrek iskanbilak areagotu egingo ditu. Baina bestalde, Salomon munduan inoiz bizi izan den gizonik jakintsuena zela diote. Ez dut uste hori egia denik. Izan ere, gizon jakintsu batek bizi nahi izango al luke halako algara-malgararen erdian denbora osoan? Ez, noski ez lukeela nahiko. Gizon jakintsuak pertzen lantegia hartuko luke, eta gero lantegia itxi atsedean hartu nahi bazuen.

— Baina bera gizon jakintsuena zen hala ere; alargunak berak esan ez zidan bada.

— Berdin zait alargunak esaten duena, ez zen jakintsua, inolaz ere. Inoiz ikusi ditudan ohitura bitxi eta madarikatuena zituen. Ba al dakizu ezer bi puskatan moztu behar zuen haur horretaz?

— Bai, alargunak esan zidan.

— Eta? Ez al zuen munduko ateraldirik xelebreena izan? Orain gogoan erabili pixka bat. Bada hor enbor bat, hori izango da emakumee-tako bat; zu hemen zaude, eta zu zara beste emakumea; ni Salomon izango naiz; eta dolar bateko diru paper hau izango da haurra. Biok nahi duzue. Zer egingo dut? Auzokoen artean

galdetzera joango al naiz benetan norena den diru-papera jakiteko, eta dagokionari emango al diot dirua oso osorik, burua bere lekuan duen edonork egingo lukeen bezala? Ez. Hartu eta papera erdibitu egingo dut, eta erdia zuri emango dizut, eta beste erdia beste emakumeari. Horixe egitera zihoan Salomon haurrarekin. Orain galdera bat egingo dizut: zertarako balio du diru-paper erdiak? Ezin duzu ezer erosi horrekin. Eta zertarako balio du haur erdiak? Ez nuke xentimorik emango horietako milioi batengatik ere.

— Utzi hori, Jim, mezua nahastu egin duzu. Madarikatu hori, ez duzu inondik ere ulertu.

— Nork? Nik? Zoaz pikutara. Ez etorri niri mezuaren kontu horrekin. Nik badakit zentzua non dagoen ikusi orduko; eta jokaera horietan ez dago zentzurik. Eztabaida ez zen haur erdiaz, eztabaida haur osoaz zen; eta haur osoari buruzko eztabaida haur erdiarekin konpon daitekeela uste duen gizonak ez daki ezta eskuineko eskua non duen. Ez ekarri niri Salomonen konturik, Huck, badakit eta zer tankerakoa den.

— Baina esan dizut ez duzula mezua ulertu.

— Infernura mezua! Dakidana badakit eta kito. Eta barkatu, baina benetako mezua areago dago, barru barruan. Salomon hazi zuten moduan datza. Bat ezazu haur bat edo bi dituen gizona; haurrak alferrik galtzen utziko dituela uste al duzu? Ez, noski; ezingo luke. Badaki zer balio duten. Baina bost milioi haur edo etxean atzera eta aurrera dituen gizona hartu, eta desberdina izango da. Berehala moztuko luke haurra bitan katua balitz bezala. Gehiago ditu eta. Haut bat gehiago ala gutxiago, Salomoni berdin zaio, deabruak daramatela!

Ez nuen halako beltzik inoiz ikusi. Buruan zer-bait sartuz gero, ezin zitzaion handik atera. Salomonen aurka gehien saiatu den beltza zen hura. Horrenbestez beste erregeez hizketan jardun nuen, eta Salomon alde batera utzi behar izan nuen. Frantzian duela urte asko burua moztu zioten Louis XVI.az aritu nintzaion; eta bere semea Delfinez, errege izan zitekeen arren, kartzelan sartu eta batzuek diotenez han bertan hil zena.

— Mutiko gizajoa.

— Baina besteek diotenez ihes egin zuen, eta Ameriketara etorri.

— Bai ederki! Baina bakarrik ere egongo da, hemen ez da erregerik, ezta, Huck?

— Ez.

— Orduan ezingo du lanik egin. Eta zer egingo du?

— Ez dakit ba. Batzuk polizian sartzen dira, eta besteek jendeari frantsesez hitz egiten irakasten diote.

— Zer, Huck, ez al dute frantsesek guk bezala hitz egiten?

— Ez, Jim; ez zenieke hitz bakar bat ulertuko, ezta bat ere.

— Leher egin dezadala! Nola da posible?

— Ez dakit; baina hala da. Liburu batean aurkitu nuen mordoilokeria horretako zerbait. Jo dezagun gizon bat hurbildu eta *pale-vu franse* esaten dizula. Zer pentsatuko zenuke?

— Pentsatu ezer ez; hartu eta buruan kankarreko ederra emango nioke. Hori, zuria ez balitz. Ez nioke inongo beltzari niri horrelakorik esaten utziko.

— Arraioa, ez dizu ezer txarrik esan eta. Frantsesez badakizun galdetu besterik ez dizu egin.

— Eta, zergatik ezin du bada hori esan?

— Bada, hain zuzen ere, esaten ari delako. Frantsesez era horretara esaten da.

— Era lotsagarri madarikatua da hori, eta ez dut besterik entzun nahi. Horrek ez du ez hanka eta ez buru.

— Begira, Jim, katuak hitz egiten al du guk bezala?

— Ez, katuak ez.

— Eta behiak?

— Ez, behiak ere ez.

— Katuak behiak bezala hitz egiten al du, edo behiak katuak bezala?

— Ez.

— Eta ez al dute berezkoa eta ez al da egokia katuak eta behiek guk ez bezala hitz egitea?

— Baietz uste dut.

— Eta zergatik ez da berezkoa eta egokia izango frantses batentzat guk ez bezala hitz egitea? Erantzun iezaiozu honi.

— Katua gizona al da, Huck?

— Ez.

— Beraz, ez du zentzurik katuak gizonak bezala hitz egitea. Behia gizona al da? Edo behia katua al da?

— Ez, ez bata eta ez bestea.

— Beraz, ez du zertan batak besteak bezala hitz egin beharrik. Frantsesa gizona al da?

— Bai.

— Ederki! Arraioa, eta zergatik ez du gizonak bezala hitz egin behar? Erantzun iezaiozu honi!

Ohartu nintzen alferrik zela harekin hizketan aritzea... Ezin zaio beltzari eztabaidatzen irakatsi. Beraz etsi egin nuen.

Hamabosgarren atala

Kontuak atera genituen hiru gau beharko genituela Cairora iristeko, Illinoiseko hegoaldean dagoen hiria, Ohio ibaia iristen den azken muturrean, eta horren bila ari ginen. Almadia salduko genuen, bapora batera igo, eta Ohio ibaian gora joango ginen estatu libreetara, eta han ez genituen arazorik izango.

Bigarren gauean lainoa gaineratzen hasi zitzaigun, eta iztupa mutur batera abiatu ginen almadia han lotzeko, ez baita ona laino artean aurrera egitea. Baina kanoa hartu eta aurrerantz arraunean hasi nintzenean, soka han nonbait lotzeko eskutan nuelarik, zuhaixkak besterik ez nituen aurkitu. Soka hartu eta inguratu nuen horietako bat itsas malda baten ertzean, baina ur lasterrak zirenez, almadiak bizkor behera egin eta hantxe eraman zuen zuhaixka airean sustrai eta guzti. Lainoa ixten ikusi nuen, eta gaixorik eta beldurrak hartuta geratu nintzen, eta iruditu zitzaidan minutu erdian baino gehiago mugitu ezinik egon nintzela. Gero ez nuen almadiarik

nire aurrean ikusi. Ez zen aurrean hogeï metro-tarra ere ezer ikusten. Jauzi egin eta kanoan sartu nintzen eta txopan jarri. Arraunari eutsi eta lehenengo astindua eman nion handik ateratzeko. Baina ez zen mugitu. Larrialdi hartan kanoa askatzea ahaztu zitzaidan. Zutitu eta askatzen ahalegindu nintzen, baina ezinegonean eskuak dardarka nituen eta ezertarako ere ez ziren gai.

Handik ateratzea lortu nuen bezain azkar almadiaren atzetik joan nintzen, jo eta ke, iztupa muturraren albo albotik. Ongi ibili nintzen horrek iraun zuen bitartean, baina iztupa muturrak ez zituen hirurogei metro luze, eta bere oinera iritsi orduko laino zurian sartu nintzen bat-batean, eta ez nekien inondik ere nora demontre nindoan.

Esan nuen nire artean, alferrik izango da arraun egitea; badakit gainera horrela hondar-pila edo iztupa mutur edo zerbaiten kontra jo egingo dudala; mugitu gabe egongo naiz eta urak eramango nau. Baina ez da gauza erraza horrelako urduritasunean eskuak mugitu gabe eduki beharra. Oihu egin eta belarria erne jarri nuen. Behean, nonbait, oihu apal bat entzun nuen, eta bihotza berpiztu zitzaidan. Arin-arin

abiatu nintzen haren atzetik, belarria zorroztu eta berriz erantzuna entzuteko zain geratu nintzen. Entzun nuen hurrengo aldian, konturatu nintzen ez nindoala ongi haren atzetik, eta eskuin aldera ari nintzela urruntzen. Eta hurrengoan, ezker aldetik ari nintzen, eta gainera ez nintzaion gehiegi hurbildu, inguruan jirabiraka ari nintzelako, alde batera eta bestera, baina hotsa denbora guztian aurrean nuen.

Zoro horri latorrizko ontziari danba-danba ematea bururatuko balitzαιο ere, esaten nion neure buruari, eta gelditu gabe horri eragin, baina ez zuen hori egin, eta garrasi arteko isiluneak ziren arazoak ematen zizkidatenak. Aurre-ra joateko indar egin nuen, eta berehalaxe oihua nire atzean entzun nuen. Ederki nahasia nengoen, bai. Beste norbaiten garrasia zen, edo beste-la atzealdera begira nengoen.

Arrauna kanoan bota nuen. Berriz entzun nuen garrasia; atzean zegoen, baina beste leku batean; hurbiltzen ari zen, lekuz aldatzen, eta nik erantzun egiten nion, pixkanaka berriz nire aurrean entzun nuen arte eta ongi nekien ur lasterrak kanoari jira egin erazi ziola, eta orduan

berriz behar bezala burua aurrean nuela, haren oihuak Jimenak baldin baziren behintzat eta ez beste almadia baten jabearenak. Ezin da ezer jakin laino artean entzuten diren ahotsez, ezerk ez baitu betiko itxura edo hotsa lainopean dagoenean.

Oihuak aurrera egin zuen, eta minutu batean edo iritsi nintzen ibai bazter maldatsura, kea zerien arbola mamutzarrak gainean zituelarik. Uraren indarrak ezkerraldera bultza ninduen eta bizkor-bizkor astindu, eta ia orroka ari ziren enbor pila baten tartetik ziztu batean pasa erazi.

Handik segundo batera edo bitara dena zuri-zuri eta isiltasunean geratu zen berriz. Ezertarako mugitu gabe egon nintzen, bihotzaren taupadak entzuten, eta ez dut uste arnasa behin hartu nuenik hark ehun taupada egin zituen bitartean.

Etsita nengoen. Banekien zer gertatu zen. Ibai bazter aldapatsu hori uharte bat zen, eta Jimek uhartearen beste aldetik jo zuen. Hura ez zen aldamenetik joan eta hamar minututan igaro daitekeen hondar pila. Uharte arrunt baten zuhaitz handiak zituen; bost edo sei mila luze

izan zitzakeen, eta mila erdia baino gehiago zabaleran.

Belarriak ongi zorroztu, eta isil isilik geratu nintzen hamabost minututan edo. Aurrerantz ari nintzen, noski, lauzpabost mila orduko, baina ez zaizu hala iruditzen. Ez, iruditzen zaizu ur gainean ez zarela batere mugitzen; eta halako batean enbor bat ikusten baduzu aldamenetik irristan pasatzen, ez duzu pentsatzen zein azkar ari zaren, aitzitik arnasari eutsi eta esaten diozu zeure buruari: ene! bai azkar doala enbor hori. Iruditzen bazaizu ez dela gauza goibel eta bakar-tia, gauean zu bakarrik lainopean, horrela ego-tea, behin proba egin ezazu, eta orduan ikusiko duzu.

Gero, ordu erdiz edo, garrasi egin nuen noiz-zean behin; azkenean erantzuna entzun nuen oso aurrean, eta haren atzetik joateko ahalegi-nak egin nituen, baina ezin nuen, eta berehala iruditu zitzaidan hondar pilazko kabi batean sartu nintzela, juxtu-juxtu ikusi ahal izan nituen eta nire bi alboetan; batzuetan bide estua beste-rik ez zen horien artean; eta beste hondar pilak ezin nituen ikusi ere, banekien han zeudela ura-

ren indar hotsa entzuten uelako sasi zahar erori eta bazterretan zintzilik zeuden adarren artean. Ez zen denbora luzea igaro, aurrean hondar pilen artean, oihuak galtzerako, eta pixka batean besterik ez nintzen aritu horiek harrapatu nahian, izan ere sorgin haizea harrapatzea baino zailagoa zen hori. Ez nekien hotsak hala ibiltzen zirenik jauzika alde batetik bestera, horren maiz eta horren bizkor.

Arin xamar eragin nion arraunari bazterretik ateratzeko, lauzpabost aldiz, ibaitik atera eta uharteen kontra ez joateko; eta berdin iruditu zitzaidan ibiliko zela almadia behin eta berriz bazterrari danbatekoak emanaz, edo bestela urrundu eta oihu menetik kanpo ibiliko zen, ni baino zertxobait arinago zihoan eta.

Azkenean ibai zabalera itzuli nintzela zirudien, baina ez nuen oihuen arrastorik entzuten. Kontuak atera nituen beharbada Jimek, enbor baten kontra jo, eta bereak egin zuela. Ni osorik nengoen eta leher eginik, eta orduan kanoan etzan eta neure buruari esan nion ez nintzela hartaz gehiago kezkatuko. Ez nuen lotara joan nahi, noski; baina logurak nengoen oso eta ezin

nuen esna egon. Orduan pentsatu nuen lo kuluxkatxoa egin nezakeela.

Baina uste dut lo kuluxka baino zerbait luzeagoa ere izan zela, esnatu nintzenean izarrak distirutzen ari baitziren, lainorik ez zen, eta ni jirabiraka nindoan ibaian beheara bihurgune handi batean txopa aurrean neramalarik. Hasieran ez nekien non nintzen; ametsetan nengoela iruditu zitzaidan; eta gauzak bururatzen hasi zitzaizkidanean, aurreko asteaz gero dena ezabaturik nuen.

Ibai handi ikaragarria nuen aurrean, bazterretan zuhaitz luze eta zabal-zabalak zituena; horma sendoa, izarren laguntzaz ikusi ahal izan nuenez. Ibaian aurrera begiratu eta beltzunea ikusi nuen uretan. Atzetik joan nintzen, baina ondora iritsi nintzenean ikusi nuen zerratutako bi enbor lotuta besterik ez zirela. Gero beste beltzunea ikusi eta harrapatu nuen; gero beste bat, eta orduan bai asmatu nuela. Almadia zen.

Bertaraino hurbildu nintzen eta hantxe ikusi nuen Jim eserita, burua belaunen artean zuelarik, lotan, eskuineko besoalema arraunaren gainean zintzilik. Beste arrauna txikituta zegoen,

eta almadia hostoz, adarrez eta lokatzez beteta. Beraz une larriak igaro behar izan zituen.

Kanoa lotu eta Jimen sudurraren azpian etzan nintzen almadian. Ahozabalka eta nagiak ateratzen hasi nintzen Jimen kontra, eta esan nuen:

— Kaixo, Jim, lotan geratu al naiz? Zergatik ez didazu esnatu?

— Jaungoikoari eskerrak, zu al zara, Huck? Eta ez zara hil, eta ez zara ito, berriz hemen zara? Onegia da egia izateko, laztana, onegia da egia izateko. Utz iezadazu begiratzen, ume, utz iezadazu ukitzen. Ez, ez zaude hilik! Itzuli zara, bizirik eta osorik, lehengo Huck berbera, eskerak Jaungoikoari!

— Zer gertatzen zaizu, Jim? Edaten aritu al zara?

— Edaten? Edaten aritu al naizen? Aukerarik izan al dut ba edateko?

— Orduan, zer dela eta esaten dituzu txorakeria horiek?

— Zer txorakeria esaten ditut ba?

— Zer? Ez al duzu nire itzuleraz, eta guzti horretaz, hitz egin, kanpoan izan banintz bezala?

— Huck, Huck Finn, begira iezaiezu zuzen-zuzen nire begiei; begira begiei. Ez al zara kanpoan ibili?

— Kanpoan? Baina, zer demontre esan nahi duzu? Ez naiz inon izan. Nora joango nintzen bada?

— Ederki, begiratu hona, nagusi, hemen zer-bait oker dabil, ezta. Ni neu al naiz edo nor naiz? Hemen nago ala non nago? Hori da jakin nahi dudana.

— Benetan hemen zaudela uste dut, baina burua korapilatua duen zoro alaena zara, Jim.

— Bai, ezta? Orain erantzun honi. Soka hartu eta ez al zara kanoan joan almadia iztupa mutur batean lotzera?

— Ez. Zein iztupa mutur? Ez dut iztupa muturrik inon ikusi.

— Ez al duzu muturrik ikusi? Begira hona. Ez al da soka hautsi eta almadia ibaian behera bizkor-bizkor joan, eta zu ez al zaitu atzean utzi kanoan laino artean?

— Zer laino?

— Bada, lainoa. Gau osoan inguruan izan dugun lainoa. Eta ez al duzu garrasirik egin, eta

nik ere ez al dut egin, uharteetan sartu eta gure-tako bat galdu den arte, eta bestea galduta bale-go bezala, ez zekielako non zebilen? Eta ez al dut uharte horien kontra jo eta larrialdi ikaragarria izan eta ez al naiz ia ito? Ez al da hala, nagusi, ez al da hori gertatu? Erantzun honi.

— Gehiegi da hori niretzat, Jim. Ez dut laino-rik ikusi, ez uharterik, ez arazorik, ez ezer. Hemen egon naiz eserita zurekin gau osoan hiz-ketan, duela hamar bat minutu zu lotara joan zaren arte, eta uste dut nik gauza bera egin dudala. Ezin izan duzu tarte honetan mozkortu, horrenbestez ametsetan aritu zara.

— Bai eta zere ere, baina nola amestuko nituen gauza guzti horiek hamar minututan?

— Arraioa, noski amestu dituzula, horietako bat ere ez baita gertatu.

— Baina Huck, dena garbi baino garbiago ikusten dut...

— Berdin da garbi ikusten baduzu ere, ez da ezer gertatu, ni hemen egon naiz eta denbora guztian.

Jimek ez zuen hitzik esan bost minututan, eta eserita geratu zen guztia buruan zerabilelarik. Gero esan zuen:

— Ederki, orduan, pentsa dezagun baietz, amestu egin dudala, Huck; baina mila deabru hau ez bada izan nire amets guztietan indartsuena. Inoiz ez dut izan honelako nekea eragin didan ametsik.

— Ederki, hori egia da, ametsak batzuetan benetan nekatu egiten dute eta. Baina amets hori amets zoragarria izan da. Konta iezadazu Jim.

Orduan Jimek ekin zion eta goitik behera kontatu zidan guztia, gertatu zen bezalaxe, berak nahikoa apaindu bazuen ere. Gero esan zuen haren zentzua azaldu behar zuela, aholku gisa bidalia izan zelako. Lehenengo iztupa muturra guri mesede egiten saiatuko zen gizon ona zen, baina ur lasterra gu harengandik urruntzen ahalginduko zen beste gizona. Garrasiak noizean behin iritsiko zitzaizkigun aholkuak ziren, eta ez baginen gogor saiatzean horiek ulertzen, zorte txarrera eramango gintuzten, gu handik kanpo gorde beharrean. Hondar pilak jende istilutsu eta

zekenarekin izango genituen arazoak ziren, baina geure lanari eusten bagenion, horiei erantzun eta zirikatu gabe, aurrera egingo genuen eta laino artetik irten ibai zabalera, alegia estatu libreetara, eta ez genuen buruhauste gehiagorik izango.

Lainoz estali eta ilundu zen zerua ni almadia-
ra igo eta berehala, baina argitzen ari zuen orduan.

— Ederki, ez duzu ametsari dagokiona gaizki azaldu, Jim —esan nuen—, baina zer egiten dute hor gauza horiek?

Almadia gaineko hosto eta zakarrak ziren, eta arraun hautsia. Oso ongi ikus zitezkeen orduan.

Jimek hondakinei begiratu zien, gero niri, eta gero berriz hondakinei. Buruan oso tinko zuen ametsa kokaturik, eta ezin zuen dena astindu eta zuzenean gauzak berriz bere lekuan jarri. Baina gertatutakoa bideratu ahal izan zuenean, adi-adi begiratu zidan, irribarretxorik ere egin gabe, eta esan zuen:

— Zer egiten duten? Oraintxe esango dizut zer egiten duten. Lan egiteaz, eta zuri garrasika

dei egiteaz leher eginik geratu nintzenez, lotara joan eta bihotza ia lehertu zitzaidan zu galdu zinelako, eta niri edo almadiari zer gertatuko zitzaion bost axola zitzaidan. Eta esnatu eta ikusi dudanean hemen zinela, bizirik eta osorik, malakoak atera eta ia belauniko jarri eta oinetan musu eman dizut eskerrak emateko. Eta zuri bururatu zaizun guztia Jim zaharrari gezurra esan eta adarra jotzea izan da. Gauza pila hori zikinkeria da; eta zikinkeria da baita ere lagunak lotsa erazteko buru gainera lokatza botatzen dien jendea.

Poliki zutitu eta kanpadendara abiatu zen, sartu eta ez zuen hitzik esan. Baina nahikoa esan zuen. Oso gaizki jokatu nuela iruditu zitzaidan, eta oinetan musu ere emango niokeen hitz horietan atzera egingo balu.

Hamabost minutu behar izan nituen zutitu eta beltzaren aurrean burua makurtzeko, baina egin nuen, eta ez zait geroztik inoiz damutu. Ez nion berriz txantxarik egin, eta ez niokeen egingo jakin izan banu halako nahigabea pasa erazi behar nionik.

Hamaseigarren atala

la egun guztia lotan eman genuen, eta gauean irten ginen, segizio baten luzera adina zuen almadia ikaragarri baten atzetik. Lau arraun luze zituen mutur bakoitzean, horregatik iruditu zitzaigun gutxienez hogeita hamar gizon eraman zitzakeela. Bost kanpadenda zituen gainean, batetik bestera tarte handia zutelarik, sua egiteko leku estali gabea erdian, eta banderentzat hagak bi muturretan. Almadiak itxura dotorea zuen. Tankera horretako almadia eramateak mailaz igo behar zuen.

Bihurgune handi batera gindoazen ibaian behera, eta gaua lainoz estali eta berotu egin zen. Ibaia oso zabala zen, eta bi aldeetan zituen zuhaitz hostotsuek muga jartzen zioten; ez zen ia inoiz hutsunerik ez argitasunik ikusten. Cairoz hitz egin genuen, eta ea bertara iristean herria ezagutuko ote genuen. Esan nuen ziur aski ez genuela ezagutuko, izan ere, entzun bainuen dozena bat etxe besterik ez zituela, eta argiak piztuta ez bazituzten, nola jakingo genuen herri

ondotik ari ginela igarotzen? Jimek esan zuen bi ibaiak han elkartzen baziren, nabarmena izango zela. Baina nik esan nuen beharbada handik igarotzean pentsa genezakeela uhartearen beheko muturra pasatzen ari ginela eta lehengo ibai zaharrera itzultzen. Horrek Jim kezkatu egin zuen, eta neu ere bai. Orduan galdera hau zen, zer egin genezakeen? Nik esan nuen, lehenengo argia ikusi bezain laster ibai bazterrera joango ginela; bertakoei esango geniela aita atzetik zetorrela bere salerosketa txalupa eta guzti, eta merkataritza lanetan hasi berria zenez gero, jakin nahiko lukeela zenbat falta zen Cairora iristeko. Jimi ideia ona iruditu zitzaion, eta burutapen horretan pentsatuz, zigarroa erre, eta itxaron egin genuen.

Ezin genuen ezer egin, herria ikusi arte begiak erne eduki besterik, hura ikusi gabe aurretik ez pasatzeko. Jimek esan zuen antzemango zuela, zalantzarik gabe, ikusi eta minutu berean gizon librea izango zelako, baina ez bazuen ikusten esklabo lurraldean izango zen berriz eta ez zuen askatasunerako beste aukera-

rik izango. Tarteka-marteka jauzi egin eta esaten zuen:

— Hortxe dago!

Baina ez zen herria. Argi txakurrak ziren, edo ipurtargiak; orduan berriz eseri, eta begira jartzzen zen, lehen bezalaxe. Jimek esaten zuen dardarka eta gaixorik jartzzen zuela askatasunaren horren gertu egoteak. Bada, nik ere esango nuke dardarka eta gaixorik nengoela, Jimek esaten zuena entzunda, buruan garbi ikusten hasi nintzelako ia gizon librea zela, eta noren erruz? Bada, nireaz. Ezin nuen inolaz ere, ezta inondik ere hori burutik baztertu. Horrek ematen zidan lanak ez zidan atsedean hartzen uzten. Ezin nuen leku batean geldirik egon. Ordura arte ez nuen ongi ulertu zertan ari nintzen. Baina ordua ulertu nuen, eta barnean geratu zitzaidan, eta kiskali egiten ninduen gero eta gehiago. Neure buruari sinets erazi nahi nion ez nintzela errudun, nik ez nuelako Jim bereizi bere legezko jabearengandik; baina alferrik. Barruak esaten zidan denbora guztian: «Baina zuk bazenekien askatasuna lortzeko ihes egin zuela, eta zergatik ez duzu txalupa hartu eta ibai bazterreraino arraun egin nor-

baiti horren berri emateko?» Eta hala zen. Ezin nuen hortik atera inolaz ere. Horrek amorra erazten ninduen. Barruak esaten zidan:»Zer egin dizu Watson andereño gaixoak, bere beltza zure begien aurrean ihes egiten ikusi eta hitzik ere inori ez esateko? Zer egin dizu emakume zahar gaixoak berarekin horren zitala izateko? Bada, ikasgaiak irakasten saiatu da, ohitura onak ere bai, eta beti on egiten ahal zuen modu guztietan. Horixe da egin zuena. Zital eta zoritxarrekoa nintzela sentitzen nuen, eta hilik egon nahi nuke horregatik. Almadian gora eta behera ezinegorean nenbilen, neure buruari gaizki esaka, eta Jim gora eta behera zebilen urduri, bidean gurutzatzen zitzaidalarik. Ez batak eta ez besteak ezin genuen geldirik egon. Jim dantzan zebilen han inguruan eta esaten zuen: «Hortxe dago Cairo!» Tiro batek jo izan banindu bezala geratu nintzen, eta pentsatzen nuen hura Cairo izanez gero zoritxarrak jota hil egingo nintzela.

Jimek ozenki hitz egiten zuen denbora guztian nik neure buruari hitz egiten nion bitartean. Esaten zuen estatu libreetara iritsi eta egingo zuen lehenengo gauza dirua aurreratzea izango

zela eta xentimorik ere ez gastatu. Nahikoa izatean emaztea erosiko zuen, Watson andereño-
ren ondoko etxalde batean morroi gisa bizi bai-
tzen. Gero biek lan egingo zuten bi haurrak eros-
teko, eta nagusiak ez balitu saldu nahiko, aboli-
zionista bat hartu eta hari haurrengana joan eta
lapurtzeko eskatuko zioten.

la harri eginik geratu nintzen hori entzutean.
Ordura arte ez zitzaion burutik ere pasako horre-
la hitz egitea. Ikusi nolako aldea egin zuen laster
libre izango zela iruditu zitzaion unean bertan.
Esaera zaharrak zioenarekin bat zetorren:»Eman
beltzari erdia eta osoa hatuko dizu». Neure
buruari esan nion: Hori gauzak behar bezala ez
egiteagatik gertatzen zaizu. Hantxe nuen ihes
egiteko nolabait ere laguntza eman nion beltza,
aurpegiz aldatu gabe bere haurrak lapurtuko
zituela esanez. Nik ezagutzen ez nuen gizon
batenak ziren haurrak, alegia; inoiz kalterik egin
ez zidan gizonarenak.

Mindu egin ninduen Jimek esandakoak entzu-
teak, mailaz jaitsi edo egiten zuen. Barruak inoiz
baino gogorrago astintzen ninduen, azkenean
erabaki nuen arte: «Egon pixka bat... ez da

oraindik beranduegi... Lehenengo argia ikusi bezain laster ibai bazterrera jo, eta salatu egingo dut.» Une berean lasaitu eta poztu egin nintzen, luma bera baino arinago nengoen. Kezka guztiak desagertu egin zitzaizkidan. Adi-adi argiren bat ikusiko ote nuen begira hasi nintzen, nire artean abestu edo egiten nuelarik. Geroxeago argi bat azaldu zen. Jimek oihu egin zuen:

— Bizirik gara, Huck, bizirik! Jauzi egin eta eragin zapatei, Cairo zaharra da hori azkenean, ziur nago!

Nik esan nuen:

— Kanoa hartu eta ikustera joango naiz, Jim. Agian ez da Cairo, badakizu.

Jauzi egin zuen zutitzeko eta kanoa prestatu zuen; bere beroki zaharra jarri zuen kanoaren barruan ni gainean esertzeko, eta arrauna eman zidan. Kanoa askatzen nuen bitartean, esan zidan:

— Laster pozez garrasika ibiliko naiz, eta orduan esango dut, dena Hucki zor diot. Gizon librea naiz, baina inoiz ez nintzatekeen libre izango Huckengatik izan ez balitz. Huckek lortu du. Jimek ez zaitu inoiz ahaztuko Huck. Zu zara

Jimek izan duen lagunik onena, eta Jim zaharrak orain duen lagun bakarra.

Arraunean bizkor nindoan izerdi patsetan bera salatzeko, baina hori entzun nuenean, indarrak joan zitzaizkidala sumatu nuen. Orduan poliki aurreratzen nuen, eta zalantzan nengoen pozik egon ala ez eskuartean nuenarekin. Berrogeita hamar metro egin nituenean, Jimek esan zuen:

— Hor doa, Huck lagun zintzoa; Jimekin leial jokatu duen gizon zuri bakarra.

Ondoezik nengoen. Baina esaten nion neure buruari: «Egin beharra duzu,... ezin duzu orain atzera egin.» Orduan bertan, txalupa bat ikusi nuen, barruan eskopetak zeramatzaten bi gizon zituelarik, eta geratu egin ziren eta ni ere geratu egin nintzen. Horietako batek esan zuen:

— Zer da hango hura?

— Almadia zati bat —esan nuen.

— Bertakoa al zara?

— Bai, jauna.

— Gizonik ba ia du gainean?

— Bat besterik ez, jauna.

— Bost beltzek ihes egin dute gaur gauean, hango bihurguneko goiko aldetik. Nolakoa da zuk diozun gizona, zuria ala beltza?

Ez nuen berehalakoan erantzun. Ahaleginak egin nituen, baina hitzak ez zitzaizkidan ahora etortzen. Saiatu nintzen, unetxo batez, indarrak bildu eta gordeta nuena adierazten, baina ez nintzen behar bezalako gizona... ez nuen oilo baten ausardiarik. Indarrak falta nituela konturatu nintzen, eta amore eman nuen, eta esan nuen halako batean:

— Zuria da.

— Uste dut gu geu joango garela ikustera.

— Nahiago nuke —esan nuen—, aita baita hor dagoena, eta beharbada lagun diezadakezue almadia ibai bazterrera eramaten, argi hori dagoen lekura. Gaixorik dago... ama eta Mary Ann bezalaxe.

— Ene, deabruen arima! Presaka gabiltza, motel. Baina zerbait egin beharko dugu. Azkar, eutsi palari, eta goazen.

Nire palari eutsi nion eta gizonek beren arraunei. Behin edo bitan arraunei eragin, eta esan nuen:

— Aitak benetan eskertuko dizue, bai horixe. Denek ihes egiten dute almadia ibai bazterrera eramaten laguntzeko eskatzen diedanean, eta nik bakarrik ezin dut eraman.

— Bada, hori bai dela deabruaren zainekoa izatea. Eta harritzekoa, gainera. Esan, mutiko, zer du aitak?

— Zera da... e... ba, gauza handirik ez da.

Arraun egiteari utzi zioten. Tarte txikia besterik ez zen falta almadiara iristeko, eta horietako batek esan zuen:

— Aizu, hori gezurra da. Zer du aitak? Egia erantzun, eta hobe izango duzu.

— Bai, jauna, hala egingo dut, benetan, baina ez gaitzazuela hemen utzi, arren. Zera hori da... jaunak, aurrera egiten baduzue pixka bat, eta nik ontziaren soka botako banizue, ez zenukete almadia ondora hurbildu beharrik ere... arren.

— Atzera egin, John, atzera! —esan zuen batek. Bira eman zuten—. Ez hurbildu, mutiko... ababorrean gera zaitez. Arraioa, uste dut hai-zeak guregana bidali duela. Zure aitak nafarreria du, eta zuk oso ongi dakizu. Zergatik ez diguzu

hori esan? Leku guztietara zabaltzea nahi al duzu?

— Bada —esan nuen, negar zotinka—, orain arte denei esan diet, eta beti alde egin digute eta bakarrik utzi.

— Gizajo alaena, badu nolabaiteko arrazoa. Pena handia sentitzen dugu, baina guk... zer arraio, ez dugu nafarreririk nahi. Begira, zer egin behar duzun esango dizut. Ez zaitetz alferrik ahalagindu bakarrik lehorreratzen, ez baduzu dena txikitzea nahi. Utzi almadia ibaian behera joaten hogei bat mila egin arte eta ibaiaren ezkerreko bazterrean herri bat aurkituko duzu. Egun argia izango duzu ordurako, eta laguntza eskatzera joaten zarenean, esan sendia gaixorik duzula hotzikarez eta sukarrak hartuta. Ez berriz leloarena egin jendeari benetako gaixotasuna asmatzen utziz. Laguntza eskaini nahi dizugu, eta orain hogei milatako tartea utzi gure artean, mutil zintzoak bezala. Ez lizuke asko lagunduko argi hori dagoen lekura joateak, egurtegi bat besterik ez da eta. Begira, uste dut aita pobrea duzula, eta esango nuke zorte onegirik ere ez duela izan. Hara, hogei dolarretako urrezko txan-

pona jarriko dizut ohol honen gainean, eta zuk aldamenetik igarotzean jaso. Gaizki jokatu dudala iruditzen zait zu horrela uztean, baina Jaungoikoa!, ezin da nafarreriarekin txantxetan ibili, ez al duzu ikusten?

— Tori, Parker —esan zuen beste gizonak—, hemen duzu nire ordeztu beste hogeikoa ohol gainean jartzeko. Agur, mutiko, egin ezazu Parker jaunak esan dizuna, eta ongi ibiliko zara.

— Bai, arrazoi du, mutiko, agur, agur. Beltz iheslariren bat ikusten baduzu, laguntza bila joan eta harrapatu, eta horrela diru pixka bat irabaziko duzu.

— Agur, jaunak —esan nuen—, ez diot inongo beltz iheslariari alde egiten utziko nire esku baldin badago.

Alde egin zuten, eta ni almadia gainera igo nintzen, bihozgabeturik, ongi nekielako ez nuela zuzen jokatu, eta ikusi nuen gainera alferrik zela niretzat zuzen jokatzeko ikasten saiatzea. Txikitatik ongi hazten ez denak, ez du gero aukerarik izaten; zailtasun garaietan ez du euskarririk eta ezta ere bere bidean aurrera egiteko laguntzarik, eta orduan galtzaile izaten da. Minutu batean

pentsatzen geratu nintzen, eta esan nion neure buruari: egon pixka bat..., jo dezagun zuzen jokatu duzula eta Jim salatu, orain baino gusturago egongo al zinateke? Ez, esan nuen, gaizki egongo nintzateke, oraintxe nagoen bezalaxe. Eta, orduan, zertarako zuzen jokatzeko ikasi, zuzen jokatzeko arazoak sortzen baditu eta oker jokatzeko ere erraza ez bada, eta gainera irabaziaz berdin berdina direnean? Nahasturik nengo. Ezin nuen erantzunik eman. Horrenbestez erabaki nuen ez nintzela gehiago horretaz kezkatuko, eta handik aurrera eskuera onena egingo nuela beti.

Denda barruan sartu nintzen; Jim ez zen han; ez zen inon ageri. Esan nuen:

— Jim!

— Hemen nago, Huck. Joan al dira? Isilago hitz egin.

Uretan zegoen, txopako arraunaren azpian, sudurra besterik kanpoan ez zuelarik. Esan nion aurrean ez zirela ageri, eta almadiara igo zen. Esan zuen:

— Elkarrizketa entzuten aritu naiz, eta uretan sartu, eta ontzira hurbildu izan balira ibai bazte-

rrera joateko asmoa nuen. Gero, gizonak alde egin ondoren, berriz igerian itzuliko nintzen. Baina, demontre, nola sartu diezu ziria, Huck! Azpi oko bizkorra izan da benetan! Esaten dizut bada, ume, uste dut horrek Jim zaharra salbatu duela. Jim zaharrak egin duzuna ez du inoiz ahaztuko, laztana.

Gero diruaz aritu ginen hizketan. Diru igoaldia izan genuen, hogeina dolar genituen. Jimek esan zuen baporean ontzi gaineke geletan joateko adina bagenuela, eta diruak estatu libreetan barrena noranahi joateko iraungo zigula. Esan zuen hogeit mila gehiago egitea ez zela gehiegi, baina nahiago izango zuela jadanik bertan egoitea.

Eguna argitzera zihoanean almadia lotu genuen, eta Jim arretaz arduratu zen almadia ezkutatzear. Gero egun osoan aritu zen gauzak fardeletan biltzen, eta dena prestatzen almadia uzteko.

Gaueko hamarretan edo ibai behean herri baten argiak ikusi genituen aurreko bihurgunearen ezkerreko bazterrean.

Kanoan abiatu nintzen, horren berri izateko. Berehala aurkitu nuen txalupan zihoan gizon bat, kordelak botatzen ari zelarik. Hurbildu eta esan nion:

— Jauna, Cairo al da herri hori?

— Cairo? Ez. Txoriburu alaena izan behar duzu.

— Zein herri da, jauna?

— Jakin nahi baduzu, joan eta ikusi. Nire inguruan oztopo egiten minutu erdi bat gehiago bazabiltza, gustuko izango ez zaizun zerbait hartuko duzu.

Almadiarantz arraun egin nuen. Jim jota zegoen, baina nik esan nion ez kezkatzeko, nire ustez Cairo izango zela hurrengo herria.

Egunsentia iritsi baino lehen beste herri baten aurretik pasa ginen, eta hurbiltzera nindotan; baina tontor batean zegoen, eta ez nintzen joan. Cairo inguruan ez da mendi gainik, esan zuen Jimek. Ahazturik nuen. Ibaiaren ezkerreko bazterretik gertu xamar zegoen hondar mutur batean ezarri genituen gauzak eguna han egiteko. Zerbait susmatzen hasi nintzen. Jim ere bai. Nik esan nuen:

— Beharbada Cairo aurretik igaro ginen laino-
pean ibili ginen gauean.

Jimek esan zuen:

— Ez dezagun horretaz hitz egin, Huck. Beltz
gizajoek ezin dute zorte onik izan. Beti uste izan
dut kriskitin sugearen larruak ez zuela bere egi-
teko guztia bukatu.

— Nahiago nuke suge larru hori inoiz ikusi
izan ez banu, Jim. Hori begitartean inoiz eduki ez
izana nahi nuke.

— Ez duzu errurik, Huck; ez zenekien. Ez bota
zeure buruari horren errurik.

Egunak argitu orduko, han ikusi genituen
Ohio ibaiaren ur garbiak gu ginen bazterraren
ondoan, zalantzarik gabe, eta kanpoaldetik beti-
ko Mississippi lokaztua! Beraz akabo Cairori
buruzko amets guztiak.

Horretaz hitz egin genuen. Alferrik joango
ginen ibai bazterrera; eta noski, ezingo genuen
almadia ibaian gora eramán. Ilundu arte zain
egotea beste aukerarik ez zitzaigun geratzen,
kanoa hartu eta atzera egitea eta zetorrenari
aurre egitea. Zumardi batean lotan eman
genuen eguna, lan egiteko indarrak bildu asmoz,

eta iluntzean almadiara itzuli ginenean kanoarik ez zegoen!

Ez genuen hitzik esan tarte luze batean. Ez zegoen ezer esatekorik. Ongi genekien kriskitin sugearen larrua baino zerbait gehiago zela; beraz zertarako hitz egin? Akatsen bila ari gine-la pentsa zitekeen, eta horrek zorte txarra beste-rik ez liguke ekarriko, eta eten gabe gainera, isi-lik egoteko adina ikasi arte.

Geroxeago zer egin genezakeen eztabaidan aritu, eta konturatu ginen almadian ibaian behe-ra joan beste aukerarik ez genuela atzera egite-ko beste kanoa erosteko aukera izan bitartean. Ez genuen txalupa hartuko inguruan inor ez zebi-lenean, aitak egingo lukeen bezala, horrek jen-dea gure atzetik ekar zezakeelako.

Ilundu ondoren almadian abiatu ginen.

Inork orain arte ez bazuen sinesten erokeria dela suge larrua eskutan hartzea, guri egin zizki-gun kalteak ikusita, sinetsiko du bai, irakurtzen aurrera egiten badu eta zer gehiago egin zigun ikusten badu.

Kanoak ibai bazterraren ondoan dauden almadietan saltzen dituzte. Baina ez genuen ibai

bazterreko almadiarik ikusi; eta aurrera egin genuen hiru orduz edo gehiago. Gaua grisa jarri zitzaigun, eta ilun xamarra, eta hori ia lainoa bezain txarra izaten da. Ezin duzu ibaiaren nondik norakoa antzeman, eta ez da inolako tarterik bereizten. Berandutu zitzaigun eta dena isiltasunean geratu zen, eta orduan bapore ontzia ibaian gora zetorrela ikusi genuen. Linterna piztu, eta iruditu zitzaigun argia ikusiko zuela. Ibaian gora zebiltzan ontziek gehienetan ez ziren guregana hurbiltzen; erdiratu egiten ziren eta hondar piletatik aurrera egiten zuten ur harrietan barrena ur errazak aurkitu nahian; baina era horretako gauetan ontzi bideari utzi eta ibai osoari heltzen zioten indarrez.

Zanpa-zanpa gorantz zetorrela entzuten genuen, baina ez genuen ikusi hurbildu zitzaigun arte. Guregana zuzen-zuzen zetorren. Askotan egiten dute hori ukitu gabe noraino hurbildu daitezkeen ikusteko; batzuetan gurpilak arraun luzeari kosk egiten dio, eta orduan gidariak burua atera eta barre egiten du, eta besteak baino azkarragoa dela iruditzen zaio. Hurbiltzen ari zen, eta esan genuen gure ontzia ukitzen

saiatuko zela; baina ez zirudien desbideratzen zera zihoanik. Handia zen, eta presaka zihoan. Hodei beltza zirudien, inguruan ipurtargi errenkak zituelarik, baina halako batean puztu egin zen, handi eta beldurgarri, eta labeetako ateen ilara luzeek hortz gori goriak bailiren distiratsen zuten; branka ikaragarria eta babesgabea gure gainean zintzilik genituelarik. Garrasi egiten zigutela entzun genuen, motorrak geratzeko kanpai hotsa, madarikazio saila, eta lurrunaren txistua..., eta Jimek ontziaren alde batera jo zuen eta nik bestera, baporeak almadia erdi erditik txikitu zuen.

Uretara jauzi egin nuen, eta hondoa aurkitzeko asmoa ere banuen, hamar metrotako gorpila gainetik pasako zitzaidalako, eta nik horretarako tarte nahikoa gorde nahi nuen. Minutu bat iraun nezake ur azpian; baina orduan uste dut minutu t'erdi egin nituela. Gero azkar atera nintzen ur gainera, ia lehertzeko zorian nengoen eta. Besapeetaraino atera nuen kolpetik gorputza uretatik, ura sudurretik kanpora bota, eta arnasestuka aritu nintzen pixka batean. Urlaster zarata-tsua zen, noski; eta ontziak motorrak geratu eta

handik hamar segundotara piztu zituen berriz, horiek inoiz ez baitute kezka handiegirik izan almadia gizonengatik; eta ibaian gora joan zen, nire ikusmenetik kanpo eguraldi ilunean, entzun egin nezakeen arren.

Dozena bat aldiz deitu nion Jimi garrasika, baina ez nuen erantzunik izan. Orduan uretan oinei eragiten ari nintzen bitartean albotik ukitu ninduen ohol bati heldu nion, eta bazterrerantz jo nuen, oholari aurrerantz bultzatuz eginez. Baina berehala konturatu nintzen ur lasterra ezker aldeko ibai bazterrerara zihoala, eta horrek esan nahi zuen bidegurutze batean nengoela, eta horrenbestez norabidea aldatu eta beste bidea hartu nuen.

Bi milatako bidegurutze luze eta zeharkako horietakoa zen hura, eta denbora luzea behar izan nuen handik ateratzeko. Lehorrera osorik iritsi nintzen, eta ibai ertzean gora egin nuen. Ia ezin nuen ezer ikusi, eta poliki-poliki ibili behar izan nuen mila laurden batean edo tarte luzeagoan lur zailtan barrena, eta gero garai bateko itxurako etxe bikoitz baten aurrean azaldu nintzen konturatu gabe. Aurretik bizkor pasa eta

ihes egin nahi nuen handik, baina orduan zakur multzoa jauzika, zaunka eta uluka hasi zitzaidan, eta arnasarik ere ez hartzea hobe izango nuela erabaki nuen.

Hamazazpigarren atala

Handik minutu erdira edo norbaitek hitz egin zuen leihotik, burua kanpora atera gabe, eta esan zuen:

— Lasai, mutilak! Geldik! Nor dabil hor?

Nik esan nuen:

— Ni naiz.

— Nor da ni?

— George Jackson, jauna.

— Zer behar duzu?

— Ez dut ezer behar, jauna. Etxe aurretik pasa nahi nuen, baina zakurrek ez didate utzi.

— Zeren bila zabilta hemen gaueko garai hauetan?

— Ez nabil ezeren bila, jauna. Baporeko ontzi gainetik erori egin naiz uretara.

— Ene, bai zera, erori al zara? Argia piztu dezala norbaitek. Nola esan duzu zela zure izena?

— George Jackson, jauna. Mutil bat besterik ez naiz.

— Hara, egia esaten ari bazara, ez duzu bel-durtu beharrik. Inork ez dizu kalterik egingo. Baina ez mugitu; zauden tokian egon. Zuetako batzuek Bob eta Tom esnatu, eta eskopetak ekar ditzatela. George Jackson, ba al da inor zurekin?

— Ez, jauna, inor ez.

Etxean jendea mugitzen sumatu nuen, eta argi bat piztu zuten. Gizonak oihu egin zuen:

— Kendu argi hori hortik, Betsy, tuntun alae-na. Txoratu al zara? Lurrean utz ezazu sarrerako atearen atzean. Bob, zu eta Tom prest bazaude-te, zeuen lekuetan jarri.

— Listo.

— George Jackson, Shepherdsontarrak eza-gutzen al dituzu?

— Ez, jauna. Ez dut horien berririk.

— Ederki, hori egia izan daiteke, edo ez. Orain, denok prest. Aurrera urrats bat George Jackson. Eta kontuz, ez presaka ibili, poliki hurbil-du. Norbait badago zure ondoan, atzean gera dadila, bere burua azaltzen badu tiro egingo diogu. Orain, segi aurrera. Poliki ibili; zuk zeuk bultza egin ateari; gorputza zeharka pasatzeko

adina behar duzuna besterik ez zabaldu, entzun al duzu?

Ez nintzen presaka ibili, ezingo nukeen nahi izanda ere. Urrats txikia ematen nuen mugitzen nintzen bakoitzean, eta ez nuen hots bakar bat entzuten, bihotza entzun nezakeela konturatu nintzen. Zakurrak gizakiak bezain isilik zeuden, baina atzetik etorri zitzaizkidan pixka batean. Atariko hirugarren egurrezko eskailera igo nuen, giltzak, ate-langak eta sarrailak irekitzen ari zirela entzun nuen. Atean jarri nuen eskua eta bultza egin nuen pixkanaka-pixkanaka, norbaitek esan zuen arte: «Hortxe, nahikoa da. Sartu burua.» Hala egin nuen, baina bururik gabe utz nazaketela ere pentsatu nuen.

Kandela lurrean zegoen, eta hantxe geratu ziren denak niri begira, eta ni haiei minutu laurden batean edo. Hiru gizon nituen aurrean esko-petak niregana zuzentzen zituztelarik, eta esan beharra dut horrek ikara ager erazi zuela nire aurpegian. Zaharrena, hirurogei urteko ile zuria; beste biek hogeita hamar edo gehiago izango zituzten, denak apain eta dotoreak; ilea urdindurik zuen andre zahar ezin goxoagoa, eta bere

atzean oso ongi ezin ikus nitzakeen bi emakume gazte. Etxeko nagusi zaharrak esan zuen:

— Ongi dagoela uste dut. Sartu.

Etxera sartu nintzen bezain laster, etxeko nagusiak atea giltzatu zuen, langa jarri eta sarrailak itxi, eta gizon gazteei esan zien eskopetak hartu eta atzetik joateko. Egongela handi batean sartu ginen, eta lurrean eskuz egindako tapiz berria zuen. Etxe aurreko leihoen ikus menetik kanpo zegoen gelako bazter batean bildu ziren, albo horretan ez zen leihorik eta. Kandela hartu, eta goitik behera begiratu zidaten, eta guztiek esan zuten: «Ez da Sheperdsontarra, ez, ez du Sheperdsontarren antzik.» Etxeko nagusiak esan zidan espero zuela ez nuela gaizki hartuko armak nituen ikusteko arakatzen baninduten, izan ere ez ninduela mindu nahi, eta ziurtatzeko besterik ez zela. Halaxe ez zen poltsikotan bila ibili, eta kanpotik bere eskuz ukitu besterik ez zidan egin, eta ongi zegoela esan zuen. Patxadan eta etxean banengo bezala egoteko adierazi zidan, eta nire gora behera guztiak esateko; baina etxeko andre zaharrak esan zuen:

— Baina, Jainkoaren izenean, Saul, gizajoa blai eginda dago; eta ez al zaizu iruditzen goseak egon daitekeela?

— Arrazoi duzu, Rachel, ez naiz konturatu. Orduan etxeko andre zaharrak esan zuen:

— Betsy (andre beltza zen), joan zaitez airean eta ekarri gizajo honi jateko zerbait, ahal duzun bezain azkar; eta, neskak, zuetako batek Buck esna dezala, eta esan... Hara, hementxe dugu bera. Buck, kanpotar txikia eraman eta kendu iezazkiozu arropa bustiak eta emazkiozu zure lehor batzuk janzteko.

Buckek nire adinekoa zirudien, hamahiru edo hamalau hortxe ibiliko zen, baina ni baino handiagoa zen. Alkandora hutsean zegoen, eta ilea dena sakabanaturik zuen. Ahozabalka eta esku batez begiak igurzten ari zela sartu zen, eta beste eskuan eskopeta zekarren. Esan zuen:

— Ez al da Sheperdsontarrik inguruan?

Ezetz esan zioten, iruditu egin zitzaiela, baina ezetz.

— Ba —esan zuen—, izango balitz, uste dut bat harrapatuko nukeela.

Barre egin zuten, eta Bobek esan zuen:

— Bitartean larrutu gintzaketen, Buck, halako patxadan etorrira.

— Aizu, inor ez da nire bila etorri, eta hori ez dago ongi. Alde batera uzten nauzue beti; ez didazue aukerarik ematen.

— Lasai, Buck, seme —esan zuen gizon zaharrrak—, izango dituzu aukera nahikoak garaia iristean, ez kezkatu horregatik. Orain joan eta egin ezazu amak esandakoa.

Eskaileretan gora bere gelara igo, eta alkan-dora lakatza, jaka motza, eta bere prakak eman zizkidan, eta nik jantzi egin nituen. Horretan ari nintzela izena galdetu zidan, baina nik ezer esan ahal izan nuen baino lehenago, hasi zitzaidan esaten aurreko egunean basoan oskilasoa eta untxi gazte bat harrapatu zituela, eta galdetu zidan non zen Moises kandela itzali zitzaionean. Ez nekiela erantzun nion; ez nuen ordura arte horren berririk izan.

— Asmatu, bada —esan zuen.

— Nola asmatuko dut —esan nuen—, ez badi-date horretaz inoiz ezer esan?

— Asma dezakezu, ordea. Oso erraza da.

— Zein kandela? —esan nuen.

— Edozein —esan zuen.

— Ez dakit non zegoen —esan nuen—; non zegoen?

— Ilunpetan, ba! Hantxe zegoen!

— Eta, non zegoen baldin bazenekien, zertarako galdetu didazu?

— Arraioa, asmakizuna da, ez al duzu ikusten? Esan, noiz arte geratuko zara hemen? Betiko geratu. Primeran ibiliko gara; orain ez da eskolarik. Zakurrik ba al duzu? Nik badut bat, eta ibaira joaten da nik botatzen dizkiodan makilaxoen bila. Atsegin al zaizu igandeetan orraztu eta zorakeria guzti horiek egitea? Niri ez behintzat, baina amak behartzen nau. Praka madarikatuak! Jantzi egin beharko ditut, baina nahiago nuke ez janztea, hain dago bero eguraldia. Prest zaude? Ederki. Goazen, adiskidea.

Arto ogi hotza, kontserba-poteko haragi hotza, gurina eta esne krematsua jarri zidaten behean, eta ez dut inoiz gauza hoberik topatu. Buckek, bere amak, eta gainontzeko guztiek arto oskolez egindako pipak erretzen zituzten; bi emakume gazteak, eta ordurako alde egin zuen andre beltzak ezik. Denek erre eta hitz egiten

zuten, eta nik jan eta hitz egiten nuen. Emakume gazteek lepo oihalak zeramatzen, eta ilea bizkarrean behera zintzilik. Denek galderak egiten zizkidaten, eta nik esan nien aita, ni, eta familia osoa Arkansaseko hegoaldean bizi ginela etxalde txiki batean, eta Mary Ann, nire arreba, ihes egin eta ezkondu egin zela, eta geroztik ez genuela haren berririk izan, eta Bill haren bila joan zela eta geroztik ez genuela haren berririk ere izan; Tom eta Mort, berriz, hil egin ziren, eta aita eta biok besterik ez ginen geratu. Esan nien aita ia hezurretan geratu zela arazo guztiak zirela eta; eta hil zenean geurea zena hartu nuela, etxaldea ez baitzen gurea, eta ibaian gora abiatu nintzela, ontzi gainean joateko pasaia hartuta, eta gero ontzi gainetik erori nintzela; eta horrela iritsi nintzela bertara. Esan zidaten nahi nuen arte izango nuela han etxea. Orduan ia egunsentia zen, eta denak oheratu ziren. Ni Buckekin joan nintzen ohera, eta goizean jaiki nintzenean, arraio beltza, nire izena ez nuen gogoan. Ordubetean saiatu nintzen hori gogoratu nahian, eta Buck esnatu zenean, esan nuen:

— Buck nola idazten den ba al dakizu?

— Bai —esan zuen.

— Apustu egingo nuke ez dakizula nire izena nola idazten den —esan nuen.

— Zenbat apustu baietz? —esan zuen.

— Ederki —esan nuen—, aurrera.

— G-o-r-g-e J-a-x-o-n, hor duzu —esan zuen.

— Asmatu duzu, bai, eta ez nuen uste jakingo zenuenik. Ez da ez nolana hiko izena nirea idazteko, eta horrela gainera zuzen zuzenean, eta aurretik ikasi gabe.

Idatzi egin nuen paper batean, ezkutuan, balinetan hurrengoan norbaitek idazteko eskatzen bazidan; neure baitako egin nahi nuen eta arrapaladan esan egunero, esaten ohiturik banengo bezala.

Familia oso atsegina zen, eta etxea ere bai. Ez nuen mendialdean inoiz horrelako etxe ederririk ikusi eta halako dotoretasuna zuenik. Ez zuen burdinazko kisketarik sarrerako atean, ezta larruzko soka zuen egurrezkorik ere, brontzezko euskarria zuen ateak ireki ahal izateko, herrietako etxeetakoak bezalakoxea. Egongelan ez zuten oherik; herrietan egongela askok oheak zituzten arren. Tximinia handi bat zuten, beheko

aldean adreiluz estalirik, eta garbi eta gorri-
gorriak zituzten adreiluak ura botatzen zietelako
eta beste adreilua hartu eta igurzten zituztelako;
batzuetan pintura gorria erabilia garbitzen
zituzten, eta horri *marroi espainiarra* esaten zio-
ten, herrietan egiten duten bezalaxe. Bi su bur-
dina handi zituen tximiniak aurrean enbor zerra-
tua eusteko adinakoak. Tximinia gaineko apa-
lean erloju bat zegoen, aurreko kristalaren behe-
ko aldean herri baten irudia margotua zuelarik,
eta haren erdian borobil bat eguzkiaren lekua
betetzeko, eta haren atzean pendulua ikus zite-
keen alde batetik bestera zambuluka zebilela.
Zoragarria zen erloju haren tiki-taka entzutea;
eta batzuetan bitxi saltzaile horietako bat etorri,
eta garbitu eta behar bezala jartzen bazuen, han
hasten zen ehun eta berrogeita hamar kanpai
hots jo arte, nekatu ere egin gabe. Erlojua ez
lukete diru guztiagatik ere emango.

Papagaio handi eta nabarmenak zituen erlo-
juak albo bakoitzean, kare antzeko zerbaitez egi-
nak, eta kolore bizienetan margotuak. Papagaio
batek aldamenean toskaz eginiko katua zuen,
eta toskaz eginiko zakurra bestean; eta estutuz

gero garrasi egiten zuten, baina ahoa ireki gabe, begirada aldatu gabe eta jakin-minik adierazi gabe. Azpiko aldetik egiten zuten garrasi. Gauza hauen atzean basoko ahateen hegalez eginiko haizemaileak zeuden zabaldurik. Gelaren erdi erdiko mahai gainean toskazko otartxo polita zegoen, eta barruan sagar, laranja, melokotoi, eta mahatsa pilaturik zituen, eta denak benetakoak baino gorriagoak, horiagoak, eta ederragoak ziren, baina ez ziren egiazkoak, eta hori azala kenduta izan eta beheko karea edo zena zela erakusten zuten zatietan ongi ikus zitekeen.

Mahaiak estalki bat zuen, zeinak hegoak zabalik zituen arrano gorri eta urdina margoturik eta inguru osoan azpildura josita baitzuen. Esan zuten Philadelphiatik bertatik ekarria zutela. Baziren baita ere liburu batzuk, zuzen-zuzen pilan jarrita, mahaiaren bazter bietan. Horietako bat familiako Biblia handia zen, irudiz beteta. Bestea *Erromesaren bidaia*, bere familia utzi eta alde egin zuen gizon bati buruzkoa, zergatik alde egin zuen esaten ez zitzaigularik. Irakurri nuen handik puska ederra tarteka-marteka. Gaia interesgarria zen, baina zaila. Beste bat *Henry Clay-*

ren hitzaldiak, gauza ederrez eta poesiaz beterik zegoena; baina ez nuen poesiarik irakurri. Bestea *Gunn doktorearen famili medikuntza*, bertan gaixoari nahiz hildakoari zer egin behar zitzaion esaten zigun. Eresi liburu bat, eta beste liburu asko ere baziren. Eserlekua zumitzezkoa zuten aulki dotoreak ere bazituzten, eta osorik gainera, ez erdialdean barnealdera sartuak edo leher-tuak, otar zaharrak bezala.

Horman irudiak zituzten zintzilik, gehienak Washington eta Lafayetterenak, eta gerra girokoak, eta Eskoziako Maryri buruzkoak, eta «Independentzia deklarazioaren izendapena» izena zeraman bat. Baziren batzuk *lapitzez eginak* edo zeritzotenak, eta orain hilik zegoen familiako alaba batek hamabost urte besterik ez zituela egindakoak. Ordura arte nik ikusitako marrazkiak ez bezalakoak ziren horiek; besteak baino ilunagoak gehienbat. Horietako bat emakume bat zen soineko estu beltza jantzita, gerrikoa besapeetan, eta mauken erdian azak bezalako bi kozkor zituelarik. Ertz zabaleko sonbreiru handi beltza zuen aurpegi-estalki beltza eta guzti, eta txorkatila zuri argalak zinta beltzak inguratzen

zituelarik, eta abarketa beltz txiki txikiak, zizel baten modukoak. Hilarri baten kontra pentsakor jarrita zuen eskuineko ukalondoa, sahas baten azpian, eta beste eskuaz, mukizapi zuria alde batera zintzilikatzen zitzaizolarik, poltsatxoak hel-tzen zuen. Irudiaren azpian honela zioen: «Ai ene, ez zaitut berriz ikusiko.» Beste batean emakume gaztea agertzen zen ilea gorantz buruaren tontorreraino tente orraztua, eta han ilea atzean korapiloa eginda, orrazea eserlekuaren atzealdea balitz bezala jarrita zuelarik. Negarrez ari zen, eta mukizapia aurpegi aurrean zuen, eta beste eskuan hankaz gora etzanda zegoen txori hila. Irudiaren azpian honela zioen: «Ai ene, ez dut berriz zure txorrotxio goxoa entzungo». Beste irudian neska gazte bat ilargiari leihotik begira ari zitzaion, eta malkoak masailetatik irrist egiten zioten. Eskutitz irekia zuen esku batean, ertzean lakre beltza erakusten zuelarik, eta emakumea katea eta guzti zuen domina ahoren kontra gogor estutzen ari zen. Irudiaren azpian honela zioen: «Ai ene, joan egin zara, bai, joan egin zara».

Denak irudi politak ziren, baina ez nituen oso gogoko, izan ere lur jota baldin banenbilen, dardara eragiten zidaten. Denek pena handia hartu zuten hil zelako, halako irudi asko utzi zituelako egin gabe, eta edonork ikus zezakeen egindakolari begiratzuz gero zer galdu zuten. Baina nik uste dut haren jarrera kontutan hartuta, hilobian gusurago izango zela. Lanean ari zen etxekeok zioten irudi nagusia egiten gaixotasunak hartu zuenean, eta gau eta egun errezatzen aritzen zen irudi hori bukatu arte bizirik irauteko aukera izan zezan eskatuz, baina ezin izan zuen. Soingaineko zuri luzea zeraman neska gazte baten irudia zen. Zubiaren maratilan zutik zegoen, jauzi egiteko prest, ilea bizkarrean behera zintzilik, eta ilargiari begira, eta malkoek aurpegian irrist egiten zioten. Bi beso gurutzaturik zituen bular aurrean, beste bi aurrerantz luzatuta, eta beste bi ilargirantz altxatuta. Asmoa zuen zein beso pare zen egokiena ikusi eta gainontzekoak ezabatzea, baina, esan dudan bezala, hil egin zen hori erabaki aurretik, eta orain irudi hori bere gelako ohe gainean zuten, eta urtebetetze egunean loreak jartzen zizkioten irudiari. Gainon-

tzean gortina txiki baten atzean gordetzen zuten. Irudiko neska gazteak aurpegi goxo eta polita zuen nolabait, baina, nire ustez, beso pila horrek armiarma itxura ere ematen zion.

Neska gazteak bizirik zegoenean papertxoak biltzeko liburu bat zuen, eta Presbyterian Observer aldizkaritik hartutako hildakoen berriak, istripuak, etsipenezko sufrimenduko kasuak itsasten zituen bertan, eta horiei buruz poesiak asmatzen zituen. Oso poesia onak ziren. Hau da Stephen Dowling Bots izena zuen gazte bati buruz idatzi zuena, zeina putzu batera erori eta ito egin baitzen:

STEPHEN DOWLING BOTSi ODA, HERIO-TZAN

*Eta gaixotu al zen Stephen,
Eta Stephen gaztea hil al zen?
Bihotz goibelak penatu al ziren,
Lagunek negar egin al zuten?*

*Ez; ez zen hori patua
Stephen Dowling Bots gaztearena;*

*Bere inguruko bihotzak penatu ziren arren,
Ez zen errua izan gaixotasunarena.*

*Ez zuen kukurruku eztlak haren gorputza
zigortu,
Ez elgorriak azkurez aspertu;
Ez zuten horiek kaltetu
Stephen Dowling Bots, oi izen sakratu.*

*Ez zuen maitasunaren zoritxarrik
Buru ile kizkurra makurtu,
Ez zuen sabeleko minik,
Stephen Dowling Bots azpiratu.*

*Oi ez. Malkoz estalitako begiz adi egon,
haren patua esango dizuet eta.
Arimak gorputz hotzetik hegan egin zion,
Putzu batera erori zen eta*

*Atera eta hustu egin zuten;
Beranduegi zen baina;
Haren izpiritua airean joan zen
Ondasun eta handitasun bila.*

Emmeline Grangerford horrelako poesiak egiteko gai baldin bazen hamalau urte bete ez zituenean, auskalo zer egingo lukeen geroago. Buckek esaten zuen poesiak aitaren batean botatzen zituela. Ez zuen pentsatu ere egin behar. Esaten zuen segidan egiten zituela lerroak, eta errimarik aurkitu ezin bazuen zirriborratu, beste bat idatzi eta aurrera egiten zuela. Ez zuen bereizketarik egiten, ematen zitzaion edozein gaiz idatz zezakeen, nahikoa zen gai tristea izatea. Gizon bat, emakume bat, edo haur bat hiltzen zen aldiro, han inguruan ibiliko zen bere «eskaintza» egiteko gorpua hoztu aurretik. «Eskaintzak» zirela esaten zuen. Auzokoek zioten lehenengo medikua etortzen zela, gero Emmeline, eta gero lurperatzailea... Lurperatzailea ez zen inoiz Emmelinen aurretik azaldu behin batean ezik, eta hori hildakoaren izenarekin erri- ma aurkitu ezinik geratu zelako, Whistler izenarekin alegia. Orduz gero ez zen lehenengo Emmeline izan; ez zuen ezer esan, baina itzaltzen hasi zen eta ez zen luzaroan bizi. Gaixoa. Askotan behartzen nuen neure burua bere gelatxora igozteko eta papertxoan liburuxka atera eta irakur-

tzeko, bere marrazkiak gogaitu nindutelako eta berarekin samindurik egon nintzelako. Familia osoa maite nuen, hildakoak eta guzti, eta ez nuen horiengandik bereizi nahi. Emmeline gaixoak hildakoei poesiak egiten zizkien bizirik zegoenean, eta ez zitzaidan zuzena iruditzen bera hil eta inor ez izatea hari poesiak idazteko. Horregatik izerditan bazen ere bertso bat edo bi egin nahi izan nizkion, baina nonbait ezinezkoa zen. Emmelineren gela txukuna eta polita gordetzen zuten, eta gauza guztiak hura bizirik zegoenean gogoko zitzaion leku berberean jarrita zeudelarik, eta inork ez zuen han lo egiten. Etxeko andreak berak zaintzen zuen gela, beltz ugari zituen arren, eta askotan han josten zuen eta Biblia ere gehienetan gela horretan irakurtzen zuen.

Egongelaz ari nintzenez, esango dut honek leiho ondota gortina ederrak zituela; zuriak ziren eta irudi margotuek osatzen zituzten, alegia, hormetan behera aihen-belarra zintzilik zuten gazteluek, eta edatera zihoazen animaliek. Piano txiki zahar bat ere bazuten, nonbait barruan latorrizko ontziak zituena, eta ez da

gauza ederragorik neska gazteak «Azken lotura hautsi da» abesten, eta «Pragako borroka» pianoan jotzen entzutea baino. Gela guztietako hormak kareztatuak zeuden, gehienek tapizak zituzten lurrian, eta etxe osoa kanpotik zuritua zegoen.

Etxeak bi alde zituen, eta horien artean gertzen zen pasabide zabalak teilatua zuen eta zorua, eta batzuetan han jartzen zuten mahaia eguerdian, eta leku hozkirria eta eroso zen. Ez zen gauza hoberik. Eta janaria ona izatea gutxi bazen, gainera nahi adina eta gehiago izaten genuen!

Hemezortzigarren atala

Grandgerford koronela gentleman horietakoa zen. Goitik behera zen gizon ongi ikasia; eta familia ere halakoxea zuen. Ongi jaioa, esaerak dioen bezala, eta horrek berdin balio du gizona-arentzat nahiz zaldiarentzat, hala esaten zuen Douglas alargunak, eta inork ez zion ukatu herriko lehenengo aristokrata izatea; eta aitak ere gauza bera esaten zuen, bera katu arrainaren mailatik gorakoa ez bazen ere. Grangerford koronela garaia zen eta oso argala, azal beltxaran xamarra zuen, eta ez zuen inon gorriaren arrastorik. Bizarra mozten zuen goizero, aurpegi mehe osoan goitik behera, ezpain fin finak zituen, sudur mehea oso eta irtena, bekain lodiak, eta begi beltz beltzak, hain sakonean sartuak ezen leize-zuloetatik begira ari zitzaizula baitzirudien, nolabait ere. Kopeta zabala zuen, ilea beltza eta leuna, eta sorbaldetaraino zintzilikatzen zitzaion. Eskuak luzeak eta finak zituen, eta egunero hutsik egin gabe alkandora garbia janzten zuen eta goitik behera lihoz eginiko janz-

kia, zeinak horren zuria izanagatik begietan min ere ematen baitzuen; igandeetan berriz jaka luze urdina urre antzeko botoiak eta guzti. Kirtena zilarrezkoa zuen kaobazko makila erabiltzen zuen. Ez zuen inoiz arinkeriarik egiten, ezta bat ere, eta ez zuen garrasirik egin behar izaten. Atseginetan atseginena zen, sumatu egiten zitzaion, badakizu, eta horrek lagun bilakatzen zuen. Batzuetan irribarre egiten zuen, eta poza ematen zuen horrela ikusteak, baina kandela bezain tente jartzen zenean, eta bekain azpitik tximistak keinuka hasten zirenean, nahiago izaten genuen arbola gainera igo, eta geroko utzi zer gertatu zen jakitea. Ez zion hark inori esaten portaera egokia izateko, bere aurrean denak behar bezala egoten ziren. Haren ondoan gustura egoten ziren denak; eguzkitsu izaten zen gehienetan, alegia, eguraldi ona egiten zuela zirudien. Lainotzen zitzaigunean berriz, dena ikaragarri ilun geratzen zen minutu erdiz edo, baina gero aste osoan ez zen okerrik izaten.

Goizean gizona eta etxeko andrea jaisten zirenean, familia osoa zutik jarri eta egun onak ematen zizkien, eta ez ziren berriz esertzen

haiek eseri arte. Gero Tom eta Bob pitxarrak izaten ziren arasa ondora hurbildu, eta bitter edalontzia nahasi eta aitari ematen zioten; hark eskuan hartu eta zain egoten zen Bob eta Tomek beraienak nahastuak zituzten arte, gero mutilek burua makurtu eta esaten zuten: «Geure begirunea zuei, jaun eta andrea»; eta pitin bat makurtzen zuten burua eta eskerrik asko esaten zuten. Orduan hirurak edaten zuten, eta Bob eta Tomek koilarakada bat ur botatzen zuten edalontzi hondoan geratu zitzaien azukre eta whisky edo sagar brandyaren kondarren gainean, eta niri eta Bucki ematen ziguten, eta guk ere etxeko nagusien ohoretan edaten genuen.

Bob zaharrena zen, eta Tom bigarrena. Gizon dotore eta garaiak, sorbalda zabal eta aurpegi beltzaranekoak, eta ilea luzea eta begi beltzak zituzten. Goitik behera liho zuriz janzten zuten, etxeko nagusiak bezala, eta Panamako sonbreiruzabalak zeramatzaten.

Ondorengoa Charlotte andereño zen, hogeita bost urte zituen, liraina, harroa, eta ederra, baina on hutsa, haserre ez bazegoen; baina

haserretzen bazen, aitak bezala hark ere begirada zuen ihes egin erazten zuena. Polita zen.

Bere ahizpa Sophia ere halakoa zen, baina beste izaera zuen. Atsegina eta goxoa zen, usoren antzera, eta hogeit hamar urte besterik ez zituen.

Familiakoek beltz bana zuten zerbitzari gisa, Buckek ere bai. Nire beltzak ez zuen batere lanik, ni ez nengoelako ohiturik pertsona bat izaten niri gauzak egiteko, baina Buckena airean zebilen ia denbora guztian.

Horiek ziren familiako guztiak, baina gehiago izanak ziren, hil zituzten beste hiru seme; eta Emmeline hil zena. Etxeko nagusiak etxalde asko bereak zituen, eta ehun beltzetik gora. Batzuetan jendetza etortzen zen, zaldiz, hamar edo hamabost mila egin ondoren, eta bost edo sei egun egiten zituzten etxean, eta ibilaldiak egiten zituzten han inguruan, ibaian gora eta behera, eta egunez basoan dantzak eta bazkariak egin ere bai, eta gauzez etxean dantzaldiak. Jende hori gehienetan familiaren ahaideak ziren. Gizonek eskopetak zeramatzen. Goi mailakoak ziren, zalantzarik ez zen.

Beste aristokraten taldea bizi zen han inguruan, bospasei familia, gehienak Sheperdson izena zutenak. Grangerfordtarren taldekoak bezain dotore, etxe oneko, ongi jaiotako eta handikiak ziren. Sheperdsontarrek eta Grangerfordtarrek baporeen kai berbera erabiltzen zuten, eta gure etxetik behera joan eta bi milatara edo zegoen; horregatik guretako askorekin batera kaira joaten ginenean maiz ikusten genuen Sheperdsontar taldea, zaldi dotoreen gainean.

Egun batean Buck eta biok basoan ehizan genbiltzala, zaldiak zetozela entzun genuen. Bidea ari ginen gurutzatzen, eta Buckek esan zuen:

— Azkar! Sartu azkar basoan!

Hori egin ondoren, basoan ginenean, ezkutuak begiratu genuen hosto artetik. Berehala gizon gazte bikaina azaldu zen bidean zaldi gainean, soldadu baten antzera trebetasunez zebilarik. Eskopeta zelaren alde batean sartuta zuen. Ezagutzen nuen lehendik. Harney Sheperdson gaztea zen. Bucken armak tiro egiten zuela entzun nuen belarri ondoan, eta Harneyren sonbreirua burutik erori zitzaion. Bere eskopeta

hartu eta zaldi gainean zuzen-zuzen zetorren gu ezkutatuak ginen lekuraino. Baina ez ginen han geratu. Basoan barrena abiatu ginen lasterka bizian. Basoa ez zen oso itxia, horrenbestez sorbalda gainetik begiratzen nuen balei ihes egiteko, eta bi aldiz ikusi nuen Harneyk eskopeta Buck zegoen lekura zuzenduta zuela. Gero lehengo bidera itzuli zen, uste dut sonbreiruaren bila joan zela, baina ezin nuen ikusi. Ez genion lasterketari utzi etxera iritsi arte. Etxeko jaun zaharraren begiak sugartu egin ziren une batez, gehienbat harrokeriaz, iruditu zitzaidan niri. Gero aurpegia lasaitu zitzaion, eta esan zuen modu atseginean:

— Zuhaxken atzetik tiro egite hori ez zait oso atsegin. Zergatik ez zinen bide erdira irten, semetxo?

— Sheperdsontarrek ez dute hori egiten, aita. Beti aurrea hartzen dute horiek.

Charlotte andereñok burua tente zuen erregina baten moduan Buckek gertatutakoa kontatzen zuen bitartean, eta sudurzuloak puztu egiten zitzaizkion eta begiei haserrea zerien. Bi mutil gazteak kopetilun zeuden, ez zuten hitzik

esan. Sophia andereño zurbildu egin zen, baina kolorea etorri zitzaion gizona ez genuela zauritu jakin zuenean.

Buck handik zuhaitz azpiko aletegietara eramanez ahal izan nuen bezain laster, esan nion:

— Hil nahi al zenuen, Buck?

— Noski baietz.

— Zer egin dizu, bada?

— Berak? Berak ez dit inoiz ezer egin.

— Eta, orduan, zergatik nahi zenuen hil?

— Ezergatik ere ez... Mendekuarena besterik ez da.

— Zer da mendekua?

— Baina, non hazi zaituzte? Ez al dakizu mendekua zer den?

— Ez dut hori inoiz entzun. Esan, bada, zer den.

— Hara —esan zuen Buckek—, horrela izaten da mendekua: gizon bat beste batekin haserre-tzen da, eta bata bestea hiltzen du; gero besta-ren anaiak hura hiltzen du; gero bi aldeetako anaiak bata bestearen aurka hasten dira; gero lehengusuek parte hartzen dute, eta azkenean denak hiltzen dira, eta akabo mendekua. Baina

poliki xamar gertatzen da hori, eta denbora luzea behar da.

— Zuena aspaldikoa al da, Buck?

— Bai horixe! Duela hogeita hamar urte edo hasi zen. Zerbaiti buruz istilua izan zuten, eta gero auzia hori konpontzeko. Auziak gizon bati eman zion arrazoia, eta horrenbestez besteak auziaren irabazleari tiro egin eta hil zuen, noski, barruak esaten ziona egin zuen. Edozeinek hala egingo zukeen.

— Zertaz izan zuten eztabaida, Buck? Lurrak...?

— Beharbada... Ez dakit.

— Nork egin zuen tiro? Grangerfordtarrak ala Sheperdsontarrak?

— Arraioa, nola nahi duzu jakitea? Aspaldi gertatu zen.

— Inork ez al daki?

— A bai, aitak badakiela uste dut, eta zaharretako batzuek ere bai; baina orain ez dakite hasierako istilua zertaz izan zen.

— Hildako asko izan dira, Buck?

— Bai, hileta pila ederra izan dugu. Baina ez dute beti nahitanahiez hiltzen. Aitak posta tiro

batzuk ditu gorputzean, baina ez zaio axola berak bestela pisu handirik ez du eta. Bobi mendiko labana erabiliz arrastoak utzi zizkioten, eta Tom behin edo bitan zauritu dute.

— Inor hil al dute aurten, Buck?

— Bai, guk bat eta beraiek bestea. Duela hiru hilabete inguru Bud gure lehengusua, hamalau urteko gaztea, zaldi gainean zebilen basoan barrena ibaiaren beste aldetik, armarik ez zera-mala, zorakeria galanta hori bestalde. Leku bakarti batean zaldi bat atzetik zetorrela sumatu zuen, eta Baldy Sheperdson zaharra ikusi zuen hurbiltzen eskopeta eskuan hartuta eta hile zuria airean hegan egiten; eta zaldi gainetik jauzi egin eta basora jo beharrean, Budi iruditu zitzaion zaharra baino azkarrago joan zitekeela; eta han ibili ziren, jo eta ke, bost mila baino gehiago egin arte, agurea gero eta hurbilago. Azkenean Budek ikusi zuen alferrik ari zela, eta gelditu eta atzera begiratu zuen tiroak aurpegian aurrez aurre hartzeko, eta zaharra zaldi gainean gehiago hurbildu eta tiroz bota egin zuen lurrera. Baina aukera handirik ez zuen izan poza hartze-

ko, gure jendeak handik astebetara hil egin zuelako.

— Iruditzen zait agure hori koldar txepela besterik ez zela, Buck.

— Nik ez dut uste koldarra zenik. Ezta gutxia-go ere. Ez da koldar txepelik Sheperdsontarren artean, bakar bat ere ez. Eta ez da koldarrik Grangerfordtarren artean ere. Izan ere, gizon zahar hori borrokan aritu zen ordu erdiz hiru Grangerfordtarren aurka, eta irabazle izan zen. Denak zaldi gainean zihoazen; agurea zaldi gainetik jauzi egin eta egur pila baten atzean ezkutatatu zen, eta zaldia aurrean jarri zuen balak gelditzeko, baina Grangerfordtarrak zaldi gainean geratu eta gizonaren inguruan ibili ziren, eta tiroz josi zuten, eta hark ere gauza bera egin zuen. Zaldia eta bera zulatu xamarrak eta herrenka etxeratu ziren, baina Grangerfordtarrak etxera eraman behar izan zituzten, eta horietako bat hilik zegoen, eta beste bat hurrengo egunean hil zen. Ez, jauna, norbaitek koldarrik aurkitu nahi baditu ez dezala denbora galdu Sheperdsontarren artean bila ibilita, ez baita beren artean mota horretakorik.

Hurrengo igandean mezetara joan ginen guztiok, hiru mila edo egin genituen denak zaldi gainean. Gizonezkoak eskopetak hartuta zihoazen, Buck bezalaxe, eta belaunen artean jarrita zituzten edo eskutik gertu hormaren kontra edo. Sheperdsontarrek gauza bera egiten zuten. Hitzaldia gogor xamarra izan zen: anaien arteko maitasunaz, eta antzeko aspergarrikeriaz aritu zen; baina denek esan zuten oso sermoi ederra izan zela, eta etxeko bidean horretaz hitz egin zuten, eta esateko gauza pila zuten fedeez, ekintza onez, eta doai amaigabeaz, eta predestinapez, eta nik zer dakit zenbat gauzez, hura gogoa dudan iganderik astunena iruditu baitzitzaidan.

Bazkaldu eta handik ordubetera denak erdi lotan zeuden, batzuk aulkietan eta besteak gelaetan, eta aspergarria bilakatu zen giroa. Buck eta zakurra belazean luze etzanda zeuden eguzkitan lo zerraldo. Geure gelara igo eta nik ere lo-kuluxka egingo nuela erabaki nuen. Sophia andereño atsegina ikusi nuen gure logelaren ondoan zegoen bere gelako ate aurrean. Gelara sartu ninduen eta poliki-poliki itxi zuen gero atea. Galde

egin zidan bera gustukoa al nuen, eta baietz erantzun nion; gero galdegin zidan inori ezer esan gabe mesede bat egingo ote nion, eta nik baietz esan nion. Orduan esan zidan Testamentu liburua elizako eserlekuan ahaztuta utzi zuela, beste bi liburuen artean eta isil isilik atera eta haren bila joango ote nintzen, inori ezer esan gabe. Baietz esan nion. Poliki atera eta bidean gora urrundu nintzen. Elizan ez zen inor, zerri bat edo beste ezik, atea ez baitzuen sarrailarik, eta zerriek udan egur lodiko lur ongi marruskatua gustura hartzen dute, freskoa izaten baita. Konturatzen bazara, jende gehiena beharrezkoa duenean besterik ez da joaten elizara; baina zerriak desberdinak dira.

Neure buruari esan nion han zerbait gertatzen zela; ez zitzaidan ulergarria iruditzen neska batek horrelako izerdiak botatzea Testamentu liburu batengatik. Horrenbestez astindu bat eman nion liburuari eta paper puska bat eroritzen lurrera, eta bertan «Ordu bi t'erdia» idatzita zegoen lapitzez. Goitik behera aztertu nuen, baina ez nuen besterik aurkitu. Ez nuen ezer ulertzen, beraz papera berriz sartu nuen libu-

ruan. Etxera iritsi eta eskailerak igo nituenean, Sophia andereño aurkitu nuen nire zain. Bultza egin eta barrura sartu ninduen, eta gero atea itxi zuen. Gero Testamentu barruan begira ibili zen papera aurkitu arte eta poza eman ziola zirudien, eta aitaren batean, heldu eta besarkada eman zidan, eta esan zuen munduko mutilik onena nintzela, eta inori ezer ez esateko. Minutu batean aurpegia gorritu egin zitzaion, eta begiak piztu eta oso polita jarri zen. Tarte luze batean harri eta zur geratu nintzen, eta berriro nire onera etorri nintzenean galdegin nion zer jartzen zuen paperean, eta hark ea irakurri nuen galdegin zidan, eta nik ezetz erantzun nion. Orduan eskuz idatzitakoa irakur nezakeen galdegin zidan, eta nik ezetz, inprentaz idatzitakoa besterik ez nuela irakurtzen. Ondoren esan zidan papera orrialdea gordetzeko ezaugarria besterik ez zela, eta jolastera joan nintekeela.

Ibai aldera jaitsi nintzen, guzti hori buruan nerabilelarik, berehalakoan konturatu nintzen nire zerbitzari beltza atzetik zetorkidala. Etxetik nahikoa urrundu ginenean, atzerantz begiratu

zuen une batez, eta gero korrika hurbildu zitzaidan, eta esan zuen:

— George jauntxoa, zingirara jaisten bazara, uretako sugeak erakutsiko dizkizut.

Esan nuen nirekiko: gauza bitxia da hori; gauza bera esan zidan atzo. Jakin behar du gainera inori ez zaizkiola suge horiek gustatzen, horiek harrapatzera joateko adina behintzat. Hala ere zertan ibiliko da? Eta esan nuen:

— Ederki, goazen aurrera.

Mila erdia edo egin nuen bere atzetik, gero zingiran sartu eta beste mila erdia egin zuen ura txorkatiletaraino iristen zitzaizolarik. Zuhaitzez, sasiz eta aihen-belarrez beterik zegoen zabalgunela eta lehorrera iritsi ginen, eta esan zuen:

— Sartu hortik eta urrats batzuk eman, George jauntxoa, eta hantxe aurkituko dituzu. Ikusiak ditut nik lehendik ere, eta ez ditut berriz ikusi nahi.

Gero putzuan aurrera egin eta joan egin zen, eta berehala ezkutatu zuten zuhaitzek. Sartu nintzen beltzak esandako lekutik, eta zabalgunela batera iritsi nintzen logela baten neurrikoa edo izango zena. Aihen-belarrez inguraturik zegoen,

eta gizon bat aurkitu nuen bertan lotan..., eta nor izango eta Jim berbera izan behar!

Hurbildu nintzaion, eta bururatu zitzaidan ustekabe ederra izango zuela ni berriz ikustea-gatik, baina ez zen hala gertatu. Ia negarrez hasi zen, pozaren pozez, baina ez zitzaion harritu. Esan zuen gau hartan nire atzetik etorri zela igerian, eta nire oihuak entzun zituela denbora gutxian, baina ez zuela erantzun, ez zuelako nahi norbaitek harrapatu, eta esklabutzara berriz eramatea. Esan zuen:

— Zauriren bat egin nuen, eta ezin nuen oso azkar igeri egin, eta azkenerako zugandik urruti xamar geratu nintzen. Lehorreratu zinenean kontuak atera nituen harrapatu egingo zintudala oihurik egin behar izan gabe, baina etxea ikusi nuenean polikiago hasi nintzen ibiltzen. Urrunegi nengoan zer esaten zizuten entzun ahal izateko... Zakurren beldur nintzen, baina dena lasaitu zenean, banekien etxean izango zinela, eta basora jo nuen eguna argitzeko zain. Goizean goiz soroetara zihoazen beltz batzuk igaro ziren handik, eta leku honetara ekarri ninduten. Hemen ura dela eta zakurrek ezin antzeman

nazakete, eta jateko zerbait ekartzen didate gauero, eta zure bizimoduaren berri ematen didate.

— Eta zergatik ez diozu nire Jack horri hona lehenago ekartzeko esan, Jim?

— Alferrik zen zu neka eraztea, Huck, zerbait egin genezakeen arte, baina orain ongi gaude. Ontziak, jateko tresnak, eta janariak erosi ditut, eta gauz aukera izan dudanean almadia konpontzen aritu naiz...

— Zein almadia, Jim?

— Geure lehengoa bera.

— Zer esan nahi duzu, almadia ez zela txiki-txiki eginda geratu?

— Ez, ez zen geratu. Kaltetua bai, mutur bat batez ere, baina kalte handiegirik ere ez zuen izan, gure gauza gehienak ordea galdu egin ziren. Horren ur sakonetan sartu izan ez bagina, edo ur azpian horren urruti joan ez bagina, gaua horren beltza izan ez balitz, beldurrak hainbeste-raino hartu izan ez bagintu, eta esaten den bezala, horren txoriburuak izan ez bagina, almadia ikus genezakeen. Baina ongi atera zaigu, orain

almadia berritan baino hobeto utzi dudalako, eta gauza berri asko ditugulako, galdutakoen orde.

— Eta, nola berreskuratu duzu almadia, Jim. Zeuk hartu duzu?

— Nola hartuko nuen basoan egonda? Ez, beltz horietako batzuek aurkitu zuten enbor batek bidea ixten ziolarik, hor aurreko bihurtu-ganean, eta errekatxo batean ezkutatu zuten sahas artean; eta norena izango zen erabakitze-ko eztabaida horren handia izan zutenez gero, berehala jakin nuen zer gertatu zen. Orduan nik erabaki nuen auzia, eta esan nien ez zela hango inorena, zurea eta nirea baizik; eta ea gizon zuri baten ondasuna hartu nahi zuten galdegin nien, eta harengatik astindu ederra jaso. Gero hamarna xentimo eman nien, eta gustura joan ziren, beste almadiarik azaltzeko irrika bizian, eta harekin berriz aberasteko. Oso zintzoak izan dira beltz horiek nirekin, eta edozein gauza eskatzen diedala ere, ez diet bi aldiz esan behar, laztana. Jack hori beltz jatorra duzu, eta buru argi xamarra ere badu.

— Bai hala da. Ez dit esan hemen zinenik; hona etortzeko esan dit, eta uretako suge pila

erakutsiko zizkidala. Ezer gertatuz gero, eskuak garbi izango lituzke. Inoiz ez gaituela elkarrekin ikusi esan dezake, eta egia izango litzateke.

Hurrengo egunaz ez dut oso luze hitz egin nahi. Iruditzen zait hobe izango dela gertatutakoa laburtzea. Egunsentiarekin batera esnatu nintzen, eta beste aldera jira egin lo hartzeko asmotan, baina orduan isiltasun handia sumatu nuen. Ez zirudien han inor zebilenik. Harrigarria zen. Gero Buck jaiki eta joan zela ohartu nintzen. Jeiki, eta eskailerak jaitsi nituen han inor ez izateko zer gertatu ote zen neure buruari galdezka; ez zen txintik ere entzuten. Kanpoan gauza bera gertatzen zen. Nire artean nioen hura zer ote zen. Egur pilaren ondoan Jack aurkitu nuen, eta esan nion:

— Zer gertatu da hemen?

Hark esan zuen:

— Ez al dakizu George jauna?

— Ez —esan nuen—, ez dakit.

— Hara, zera, Sophia andereñoak ihes egin du!

Benetan. Gauean egin omen du hanka, inork ez daki noiz zehazki, baina Harney Sheperdsonekin ezkontzeko egin du ihes, badakizu, edo hala uste

dute behintzat. Duela ordu erdi edo konturatu dira etxeokak, edo beharbada lehenago, eta benetan esaten dizut ez dutela batere denborarik galdu. Horrelako eskopeta eta zaldi prestaketa bizkorra ez zenuen inoiz ikusiko. Emakumezkoak ahaideei gertatutakoaren berri ematera joan dira, eta Saul, etxeok nagusi zaharra, eta mutilak eskopetak hartu eta ibaiko bidera joan dute gizon gaztea harrapatu eta hiltzeko asmoz, Sophia andereñoekin ibaiaren beste aldera iritsi ez dadin. Iruditzen zait garai gogorak ezagutuko ditugula.

— Buck ni esnatu gabe joan da.

— Bai, hala egingo zuen. Ez zintuzten istilu horretan nahasi nahiko. Buck jaunak eskopeta hartu, eta zin egin du Sheperdsontarren bat harrapatu edo bestela lehertu egingo duela. Asko izango direla uste dut, eta ziur egon auke-ra izanez gero harrapatuko duela baten bat.

Ibaiko bidean gora abiatu nintzen ahal izan nuen bizkorren. Geroxeago urrutian tiroen hotsa entzuten hasi nintzen. Baporeen geltoki zen egurrezko etxetxora eta egur pila ondora iritsi nintzenean, zuhaitz eta sasi artean ibili nintzen leku

egokia aurkitu arte, eta gero zumardi baten adarretan gora igo nintzen gertuegi ez egoteko, eta begira geratu nintzen. Egur pila bat bazen zuhaitzaren aurrean metro t'erdira edo, hasieran haren atzean ezkutatzea bururatu zitzaidan, baina asmatu nuen beharbada han ez geratzen.

Lauzpabost gizon zebiltzan egurrezko etxearen aurreko zabalgunean zaldi gainetan jirabiraka, biraoka eta oihuka, eta ontzira lekuaren ondoan egur pila baten atzean zegoen gazte bikote bat harrapatu nahian, baina ezin zituzten harrapatu. Mutiletako batek egurren atzetik ibaira ematen zuen aldetik bere burua erakusten zuen bakoitzean, tiro egiten zioten. Bi gazteek bizkarra bizkarraren kontra jarrita zuten, eta horrela bi alderdiak zain zitzaketen.

Geroxeago gizonek zaldi gainean jirabiraka ibiltzeari eta oihu egiteari utzi zioten. Etxetxorantz hurbiltzen hasi ziren. Orduan mutil bat zutitu, egur pila gainetik tinko eskopeta zuzendu, eta zelatik behera bota zuen gizonetako bat. Gizon guztiek zaldi gainetik jauzi egin eta zauritua hartu eta etxetxora eramatera joan ziren; orduantxe bertan bi mutilak airean atera ziren.

Gizonak konturatu baino lehen nire zuhaitzerantz bide erdia egin zuten. Gero gizonak ikusi zituzten, zaldi gainera igo eta gazteen atzetik joan ziren. Hurbiltzen ari zitzaien, baina ez nahikoa, mutilak lehenago hasi baitziren. Nire zuhaitzaren aurreko egur pilara iritsi ziren gazteak, eta haren atzean ezkutatu gizoni berriro ere aurrea hartuz. Mutiletako bat Buck zen, eta beste hemeretzi bat urtetako gazte argala.

Gizonak azkar mugitu ziren han inguruan, eta gero zaldi gainean urrundu. Handik desagertu bezain laster, Bucki oihu egin nion eta alde egin zutela esan. Hasieran harritu egin zen nire ahotza zuhaitzetik zetorrela entzutean. Zor eta lot zegoen. Esan zidan erne egoteko eta jakin erazteko berari gizonak berriz azaltzen baziren; esan zuen deabrukeriaren bat egingo ote zieten beldur zela, ez zirela luzarorako joanak izango. Nahiago nuke zuhaitz hartara ez igo izana, baina jaisteko odol berorik ez nuen. Buck negarrez hasi zen eta biraoka, eta zin egin zuen berak eta Joe lehengusuak (beste mutil gazteak, alegia) ordaina emango ziotela egun horretan gertatutakoari. Buckek esan zuen aita Shepersondarrak ezkuta-

tu eta bat-batean atera zitzaizela. Shelersondar-
rrak indartsuei aritu ziren. Galdegin nion zer ger-
tatu zen Harney gaztea eta Sophia andereño-
rekin. Esan zuen ibaia gurutzatu eta osorik atera
zirela. Poztu egin nintzen; baina Buck nola jarri
zen ikustea Harney ez zuelako hil tiro egin zion
egunean... ez zitzaidan jarrera ulerterraza irudi-
tu.

Halako batean, danba, danba, danba! hiru
edo lau eskopeta hasi ziren tiroka. Gizonak isil
isilik sartu ziren zuhaitz artean eta zaldirik gabe
atzetik agertu zitzaizen! Mutilek ibaira jauzi egin
zuten, biak zaurituta, eta igeri egiten zuten bitar-
tean gizonak bazterretik tiro egiten zieten eta
oihuka zioten: «Mutilak akabatu, akabatu! Ondo-
ezik geratu nintzen eta ia zuhaitzetik behera
erori nintzen. Ez dut gertatutako guztiaren berri
eman nahi, hala egingo banu berriz gaixotuko
nintzateke eta. Hobe nuke gau horretan ibai baz-
terrera joan izan ez banintz, horrelako gauzak
ikusteko ere. Inoiz ez ditut barrutik hustuko...
askotan egiten dut amets horiekin.

Zuhaitzean geratu nintzen ilundu arte, jaiste-
ko beldurrez. Batzuetan eskopetak entzuten

nituen basoan urruti, eta bitan gizon taldeak ikusi nituen arrapaladan egurrezko etxetxoaren aurretik pasatzen, armak eta guzti zeramatzate-la; beraz borroka amaitu gabe zegoela jakin ahal izan nuen. Oso gogaiturik nengoen, eta neure buruari zin egin erazi nion ez nintzela etxe horretara inoiz itzuliko, nolabait ere errudun nintzela iruditzen zitzaidalako. Igarri nuen paper puskak zer esan nahi zuen, alegia, Sophia andereño Harneyrekin ordu bi t'erdietan nonbait elkartuko zela eta ihes egingo zuela; eta kontuak atera nituen hobe litzatekeela paperarena eta neska-
ren jarrera bitxiarena aitari esan izan banio; aitak beharbada alaba giltzaperatuko zukeen eta iskanbila ikaragarri hori ez zatekeen gertatuta-ko.

Zuhaitzetik jaitsi, eta pixka batean ibai bazte-
rrean aurrera arrastaka ibili nintzen. Bi gorpuak aurkitu nituen ibai ertzetik gertu, eta tira egin nien lehorrera eraman nituen arte. Gero aurpegiak estali nizkien, eta ahal bezain laster ihes egin nuen handik. Negar pixka bat egin nuen Bucki aurpegia estaltzen nion bitartean, oso jatorra izan baitzen nirekin.

Ilundu zuen orduantxe. Ez nintzen etxera itzuli, basoan barrena zingirarantz baizik. Jim ez zen uhartean, eta orduan ahal izan nuen bezala errekatxora abiatu nintzen, sahas ugarietan zehar, ontziratzeko eta lurralde izugarri horretatik ihes egiteko gogo biziz. Baina, han ez zen almadiarik! Ene, beldurrak airean nengoen! Ezin izan nuen arnasarik hartu gutxienez minutu batean. Ondoren oihu egin nuen. Zortzi metro-tarra edo ahots batek erantzun zidan:

— Jaungoikoa! Zu al zara, laztana? Ez zaratarik egin.

Jimen ahotsa zen. Inoiz entzundako hotsik ederrena iruditu zitzaidan. Ibai ondoan aurrera lasterka egin nuen tarte batean eta ontziratatu egin nintzen. Jimek igotzeko heldu eta besarkatu egin ninduen. Oso pozik zegoen ni berriz ikustegatik. Esan zuen:

— Bedeinkatua izan zaitez, mutiko, berriz ere hilik zinela uste osoa nuen. Jack etorri zait esatera uste zuela tiroz hil zintuztela, etxera itzuli ez zinenez gero. Horregatik oraintxe ari nintzen almadia erreka-aren ahora eramaten, jack zu hilik zinela ziurtatzera berriz etorri bezain laster,

sokak askatu eta hemendik alde egiteko dena prest izateko. Oso pozik nago berriro zu hemen izateagatik, laztana.

Nik esan nuen:

— Ederki. Hori ongi dago; ez dira nire bila ibiliko, eta hil egin nautela pentsatuko dute, eta ibaiak eraman nauela... Bada zerbait han goian hori pentsa eraziko diena; beraz, Jim, ez denbora alferrik galdu, eta bultza ontzia ur handietara ahal duzun bezain bizkor.

Ez nintzen lasai egon almadiak ibaian behera bi mila egin eta Mississippiren erdian izan ginen arte. Orduan keinuak egiteko linterna zintzilikatu genuen, eta berriro ere askatasunean eta bizirik ginela konturatu nintzen. Aurreko egunaz gero ez nuen ezertxo ere jan. Jimek arto ogi opilak, esne krematsua, txerriak, aza, eta barazkiak atera zituen. Mundu osoan ez da gauza hoberik, behar bezala prestatuz gero. Afaldu bitartean hitz egiten aritu ginen, eta gustura egon ginen. Oso pozik nengoen mendekuetatik alde egin nuelako, eta Jim ere bai zingiratik alde egiteagatik. Azken batean, almadia bezalako etxerik ez zela erabaki genuen. Beste lekuak estuegiak

dirudite eta itolarria eragiten dute, baina almadia ez. Oso libre, lasai, eta gustura izaten zara almadian.

Hemeretzigarren atala

Bi edo hiru egun joan zitzaizkigun, ez, hobe igerian joan zitzaizkigula esan beharko nuke, izan ere, lasai, leun, eta maitagarri igaro baitziren egunak. Hauxe egiten genuen denbora pasatzeko. Han behean ibaia ikaragarri handia zen, batzuetan mila t'erdi hartzen zuen zabaleran. Gauz ibiltzen ginen, eta egunez almadia gelditu eta ezkutatu egiten genuen. Gaua amaitzeko zegoenean, ontzian ibiltzeari utzi eta almadia lotu egiten genuen, ia beti ur geldoetan hondar pilen aurrean, gero zumardi gazteen eta sahasen adarrak moztu eta horiekin almadia ezkutatu, eta kordelak botatzen genituen. Ondoren ibaian sartu eta igerian ibiltzen ginen, freskatu eta beroa astintzeko. Orduan ura belaunetaraino iristen zen lekuan hondar gainean jarri, eta egunsentia ikusteko zain geratzen ginen. Hots bat ere ez zen inon entzuten, dena isili isilik, mundu osoa lotan balego bezala, noizean behin, beharbada, igel handien korrokak besterik ez. Ibai gainean begiratzuz ikusten zen lehenengo

gauza marra ilun antzekoa zen. Hori beste aldeko basoa zen, eta ezin zenuen besterik ikusi; gero zurbilgunea zeruan, eta zurbiltasun handiagoa inguruan zabalduz. Gero gorago ibaia baretu egiten zen, eta ez zen horren beltza, grisa baizik. Urak zeramatzan beltzuneak ikus zitezkeen urrutian; salerosketako batelak, eta antzekoak; arrasto beltz luzeak: almadiak. Batzuetan arraun handi baten hotsa entzun zitezkeen, edo ahotsen zurrumurrua. Isiltasuna erabatekoa zen, eta oso urrutitik zetozen hotsak. Ondoren uretan marra bat ikus zenezakeen, eta itxurarengatik enbor urperatua zela antzeman, ur lasterrak bere gainean lehertu eta marrari antz hori ematen baitzion; lainoa uretatik gora zeriola, eta ekialdea gorritzen ikus zitezkeen, eta ibaia ere bai. Basoaren atarian egurrezko etxetxoak antzeman zenezakeen, ibaiaren beste aldeko bazterrean, ziur aski egurtegia izango zena, azpi-lapur horiek pilak egiterakoan, pilak nolana egin, eta egurren arteko zuloetatik zakurrak pasatzeko adina tarte utzita zutelarik. Gero haize goxoak jotzen zuen, eta haizemailea balitz bezala zetorren, hotz eta freskoa, eta usain gozoa zuen, zuhaitz

eta breen eraginez; baina ez zen beti era horretakoa izaten, inguruan arrain hilak uzten baitzituzten, lutzoren bat edo, eta horiei kiratsa zerien. Ondoren egun argia izaten zen, gauza guztiek eguzkiari irribarre egiten zioten, eta txori kantariak jo eta ke abesten!

Ke pixka bat garai horretan ziur aski nabarmenduko ez zelakoan, kordeletatik arrain batzuk jaso, eta gosari goxoa azkar prestatzen hasi ginen. Gero ibaiaren bakardadeari erreparatzen genion, eta alferkeriak hartzen gintuen, alferkerian lotan gelditu arte. Jaiki, eta gero zerk esna erazi gintuen begiratzen genuen, eta beharbada bapore bat aurkitzen genuen, ibaian gora eztulka, beste aldetik urruti, hari buruz txopako gurrupila, edo alde batekoa zeraman soil soilik eta besterik ezin antzeman zenezakeelarik; gero ordubetean ez zenuen ezer entzuten eta ez inor ikusten, bakardade osoa besterik ez. Gero almadia bat ikus zenezakeen urrutian, eta beharbada haren gainean marinel bizar gurria egurra moztan, gehienetan hala ibiltzen dira eta almadia gainean; eta aizkoraren distira beherantz zihola ikus zenezakeen... baina ez zenuen ezer

entzuten; aitzitik aizkora berriz altxa eta gizonaren buruaren parean zegoenean, orduan entzuten zenuen, kaska! denbora guzti hori behar izan zuen hotsak ur gainetik guregana iristeko. Horrela ematen genuen eguna, alferkerian eta isiltasuna entzuten. Behin batean laino itxia izan genuen, eta almadietan eta han zebiltzan beste ontzietan latorrizko ontziei danba-danba eragiten zieten baporeek harrapa ez zitzaten. Txalupa edo almadia bat oso gertutik igaro zitzaigun, eta han zihoazenak hizketan, biraoka, eta barrez entzun genitzakeen, garbi-garbi entzun, entzun ere; baina ez genuen horien arrastorik ere ikusten. Horrek dardara eragiten zuen, izpirituak airean zebiltzala zirudien. Jimek esan zuen izpirituak iruditzen zitzaizkiola; baina nik esan nuen:

— Ez, izpirituak balira ez lukete esango, laino madarikatu hori.

Gaua egin bezain laster abiatzen ginen. Ontzia ibaian erdiratu, eta urak nahi zuen lekura eramane zezan uzten genuen. Gero pipak piztu, hankak zintzilik jarri eta uretan sartzen genituen, eta era guztietako gaiez hitz egiten genuen. Beti larru-hutsik ibiltzen ginen, gau eta egun, moski-

toek uzten zigutenean noski. Bucken familiak egin zizkidan jantzi berriak onegiak ziren gustura ibiltzeko, eta bestela ere, ni ez nintzen askotan jantzita ibiltzen.

Batzuetan ibai osoa guretzat izaten genuen denbora luzean. Urrutian ibai bazterrak eta uhar-teak genituen, ura alde batetik bestera; eta beharbada argi distiraren bat, etxetxo bateko leiho ondoko kandela izaten zena, eta zenbaite-tan uretan argi erlantzen bat edo beste ikusten genuen, almadia edo txaluparen batekoa, jakina; eta beharbada ontzi horietatik zetorren biolin bat edo abestiren bat entzun zitekeen. Zoragarrria zen almadia batean bizi izatea. Zerua genuen gainean, izarrez ttittakatua, eta etzanda jarri eta horiei begira egoten ginen. Eztabaidak izaten genituen horretaz, alegia, izarrak eginak ote ziren, edo besterik gabe han zeudenak. Jimek uste zuen eginak zirela, baina nik berriz uste nuen han zeudela. Iruditzen zitzaidan denbora luzeegia behar izango zutela guzti horiek egiteko. Jimek esan zuen ilargiak berak jarritakoak izan zitezkeela, eta arrazoizkoa iruditu zitzaidanez, ez nion aurkakorik esan, ikusi baitut nik

igela antzeko arrautza pila jartzen, beraz hori ere gerta zitekeen. Erortzen ziren izarrak ere ikusten genituen, tximisten antzera beherantz jsisten. Jimek uste zuen hondatu egin zirela eta habiatik bota zituztela horregatik.

Gauean behin edo bitan baporea ikusten genuen ilunpetan isilik zihoala, eta noizean behin txinparta pila botatzen zuen tximiniatik kanpora, eta ibaiaren gainera erortzen ziren euriaren antzera. Benetan ikuskizun polita zen. Gero bihurguneari bira egin eta argiak itzaltzen ziren eta motorraren hotsa itzali eta ibaia berriz isilik geratzen zen. Geroxeago haren olatuak guregana iristen ziren, ontzia desagertu eta handik luzera, eta almadia dantzan jartzen zuten. Gero ez zenuen ezer entzuten handik ez dakit zenbat denboran, igelak edo antzekoak ezik.

Gau erdiaren ondoren ibai bazterrean bizi zen jendea oheratu egiten zen, eta handik aurrera bi edo hiru orduz bazterrak beltz beltzak egoten ziren, ez zen argi distira gehiagorik etxetxo-etako leihoetan. Argi distirak gure erloju ziren. Lehenengo argiak egunsentia zetorrela adierazten zuen, beraz berehala leku bat bilatzen

genuen geure buruak ezkutatu eta almadia lotzeko.

Goiz batean eguna argitzerakoan, kanoa bat aurkitu eta urlasterra zeraman ubidea gurutzatu nuen ibai bazter nagusira iristeko, berrehun bat metro besterik ez ziren, eta errekatxoan gora mila bat egin nuen nekosta zuhaitzen artean, baia batzuk jasotzeko asmotan. Errekatxoa gurutzatzen zuen gurdibide antzeko batetik igarotzen ari nintzelarik, gizon bikote bat azaldu zen bidexkan beren oinek ahal zuten baino bizkorrago lasterka. Iruditu zitzaidan nireak egin zuela, izan ere, baten bat beste baten atzetik ikusten nuen guztietan nire atzetik zetorrela iruditzen zitzaidan eta, edo Jimen atzetik bestela. Handik korrika alde egitera nindoan, baina oso gertu nituen, eta oihuka eskatu zidaten bizia salba niezaien. Ez zutela ezer egin, eta horregatik zebiltzala beren bila. Gizonak eta zakurrak omen zituzten atzetik, baina nik esan nien:

— Ez hori egin. Ez ditut zakurrak eta zaldiak oraindik entzun; oraindik baduzue denbora sasi artean sartu eta errekan goraxeago sartzeko; gero uretan sartu eta niregana etorri txalupan

sartzera. Horrela zakurrek zuen aztarna galduko dute.

Hala egin zuten, eta ontziratu ziren bezain laster geure hondar pilara abiatu nintzen presa-ka, eta bost edo hamar minututan zakurrak eta gizonak entzun genituen garrasika urrutian. Errekarantz zihoazela entzun genuen, baina ezin genituen ikusi. Bazirudien geratu eta inguruan begira ari zirela, gero gu urrutiratu ahala ia ez genuen ezer entzuten. Basoan aurrera mila bat edo egin, eta ibairatu ginenerako, dena isiltasun osoan zegoen, eta hondar pilarantz arraun egin genuen eta zumardi artean ezkutatu eta ordura-ko arriskurik ez genuen.

Gizon horietako batek hirurogeita hamar urte inguru izango zituen, buru soila zen, eta bizar zuria zuen. Sonbreiru makur narrasa zeraman, artilezko alkandora urdin koipetsua, eta mahoizko galtza zahar urdinak bota luzeetan sartuta, eta etxean egindako tiranteak... ez, bakarra zuen. Mahoizko beroki luzea urre antzeko botoi lauak eta guzti, besoan zintzilik zeraman airean, eta biek zeramatzaten zarpail itxura zuten buru-si poltsak.

Besteak hogeita hamar urte inguru izango zituen, eta aurrekoa bezain zarpail jantzita zegoen. Gosaldu ondoren denak etzan eta hizketan aritu ginen, eta agerian geratu zen berehala bikoteak ez zuela lehendik elkar ezagutzen.

— Zer dela eta dituzu arazoak? —esan zion burusoilak beste adiskideari.

— Hortzetatik lertzoa kentzeko gai bat saltzen aritu naiz, eta kendu kentzen zuen, bai, eta gehienetan hortz azala ere batera; baina behar nuena baino beste gau bat gehiago egin eta, hanka egiten ari nintzenean zurekin topo egin dut bidean herriaren alde honetan, eta orduan zuk esan didazu atzetik zenituela eta erregutu didazu estualditik ateratzen laguntzeko. Esan dizut laster istiluak izango nituela nik ere, eta zurekin ihes egingo nuela. Hori da istorio guztia. Zein da zurea?

— Astebetez aritu naiz alkoholduen edarien aurkako deialdia egiten, eta emakume jendearen begikoa nintzen, zahar nahiz gazteena, zurruteroen aurka gogor hitz egiten bainuen, eta egia esango dizut, gauero bost edo sei dolar irabazten nituen, hamar xentimona, umeak eta bel-

tzak doan. Gero eta diru gehiago jasotzen nuen; baina nonbaitetik zurrumurrua zabaldu zen bart gauean, alegia, denbora pasatzeko ohitura nuela ezkutuan eta bakarka pitxerretik edatekoa. Beltz batek esnatu nau gaur goizean, eta esan dit jendea isilik biltzen ari zela, zakur eta zaldiekin batera; laster etorriko zirela eta ordu erdi eman-go zidatela alde egiteko, eta gero atzetik ni harrapatzera aterako zirela; ahal izanez gero harrapatu eta bikezkatu eta lumak jarriko zizkidatela, eta hesi baten gainean jar erazi. Ez nintzen gosariaren zain geratu. Ez nintzen goseak.

— Agure —esan zuen gazteak—, uste dut talde lanean elkar gaitzkeela; zer diozu?

— Ez nago horren aurka. Zertan zabilta zu, bereziki?

— Inprimagilea naiz, lanbidez; sendagarri patentatuekin ere batzuetan ibiltzen naiz, antzezle... tragediak, badakizu; aukera izanez gero, saioak egiten ditut mesmerismoan eta frenologian; aldatu nahi izanez gero, geografia kantuan irakasten dut; noizean behin hitzaldi bat edo beste bota... oi, gauza pila egiten dut, ia

eskura etortzen zaidan guztia, lan egitea ez bada behintzat. Zein da zure zeregina?

— Medikuntzan dezente ibilia naiz. Eskuak gainean jarrita sendatzea da ondoen egiten dudana..., minbizia, paralisia, eta antzekoak sendatzeko; eta etorkizuna ere ongi xamar esan dezaket, gertakizunen berri emateko norbait ondoan izanez gero. Sermoigintza ere nire arloa da; eta mendiko bileretan lan egitea; eta misiolari gisa ibiltzea.

Inork ez zuen tarte batean ezer esan. Gero gazteak hasperen egin eta esan zuen:

— Ai, ene!

— Zer zabilta ai eneka? —esan zuen burusoilak.

— Pentsatzen ari naiz zer den horrelako bizi-modua eramateko bizirik iraun beharra, eta honelako lagunartea izatera makurtu beharra — eta zapi bat hartu, eta begi ertza igurtzi zuen.

— Zoaz infernura, ez al gara nahikoa lagunartea on zuretzat? —esan zuen burusoilak era lotsagabe eta harroan.

— Bai nahikoa ona da niretzat; ona da merezi dudanez gero; nork jaitsi erazi nau hona behe-

ra, horren goian egonik? Neronek. Ez dizuet errua egozten, jaunak, ezta gutxiago ere; ez diot inori egotzi nahi. Mundu hotz honek kalterik handiena egin diezadala; gauza bakar bat dakit: hilobi bat bada nonbait nire zain. Munduak beti bezala aurrera egin dezala, eta gauza guztiak ken diezazkidala: maite izan ditudanak, ondasunak, dena; baina hori ez dit kenduko. Egunen batean han barruan etzan eta gauza guztiak ahaztuko ditut, eta nire bihotz gaixo hautsiak atsedean hartuko du —eta begiak igurzten aurrera egin zuen.

— Pikutara zure bihotz gaixo hautsia —esan zuen burusoilak—. Zertarako botatzen diguzu bihotz gaixo hautsia gure gainera? Guk ez dizugu kalterik egin.

— Ez, badakit ezetz. Ez da zuen errua izan, jaunak. Nik makurtu dut neure burua... bai, nik neronek egin dut. Zuzena da nik jasan behar izatea, oso zuzena, eta ez dut horregatik negar egiten.

— Jaitsi nondik? Nondik jaitsi zara?

— Ez zenukete sinetsiko; munduak ez dit inoiz sinesten... berdin dio... ez dio axolarik. Jaiotzaren sekretua...

— Jaiotzaren sekretua? Zer esan nahi duzu.

— Jaunak —esan zuen gizon gazteak ohore handiz—, aditzera emango dizuet, iruditzen zaidalako zuengan uste ona izan dezakedala. Ni dukea naiz legez!

— Jimi begiak ia burutik irten zitzaizkion hori entzun zuenean; eta nik uste dut nireak ere gauza bera egin zutela. Gero burusoilak esan zuen:

— Ez! Ez da posible.

— Bai, birraitona, Bridgewater dukearen seme zaharrena, joan den mendearen bukaeran iheslari etorri zen lurralde honetara, askatasunaren aire garbia arnastera; hemen ezkondu, eta hil zen, seme bat utzi zuelarik, aita hil zen garai berean. Hildako honen bigarren semeak tituluak eta ondasunak bereganatu zituen... eta benetako dukea berriz baztertua geratu zen. Haur horren ondorengo zuzena naiz ni. Benetako Bridgewater dukea naiz; eta hemen nago, umezurtz, goi mailatik botata, gizonak atzetik ni harrapatu

nahian dabiltzala, mundu doilorrak gutxietsia, zarpaildua, nekatua, bihozgabetua, eta mailaz jaitsi eta almadia batean ihesleekin egotera behartua!

Jim erruki zitzaion oso, eta ni ere bai. Bihotza pizten saiatu ginen, baina alferrik ari ginela esan zigun, ezin zuen pozik hartu. Gu duketzat hartzeak beste ezerk baino hobe egingo liokeela esan zigun; beraz hala egingo genuela esan genion, nola jardun esaten baldin bazigun. Esan zuen bere aurrean burua makurtu beharko genuela, eta «Jaun goren», «Jaun txit goren» edo «Gorentasun» esan, eta berdin zitzaiola «Bridgewater» besterik gabe esaten bagenion, edozein modutara ere, titulua zenez gero eta ez izena; eta guretako batek janaria zerbitzatu beharko ziola, eta berak eskatzen zion edozer gauzatxo egin.

Ez zen lan handirik, eta hala egin genuen. Bazkaritan Jim zutik geratu zitzaion inguruan janaria zerbitzatzeko, eta esaten zion: Maiestate horrek hemengoa ala beste aldekoa nahi du?» eta edonork ikus zezakeen oso atsegina zitzaiola.

Baina agure zaharra handik tarte batera isilik geratu zitzaigun, ez zuen ezer esatekorik, eta ez zirudien oso gustura zegoenik, batez ere dukearen inguruan generabilen lausengu guzti horiekin. Buruan zerbait zerabilela iruditu zitzaidan. Eta hala, arratsaldean, esan zuen:

— Begira, Bilgewater, benetan penaturik nago zuregatik, baina ez zara tankera horretako arazoak dituen pertsona bakarra.

— Ez?

— Ez, ez zara. Ez zara zu goi mailatik jaitsi erazi, eta nolana ere arrastaka ibil erazi duten bakarra.

— Ene!

— Ez, ez zara jaiotzaren sekretua gordetzen duen pertsona bakarra —eta, hura lana, gizona negarrez hasi zen.

— Egon! Zer esan nahi duzu?

— Bilgewater, fidagarria al zaitut? —esan zuen burusoilak, oraindik negar zotinka ari zelarik.

— Heriotza arte! —agure zaharrari eskutik heldu, ongi estutu, eta esan zion—: Zein duzu sekretu hori: esan!

— Bilgewater, ni nauzu hildako Delfina!

Orduan bai begiak irtenda Jim eta biok elkarri begiratu geniola. Gero dukeak esan zuen:

— Zer zarela?

— Bai, adiskidea, egia besterik ez da. Zure aurrean duzu Frantziako Delfin desagertu giza-joa, Louis XVII.a, Louis XVI.a eta Maria Antonietaren semea.

— Zu! Adin horretan! Ez! Hildako Carlomagno berbera zarela esan nahi duzu? Sei edo zazpirehun urte izan beharko zenituzke gutxienez.

— Oinazeak, Bilgewater, oinazeak du errua; horrek ekarri dizkit ile zuri hauek eta ile erortze goiztiarra. Bai, jaunak, hementxe duzue, mahoizko jantziak dituelarik eta pobretasun osoan, Frantziako benetako Errege iheslari, atzerriratu, zanpatu eta mindua.

Negar zotinka aurrera egin zuen etengabe, eta Jim eta biok ia ez genekien zer egin, erruki gintzaizkion... eta, era berean, pozik eta harro ginen hura gure artean izateagatik. Berrito hasi ginen, dukeari egin genion bezala, agureari bihotza alaitu nahian. Baina esan zigun alferrik zela, heriotzak eta guzti haren amaierak besterik ez

lukeela lasaituko; baina, hala ere, askotan gustura senti erazi eta on egiten ziola jendeak bere mailari zegokion eran jokatzeko bazuen, alegia, berarekin hitz egiteko belaunikatu, beti «Maiestate» esan, edo janaria zerbitzatu, eta bere aurrean berak esan arte jendea ez bazen eseritzen. Beraz Jim eta biok maiestateka hasi ginen, eta gauza bat eta bestea berarentzat egiten, eta zutik egoten hark esan arte. Horrek ikaragarriko bizia eman zion, eta gu ere gustura eta pozik geratu ginen. Baina dukea pipertua zebilen berarekin, eta ez zirudien batere gustura zegoenik han gertatzen ari zenarekin; erregea anaitasunean ari bazitzaion ere. Esan zion, gainera, dukearen birraitona eta beste Bilgewater duke guztiak ere oso ongi hartu zituela bere aitak eta jauregira maiz gonbidatzen zituela; baina dukea kopetilun ibili zen tarte luzean, azkenean erregeak esan zion arte:

— Almadia honetan elkarren ondoan denbora luze madarikatuan egon beharko dugunez gero, Bilgewater, ez zaigu komeni umore txarrez ibiltzea. Horrek nekeak besterik ez dizkigu ekarriko. Ez da zure errua errege ez jaio izana, ezta nirea

ere duke jaio ez izana... beraz zertarako alferrik nekatu? Gauzak gertatzen diren bezalaxe hartu behar dira, hala diot nik... hori da nire jokabidea. Ez da gauza txarra hemen topo egin izana... janaria gainezka dugu eta bizimodu eroso... ekarri bosteko hori, duke, eta adiskidetu gaitetzen.

Dukeak eskua eman zion, eta Jim eta biok poztu egin ginen. Hango ezinegonak baztertu eta hori gertatu ondoren gauzak onera itzuli zirenean, izan ere, gauza txarra baita ezinikusiak izatea almadia batean; bertan izan nahi dena, batez ere, denak gustura egotea baita, lasai eta besteekin adiskidetasunean.

Denbora gehiegi ez nuen behar izan garbi ikusteko gezurti horiek ez zirela ez errege ez dukerik, inondik ere, gezurrontzi eta ziri-sartzai-leak baizik. Baina ez nuen ezer esan, ez nion inori esan; nire baitan gorde nuen; hori izaten da onena beti; horrela ez da eztabaidarik izaten, eta ezta arazorik ere. Duke eta errege esatea nahi zutela? Guk ez genuen batere oztoporik horretarako, familiako bakea gordetzeko balio bazuen; eta ez nuen ezer aurreratzen Jimi esanda, beraz

ez nion esan. Inoiz aitarengandik ezer ikasi banu,
horixe ikasi nuen, tankera horretako jendearekin
ongi konpontzeko modurik onena dela nahi dute-
na egiten uztea.

Hogeigarren atala

Galdera asko egin zizkiguten; almadia zergatik estaltzen genuen almadia modu horretan jakin nahi zuten, eta zer zela eta egunez geldirik egoten ginen ibili beharrean... Beltz iheslaria ote genuen Jim? Nik esan nuen:

— Ene, Jainkoa, beltz batek ihes egingo al luke hegoalderantz? Ez, bat etorri ziren ez lukeela hala egingo. Baina, hala ere, gauzak garbi azaldu behar nituen, eta esan nuen:

— Nire familia Pike konderrian bizi zen, Mis-sourin, nire jaioterria hain zuzen ere, eta etxeko denak hil egin ziren, ni, aita eta lke anaia ezik. Aitak erabaki zuen dena bertan utzi eta osaba Benen etxera bizitzera joatea, zeinak ibai ondoan etxalde txikia baitzuen Orleansetik behera berrogeita lau milatara. Aita pobrea zen, eta zorrak zituen; beraz horiek garbitu zituenean hamasei dolar eta Jim, gure beltza, besterik ez zitzaizkion geratu. Hori ez zen nahikoa laurehun mila ibaian egin ahal izateko, ez ontzi gainean eta ez bestela ere. Ibaia hazi zenean, aitak egun

batean zorioneko ustekabea izan zuen; almadia zati hau aurkitu zuen, eta Orleansera honen gainean joan gintezkeela erabaki genuen. Aitaren zorionak ez zuen luze iraun; bapote batek brankako mutur baten kontra jo zuen gau batean, eta denak ontzi gainetik erori ginen eta gurpilaren azpian igeri egin behar izan genuen; Jim eta biok osorik irten ginen ur gainera, baina aita mozkoriturik zegoen, eta Ikek lau urte besterik ez zituen, eta ez ziren uretatik inoiz atera. Hurrengo egunean eta ondorengoan istiluak izan genituen, jendea txalupetan hurbiltzen zitzaigun eta Jim eramanez nahian ibili ziren, beltz iheslaria omen zelakoan. Handik aurrera ez ginen inoiz egunez ibili, gauez ez ziguten lanik ematen.

Dukeak esan zuen:

— Utz nazazue zerbait asma dezadan, nahi izanez gero, egunez ibili ahal izateko. Pentsatuko dut horretaz... zerbait bururatuko zait hori konpontzeko. Gaurkoz alde batera utz dezagun, ez dugulako egun argiz herri horren aurretik igaro nahi: beharbada ez litzateke komenigarria izango.

Gaua hurbiltzen ari zenean zerua estali egin zen eta euria zetorrela zirudien; beroak eragin-dako tximistak nonahi ezustean sortzen ziren zeruaren beheko aldean, eta hostoak dardarka hasi ziren... ederra zetorren, errez antzeman zitekeen. Beraz dukea eta erregea geure kanpandara gainbegiratu ematera sartu ziren, oheak nolakoak ziren ikusteko. Nire ohea lastairra zen, Jimena baino hobea, hura arto txurikinez egina baitzen, beti izaten dira lokotxak horrelako koltxoietan, eta zulatu eta min egiten dute; eta horietan jira eginez gero orbel gainean zilipurdika ibilita entzuten den hots berbera egiten dute txurikinek; eta zaratak esnatu egiten zaitu. Dukeak nire ohea hartuko zuela adierazi zuen; baina erregeak berriz ez zuela onartzen. Honek esan zuen:

— Pentsa zitekeena zen geure maila desberdintasunak garbi ikus eraziko zizula txurikinezko ohea ez zela nik lo egiteko aproposena izango. Jaun goren horrek hartu beharko du ohe hori.

Jim eta biok izerdia botatzen hasi ginen, une batean, bi gizonen artean berriro ere istiluak sor-

tuko ziren beldur; horregatik poztu ginen dukeak esan zuenean:

— Hauxe da nire halabeharra beti lokatzetan ibili beharra zapaltzailearen burdinazko takoia-
ren azpian. Zoritxarrak makurtu du garai batean
harroa nuen gogoia; amore ematen dut, zure
esanetara nago; nire halabeharra da. Bakarrik
nago munduan, jasan ditzadan kalteak; eraman
ditzaket.

Gauak ongi ilundu zuen bezain laster abiatu
ginen. Erregeak esan zigun ibaiaren erdi erdira
ateratzeko, eta argirik agerian ez uzteko herritik
nahikoa urrutiratu bitartean. Geroxeago argi
sorta aurrean izan genuen, hori zen herria, jaki-
na, eta haren aurretik isil isilik pasa ginen arazo-
rik gabe, bazterretik mila erdira edo. Handik
behera milaren laurdena egin genuenean, linter-
na ezaugarria altxa genuen; eta hamarrak ingu-
ruan euria, haizea, trumoiak eta tximistak hasi
ziren gogotik; eta horregatik erregeak esan
zigun bioi eguraldiak hobetu arte begira egote-
ko; gero bera eta dukea kanpadendara joan
ziren lau oinetan eta lotara sartu ziren. Niri zego-
kidan hamabiak arteko zaintza egitea, baina ez

nukeen lorik hartuko, ezta ohea izango banu ere; horrelako ekaitzak ez baitira astero ikusten, ezta gutxiago ere. Ene, haizeak bai orro egiten zuela! Eta ia segundoro argi distirak uhin apartsuak pizten zituen inguruko mila osoan, eta ikus zitezkeen euri artean uharte hautsezatuak, eta haizeak astintzen zituen zuhaitzak; gero, zasta!... danba! danba! tarrapa... tarrapa... danba... danba... eta trumoiak orroka eta burrunbaka urrundu eta desagertzen ziren... eta gero zasta! tximista, eta seko uzteko moduko beste danbatekoa. Olatuek ia ontzi gainetik bota ninduten, zenbait aldiz, baina arroparik ez neraman, eta ez zuen batere garrantzirik. Enbor urperatuek ere ez ziguten lanik ematen; tximisten distira eta argitasun amaigabeari eskerrak garaiz ikus genitzakeen horien alde batera edo bestera ontzia bideratu eta horiek saihesteko.

Gauerdiko zaintza egokitu zitzaidan, baina garai horretarako logurak hartu xamarra ninduen, eta Jimek esan zuen lehengo ordu erdiaren zaintza berak egingo zidala. Gauza horietarako oso ona izaten zen beti Jim, bai horixe. Lau oinetan jarri, eta kanpadendara sartu nintzen, baina

erregeak eta dukeak hankak mutur batetik bestera sakabanaturik zituztenez gero ez zen niretzat lekurik; beraz kanpoan etzan nintzen. Euriak ez zidan kalterik egiten, giroa epela baitzen, eta olatuak ez ziren orduan handiegiak. Ordu biak aldera olatuek gora egin zuten, eta Jimek ni esnatzeko asmoa izan zuen arren, atzera egin zuen ez zitzaiolako iruditu kalterik egiteko adina-koak zirenik. Baina oker zebilen, izan ere berehala ustekabeen benetako olatua etorri, eta ontzi gainetik uretara bota ninduen. Jim ia barrez lehertu zen. Edozein beltzi baino errazago etortzen zitzaion hari barrealdia.

Txanda egin nion, eta Jim etzan eta zurrungan hasi zen. Geroxeago ekaitza guztiz amaitu zen, eta lehenengo argia agerian ikusi nuen orduko, Jim esnatu nuen eta almadia egun oso-rako bere ezkutalekura eraman genuen.

Erregeak zoko usaina zerion karta pila zaharra atera zuen gosaldutik ondoren, eta dukearekin zazpi t'erdiko jokora aritu ziren pixka batean, jokoa bost xentimotan. Gero aspertu egin ziren, eta «irtenaldia», hala zeritzoten, eratu behar zutelara adierazi zuten. Dukeak zorroan begiratu,

iragarki papertxo pila atera, eta ozenki irakurri zituen. Paper batek zioen «Armand de Montalban Parisko doktore ospetsuak», «Frenologia zientziaz» hitzaldia emango du halako eta halako tokitan, hilaren halako egunetan, sarrera hamar xentimotan, eta «izaeraren deskribapenak eskainiko ditu hogeita bost xentimotan alea.» Dukeak esan zuen bera zela hura. Beste papertxo batean dukea bera zen «Shakespeareren tragedien munduko antzezlerik ezagunena, Garrick Gaztea, Drury Lanekoa, Londonen.» Beste agirietan izen desberdin ugari zituen eta gauza miragarriak egiten zituen denetan, hala nola ura eta urrea aurkitu «makilatxo magikoa» erabilita, edo «sorginkeriak desegin», eta abar eta abar. Geraxeago esan zuen:

— Baina musa historikoa dut gustukoena. Ohol gaintan aritua al zara, Maiestate?

— Ez —esan zuen erregeak.

— Arituko zara, bai, hiru egun zaharrago egin aurretik, Handitasun Erori hori —esan zuen dukeak—. Lehenengo herri onera iritsi bezain laster, aretoa alokatuko dugu eta Ricardo III. aren ezpata borroka eta Romeo eta Julietaren

balkoiaren eszena antzeztuko dugu. Zer iruditzen zaizu?

— Ongi deritzot, burumuinetaraino gogo biziz nago dirua ekarriko duen edozer gauza egiteko, Bilgewater, baina nik ez dakit ordea antzerki eta antzezteaz ezer, eta ikusi ere ez dut gehiegi ikusi. Gazteegia nintzen aitaren jauregian antzerkiak izaten ziren garai hartan. Irakatsiko al zenidake?

— Noski!

— Ederki. Irrika bizian nauzu horrelako gauza freskoren bat egiteko. Oraintxe has gaitezen.

Orduan dukeak esan zion Romeo nor zen, eta Julieta nor zen, eta Romeorena egiten ohiturik zegoela, eta erregea Julieta izan zitekeela.

— Baina Julieta neska gaztea bazen, duke, nire buru soila eta bizar zuria agian bitxiak izango dira.

— Ez, ez kezkatu, herritar lelo horiei ez zaie halakorik bururatuko ere. Gainera, badakizu, mozorroturik antzeztuko duzu, eta horrek ikaragarrizko aldea ematen dio. Julieta balkoian dago, ilargiaren ez titan oheratu aurretik, eta azpiko

gona eta oherako txano zimurtua daramatza. Hemen ditut pertsonaien jantziak.

Gortinen oihalez eginiko bi edo hiru jantzi atera zituen, eta esan zuen Richard III. aren erdi aroko burdin jantzia izango zela bata, eta beste adiskidearena bestea, eta batera ongi zihoazen kotoizko alkandora luze zaharra eta txano zimurtua ere agerian jarri zuen. Erregea pozik zegoen, eta dukeak orduan liburua atera eta modu harroputz dotoreenean irakurri zituen zatiak, alde batetik bestera pertsonaiak antzezten zebilelarik, besteak lana nola egin behar zen ikus zezan; gero liburua erregeari eman zion eta bere zatia buruz ikasteko esan zion.

Bazen herri txiki bat ibaiaren bihurgunetik hiru bat milatara, eta bazkal ondoan dukeak esan zuen buruan zerabilen asmoa taxuturik zuela handik aurrera egunez ere ibili ahal izateko Jimek arriskurik izan gabe. Horrenbestez adierazi zuen herrira joan eta hori antolatuko zuela. Erregeak bera ere joango zela adierazi zuen, ezer topatzen zuen ikustera. Kafea ahitu zitzaigun, eta Jimek esan zuen hobe nuela besteekin batera kanoan joan eta erostea.

Herrira iritsi ginenean inor ez zebilen. Kaleak hutsik zeuden, erabat isilik eta lasai, igandeetan bezalaxe. Beltz gaixo bat aurkitu genuen etxe atzeko baratzean eguzkitan, eta esan zigun gazteegi, gaixoegi, edo zaharregi ez ziren guztiak mendiko eliz bilerara joanak zirela, basoan barrena bi milatara edo. Erregeak zuzenbidea ongi jaso, eta adierazi zuen bertara joan eta han lan egingo zuela ahal zuen guztia ateratzeko, eta ni berarekin joan nintekeela.

Dukeak esan zuen inprimategia aurkitu nahi zuela, eta halako lantegi txiki bat aurkitu genuen aroztegi baten gainean. Arotzak eta inprimatzailak eliz bilerara joanak ziren, eta ateak itxi gabe zeuzkaten. Leku zikin, nahaspilatua zen, eta tinta arrastoak zituen, eta zaldien eta beltz iheslarien irudiak zeuden hormetan. Dukeak berokia kendu eta behar zuen guztia bazuela esan zuen. Beraz ni eta erregea handik atera ginen mendiko bilerara joateko.

Ordu erdian iritsi ginen, izerdi patsetan, eguraldi oso beroa egiten zuen eta. Mila pertsona izango ziren han bilduta, inguruko hogeit hamar milatik etorriak. Basoa zaldi parez eta gurdiz josita

zegoen, nonahi lotuta, eta animaliak gurdietako asketan jaten ari ziren eta isatsei eraginez euliak uxatzen zituzten. Baziren makilez egindako txabolak, zuhaitz adarrez estaliak zeudelarik, zeinetan limonada eta zingiberra saltzen baitzuten, eta meloi pila eta arto berria eta antzekoak.

Predikua antzeko txabolen azpian egiten ari ziren, baina handiagoak ziren eta jende pila hartzen zuten. Eserlekuak egurren kanpoko aldea erabiliz eginak zeuden, azalean zuloak zituztelarik handik makilak sartu eta hanka moduan erabiltzeko. Atzealderik ez zuten. Predikariek txabolaren mutur batean oholtza garaiak zituzten gainera igotzeko. Emakumezkoek eguzkitako sonebreiruak zeramatzaten; batzuek hari eta artilezko nola-halako soinekoak zeramatzaten, beste batzuek gingazkoak, eta gazte gutxi batzuek perkalezkoak. Gizon gazte zenbait hankutsik zegoen, eta haur batzuek harizko alkandora besterik ez zuten jantzita. Emakume zaharretako batzuk trikota egiten ari ziren, eta gazte bikote zenbait ezkutuan gorteiatzen.

Sartu ginen lehenengo txabolan predikaria himnoa ari zen irakurtzen. Bi lerro irakurri zituen,

eta denek abestu zituzten, eta gauza ederra zen hori entzutea, horrenbeste jende ari zelarik eta horrenbesteko indarrez kantuan; gero beste bi lerro irakurri zituen jendeak abesteko, eta horrela aurrera egin zuten. Jendea gero eta piztuagoa zegoen, eta gero eta indartsuago ari zen; bukaera aldera batzuk negarrez hasi ziren, eta besteak garrasika. Gero predikaria sermoia egiten hasi zen; eta benetan hasi zen, gainera; eta hasieran oholtzaren alde batean hasi zen eta gero beste alderaino joan zen jirabiraka, gero makurtu egin zen oholtzaren aurrealdean, besoei eta gorputzari denbora guztian eragiten zielarik, eta indar guztiz hitzak deiadarka esaten zituen. Aldian behin Biblia altxa eta zabaldu egiten zuen, eta alde batetik bestera hala zerabilen, garrasi eginenez: «Basamortuko brontzezko sugea da hori!» «Begira iezaiozue eta bizitza izango duzue!» Eta jendeak oihu egiten zuen «Aintza... A..a..men! Eta horrela aritu zen, eta jendeak negar eta garrasi egin eta amen esaten zuen:

— Zatozte damutuen aulkira! Zatozte bekatuan zikindutakoak! (amen!) zatozte, gaixo eta nekatuak! (amen!) zatozte, ezindu, herren eta

itsuak! (amen!) zatozte pobre eta beharrean
zaudetenak, lotsak hartuta zaudetenak!
(a..a..men!) nekatuak, zikinduak, minduak!
zatozte gogoa umilduta! zatozte bihotza damu-
tuta! Zatozte zarpaildurik, bekatuan eta zikindu-
rik! ur garbitzaileak zain dituzue, Zeruko atearak
zabalik daude... sar zaitezte eta atsedean hartu!
(a..a..men! Aintza! Aintza! Aleluia!)

Eta horrela eten gabe. Ezin zitekeen handik
aurrera ulertu predikariak zioena, hango garra-
siak eta negarrak zirela eta. Entzuleak zutitu egi-
ten ziren, eta jendetza artean nonahi bidea
zabaltzen zuten, indarraren indarrez, damutuen
aulkira joateko, malkoak aurpegian behera zerie-
la; eta damutu guztiak zutitu eta aurreko aulkira
taldean iritsi zirenean, abestu eta oihu egin
zuten, eta belar gainera bota zuten bere burua,
zoro eta basatien moduan.

Konturatu baino lehen, hantxe abiatu zen
erregea, eta jende guztiaren gainetik entzuten
zitzaion; gero oholtza gainera igo zen eta predi-
kariak jendeari hitz egin ziezaion eskatu zion,
eta hark hori egin zuen. Jendeari esan zion pira-
ta zela, hogeita hamar urtetan izan zela pirata

Ozeano Indikoan, eta ontziko marinela urritu egin zitzaizkiola dezente, aurreko udaberrian borroka batean, eta etxera itzuli zela gizon berriak hartzera, eta Jaungoikoari eskerrak bezperako gauean lapurtu egin ziotela eta baporetik lehorrera bota, eta han utzi zutela xentimorik gabe; pozik zegoela baina, inoiz gertatutako gauzarik miresgarriena gertatu zitzaiolako, izan ere, gizon berria bilakatu baitzen, eta bizitza osoan lehenengo aldiz zoriontsu izan zen; eta pobrea izanik, berehala hasi behar zuen lanean Ozeano Indikora atzera joateko eta bizitza osoa emango zuen piratak bide zuzenera bultza erazten; inork baino hobeto egin zezakeen eta lan hori, ozeano horretako pirata talde guztiak ezagutzen zituenez gero; eta, dirurik gabe, bertara iristeko denbora luzea beharko zuen arren, nola edo hala iritsiko zen, eta pirata bat bide onera ekartzen zuen guztietan esango zion: «Ez niri eskerrak eman, ez dut merezimendurik, Pokevilleko mendiko bileran zegoen jende maitagarriaren merezimendua da, benetako anaiak eta askaziaren on-egileak, eta bertako predikari

maitearena, pirata batek inoiz izan duen lagunik minena!

Gero lehertu eta negarrez hasi zen, eta hala egin zuten beste guztiek. Orduan norbaitek oihu egin zuen: «Egin dezagun diru-bilketa berarentzat, diru-bilketa egin dezagun!» Dozena erdiak jauzi egin zuen dirua biltzen hasteko, baina norbaitek oihu egin zuen: «Pasa dezala berak gure artean sonbreirua!» gero denek gauza bera esan zuten, predikariak ere bai.

Orduan erregea jende artean sartu zen sonbreirua eskutan zeramalarik, begiak igurzten, eta jendea bedeinkatzen, goraipatzen, eta guztiei eskerrak ematen urrutiko piratekin horren ederki jokatu zutelako; eta aldian-aldian neska politenek, malkoak masailetan behera zerizkielarik, zutitu eta eskatzen zioten musu ematen uzteko, bera betiko gogoan izan zezaten; eta hark beti baiezkoa ematen zien; eta hark neska batzuk hartu, besarkatu zituen eta bost edo sei aldiz musu eman zien. Astebete bertan igarotzerara gonbidatu zuten; eta denek etxeetan hartu nahi zuten, eta esaten zuten ohore handia izango zutela; baina mendiko bileraren azken eguna

enez gero, esan zuen ezingo ziela mesede gehiagorik egin, eta gainera Ozeano Indikora joateko irrika bizian zegoela piratak salbatzeko lanean hasteko.

Almadiara iritsi ginenean dirua kontatzen hasi zen, eta ikusi zuen laurogeita zazpi dolar eta hirurogeita hamabost xentimo bildu zituela. Eta gainera hamabi litrotako whisky pitxerra hartu zuen, etxera gentozela basoan gurdi baten azpian aurkitu zuena. Erregeak esan zuen, guzti hori kontutan hartuta, misiolaritzan gehien irabazi zuen eguna izan zela. Esan zuen zalantzarik ez zuela, alegia, basatiek ez zutela piperrik balio piraren ondoan mendiko bileretan jarduteko.

Dukeak, erregea azaldu zen arte, ongi aritu zela uste zuen, baina handik aurrera ez zegoen oso ziur. Inprimategian nekazariarentzat lantxoak antolatu eta inprimatu zituen, zaldien irudiak hain zuzen ere, eta lau dolar irabazi zituen. Eta beste hamar dolar irabazi zituen egunkarian iragarkiak jartzeagatik, eta esan zien lau dolarren-gatik jarriko zituela dirua alde aurretik ematen bazioten, eta hala egin zuten. Egunkariaren ordainketa urtean bi dolar ziren, baina hiru har-

pide egin zituen dolar erdian alea aldeztu aurretik ordaintzeko baldintzarekin; erregaia egiteko egurra eta tipularen truke, beti egin ohi zuten bezala, ordaindu nahi zuten, baina esan zuten lan-tertia hartu berria zuela eta ahal zuten gehiena jaitsiko zituela prezioak, eta dirutan egingo zituela kontuak beti. Berak bere kabuz asmatutako poesia egin zuten, hiru bertso goxo eta goibel xamarrik, izenburuak zelarrik: «Bai, mundu hotz horrek, zapal ezazu bihotz eri hau», eta egin eta inprimatzeko prest utzi zituen eta ez zuten horiek idazteagatik dirurik eskatu. Bederatzi dolar t'erdi ateratu zituen, eta esan zuten ongi lan egin behar izan zuela diru hori irabazteko.

Gero berak inprimatutako beste lan txikia erakutsi zigun, guretzat izateagatik doan egin zelarrik. Beltz iheslari baten irudia zen, fardel-txoa bizkarrean eta guzti, eta \$200 dolarretako saria beheko aldean idatzita zegoelarrik. Irakurketa osoa Jimi buruzkoa zen, eta goitik behera deskribatzen zuten. Paperak zioen New Orleansetik beherantz berrogei milatara zegoen St Jacqueseko soroetatik ihes egin zuela aurreko neguan, eta beharbada ipar aldera joana izango

zela, eta inork harrapatzen bazuen eta bere lehengo lekura eramaten, saria eta horretarako erabili behar izan zuen dirua ordainduko zitzaiola.

— Orain —esan zuen dukeak—, bihartik aurrera, nahi izanez gero, egunez ibil gaitezke. Norbait hurbiltzen zaigula ikusten badugu, soka bat hartu eta, eskuak eta oinak loturik Jim kanpadendan sartuko dugu, papertxoak erakutsi eta esango diegu ibaian gora harrapatu dugula, eta baporean bidaia egiteko adina dirurik ez genuenez gero, almadia txiki hau utzi digutela lagunek eta sariaren bila goazela ibaian beheara. Eskuburdinak eta kateak egokiagoak izango lirатеке Jimentzat, baina ez lirатеке bat etorriko gu pobreak izatearen kontuarekin. Bitxien oso antzekoak dira. Sokak dira gauza zuzenena; batasuna gorde behar da, antzerkigintzan esaten dugun bezala.

Denek esan genuen dukeak buru argia izan zuela, eta ez genuela arazorik izango egunez ibiltzeagatik. Iruditu zitzaigun nahikoa urrundu gintezkeela gau horretan dukearen inprimaketa lanak herri txiki horretan sortuko zituen zalapar-

tei ihes egiteko; gero aurrera jo genezakeen, nahi izanez gero.

Ezkutuan eta isilik geratu ginen, eta ez ginen ia hamarrak arte abiatu. Orduan irrist egin eta ibaiaren erdi aldera joan eta herritik urrundu egin ginen. Ez genuen linterna zintzilik jarri herritik ikusten ez gintuztela ziur egon ginen arte.

Jimek goizeko lauretan zaintza egiteko esnatu ninduenean, esan zidan:

— Huck, iruditzen al zaizu bidaia honetan errege gehiago aurkituko ditugula?

— Ez —esan nion—, ez dut uste.

— Ongi da —esan zuen—. Errege bat edo bi izatea tira, baina nahikoa da. Hemengo hau mozkor-mozkor eginda dago, eta dukea ez dago askoz hobeto.

Jakin nuen Jimek erregea frantsesez hizketan jarri nahi izan zuela, nolakoa zen entzun ahal izateko; baina hark esan zion lurralde hauetara aspaldi etorri zenez gero, eta izan zituen arazo guztiak izanda, ahazturik zuela.

Hogeita batgarren atala

Argitu zuen egunak ordurako, baina almadia lotu gabe aurrera egin genuen. Azkenean esnatu ziren erregea eta dukea, eta itxura onik ez zuten; baina ontzi gainetik jauzi egin eta igerian aritu ondoren, bizkortu egin ziren. Gosaldu eta gero erregea almadiaren bazter batean eseri, eta gustura egoteko hankak uretan zintzilik utzi zituen, pipa piztu, eta bere Romeo eta Julieta buruz ikasten hasi zen. Ongi xamar ikasi zue-nean, dukea eta biak elkarrekin lan egiten hasi ziren. Dukea behin eta berriz ari zitzaion, esaldi bakoitza nola adierazi behar zuen esanez; eta hasperen egin erazi zion, eta eskua bihotzean jarri, eta handik pixka batera ongi egin zuela esan zion, «baina —esan zuen dukeak—, ez duzu Romeo! esatean orro egin behar zezenek egiten duten bezala; ahots ahulez, indarrrik gabe, eta bihotz gabe esan behar duzu, honela, R..o..o..meo!, hori da; Julieta neska gazte goxo maitagarria baita, eta ez du arrantza egiten astoak bezala».

Hurrengo egunean biezpata luze atera zituzten dukeak haritz egurrez egindakoak, eta ezpata borrokaren saioak egiten hasi ziren. Dukeak bere buruari Ricardo IIIa zeritzon; eta horien eraso egiteko modua, eta almadian atzera eta aurrera oilartuta ibiltzekoa ikusgarria zen beneran. Baina handik pixka batera erregea oztopatu eta ontzi gainetik erori zen; gero atsedean hartu zuten eta beste garaietan ibaian izandako abenturez hizketan aritu ziren.

Bazkal ondoan dukeak esan zuen:

— Ederki, Capet, primerako agerraldia egin behar dugu, beraz iruditzen zait zerbait erantsi beharko diogula. Dena dela beste bat eskaerarako zerbait izan beharko genuke.

— Zer da beste bat hori, Bilgewater?

Dukeak azaldu zion, eta gero esan zuen:

— Nik dantza eskoziarra edo marinelarena egin dezaket; eta zuk... ikus dezagun... badakit... Hamleten bakarrizketa egin dezakezu.

— Hamleten zer?

— Hamleten bakarrizketa, badakizu; Shakespeareren gauzarik ezagunena. Oi, aparta da, aparta! Beti bereganatzen du entzulegoa. Ez dut

liburuan, ale bakarria besterik ez dut, baina uste dut buruz osatuko dudala. Gora eta beheara ibiliko naiz pixka batean, eta ikusiko dut oroitza-penpen mundutik atera dezakedan.

Almadian atzera eta aurrera hasi zen, pentsatzen, eta noizean behin kopeta modu beldurgarrian zimurtzen zuen. Gero bekainak altxatzen zituen, eta ondoren eskua kopetaren kontra estutu eta atzerantz balantza egiten zuen marmarka ari zen bitartean; orduan hasperen egin, eta malkoren bat isurtzen zuen. Polita zen hura lanean ikustea. Handik tarte batera osaturik zuen. Adi egoteko eskatu zigun. Orduan ospe-tsuen eran jarri zen, hanka bat aurrerantz jarrita, besoak gorantz zabaldurik, eta burua zertxobait atzerantz botata zerura begira; gero modu nabarmenean hasi zen hizketan, burua galdu balu bezala, eta hortzak karraskatuz; hitzaldi osoan zehar uluka aritu zen, harro zebilen, eta bularra puztu egiten zuen, eta ordura arte nik ikusitako antzezle guztiek ez zuten haren neurri-rik iristen. Hau da hitzaldia, erraz xamar ikasi nuen erregeari irakasten zion bitartean:

Izan ala ez izan; horixe da ezten soila
bizitza luze eta zoritxarrekoa egiten duena;
nork eraman nahiko lituzke bestela halako
zamak,

Birnam-eko basoa Dunsinane-ra iristen den
lekuraino,

heriotzaren ondorengoaren zerbaitek
amets errugabea hilko duen beldurragatik ez
balitz,

naturaren bigarren baliabidea,
zori lotsagalduaren geziak jaurtiki erazten digu-
na

ezagutzen ez ditugunengana, horiengana
laguntza eske joan baino aiseago.

Horra hor pentsatzeko geldi erazi behar gaituen
burutapena:

Esna ezazu Duncan zure deialdien bidez! Egingo
ahal duzu!

Nork jasan lezake bestela garaiaren zigor eta
muzinak,

zapaltzailearen bidegabekeriak, gizon harroaren
irainak,

justiziaren atzerapenak, eta saminak basamortu
hilotzean, hartuko lukeen etenaldia,

*gauerdian, hilobiak aho zabalka hasten dire-
nean,*

ohiko jantzi beltz ospe handikoetan;

*baina lurralde ezezagun horrek, zeinetik inongo
bidaiaria itzultzen ez baita.*

Arnas kiratsua egiten dio munduari,

*eta horrenbestez erabakiaren aurkako oihua,
esaera zaharraren katua bezala,*

gaixotu egiten da, edo ahuldu,

*eta gure teilatuak estaltzen dituzten odei guz-
tiek,*

*erabaki honen aurrean, norabidea aldatu egiten
dute,*

eta ekintza izena galtzen dute.

Sineste osoz desiratu behar den amaiera da.

Baina, lasai, Ophelia ederra:

*ez ireki masail hezur indartsu eta marmolezko-
ak,*

eta zoaz komentura... zoaz!

Agure zaharrari hitzaldia atsegin zitzaion, eta berehala ikasi zuen eta primeran egin zezakeen. Horretarako jaioa zirudien; eta lanak hartua zue-
nean eta grinaz ari zenean, zoragarria zen haren

garrasi egiteko modua, haserrealdiak eta jauziak hitzaldia ematen zuen bitartean.

Lehenengo aukera etorri zitzaigunean dukeak iragarki paperak inprimatu zituen; eta gero bi edo hiru egunetan ibaian aurrera gindoazelarik, almadia inongo lekurik alaiena bilakatu zen, han ez baitzen denbora guztian ezpata borroka eta saio aldirik besterik, dukeak hala esaten zien. Goiz batean Arkansas estatuan behera xamar gindoazelarik herri txiki bat ikusi genuen bihurgune batean, eta mila laurdena edo lehenago lotu genuen almadia, errekatxo baten ahoan, nekosta zuhaitzek tunel baten moduan ixten zutelarik; Jim ezik beste guztiek kanoa hartu eta ibaian behera abiatu ginen geure emanaldia egiteko aukerarik ote genuen ikustera.

Ongi asmatu genuen; arratsaldean zirkoa izango zuten, eta basoko jendea etortzen hasia zen, era guztietako gurdi baldarretan, eta zaldi gainean. Zirkoa gaua egin baino lehenago joan egingo zen, eta gure emanaldiak aukera ona izan zezakeen. Dukeak auzitegia alokatu zuen, eta iragarkiak hormetan jartzen ibili ginen. Honela zioten:

Shakespeareren birjarpena!!!

Ikuskizun zoragarria

Gau bakar batean besterik ez!

*Mundu osoan ezagunak diren antzezle tragiko-
ak,*

*David Garrick gaztea, Drury Laneko Antzerki-
koa, Londonen,
eta*

*Edmund Kean zaharra, Haymarket Erregeen
Antzerkikoa, White*

*Chapel, Pudding Lane, Piccadilly, London, eta
Erregeen Antzerki Kontinentalekoa, Shakespeareren
ikuskizun ezin
hobea eskainiko dute:*

Balkoiaren eszena

Romeo eta Julieta antzerkikoa !!!

Romeo: Garrick jauna

Julieta: Kean jauna

Antzerki-talde osoaren laguntzarekin!

*Jantzi berriak, agertoki berria, paper banaketa
berria!*

Gainera:

Ezpata borrokaren duelu

hunkigarri, maisutasunezkoa, eta ikaragarria

Ricardo III.aren antzerkikoa!!!

Richard III.a: Garrick jauna

Richmond: Kean jauna

Gainera:

(Eskaera berezietarako)

Hamleten Bakarrizketa ahaztezina!!

Kean antzezle apartaren eskutik

*Parisen 300 gauetan etengabe antzezle honek
egina!*

Gau bakar batean,

Europako betebeharrak ezinbestekoak direla eta!

*Sarrera 25 xentimo; haurrak eta zerbitzariak,
10 xentimo.*

Gero herrian zehar ibiltzera joan ginen. Denak eta etxeak egitura zahar itxuragabekoak ziren, eta lehorregiak inoiz pinturarik hartu ez zutelako; lurretik metroa edo gehixeago izango zuten zutoi gainetan eraikita zeuden, urak azpian ez hartzeko ibaiak gainezka egiten zuten. Etxeek baratz txikiak zituzten inguru guztian, baina ez zirudien bertan sorgin belarra eta

eguzki loreak besterik hazten zirenik, eta zapata eta bota zahar kizkurtuak, botila puskak, zapi zaharrak, eta latorrizko ontzi hondatuak. Hesia ohol desberdinez osaturik zegoen, garai desberdinetan iltzatuak; eta edozein aldetara okerturik zeuden, eta ateen ez zuten izaten larruzko erro bakar bat besterik. Hesi horietako batzuk, noiz-bait, kareztatu zituzten, baina dukeak esan zuen bezala ziur aski Kolonen garaian izango zen. Zerriak izaten ziren baratzetan, eta jendeak uxatu egiten zituen.

Denda guztiak kale bakar batean zeuden. Etxe aurreko bebarruan estalpe zuriak zituzten, eta mendi aldeko jendeak hango zutabetan lotzen zituen zaldiak. Kaxa hutsak izaten ziren estalpeetan, eta alferrak horien gainean egoten ziren etzanda egun osoan, Barlow labainak hartu eta egurrari puskak kentzen, eta tabakoa xehatzen, erdi lo, aho zabalka eta nagiak ateratzen; burugogor pila ederra zen, bai:

Lastozko sonbreiru horiak zeramatzaten gehienek, euritakoa bezain zabalak, baina ez zituzten ez beroki ez gerruntzerik janzten. Batak besteari Bill, Buck, Hank, Joe, edo Andy, esaten

zion, eta alferkerian eta gogorik gabe hitz egiten zuten, eta birao pila esan ere bai. Estalpeko zutabe bakoitzaren kontra izaten zen alferren bat gutxienez, eta ia beti eskuak praken poltsikotan sartuta izaten zituen, eta ez zituen ateratzen tabako ahokada norbaiti emateko ez bazen edo hatz egiteko. Inor horien artean jarriz gero, denbora guztian honela ari zirela entzungo lieke:

— Hi, tabako pixka bat emango al didak, Hank?

— Ezin diat. Beste pixka bat besterik ez zaidak geratzen. Eska iezaiok Billi.

Beharbada Billek emango zion apur bat; edo agian gezurra esan eta ez zuela erantzun. Alfer horietako batzuk ez dira xentimo bakar bat, ezta tabako ahokada baten jabe ere. Tabako guztia besteei eskatutakoa izaten dute. Esaten diote adiskide bati: «Tabako pixka bat emango al didak, Jack, oraintxe eman zioat Beni azkeneko apurra» —ia beti gezurra galanta izaten zen; eta horrek kanpotarrari besterik ez lioke ziria sartuko; baina Jack kanpotarra ez zenez gero, esango zion:

— Eman al diok? Bai, hire amonaren katuak ere eman zio. Dagoeneko zor dizkidaanak atzera eman, Lafe Buckner, eta gero emango diat tona pare bat, eta ez dizkiat atzeko interesak eskatuko, gainera.

— Batzuk ordaindu dizkiat, zera.

— Bai, hala duk... sei edo. Dendako tabakoa eskatzen dik eta gero beltzaren buruarena pagatzen dik.

Dendetako tabakoa puska lau eta ilunetan saltzen zen, baina jende honek tabako hosto kizkurtua bera xehatzen zuen. Ahokada bat tabako eskatzen zutenean, ez zuten gehienetan labaina hartu eta mozten, tauleta hortzen artean jarri, hortzetan karraskatu, eta eskuz tira egiten zioten bitan zatitu arte; gero tabakoaren jabeak kopetilun begiratzen zion tabakoari atzera ematen ziotenean, eta esaten zuen, irri-mirrika:

— Tori, eman ahokada, eta hartu tauleta.

Kale eta karrika guztiak lokazturik zeuden, lokatza pila besterik ez ziren, pikea bezain beltza, eta hogeita hamar zentimetrotara iristen zen toki batzuetan; eta bost edo zortzi zentimetrotara leku guztietan. Zerriak nonahi alferkerian

zebiltzan eta kurrinka. Zerrama lokaztua bere zerrikumeekin lasai-lasai zetorrela ikus zitekeen eta bide erdian jartzen zen, jendeak zerria inguratu behar zuelarik aurrera joateko, eta orduan nagiak atera eta begiak ixten zituen, eta belarriei eragin, zerrikumeak edoskitzen ari ziren bitartean, eta txoria baino alaiago zegoela zirudien. Eta berehala entzun zenezakeen alfertzar horietako bat garrasika: «Hi, lagun, harrapa ezak, Tige!» eta zerriak airean alde egiten zuen, garrasi bizian, zakur bat edo bi belarri bakoitze-tik tiraka zituelarik, eta atzetik beste hiru edo lau dozena zakur korrika. Orduan ikusiko zenituen alfer guztiak zutik jartzen eta zerriari begien bistatik galdu arte begira, jolasaldiari barre eginez, eta itxuraz zaratari eskerrak eman nahian. Gero berriz lasai etzaten ziren zakur borrokaren bat edo gertatu arte. Ez zen horiek goitik behera esnatzeko zakur borroka baino gauza hoberik, ez eta horrek adina dantzan jarriko zituenik, kaleko zakur bati turmentina gainera bota eta sua ematea ez bazen behintzat, edo bestela zakurrari latorrizko ontzia isatsari lotu eta hura ziztu batean lehertu arte korrika joaten ikustea.

Ibai bazterraren aurreko etxe batzuek kanpoaldera egiten zuten, okertuta, makurturik, eta ia ibai gainean etzanda zeuden. Hango jendea beste etxeetara joana zen. Ibai bazterreko lurrian zuloa egiten ari zen beste etxe batzuen ertzetan, eta ertz horiek ibaian zintzilik zeuden. Horietan jendea bizi zen, baina arriskutsua zen. Batzuetan etxe baten zabalera hartzen zuen lur zatia lurperatu egiten baitzen bat-batean. Edo sakonean milaren laurdena neurtzen zuen lur zirrinta lurperatzen hasi eta pixkanaka-pixkanaka uda batean den dena ibaian hondoratzen zen. Era honetako herriek atzera egiten ibili beharra dute, atzera eta atzera, ibaiak beti lurra jaten baitie.

Eguerdia etorri ahala, zaldi eta gurdiak kaleak bete eta bete ari ziren, eta etengabe berriak iristen ziren. Familiek bazkaria menditik zekarten, eta gurdietan jaten zuten. Whiskya ederki edan ere bai, eta hiru borroka ikusi nituen. Geroxeago norbaitek oihu egin zuen:

— Hara hemen zetorrek Boggs agure zaharra! ...menditik zerorrek hileroko mozkorraldi zaharraren bila... hemen zetorrek, mutilak!

Alfer guztiak poztu egin zirela zirudien. Iruditu zitzaidan Boggsen kontura barre egiten ohiturik zeudela. Horietako batek esan zuen:

— Nor akabatzera ote hoan jakin nahi nuke. Hogei urte hauetan esandako gizon guztiak garbitu izan bahitu, honez gero entzutea ere izango huke.

Beste batek esan zuen:

— Boggsek niri mehatxu egitea nahi nuke, hartara mila urtetan bizirik iraungo nuela jakingo nuke.

Boggs arrapaladan zetorren zaldi gainean, uluka eta oihuka indiar baten eran, eta esan zuen garrasika:

— Alde bide erditik. Borrokara nihoak, eta hilkutxen prezioa igo egingo duk.

Mozkorturik zihoan, zelan alde batetik bestera dantzan. Berrogeita hamar urtetik gora izango zituen, eta aurpegia more-more. Denek oihu egin, adarra jo, eta irain egiten zioten. Berak erantzun zien kontutan hartuko zituela eta akabatuko zituela denak garaia iristen zitzaienean, baina ezin zuela orduan gelditu, Sherburn koronela hiltzera zetorrelako herrira, eta bere leloa

zuela «jakia aurretik, eta koilarakadak azkenerako».

Ni ikusi ninduen, eta zaldi gainean hurbildu zitzaidan eta esan zidan:

— Nongoa haiz, motel? Pronto al hago hiltzeko?

Gero zaldi gainean urrundu egin zen. Beldurrak airean nengoen; baina gizon batek esan zidan:

— Ez du asmo txarrik; horrela ibiltzen da beti edanda dagoenean. Arkansaseko zahar zoro kastakoena da. Inori ez dio kalterik egin, ez mozkorra egonik, eta ez bestela ere.

Boggs zaldi gainean joan zen herriko denda handienaren aurreraino eta burua makurtu zuen bebarruetako oihal azpian ikusteko, eta esan zuen garrasika:

— Atera hona, Sherburn! Atera eta iruzur egin diozun gizonari aurre egin. Bila nabilen zakurra zara, eta harrapatuko zaitut, gainera!

Eta hala jardun zuen, Sherburnen aurka mihiak esan nahi zituen gauza guztiak esan eta esan. Kale guztia jendez josita zegoen, eta hari entzun eta barre eginez gustura zebiltzan. Gero-

xeago berrogeita hamabost urteko gizon harro xamarra, eta baita ere herri osoan jantzi dotoreenak zeramatzana, dendatik atera zen. Jendetzak atzera egin zuen hari lekua uzteko. Boggsi hurbildu zitzaion lasai eta presarik gabe, eta esan zion:

— Aspertuta naukazu; baina ordu batak arte eramango dut. Ordu bata, entzun duzu, ez beranduago. Handik aurrera behin bakarrik ahoa zabaltzen baduzu nire aurka jarduteko, nahi duzun lekura joanda ere harrapatuko zaitut.

Gero bira eman eta joan egin zen. Jendeak kopetilun begiratzen zuen; ez zen inor mugitu, eta han ez zen barrealdi gehiagorik entzun. Sherburni indar osoz lotsa gaiztoko oihuak esanez Boggs zaldi gainean urrundu zen kale osoan behera. Berehala itzuli eta denda aurrean geratu zen, lehengoari eutsiz. Gizon batzuk inguratu zitzaizkion eta gizona isil erazten ahalegindu ziren, baina ezin izan zuten; esan zioten hamabost minutu geratzen zirela ordu batarako, eta etxeratu beharra zuela, berehala alde egin behar zuela. Indar guztiz birao eginez joan zen, sonbreirua lokatsetara bota eta zaldia haren gai-

nean ibili zuen, eta berehala joan zen kalean behera haserre bizian, ile zuria airean zeramalarik. Aukera izan zuten guztiak ahalegindu ziren zalditik jaitsi erazten, giltzapean sartu eta bere onera ekar erazten; baina dena alferrik izan zen: kalean gora abiatu zen berriz, Sherburnen aurka biraoka. Gero batek esan zuen:

— Joan zaitezte alaba ekartzera! azkar, joan alabaren bila; batzuetan hark esandakoa egiten du. Inori entzutekotan, hari entzungo dio.

Norbait korrika joan zen. Ni kalean behera abiatu, eta gelditu egin nintzen. Handik bost edo hamar minututara Boggs azaldu zen berriz, baina ez zaldi gainean; balantzaka zetorren kale erditik niregana, sonbreirurik gabe, bi aldeetan lagunak zituelarik besoetatik heltzen eta handik azkar eraman nahian. Isilik zihoan, eta ez zirudien lasai zegoenik; ez zuen atzerantz indarrik egiten, eta bera ere presaka mugitzen zen. Norbaitek oihu egin zuen:

— Boggs!

Nor ote zen jakin nahian begiratu nuen, eta Sherburn koronela ikusi nuen. Kale erdian geldi geldirik zegoen, eta pistola zuen eskuineko

eskuan, inori zuzendu gabe, kanoia zerura begira jarrita. Une hartan bertan neska gazte bat korrika zetorrela ikusi nuen, bi gizon alboan zituelarik. Boggs eta gizonek bira eman zuten nor ote zen deika ari zena jakin nahian. Pistola ikusi zutenean gizonek jauzi egin zuten alde batera, eta pistolaren kanoia poliki-poliki jaitsi zen balantzarik egin gabe zuzen jarri arte, katua jasota zuelarik. Boggsek eskuak altxa, eta esaten du: «Jauna, ez tiro egin! Danba! egiten du lehenengo tiroak, eta atzerantz balantza egiten du bere buruari airean eutsi nahiko balio bezala, danba! bigarren tiroa, eta lurrera erortzen da, zerraldo, besoak zabal zabalik. Neska gazteak garrasi egiten du, eta korrika hurbiltzen zaio, eta aitaren gainera makurtzen da, negarrez, eta esaten du: «Oi, hil egin du, hil egin du! Jendea inguratzen zaio, bata besteari bultzaka eta denak pila eginda, lepoak luzatuta, han zegoena ikusi nahian, eta barrurago zeudenak berriz atzerantz bultzaka, eta oihu eginez: «Atzera, atzera, airea behar du!

Sherburn koronelak pistola bota zuen lurrera, eta orpo gainean jira egin eta oinez alde egin zuen.

Boggs botika txiki batera eraman zuten, jendea inguruan bultzaka ari zelarik, lehen bezalaxe. Herri osoa zetorren atzetik, eta ni presaka joan eta leku ona aurkitu nuen gizonarengandik gertu zegoen leiho baten ondoan, eta handik ongi ikus nezakeen barrua. Lurrean utzi zuten, Biblia handia jarri zioten buru azpian, eta beste bat zabaldu zioten bular gainean, baina lehenik alkandora hautsi zioten, eta bala bat non sartu zitzaion ikusi ahal izan nuen. Dozena bat aldiz arnastuka aritu zen, arnasa hartzean bularrak Biblia altxatzen zuelarik, eta jaisten arnasa botatzen zuenean. Gero geldirik geratu zen; hilik zegoen. Orduan alaba aitaren ondotik bereizi zuten, garrasika eta negarrez, eta handik kanpora eraman. Hamasei bat urte izango zituen, eta goxoa eta otzana zirudien, baina zurbil zegoen oso eta beldurturik.

Berehala bildu zen han herri osoa, bultza eta bultza, eta muturra sartzeko indarka, leihora iritsi eta han gertatzen ari zena ikusteko; baina

lekuak hartuta zituztenak ez ziren mugitzen, eta atzean zeudenak esan eta esan ari ziren: «Aizue, nahikoa ikusi duzue, lagunak; ez dago ondo, ez dago eskubiderik, zuek hor denbora guztian eserita, eta guri aukerarik utzi gabe; besteek ere zuek adinako eskubidea dute.

Bata bestearen aurkako erantzunak entzuten hasi ziren, eta nik badaezpada ere alde egin nuen, istiluak izango zirelakoan. Kaleak jendez gainezka zeuden, eta denak harrotuta zebiltzan. Tiroketa ikusi zutenek nola gertatu zen ari ziren kontatzen, eta horietako bakoitzak inguruan jende pila zuen, lepoak tente jarri, eta entzuten. Gizon luze argal batek, ile luzeduna, larruzko txistera handia buruan atzerantz jarrita zeramararik, eta kirten okerdun makila eskutan, lurrean arrastoak marraztu zituen Boggs non zegoen, eta Sherburn non zegoen erakusteko. Jendea atzetik zihoakion leku batetik bestera, hark egiten zuen guztiari begira, buruari gora eta behe-
ra eraginez ulertu zutela esateko, eta gelditu, eskuak izterretan jarri eta makila hartu eta lurrean arrastoak nola egiten zituen begiratzen zuten. Gero zutitu eta tente jarri zen Sherburn

jarri zen leku berean, kopeta zimurtu, txistera aurrerantz begi gainean jarri, eta oihu egin zuen: «Boggs!» eta makila poliki-poliki jaitsi zuen zuzen jarri arte, eta «danba!» esan eta atzerantz egin zuen balantza, eta «danba!» berriz esan, eta atzerantz zerraldo erori zen. Gertatutakoa ikusi zutenek primeran egin zuela esaten zuten; gertatu bezalaxe egin zuela. Gero dozena bat lagunek botilak atera zituzten eta edatera gonbidatu zuten.

Azkenean norbaitek esan zuen Sherburnek zigorra merezi zuela. Handik minutu batera denak gauza bera esaten ari ziren; eta hantxe joan ziren zoroen moduan eta garrasika, eta bidean ahal zituzten arropa zabaltzeko soka guztiak harrapatu zituzten, horiekin gizona zintzilikatzeko.

Hogeita bigarren atala

Kalean gora zihoazen Sherburnen etxerantz, uluka, oihuka eta haserre, indiarren erara, eta aurretik gauza guztiak kendu behar zitzaizkien edo bestela zapaldu eta txiki-txiki egiten zituzten, eta ez zen batere ikuskizun polita. Haurrak jendetzaren aurrean ageri ziren, garrasika eta bide erditik alde egin nahian. Emakumeen buruek bide osoko leiho guztiak betetzen zituzten, eta zuhaitz guztietan mutiko beltzak zeuden, eta hesien gainetik neska mutil gazteak begira ari ziren, baina jendetza hurbildu ahala elkarrengandik bereizi, eta airean ateratzen ziren. Emakume eta neska gazte asko negar eta oihu egiten zuten, beldurrak hartuta.

Sherburnen etxearen hesi aurrean pilatu ziren, elkarren ondoan denak, eta ezin zitezkeen norberaren burutapenak ere entzun hango iskanbila hartan. Zazpi metrotako lorategi txikia zen. Batzuek esan zuten oihuka: «Bota hesi hori! Bota hesi hori! Gero eztanda bat izan zen eta han aritu ziren hesia puskatzen, bere lekutik ate-

ratzen eta zapaltzen, eta azkenean erori egin zen, eta jendetzaren aurreko errenkek aurrera egin zuten itsasoko olatua balitz bezalaxe.

Orduantxe agertu zen Sherburn aurreko atariko teilatuaren gainean, bi kanoietako eskopeta eskutan zuelarik, eta hantxe geratu zen, oso lasai eta tinko, hitzik esan gabe. Iskanbila isildu zen, eta olatuak atzera egin zuen.

Sherburnek ez zuen ezer esan, han geratu besterik ez, beherantz begira. Isiltasuna ileak tente jartzeko modukoa zen eta ez gustura egotekoa. Sherburnek adi-adi begiratu zion jendeari; eta begiraturia geratzen bazuen, jendeak eutsi nahi izaten zion, baina ezin; lurrera begiratu eta ihes egiten zioten. Geroxeago Sherburnek barre antzekoa edo egin zuen; ez alai erazten duen barre horietakoa, barruan hondarra duen ogia jaten duzunean sentitzen den zirrarra bera senti erazten duena baizik.

Gero esan zuen, poliki eta aurrekoak gutxies-ten zituelarik:

— Zuek inor jipoituko duzuela pentsatze hutsak barre egin erazten dit. Inor jipoitzeko barrena nahikoa duzuela pentsatzea ere! Keme-

na duzue, bai, baina hortik babesik gabe dabil-
tzan emakume gaixoak bikeztatu eta lumez
estaltzeko besterik ez. Eta horregatik uste al
duzue ausardia nahikoa duzuela zuen esku
horiez gizon bat jipoitzeko? Bada, inongo gizo-
nek ez luke beldurrik izango zuen moduko
hamar milaren eskutan egonik ere..., egun argiz
bada behintzat eta ez badiozue atzetik eraso
egiten.

«Ezagutzen al zaituztet? Goitik behera esan-
go nuke. Hegoaldean jaio eta hazi ninduten, eta
iparraldean bizi izan naiz; beraz inguru guztiko
jende arrunta ezagutzen dut. Gizon arrunta oilo
kakatia da. Iparraldean nahi duenak zapal dezan
uzten du, eta etxera joan ondoren errezatu egi-
ten du bihotza apal dakion zapaltzailea jasan
ahal izateko. Hegoaldean berriz gizon batek,
bakar bakarrik eta egun argiz gainera, gelditu
zuen gizon ez betetako dilijentzia eta dena lapur-
tu zien. Egunkariak ausartak zaretela esan eta
esan ari dira, eta zuek besteak baino ausartago-
ak zaretela uste duzue, baina besteak bezain
ausartak zarete zuek, ez gehiago. Zergatik ez
dituzte epaileek hiltzaileak zintzilikatzen? Beldur

direlako gauez gizonaren lagunek atzetik tiro egingo dieten..., eta horixe da egingo luketena».

«Horregatik barkatzen diete beti; eta orduan gizon bat joango da gauean, maskaradun ehun beldurti atzetik dituelarik, eta legea hautsi duena jipoituko du. Zuen hutsegitea izan da ez duzuela gizon hori ekarri; hori da akats bat, eta bestea ez zaretela gauez etorri, eta ez dituzuela maskarak ekarri. Gizon laurdena ekarri duzue, Buck Harkness delako hori, eta hori izan ez bazenute zuek zirikatzeke, dena hutsean geratu zatekeen.

«Ez zenuten etorri nahi. Gizon arruntak ez ditu istiluak eta arriskua nahi izaten. Baina nahikoa da gizon erdi batek, Buck Harkness hori bezalakoak, garrasi egitea «Jipoitu, jipoitu!» atzean geratzeko beldurrez, benetan zaretena, oiloak, agerian uzteko beldurrez, garrasi egin eta gizon erdi horren berokitik zintzilika jarri, eta zuen onetik aterata hona etortzeko gauza ikaragarriak egin behar dituzuela zin eginez. Gauzarik tamalgarriena jendetza izaten da; hori da armada, jendetza. Ez dute jaiotzako kemenez borroka egiten, jendearengandik sortutako kemenez bai-

zik, eta ofizialeengandik. Baina aurrean gizona ez duen jendetza, tamalgarria baino are okerragoa da. Orain egin behar duzuen da, isatsak hanka tartean gorde, etxeratu eta zuloan sartu. Benetako jipoiketarik izatekotan, gauz izango da, hegoaldekoen erara; eta maskarak jantzita etorriko dira, eta gizona ere ekarriko dute. Orain joan, eta eraman gizon erdi hori —hori esatean ezkerreko besorantz altxa zuen eskopeta eta katua jaso zion.

Jendeak atzera egin zuen orduan, elkarrengandik urrundu, eta korrika alde egin zuten leku batetik eta bestetik. Buck Harkness ere horien atzetik joan zen, burumakur. Nahi izan banu han gera nintekeen, baina ez nuen gogorik.

Zirkora joan nintzen eta atzealdean alde batetik bestera ibili nintzen zaindaria aurretik igaro zen arte, eta orduan oihalaren azpitik sartu nintzen. Hogei dolarretako urrezko txanpona eta beste txanpona batzuk banituen, bina hobe iruditu zitzaidan dirua gordetzea, ez baitago esaterik noiz izango duzun beharra, etxetik urrun eta ezezagunen artean egonik. Kontu guztiak beharrezkoak dira. Ez nago zirkoetan dirua gastatzea-

ren aurka, beste biderik ez dagoenean, baina ez da komeni dirua alferrik galtzea.

Zirkoa benetan aparta zen. Inoiz aurrean izandako ikuskizunik ederrena zen, denak zaldi gainetan sartu zirenean, binaka, gizona eta andrea, bata bestearen ondoan, gizona galtzontzilotan eta elastiko hutsean, ez zapata eta ez oin-lokarririk, eskuak izterretan jarrita, patxada ederrean. Hogeitabat izango ziren; emakume guztiek azal ederra zuten, politak ziren oso, eta benetako erregina taldea zirudien; milioika dolar balio zuten jantziak zeramatzaten, diamantez goitik behera josita... Benetan ikuskizun ikaragarria zen; ez dut inoiz gauza politagorik ikusi. Eta orduan bana banan zutik jarri ziren, eta jendea agurtzen hasi ziren borobilaren inguruan modu dotorean, gorputza batera eta bestera mugituz, eta estilo handiz. Gizonak luze, arin eta tenteak ziren, burua makurtu eta makurtu ari ziren, eta han goian oihalaren sabaiaren pean hegan egiten zuten; emakumeei arrosa hostozko soinekoak leunki eta zetazkoak balira bezala mugitzen zitzaizkien kadera inguruan, inoiz ikusitako eguzkitako ederrenak ziruditelarik.

Eta gero eta azkarrago ari ziren denak dantzari. Lehenik hanka bat airean jarrita, eta gero bestea, zaldiak gehixeago makurtzen ziren. Zuzendaria borobilean jirabiraka zebilen erdiko zutoinaren inguruan, zartailuari eraginez eta garrasika «Aida!» eta pailazoak txantxak egiten zizkion atzean; geroxeago esku guztiek uhalak erortzen utzi zituzten, eta andre guztiek hatz-koskorrak gerrian jarri eta gizonek besoak tolestatu zituzten, eta gero zaldiak aurrerantz makurtu eta arrapaladan abiatu ziren! Eta horrela bata bestearen atzetik borobilera jauzi egin zuten zaldi gaineko guztiek, eta burua inork baino era dotoreagoan makurtu ondoren korrika atera ziren. Denek txalo egin zuten ia erotu arte.

Zirkoko ikustaldian gauza harrigarrienak egin zituzten; eta pailazoa han ari zen denbora gutxian jo eta ke, eta jendeak ia barrez lehertu zuen. Zuzendariak ezin zion hari hitz bakar bat esan besteak aldi berean erantzuna eman gabe, inori bururatuko ez litzaiokeen ateraldi barregarriekin; eta nola bururatuko zitzaizkion horrenbeste, eta horren bizkor, eta horren aproposak, ezin nuen inolaz ere ulertu. Nik ez nituzke urte osoan

asmatuko. Geroago gizon mozkor bat borobilera atera nahian zebilen, eta esan zuen zaldi gainean ibili nahi zuela, inork baino hobeto zekiela zaldi gainean ibiltzen. Eztabaidan aritu ziren eta handik ateratzeko ahaleginak egin zituzten, baina ez zuen kasurik egiten. Orduan ikuskizuna gelditu egin zuten. Jendea garrasika hasi zitzaion eta bere kontura barre egiten, eta horrek bere onetik atera zuen. Su eta gar jarri zen, eta orduan jendea bero-bero egin zen, eta gizon asko eserlekuetatik altxa, eta denak batera borobilera jaisten hasi ziren, «Eman horri! Bota kanpora! esaten zutelarik, eta emakume bat edo beste oihuka hasi zen. Orduan zuzendariak hitzalditxoak egin zuen, eta esan zuen espero zuela ez zela iskanbilarik izango, eta gizonak hitza ematen bazuen ez zuela beste istilurik sortuko, zaldi gainean ibiltzen utziko ziola, berak uste bazuen zaldi gainean egon zitekeela. Denak barre egin zuten eta bat etorri ziren, eta gizona igo egin zen. Zaldi gainera igo bezain laster, animalia su eta gar hasi zen, jauzika eta zilipurdika borobil osoan, zirkoko bi gizonak uhaletatik heldu nahian ari ziren bitartean, eta mozkorra

zaldiaren lepotik zintzilik zihoan, eta oinek jauzialdi bakoitzean airean hegan egiten zioten, eta ikuslego guztia zutitu egin zen, garrasika eta barrez lehertzeko zorian. Azkenean, zirkoko gizonek egindako ahalegin guztiak eginda ere, zaldia askatu egin zen, eta hantxe joan zen arrapaladan borobilean jirabiraka, mozkorra gainean etzanda zuelarik eta lepotik helduta, hasieran alde bateko hanka ia lurreraino iristen zitzaiolarik, eta gero bestea beste aldetik, eta jendea zoraturik. Ez zitzaidan barregarria iruditzen; arrisku hori ikusteak dardara eragiten zidan. Baina azkar xamar gainean eserita jartzeko borrokan aritu ondoren eseri eta uhalak hartu zituen, alde batetik bestera balantza egiten zuelarik. Ondorengo minutuan jauzi egin, uhalak bota eta zutik jarri zen! eta zaldiak sua eman baliote bezala zihoan airean. Zutik geratu zen, borobilaren inguruan, batere indarririk egin gabe, hegan eginez, bizitza osoan mozkorrik harrapatu ez balu bezala... eta gero arropa kentzen eta botatzen hasi zen. Horrenbeste jantzi kendu zituen ezen airean pilatu egin baitziren, eta denera hamazazpi edo kendu zituela uste dut.

Eta orduan, hantxe ageri zen, argal eta dotore, inoiz aurrean izandako jantzi ikusgarri eta polite-na jantzita. Zartailua hartu eta zaldia zigortu zuen eta amaitzeko jauzi egin zuen zaldi gaine-tik, burua makurtu eta dantzan urrundu zen jan-tzi-gelarantz. Jendea algaraka ari zen pozez eta harriduraz.

Orduan zuzendariak ikusi zuen ziria sartu zio-tela, eta nik uste dut zuzendariak osasuna galdu zuela inoiz ikusiko ez zenukeen moduan. Izan ere, bere gizonetako bat zen! Berak asmatu zuen bere kabuz txantxa osoa, inori ezer esan gabe. Ni ere lotsaturik nengoen, dena sinestea-gatik, baina ez nuke borobil hartan egon nahi, ezta mundu guztiko diruagatik ere. Ez dakit; izango dira beharbada hori baino zirko harroago-ak, baina ez dut beste horrelakorekin inoiz topo egin. Dena den niretzat nahikoa ona zen; eta beste nonbait topatuko banu, egunero izango ninduke bezero.

Gau horretan egin genuen gure emanaldia; baina hamabi pertsona besterik ez ziren bildu; zorrak ordaintzeko adina besterik ez. Jendea barrez aritu zen denbora guztian, eta horrek

dukea haserre erazi zuen; eta, egia esateko, denek alde egin zuten emanaldia amaitu baino lehen, denak lotan zegoen mutil batek ezik. Beraz dukeak esan zuen Arkansaseko artaburu horiek ez zirela gai Shakespeare ulertzeko; behar zutena behe mailako komedia zela, eta behar bada behe mailako komedia baino zerbait okerragoa ere. Esan zuen tankera hartu ziela. Hurrengo goizean biltzeko paperezko orriak, eta margo beltza hartu, esku-paperak prestatu, eta herrian zehar zintzilikatu genituen. Esku-paperek honela zioten:

AUZITEGIAN!

3 gauetan besterik ez!

Mundu osoan ezagunak diren tragedia antzez-
leak

DAVID GARRICK GAZTEA!

eta

EDMUND KEAN ZAHARRA!

London eta Kontinentaleko Antzerkikoak,

ERREGEREN KAMALOPARDOA

edo

ERREGETASUN BERDINGABEA!

Tragedia zirraragarrian

Sarrera 50 xentimo

Gero azpian lerrorik handiena zegoen idatzita, eta honela zioen:

EMAKUME ETA HAURRENTZAT SARRERA DEBEKATUA.

— Hara —esan zuen—, tankera hori gustatzen ez bazaie, ez dut Arkansas ezagutzen.

Hogeita hirugarren atala

Egun osoa jo eta ke jardun zuten bera eta erregea, eszenatokia, oihala, eta kriseiluak jartzeko kandela-errenka prestatzen. Gau horretan auzitegia gizonez gainezka zegoen. Aretoan sartzeko lekurik geratu ez zenean, dukeak sarrerako atea utzi, atzetik eszenatokiraino joan eta zutik geratu zen oihalaren aurrean. Hitz batzuk esan zituen, tragedia goraipatuz, inoiz izandako zirrargarriena zela, eta antzerkiaz, eta pertsonaia nagusiaren lana egingo zuen Edmund Kean zaharraz, harropuzkeriak esan eta esan jardun zuen, eta azkenean jende guztiaren ikusmina azken mugara eramanez ondoren, oihala altxatu, eta hurrengo minututan erregea azaldu zen ostikadaka lau oinetan, larru-hutsik. Goitik behera borobilak, marrak eta arrastoak zituen margotuta, kolore guztietakoak, ortzadarra bezain ikusgarria. Alde batera utziko ditut gainontzeko osagarriak, erokeria galanta zen, baina oso barregarria. Jendeak ia barrez lehertu zuen, eta erregeak jauzi egiten eta ostikoak ematen amaitu ondoren

oihala atzera joan zenean, orro egin zuten eta txalo, eta algaraka aritu ziren, ahalik eta erregea atera, eta dena berriz egin zuen arte. Haren ondoren beste behin egin erazi zioten. Behi batek ere barre egingo luke zoro zaharrak egiten zituen nabarmenkeriak ikusita.

Orduan dukeak oihala jaitsi zuen, eta jendearen aurrean makurturik, esan zuen tragedia aparta hura beste bi gauetan besterik ez zela aurkeztuko, Londonen zituzten utziezinezko betebeharrak zirela eta, bertan zegoeneko Drury Laneko sarrera guztiak salduta zituztelarik. Gero beste agurra egin zion jendeari, eta esan zuen gustura ikusi bazuten eta ikuskizunetik zerbait ikasi, eskertuko liekeela lagunei hori ikustera joatea gomendatuko baliete.

Hogei pertsonak esan zuten oihuka:

— Baina, zer, bukatu al da? Hori al zen dena?

Dukeak baietz esan zuen. Gero ederra izan zen. Denak garrasika hasi ziren «ziria!», eta haserre bizian altxa ziren, eta eszenatokirantz abiatu tragedialariengana. Baina on itxura zuen gizon handi bat aulki baten gainera jauzi egin, eta esan zuen oihuka:

— Egon! Egon pixka bat, jaunak —isildu egin ziren entzuteko—. Ziria sartu digute, eta oso ondo gainera. Baina ez duzue herri osoko barre-garrienak izan nahiko, izan ere, hil artean gogorra ekarriko ligukete. Ez. Egin behar duguna da, hemendik isil isilik atera, eta emanaldiaz ongi esaka aritu, herriko gainontzekoei ziria sartzeko! Orduan denak berdintsu egongo gara. Ez al da zentzuzkoa?

— Bai horixe! Epaileak arrazoi du! —oihu egin zuten denek.

— Ederki orduan, hitz bakar bat ere ez adar-jotze honetaz. Zoazte etxera eta denei esan etortzeko tragedia ikustera.

Hurrengo egunean emanaldia aparta zela eta beste konturik ez zen herrian. Aretoa jendez gainezka zegoen berriz, gau horretan, eta horiei ere berdin-berdin ziria sartu genien. Dukea, ni eta erregea almadiara itzuli ginenean, afaldu ondoren gauerdi aldera, Jim eta bioi almadia atera erazi ziguten, eta ibai erdian joaten utzi, herritik bi mila beherago lehorreratu eta han ezkutuan uzteko esan ziguten.

Hirugarren gauean aretoa jendez josita zegoen berriz, eta, oraingoan, ez ziren bezero berriak, aurreko bi gauetan emanaldian izandakoak baizik. Dukearen ondoan nengoen sarrerako atean, eta konturatu nintzen sartzen ziren gizon guztiek poltsikoak puztuta zituztela, edo zerbait ezkutatzen zutela berokien azpian; lurri-rik ez zeramatela konturatu nintzen, ezta antzekorik ere. Arrautza hondatuen usaina aditu nuen upelkadaka, eta aza ustelena, eta antzeko gauzena; eta katu hilen usaina ezagutzen badut, eta baietz apustu egingo nuke, hirurogeita lau sartuko zituzten. Une batean sartu nintzen, baina kiratsa era guztietakoa zen, eta ezin nuen jasan. Aretoak jende gehiago onartu ezin zuenean, dukeak hango bati dolar laurdena eman zion eta esan zion sarrera zaintzeko, eta gero eszenatoki-ko atearen bila hasi zen, eta ni bere atzetik; baina izkinari bira eman orduko, eta ilunpetan ginenean, esan zuen:

— Orain, azkar ibili, etxeak atzean utzi arte, eta gero joan zaitez korrika almadiara deabrua atzetik bazenu bezala!

Halaxe egin nuen, eta hark ere bai. Batera iritsi ginen almadiara, eta bi segundo pasa baino lehen ibaian behera irristaka gindoazen, inork hitzik esan gabe. Iruditu zitzaidan erregea tarte ederra igarotzen arituko zela ikuslegoarekin; baina inondik ere ez; berehalaxe lau hanketan jarrita atera zen kanpadenda barrutik, eta esan zuen:

— Zer moduz ibili zarete gaurkoan, duke?
Ez zen herrira ezertara joan.

Ez genuen argirik piztu herritik hamar milatara izan ginen arte. Orduan argia piztu eta afaldu egin genuen; erregea eta dukea barrez leher gaizto egin zuten jendeari modu horretan ziria sartzeagatik. Dukeak esan zuen:

— Txoriburuak, tentelak! Banekien, bai, lehenengo joan zirenek ez zutela ezer esango eta herriko gainontzekoak joatera bultzatuko zituztela; eta banekien gure bila joango zirela hirugarren gauean, eta orduan txanda heldu zitzaizela irudituko zitzaizela. Bada, iritsi zaie txanda, eta zerbait ere emango nuke nora iritsi diren jakiteagatik. Jakin nahi nuke nola erabili duten beraien

aukera. Afari ere bihur zezaketen... jateko nahikoa eraman dute.

Alfer-handi horiek lauhun eta hirurogeita bost dolar irabazi zituzten hiru gauetan. Ordura arte ez nuen inoiz dirua, era horretan, gurdikadaka jasotzen ikusi.

Gero, biak lotan eta zurrunka ari zirenean, Jimék esan zuen:

— Ez al zaitu harritzen erregeen jokaerak, Huck?

— Ez —esan nuen— ez nau harritzen.

— Zergatik ez, Huck?

— Bada berezkoa dutelako. Uste dut denak ere tankerakoak direla.

— Baina, Huck, gure errege hauek benetako alferrak dira; horixe, benetako alferrak.

— Horixe esaten ari naiz bada; errege guztiak izaten dira ia beti alfer-handiak, hori iruditzen zait niri.

— Hala al da?

— Irakur ezazu horien berri, eta ikusiko duzu. Begira Enrike VIII.a; gure errege hau igandeetako eliza-eskola arduraduna besterik ez da haren ondoan. Eta Charles II.a, Louis XIV a, Louis XV a,

James II.a, Edward Ma, Richard III.a, eta beste berrogei gehiago; eta zer esanik ez garai zaharretan halako istiluak sortzen zituzten Zazpi lurraldeetako saxoitarrek. Ene, garai bateko Enrike VIII.a ezagutu behar zenuen gazte garai loratuetan. Hori bai zela lorea. Egunero emakume berriarekin ezkontzen zen, eta burua moztzen zion hurrengo goizean. Eta patxada ederrean egiten zuen gainera, arrautzak eskatzen arituko balitz bezalaxe. «Ekar ezazue Nell Gwynn», esaten zuen. Eramaten zuten bere aurrera. Hurrengo goizean, «Moztu iezaiozue burua! Eta moztu egiten zioten. «Ekar ezazue Jane Shore» esaten zuen eta han azaltzen zen. Hurrengo goizean «Moztu iezaiozue burua!»...eta moztu egiten zioten. «Dei egin Rosanum Ederrari». Rosanum Ederrak txirrinari erantzuten zion. Hurrengo goizean «Moztu iezaiozue burua». Denak gauero ipuin bat kontatzera behartzen zituen; eta halaxe egin zuen mila eta bat ipuin bildu zituen arte, eta gero liburu batean jarri zituen, eta Domesday izena jarri zion, gauzak garbi azaltzeko izen aproposa zuelarik. Zuk ez dituzu erregeak eza gutzen, Jim, baina nik bai; eta geure birigarro

hau historian topatu dudan garbienetakoa da. Hara, Henryri buruan sartzen zaio bere herriari istiluak sortu nahi dizkiola. Nola jokatzeko du? Ezer esaten al du? Ezer adierazten al dio herriari? Ez. Halako batean Bostoneko kaian te guztia ontzi gaintetik botatzen du, independentzi aldarrikapena bota, eta jendea zirikatzen du aurka egin ziezaion. Halakoxea zen, ez zion inori aukerarik ematen. Wellington dukea zen bere aitaren susmo txarrak hartu zituen. Eta, zer egin zuen? Gauzak argitzeko eskatu? Ez... ardo gozoz betetako upel batean ito zuen, katua balitz bezalaxe. Jo dezagun jendeak bera zebilen inguruan dirua uzten duela ahaztuta... zer egingo luke? Harra-patu. Jo dezagun zerbait egiteko hitz eman, eta dirua jasota zuela, eta ez zuela inguruan inor zertan ari zen begira... zer egingo luke? Kontra-koa beti. Jo dezagun ahoa irekitzen zuela... eta orduan zer? Ez baldin bazuen berehalakoan ixten, gezurra botako zuen, aldi bakoitzean. Tankera horretakoa zen Henry hori; eta hori gurekin izan bagenu etxeko erregeen orde, geurek baino askoz okerrago jokatuko zukeen herri horrekin. Ez dut esan nahi gureak ardi otzanak

direnik, ez baitira, gauzak hotzean begiratuta, baina, dena dela, hutsa dira aker zahar horren ondoan. Nik esaten dudana zera da, erregeak erregeak dira, eta barkatu egin behar zaie. Gauzak diren bezala hartuta, lapur gaizto galantak ditugu. Hala hezi dituzte eta.

— Baina gure honi kiratsa dario ez dakit zer baino, Huck.

— Besteei bezala, Jim. Ezin dugu erregearen kiratsa aldatu; historiak ez digu konponbiderik ematen.

— Baina dukea, eramangarriagoa da gauza batzuetan.

— Bai dukeak desberdinak izaten dira. Baina oso desberdinak ere ez. Gurea erdizka da lapur gaiztoa. Mozkortzen denean, begi-lauso batek ez luke errege batetik bereiziko.

— Dena dela, ez dut errege gehiagorik nahi, Huck. Horiek dira eraman ditzakedan guztiak.

— Ni ere zu bezala nago, Jim. Baina gure ardurapean ditugu, eta zer diren gogoan hartu behar dugu, eta beraiekin bihozberak izan. Batzuetan erregerik ez duen lurralde baten berri izan nahiko nuke.

Zertarako esango nion Jimi horiek ez zirela benetako errege eta dukeak? Ez nuen ezer atetarako; eta gainera, halaxe zen; ezingo zenituzke benetakoengandik bereizi.

Lotara joan nintzen, eta Jimiek ez ninduen esnatu txanda egiteko garaian. Askotan egiten zuen hori. Esnatu nintzenean, egunsentiarekin batera, eserita zegoen burua belaunen artean sartuta, eta negar zotinka eta hasperenka ari zen. Ez nion arretarik jarri, ez ezer adierazi. Banekien zer gertatzen zitzaion. Iparraldean utzitako emaztea eta haurrak zituen gogoan, eta goibel eta itzul-minez zegoen; ez zuen inoiz etxetik alde egin eta ordura arte bizitza osoan; eta uste dut bere etxekoez zuriak egiten duten adina kezkatzen zela. Ez dirudi horrela behar duenik, baina horrela dela uste dut. Askotan aritzen zen negar zotinka eta hasperenka, gauez, iruditzen zitzaionean lotan nintzela, eta esaten zuen «Elisabeth txiki gaixoa! Johnny gizajoa! Gogorra da; uste dut ez zaituztedala berriz ikusiko, inoiz ez!» Jim oso beltz ona zen, bai horixe.

Baina orduan, ez dakit nola, baina hizketan hasi nintzen berarekin emazteaz eta hurrez; eta handik tarte batera esan zuen:

— Oraingoan mindu nauena zera da, han urrutian ibai bazterrean danbateko edo ate-danbada antzeko zerbait entzun dudala duela gutxi, eta gogora etorri zait Elizabeth nire alabatxo gogor erabili nuen unea. Lau urte edo izango zituen, eta elgorriak jo eta gaixotu egin zen, eta oso bolara txarra pasa zuen; baina sendatu zen, eta egun batean han inguruan zebilen eta orduan nik esan nion: «Itxi atea!» Ez zuen atea itxi; han geratu zen gora begira irribarre eginez. Nire onetik atera ninduen. Berriz esan nion ahots ozenean: «Ez al didazu entzun? Itxi ate hori esan dut!» Mugitu gabe gelditu zen, gora begira irribarrez. Su eta gar nengoen. Esan nion: «Erakutsiko dizut nik aginduak betetzen!» Eta orduan zapla eman nion buruan eta lurrera bota nuen. Gero beste gelara joan, eta hamar minutu edo egin nituen han. Itzuli nintzenean, atea zabalik zegoen oraindik, eta haurra zutik ate ondoan negar zotinka lurrera begira, malkoak masailetan behera zerizkiola. Ene, suak hartuta nengo-

en, umearen bila nindoan, baina une hartan, barrurantz irekitzen diren ate horietakoa zen, eta orduantxe, haize bolada sartu eta danba! itxi zuen umearen atzean. Haurra ez zen ezertxo ere mugitu. Ia arnasa galdu nuen; eta borren... horren... ez dakit nola jarri nintzen. Dardarka atera nintzen, hurbildu eta atea ireki nuen poliki eta kontuz, eta burua jarri nuen umearen atzean, isil isilik, eta halako batean, danba! esan nuen ahal nuen garrasi handiena eginez: Ez zen mugitu! Ene, Huck, negarrez hasi nintzen eta besotan hartu nuen, eta esan nuen: «Ume gaixoa! Jaungoiko Ahaltsuak barka diezaiola Jim gizajoari, berak ez dio bizitza osoan bere buruari barkatuko eta!» Ene, gormutua zegoen erabat, Huck, erabat gormutua... eta nik horren gaizki erabili nuen.

Hogeita laugarren atala

Hurrengo egunean, iluntze aldera, ibai erdian zegoen hondar pila bateko sahats baten azpian lotu genuen ontzia, ibai bazterrak alde bakoitzean herri bat zuelarik. Dukea eta erregea herri horietan jarduteko plana hasi ziren eratzen. Jim dukeari zuzendu zitzaion, eta esan zion espero zuela ordu batzuk besterik ez zituztela beharko, gogorra eta aspergarria egiten baitzitzaion egun osoa kanpadenda barruan sokaz lotuta egon beharra. Badakizu, bakarrik uzten genuenean lotu egin behar izaten genuen, izan ere, norbaitek lotu gabe aurkitzen bazuen, ez zion beltz iheslariaren itxurarik ikusiko. Dukeak esan zuen neketsua zela egun osoa lotutik egon beharra, eta zerbait asmatuko zuela hori egin behar ez izateko.

Dukeak buru argia zuen oso, eta berehala zerbait bururatu zitzaion. Jimi Lear Erregearen arropak jantzi eta horrela mozorrotu zuen, alegia, gortinetarako perkalezko soineko luzea, eta zaldi zuriaren ilezko bizar eta ileordea. Gero

antzerkiko pintura hartu eta Jimen aurpegia, eskuak, belarriak eta lepoa ongi zabaldutako urdin kolore ilunez estali zizkion, bederatzi egun itota eman dituen gizon baten antzera. Haizeak naramala, hori ez baldin bazen inoiz ikusitako ikuskizunik ikaragarri eta asaldagarriena. Gero dukeak ohol txiki bat hatu eta honela idatzi zuen bertan:

Arabiarra gaixorik. Ez du ezer egiten bere onetik aterata ez dagoenean.

Eta ohol txikia langa batean iltzatu, zuen eta langa dendaren aurrean bi metrotara edo jarri zuen. Jim pozik zegoen. Esan zuen askoz hobea zela hori lotuta eta etzanda egon beharra baino egunero bi urte luzez, eta dardarka hastea baino hots bat entzuten zuen aldiro. Dukeak esan zion lasai eta patxadan egoteko, eta norbait inguruan zebilela sumatzen bazuen, kanpadendatik jauni egin eta ateratzeko, eta uluka jarduteko behin edo bitan animalia basati baten eran; eta hala uste zuela bakarrik utzi, eta alde egingo ziotela. Zentzuzko ideia zen hori, baina edozein gizon ez

litzateke haren uluen zain geratuko. Hark ez baitzuen hildakoaren itxura soilik, are itxura okerragoa zuen.

Alfer-handi horiek *Erregetasuna Berdingabea* nahi zuten berriz antzeztu, diru pila irabazi baitzuten, baina arriskutsuegia zela iruditu zitzaienten, beharbada ordurako berriak bertaraino iritsiak izan zitezkeelako. Ezin zuten erabat asetzen zituen planik asmatu, eta azkenean dukeak esan zuten joan egingo zela eta burmuinak ordubetez edo lanean jarriko zituela Arkansaseko jendearentzat zerbait presta zezakeen ikusteko. Erregeak adierazi zuten beste herrira joango zela bera, batere planik eramanez gabe, Goikoaren Probidentziak —deabruarenak esan nahi zuela, uste dut— bide zuzenetik eramango zuelako uste osoan. Denok jantzi berriak erosi genituen azken herrian; eta orduan erregeak bereak jantzi zituen, eta nireak jantzteko esan zidan. Hori egin nuen, noski. Erregearen jantziak beltz beltzak ziren, eta dotore eta tantaia zirudien benetan. Orduan konturatu nintzen erropek jendea nola alda zezaketen. Ordura arte zahar zital gaiztoena zirudien, baina orduan txistera berri zuria

kendu eta burua makurtzen zuenean, handiki, on eta santu itxura zuen, eta esango zenuke arkatik atera berria zela, eta Levitiko zahar berbera zela. Jimek kanoa garbitu, eta nik arrauna prestatu nuen. Bapore handia zegoen ibaian gora bazterrean loturik lurmuturra baino beheago, herrira iritsi baino hiru mila edo lehenago; ordu pare bat zeramatzan han, zamaketan. Esan zuen erregeak:

— Nire janzkera ikusirik, uste dut hobe izango dela St. Louis edo Cincinnati iritsi berria izatea, edo beste leku handi horietako batetik. Goazen baporerantz, Huckleberry; horko ontzi horretan iritsiko gara herrira.

Ez zidaten bi aldiz esan behar, bapore batera igotzeko asmoz aurrera egiteko. Herrira iritsi baino mila bat lehenago ibai bazterrera hurbildu nintzen, eta gero azkar-azkar joan ginen ibai bazter harritsuaren ondotik ur geldoetan barrena. Berehala topo egin genuen begirada atsegin eta inozoa zuen mendialdeko gazte batekin, egur baten gainean eserita aurpegiko izerdia lehortzen ari zelarik, izan ere, eguraldi beroa egi-

ten zuen oso; eta tapiz oihalezko bi poltsa zituen ondoan.

— Hurbildu branka lehorrerantz —esan zuen erregeak. Nik hori egin nuen—. Nora zoaz gazte?

— Baporera, Orleansera joateko.

— Igo ontzira —esan zuen erregeak—. Nire zerbitzariak lagunduko dizu poltsak igotzen. Jauzi egin eta lagundu jaun horri, Adolphus — hori niri esaten zidala zirudielarik.

Hala egin nuen, eta hirurok abiatu ginen berriz. Mutil gazteak eskerrak eman zizkigun benetan; esan zuen lan astuna zela ekipaiaren zama eraman behar izatea eguraldi bero hartan. Erregeari nora zihoan galdegin zion, eta erregeak erantzun zion ibaian behera zihoala beste herrian goizean bertan lehorreratzeko, baina lehenik mila batzuk gorantz zihoala han goiko etxalde bateko lagun zahar bat ikustera. Gazteak esan zuen:

— Hasieran ikusi zaitudanean, esan dut nire artean: «Wilks jauna izan behar du, ziur, eta ia garaiz iristeko zorian egon da.» Baina gero esan dut berriz: «Ez, ez da izango, bestela ez litzate-

ke ibaian gora arraun egiten arituko.» Ez zara bera izango, ezta?

— Ez, Blodgett dut izena, Elexander Blodgett, Elexander Blodgett apaiz jauna, uste dut esan beharko nukeela, Jaungoikoaren seme xumeetako bat naizenez gero, baina ni ere nahigabeturik nago Wilks jauna ez delako garaiz iritsi, atzerapenak zerbait egitea eragotzi badio..., gertatuko ez ahal da, baldinbait!

— Galdu, ez du ondasunik galdu, edozein modutara ere eskuratuko dituelako; baina Peter anaia hiltzen ikusteko aukera galdu du, eta horrek axola dion edo ez dion ezin du inork jakin, baina anaiak mundu honetako edozer gauza eman zukeen hil baino lehen hura ikusi ahal izateko; beste ezer ez du esan azken hiru aste hauetan. Mutil gazteak zirenez gero, ez dut uste elkar ikusi zutenik, eta William beste anaia ez dut uste inoiz ikusi zuenik, anaia gormutua da hori, eta Williamek ez ditu hogeita hamar edo hogeita hamabost urte baino gehiago izango. Peter eta George ziren ona etorri ziren anaia bakarrak. George ezkontuta zegoena zen, eta bera eta emaztea iaz hil ziren. Harvey eta

William besterik ez dira geratzen; eta, esan dizudan bezala ez dira garaiz iritsi.

— Inork dei egin al zien?

— Bai, noski; duela hilabete edo, Peter gaixotu zenean, Peterrek esan baitzuen iruditzen zitzaiola orduko hartan ez zela sendatuko. Bada-kizu, zahar xamarra zen, eta Georgen alabak gazteegiak ziren berarekin egoteko, Mary Jane kaska gorria alde batera utzita; beraz bakarrik geratu zen George bere emaztea hil ondoren, eta ez zirudien bizirik irauteak gehiegi axola zionik. Harvey ikusi nahi zuen beste ezer baino gehiago, eta dirudienez William baita ere, hilburukoa egitea eraman ezin duten horietakoa baitzen. Harveyentzat eskutitz bat utzi zuen, esan zuen bertan zioela dirua non gorde zuen, eta ondasunak nola banatu nahi zituen, Georgeren alabak behar zutena izan zezaten, Georgek ez baitzien ezer utzi. Eta eskutitz hori sinatzea izan zen harengandik lortu zuten gauza bakarra.

— Zergatik uste duzu ez dela Harvey etorri? Non bizi da?

— Ingalaterran bizi da, Sheffielden, predikaria da bertan, ez da inoiz herrialde honetan izan.

Denbora nahikoa ez du izan, eta agian ez du eskutitza oraindik jaso, badakizu.

— Hori pena, hori pena hil baino lehen anaiak ikusteko aukerarik ez izatea, gizajoa. Orleanse-rantz zoazela esan duzu, ezta?

— Bai, baina bidaiaren zati bat besterik ez da hori. Ontzi bat hartu eta datorren asteartean Rio de Janeirora noa, osaba han bizi da eta.

— Bidaia luze xamarra da, baina gustura egingo nuke nik. Mary Jane al da zaharrena? Zenbat urte dituzte besteek?

— Mary Janek hemeretzi, Susanek hamabost, eta Joannak hamalau edo, hori da jendeari laguntzeko ekintza onak egiten dituen, eta erbiezpaina duena.

— Gaisoak! Mundu gogor onetan bakarrik bizi beharra ere.

— Beno, okerragoa ere izan zitekeen. Peter zaharrak lagunak zituen, eta ahaleginak egingo dituzte kalterik jasan ez dezaten. Hay Hobson, predikari baptista, Lot Hovey diakonua, Ben Rucker, Abner Shackelford, eta Levi Bell abokatua dira; eta Robinson doktorea, eta horien emazteak, Bartley alarguna, eta... beno, asko dira;

baina horiek dira Peterren lagun minenak, eta horietaz idazten zuen, etxera bidaltzen zituen eskutizetan; beraz Harveyk jakingo du lagunak non bilatu herrira iristen denean.

Agureak galderak egin eta egin aurrera jo zuen gazteari ahal izan zuen guztia atera zion arte. Eta hark bai galdetu ziola herri bedeinkatu horretako jende eta gauza guztiei buruz, eta Wilkstarren berri; eta Peterren lanari buruz, larru-ontzailea zelarik lanbidez, eta Georgeri buruz, arotza beste hau, eta Harveyri buruz, apaiz disidentea berau, eta abar, eta abar. Gero esan zuen:

— Zergatik zoaz oinez itsasontziraino?

— Orleanseko bapore handia delako, eta beldur nintzelako ez zuela herrian geldituko. Oso beteta daudenean ez dute bidaiari batengatik gelditu nahi izaten. Cincinnatiko ontziek bai geldituko lukete, baina hori St. Louisekoa da.

— Peter Wilks aberatsa al zen?

— Bai, nahikoa aberatsa zen. Etxeak eta lurrak zituen, eta jendeak uste du hiru edo lau mila utzi dituela dirutan nonbait ezkutaturik.

— Noiz esan duzu hil zela?

— Ez dizut esan, baina bart gauean izan zen.

— Hiletak bihar izango dira ziur aski?

— Bai, eguerdi aldera.

— Bai, oso gogorra da, baina denok dugu noizbait joan beharra, lehenago edo beranduago. Eta gure eginbeharra da prestatuak egotea; orduan lasai egongo gara.

— Bai, jauna, horixe dugu modurik onena. Gure amak beti horixe esaten zuen.

Ontzira iritsi ginenean, zamaketa lana bukatzen ari zen, eta berehala atera zen. Erregeak ez zuen ezer esan ontziratzeaz, beraz bertaraino iritsi ondoren ibilaldia galdu nuen. Ontziak alde egin eta gero, erregeak beste mila bat arraun egin erazi ninduen gorantz leku lasai batera iritsi arte, gero lehorrera jauzi egin zuen eta esan zidan:

— Orain azkar joan, eta ekar ezazu dukea hona, eta tapiz oihalezko poltsa berriak ere bai. Eta beste aldeko ibai bazterrera joan baldin bada, bertara jo eta ekar ezazu hona. Eta esan nolana ere ongi jantzita etortzeko. Joan azkar.

Banekien zertan zebilen, baina ez nuen ezer esan, noski. Dukearekin itzuli nintzenean, kanoa

ezkutatu eta enbor baten gainean eseri ziren, eta erregeak mutilak esandako guztia errepikatu zion hari, kontaktaren hitz guzti guztiak. Eta esaten ari zitzaion bitartean, ingelesa balitz bezala hitz egiten ahalegindu zen; eta ongi egiten zuen gainera, hura zen alfer-handia izateko. Ezin dut haren tankeran hitz egin, eta ez dut ahaleginik ere egingo, baina benetan ederki egiten zuen. Gero esan zuen:

— Zer moduz egingo zenuke gormutuarena, Bilgewater?

Dukeak esan zion lasai egoteko; antzerki historikoetan gormutuarena egin zuela. Eta halaxe bapote baten zain geratu ziren.

Arratsalde erdian edo ontzi txiki pare bat igaro ziren, ez zetozen ordea ibaian beheara nahiko urrutitik, baina azkenean etorri zen handi bat, eta keinuak egin zizkioten gelditzeko. Iola bidali zuen, eta ontziratu ginen. Cincinnatikoa zen, eta konturatu zirenean lau edo bost mila besterik ez genituela egin nahi, su eta gar jarri ziren, birao egin zuten, eta ez gintuztela lehorrean utziko esan ziguten. Baina erregea lasai zegoen. Esan zuen:

— Jaun batzuek milako dolar bana ordain badezakete, iola batean ontziratu eta ontzi gainetik lehorreratuak izateko, baporeak eraman ahal izango ditu, ezta?

Horrela baretu ziren pixka bat eta baietz esan zuten; eta herrira iritsi ginenean, iolan eraman gintuzten ibai bazterrera. Dozena pare bat gizon bildu ziren iola hurbiltzen ikusi zutenean, eta erregeak esan zien:

— Zuetako norbaitek, jaunak, esango al liezadake non bizi den Peter Wilks jauna?

Batak besteri begiratu zion, eta baietz eginez mugitu zuten burua, esanez bezala, «Zer esaten nizun nik?» Gero horietako batek esan zuen, modu apal eta atseginean:

— Atsekabe dut esatea, jauna, baina esan diezazukegun gauza bakarra da non bizi zen atzo arratsa arte.

Halako batean konturatu orduko, izaki zahar zital hori zerraldo erori zen, eta gizon baten kontra erori; kokotsa sorbaldan jarri zion, eta bizkar gainean negar egin zuen, eta esan zuen:

— Oi, ene! Oi, ene! anaia gizajoa. Joan egin da, eta ezin ikusi izan dugu; oi, gogorregia da hau, gogorregia!

Orduan jira egin zuen, negar zotinka, eta eskuak erabiliz keinu tentel pila egin zizkion dukeari, eta, arraio, honek poltsa erortzen utzi eta negarrez lehertu zuen. Horiek bai zirela inoiz ikusitako marka guztiak hausten zituzten bi gezurtirik gaiztoenak.

Gizonak inguratu zitzaizkien, doluminak eman zizkieten, eta era guztietako gauza atseginak esan. Gizon horiek tapiz oihalezko poltsak eraman zituzten aldapan gora, eta gainean jarri eta negar egin zezaten utzi zieten. Erregeari anaiaren azken uneen berri zehatza eman zioten, eta erregeak eskuak erabiliz dena errepikatzen zion dukeari, eta biek larru-ontzailearengatik negar egiten aurrera egin zuten hamabi apostoluak galdu balituzte bezala. Inoiz halakorik ikusi badut, beltza naiz ni orduan. Hura nahikoa zen edonor giza arrazaz lotsa erazteko.

Hogeita bosgarren atala

Berria bi minututan zabaldu zen herri osoan, eta jendea korrika zetorrela ikus zitekeen, nonahitik, eta batzuek bidean berokiak janzten zituzten. Berehala jendetzaren erdian geratu ginen, eta oin zapalaldien hotsak soldaduen ibilaldia zirudien. Leiho eta atariak beteta zeuden; eta minuturo norbaitek esaten zuen hesi baten gainetik:

— Etorri al dira?

Eta taldean korrika zihoan batek erantzun eta esaten zion:

— Bai horixe.

Etxera iritsi ginenean, aurreko kalea jendez beteta zegoen, eta hiru neskak ate ondoan zutik zeuden. Mary ile gorria zen, baina horrek ez zuen garrantzirik, oso polita zen, eta haren aurpegi eta begiek aintzaren distira zuten. Oso pozik zegoen osabak iritsi zirelako. Erregeak besoak zabaldu zituen, eta Mary Jane presaka hurbildu zitzaion, eta erbiezpaina zuenak dukearengana jauzi egin zuen, eta han elkartu ziren! Ia jende

guztiak, batez ere emakumezkoek, azkenean elkartu zirela eta halako gustura zeudela ikustearen pozaz negar egin zuten.

Gero erregeak dukeari bultzatzen zion, ezkutuak, —nik ikusi nuen, bai— eta gero inguruan begiratu eta hilkutxa ikusi zuen, bazter batean bi aulkien gainean. Orduan dukea eta biak, eskua bata bestearen bizkarrean jarrita, eta beste eskuak begietan zituztelarik, poliki eta ospetsuen eran hurbildu egin ziren. Jendeak atzera egiten zuen lekua uzteko, eta hizketa eta hots guztiak isildu ziren. Jendeak Xoo! esaten zuen eta gizonezkoek sonbreiruak kendu eta burua makurtzen zuten, eta orratz bat lurrera erortzen ere entzun zitekeen. Hilkutxa ondora iritsi zirenean, haren ondoan makurtu eta barrurantz begiratu zuten, begiratu azkarra eman ziguten, eta negarrez plust hasi ziren, horien algarak Orleansetik ere entzun zitezkeelarik; eta gero besoak bata bestearen lepo inguruan jarri zituzten, eta kokotsak bata bestearen bizkar gainean; eta hiru edo beharbada lau minututan, inoiz bi gizon negarrez ikusi ez nituen bezala malkoak zeriela ikusi nituen. Eta egia esan, denek gauza

bera egin zuten, eta lekua hezea geratu zen nik inoiz ikusi ez dudan bezala. Orduan horietako bat hilkutxaren alde batean jarri zen, eta bestea beste aldean, eta belaunikatu eta kopetak hilkutxaren gainean jarri zituzten, eta beren buruarrentzat errezatzen arituko balira bezala itxura egin zuten. Hori egin zutenean, jendea bereganatu zuten ez sinesteko moduan, eta ezin izan zioten eutsi eta negar zotinka hasi ziren ozen ozenki, neska gaixoak ere bai; eta emakumeak bana banan, hurbiltzen zitzaien neskei, hitzik esan gabe, eta musa ematen zieten poliki-poliki, eta gero eskua buruan jarri, eta gorantz begiratzten zuten zerura, malkoak aurpegian behera irrist eginez, eta gero negarrez hasi eta zotinka alde egiten zuten aurpegia igurtziz, eta hurrengo emakumeari txanda uzten zioten. Ez dut inoiz gauza gogaikarriagorik ikusi.

Geroxeago erregea zutitu, eta aurrerantz etorri zen pixka bat, berotu egin zen eta lerdea zeriola hitzaldia bota zuen, negar malkoz beteta eta tontakeriak esan eta esan; berak eta anaiak hildakoa galdu eta jasan behar izan zuten froga gogor horretaz, eta hildakoa —*eri datzana* esa-

ten zuen erregeak— bizirik ikusteko aukerarik izan ez zutela, lau milatako bidaia egin ondoren, baina auzi hori eztitu eta santu bilakatzen zela erruki zintzo eta malko santu haiekin, eta horregatik eskerrak eman zizkien bere eta anaiaren bihotz barnetik, ahotik ezin baitzuen, hitzak ahulak eta hotzegiak baitziren, eta antzeko tontakeria eta samurkeriak, egoera ia gaixorik jartzeko modukoa egin zen arte; eta gero negar malkoen artean on itxurako Amen errukiorra esan zuen, eta berriro negarrari ekin zion ia lehertu arte.

Eta hitz horiek ahotik atera orduko jende arteko norbait doxologia abesten hasi zen, eta denak elkartu zitzaizkion indar guztiz. Horrek indartu egiten zintuen eta elizatik ateratzean bezain ongi senti erazten. Gauza ona da musika; eta horrenbesteko gurin izpirituala eta zikinkeria guzti horien atzetik, ez nuen inoiz ikusi musika horrelako freskotasuna sortzeko gai zenik, eta horren hots zintzo eta aparta zuenik.

Gero erregeak berriro eragin zion masail hezurrari, eta esan zuen bera eta ilobak poztu egingo zirela etxeko lagun handienak gau horretan beraiekin afaritara geratuko balira, hildakoa-

ren errautsei bela egiteko. Esan zuen han zetzan anaia gizajoak hitz egin ahal izango balu, baze-kiela zein izen esango zituen, oso izen maiteak zituelako, eta eskutizetan askotan aipatzen zituelako; eta horiexek aipatuko zituela berak, alegia, ondorengo horiek: Hobson jaun apaiza, Lot Hovey diakonoa, Ben Rucker jauna, Abner Shackelford, Levi Bell, eta Robinson doktorea, beraien emazteak, eta Bartley alarguna.

Hobson jaun apaiza eta Robinson doktorea herniaren beste muturrean zeuden, elkarrekin ehizan; alegia, doktorea gizon gaixo bat beste mundura bidaltzen ari zen, eta predikariak nondik joan behar zuen esaten zion. Bell abokatua Louisvillera joana zen traturen bat egitera. Baina gainontzekoak aurrean zeuzkan, eta erregearen-gana hurbildu, eta eskua eman zioten, eta esker-rak eman eta harekin hitz egin ere bai; ondoren dukeari eman zioten eskua, eta ez zioten ezer esan, irribarrez begiratu eta buruari eragin bes-terik ez babalore pilo baten antzera, besteak eskuak mugitu eta horien bidez keinuak egiten zituen bitartean, denbora guztian

«Taa..ta..ta..ta..» esanez, hitz egiten ez dakien haurrak egiten duen bezala.

Erregeak aurrera egin zuen tontakeriak esan eta esan, eta herriko guztiengatik galdegitea lortu zuen, baita zakurrengatik ere, beren ize-nez, eta garai batean edo bestean herrian, edo Georgeren familiari, edo Peterri gertatutako era guztietako gertakizun txikiak aipatu zituen; eta beti adierazten zuen Peterrek idatzitakoak zirela, baina hori gezurra zen; gauza guzti horiek baporeraino kanoan eraman genuen gazte txoriburu harengandik atera zituen.

Orduan Mary Janek aitak utzitako eskutitza ekarri zion, eta erregeak irakurri eta haren gainean negar egin zuen. Etxea eta hiru mila dolar urretan uzten zituen neskontzat; eta larru-apaindegia (lantegi bikaina zelarik), beste etxe eta lurrekin batera (zazpi mila edo balio zutelarik), eta hiru mila dolar urretan Harvey eta Williamentzat, eta esku dirutan utzitako sei mila horiek sotoan non zeuden ezkutaturik esaten zuen. Iru-zurtzaileek esan zuten jaitsi eta dirua ekarriko zutela; gauza guztiak zuzen eta garbi egingo zituztela, eta kandela bat hartu eta beraiekin

joateko esan zidaten. Sotoan sartu ondoren atea itxi genuen, eta zorroa ikusi zutenean dirua lurrera bota eta hustu egin zuten. Ikuskizun ederra zen ale hori guzti horiek ikustea. Ene, nolako distira zuten erregearen begiek! Dukeari bizkarrean zapla-zapla eman zion, eta esan zuen:

— Ez omen zen aparta, ez eta ezer ere! Ez, ez, ez dut uste! Bada, Billy, honek *Erregetasun Berdingabeari* jo eta pasa egiten dio, ez al da hala?

Dukeak baietz adierazi zuen. Txanpon ale horiak eskuka erabili zituzten, eta hatz tartean irristatzen utzi eta txintxin eginez lurrera bota zituzten; eta erregeak esan zuen:

— Ez dugu zertan eztabaidan ibili beharrik; hildako gizon aberats baten anaiak izanik, eta utzi dituen oinordekoen atzerriko ordezkariak, zure eta nire lanbidea dugu, Bilge. Honako hau Goikoaren Probidentzian sinesteagatik etorri zaigu. Hori da biderik onena, epe luzean. Bide asko ezagutu ditut, baina ez da hori baino hobetik.

Gehientzat nahikoa izango litzateke diru pila ikustea, eta itsu-itsuan onartuko lukete;

baina ez, horiek zenbatu egin behar zuten. Zenbatu, eta laurehun eta berrogeita hamar dolar falta zirela ikusi zuten. Esan zuen erregeak:

— Agure madarikatua, zer egingo ote zuen laurehun eta berrogeita hamar dolar horiekin?

Pixka batean kezkatuak ibili ziren horrengatik, eta bazter guztiak arakatu zituzten diruaren bila. Gero esan zuen dukeak:

— Gaixorik zegoen gizona izanik, ez da harritzekoa akatsik egin izana... hori gertatuko zitzaizkizula uste dut. Onena izango da dagoen horretan utzi, eta ezer ez esatea. Hori gabe ere ibil gaitezke.

— Oi, demontre, bai, ibil gaitezke. Horrek ez nau kezkatzen... kontuan ari naiz pentsatzen. Zuzen, bidezko eta garbi azaldu behar dugu hemen, zera. Diru hau gora eramane behar dugu eta denen aurrean zenbatu, gauza susmagarriak izan ez dadin. Eta hildakoak esaten badu sei mila dolar daudela, jakina, ez dugu nahi...

— Egon pixka bat —esan zuen dukeak—. Defizita ordain dezagun —eta poltsikotik txanponak ateratzen hasi zen.

— Burutapen aparta izan duzu, duke. Buru argia duzu —esan zuen erregeak—. Arraioa *Berdingabeak* ez badigu berriro laguntza eman — eta txanpon horiak atera eta pilatzen hasi zen.

la xentimorik gabe geratu ziren, baina sei mila garbi-garbi bildu zituzten.

— Aizu —esan zuen dukeak—, beste zerbait bururatu zait. Goazen gora eta zenbatu dezagun dirua, eta gero hartu eta neskei eman diezaiegun.

— Ene Jainkoa, duke, utz iezadazu besarkatzen! Gizon bati inoiz bururatu zaion ideiarik liluragarriena izan duzu. Inoiz ikusi dudan bururik harrigarriena duzu benetan. Ene, trikimailu aparta da, ez du inolako akatsik. Susmo txarrak har ditzatela orain nahi badute... honek utziko ditu lur jota, honek.

Gora joan ginenean, denak mahai inguruan bildurik zeuden, eta erregeak dirua zenbatu eta pilaturik jarri zuen, hirurehun dolar pilako, hogeit hamar pilatxo dotore. Denak goseturik begira geratu ziren, eta ezpainak miazkatu zituzten. Gero zorroan sartu zituzten berriz, eta erregea harro-

harro puzten ikusi nuen beste hitzaldia botatze-ko. Esan zuen:

— Lagunok, hor datzan nire anaia gizajoa, eskuzabala izan da hemen, negar-ibarrean utzi gaituenokin. Eskuzabala izan da horiekin, ardi txiki gaixo horiekin, maite eta zaindu izan dituen ardi txiki gaixo horiekin, aitazurtz eta amazurtz geratu diren horiekin. Bai, eta ezagutu genuenok, badakigu eskuzabalagoa izango zela horiekin, bere William maiteari eta niri min emateko beldurrik izan ez balu. Ez al da hala? Ez dut zalantzarik batere nire baitan. Eta, orduan, zer nolako anaiak lirateke bidean oztopo egingo lieketenak honelako une batean? Eta zer nolako osabak izango lirateke ardi otzan gaixo horiei lapurtu, bai, lapurtu, egingo lieketenak honelako une batean? William ezagutzen badut, eta ezagutzen dudala uste dut,... berak... baina, galdetu egingo diot —jira egin zuen, eta eskuak mugitu eta dukeari keinu pila egiten hasi zitzaion; eta dukea hari begira geratu zen tenteldurik eta txepeldurik, gero halako batean bazirudien ulertu zuela esan nahi ziona, eta erregearen ondora jauzi egin zuen, taa..ta..ta.. esanez pozaren

pozez eta indar guztiz. Hamabost aldiz besarkatuko zuen gutxienez askatu baino lehen—. Gero erregeak esan zuen: «Banekien; uste dut horrek garbi utziko duela edonorentzat zer pentsatzen zuen horretaz. Hona hemen, Mary Jane, Susan, Joanna, har ezazue dirua, har ezazue guztia. Hor, hotza baina pozik, datzanaren oparia duzue.

Mary Jane erregearengana hurbildu zen, Susan eta *erbiezpaina* dukearengana, eta orduan inoiz ikusi ez ditudan besarkada eta musuak izan ziren. Eta denak hurbildu zitzaizkien malkoak begietan, eta gehienek eskua eman zieten iruzurtzaileei, eten gabe esaten zutelarik:

— Zuek zarete, zuek, arima zintzoak! Bai gauza ederra dela! Nola egin dezakezue!

Gero, handik tarte txiki batera han zeudenek berriro ekin zioten hildakoari buruz hitz egitera, ona tela benetan, nolako galera izan zen, eta guzti hori; eta geroxeago bidea egin eta masail hezur burdin antzekoak zituen gizon handi bat sartu zen, eta entzuten eta begira geratu zen, ezer esan gabe; eta era berean berari ere inork ez zion ezer esan, erregea hizketan ari baitzen

eta denak arretaz ari baitziren entzuten. Erregea lehenago hasitako beste zerbaiten erdi erdian ari zen:

— ...horiek izan dira *eri datzanaren* lagunik minenak. Horregatik gonbidatu ditugu gaur gauean; baina bihar denak etortzea nahi dugu, jende guztia; jende guztiari begirunea zion hark eta, jende guztia maite zuen, eta horregatik on deritzogu bere *hileta orgiak* jendaurrean egiteari.

Eta aurrera egin zuen zerura begira eta gauzak asmatzen, gustura bere buruari hizketan entzunez, eta behin eta berriz ateratzen zuen *hileta orgiena*, dukeak azkenean gehiago jasan ezin izan zuen arte; orduan paper puska batean idatzi zion, «Elizkizunak, zoro alaena», tolestatu eta taa..taa esanez hurbildu zitzaion eta papera jendearen buruen gainetik eman zion. Erregeak irakurri, eta poltsikoan sartu zuen, eta esan zuen:

— William gizajoa, bera gaixorik dagoen bezala egonda ere, bihotza osasuntsua du. Eskatzen dit hiletetara denak gonbidatzea, ...nik denei ongietorria ematea nahi du. Baina ez du

zertan kezkatu beharrik... horretan ari nintzen, hain zuzen ere.

Gero zeharka-meharka ibili zen, lasaitasun osoz, eta hitzetik hortzera hasi zen berriz *hileta orgiak* aipatzen, lehenago egin zuen bezalaxe. Eta hirugarren aldiz egin zuenean, esan zuen:

— *Orgiak* esan dut, ez hitz arrunta delako, ez baita hala, elizkizunak da izen arrunta, hitz zuzena delako baizik. Elizkizunak ez da jadanik Ingalaterran erabiltzen, modan ez dago. Ingalaterran orain orgiak esaten dugu. *Orgiak* esatea hobe da, esan nahi duzuna zehatzago esaten baitu. Grekerako *orgo* hitzetik dator, eta kanpoa, irekia, zabalik esan nahi du; eta *jeesum* hebreerako hitzetik, landatu, estali; alegia, lurperatu. Beraz, ikusten duzue, hilera orgiak hileta ireki edo jendaurrekoak dira.

Ez dut gizon hori baino okerragorik inoiz topatu. Burdin antzeko masail hezurak zituen gizonak barre egin zion aurrez aurre. Denak harriturik zeuden. Denek zioten: «Baina, doktore!» eta Abner Shackelfordek esan zuen:

— Baina, Robinson, ez al duzu berririk izan? Harvey Wilks dago—:

Erregeak lehiatsu irribarre egin zuen, eta atzaparra luzatu zion, eta esan zuen:

— Gure anaia gizajoaren lagun on era medikua al zara? Ni...

— Ken itzazu esku horiek gainetik! —esan zuen doktoreak—. Ingelesak bezala hitz egiten duzu zuk, ezta? Inoiz entzun dudan imitaziorik okerrena da zurea. Peter Wilksen anaia zu? Lapur galanta, horixe zara zu!

Orduan bai haserretu zirela denak! Medikua-
ren inguruan bildu ziren, eta isil erazi nahi zuten,
eta azaldu, eta esan nahi zioten Harveyk mila
modutara garbi utzi zuela Harvey zela, eta
denak izenez ezagutzen zituela, baita zakurre-
nak ere, eta erregutu zioten behin eta berriz Har-
veyren eta neska gaixoen bihotza ez mintzeko,
eta abar; baina alferrik aritu ziren, su eta gar
aurrera egin zuen, eta esan zuen ingelesa zela
sinets erazi nahi zuen edonork, ez bazion hizke-
raren antza hark egiten zuena baino hobe ema-
ten, gezurti eta iruzurtzailea besterik ez zela.
Neska gaixoak erregearen besotik zintzilik zeu-
den eta negarrez ari ziren; eta halako batean
doktorea beraiei zuzendu zitzaien. Esan zuen:

— Zuen aitaren laguna nintzen, eta zuen laguna naiz; eta lagunek, eta lagun zintzoek, egiten duten bezala aholku emango dizuet, kalte eta arazoetan ez nahasteko zaindu nahi zaituztedalako; lotsagaldu hori alde batera utzi, eta ez nahastu ezertarako berarekin, alfer-handi eskola-gabe horrekin, berak esaten duen bezala greziera eta hebreera txatxu horiekin. Iruzurtzaile traketsenetakoa da, hemen azaldu da nonbaitek jasotako izen eta gauza zentzugabe pila ekarrita, eta zuek frogak direla diozue, eta honako lagun zoro hauek, bide zuzena zein den jakin beharko luketelarik, gezurrak sinets erazten laguntzen dizuete. Mary Jane Wilks, badakizu laguna nauzula, eta lagun berekoia ez dena gainera. Orain entzun iezadazu ongi; bidal ezazu hemendik zital penagarri hori... mesedez eskatzen dizut hori egin dezazun. Egingo al duzu?

Mary Jane tente jarri zen, eta, ene, bai edema zela! Esan zuen:

— Hemen duzu nire erantzuna —diruaren zorroa altxa eta erregearen eskutan jarri zuen, eta esan zuen—: har itzazu sei mila dolar hauek eta erabil itzazu nire eta nire ahizpen izenean

zeuk nahi duzun moduan, eta horren ordainagirik ez eman.

Gero besoa jarri zion erregeari inguruan haren aldamentetik, eta Susan eta *erbiezpainak* gauza bera egin zuten beste aldetik. Denek txalo egin zuten eta ekaitza balitz bezala lurrean danba-danba oinei eragin zieten, erregeak burua tente jarri eta harro-harro irribarre egiten zuen bitartean. Doktoreak esan zuen:

— Ederki, nik eskuak garbi ditut arazo honetan. Baina aditzera ematen dizuet etorriko dela garaia, eta orduan gaixotu egingo zaretela gaurko honetan pentsatuko duzuen bakoitzean —eta joan egin zen.

— Ederki, doktore —esan zuen erregeak, adarra jo nahiko balio bezala—, zure bila joango gara sendatu ahal izateko —horrek barre egin erazi zien guztiei, eta esan zuten primerako ateraldia izan zuela.

Hogeita seigarren atala

Denek alde egin zutenean erregeak Mary Janeri galdegin zion gonbidatuentzat gelarik ba ote zuen, eta neskak bazuela bat erantzun zion; osaba Williamentzat izan zitekeela hori, eta bere gela osaba Harveyri utziko ziola, eta bestea baino handixeagoa zela; bera ahizpen gelara joango zela, eta oharka batean egingo zuela lo; ganbaran beste gelatxo bat zuten bertan lastairra bat zuelarik. Erregeak esan zuen gelatxoa nahikoa izango zela bere zerbitzariarentzat, niretzat, alegia.

Mary Janek gora lagundu zigun, eta haiei gelak erakutsi zizkien, apaindurarik gabeak baina politak zirelarik. Neskak Harvey osabari esan zion soinekoak eta beste gauzak gelatik aterako zituela oztopo egiten bazioten, baina hark ezetz esan zuen. Soinekoak horman bata bestearen ondoan zintzilik zeuden, lurreraino zintzilikatzen zuen perkalezko gortina aurrean zutelarik. Gelaren bazter batean larruzko maleta zahar bat zegoen, eta gitarra kutxa bestean, eta

txitxiri-bitxiri eta era guztietako bitxiak nonahi, neskek gelak alaitzeko erabiltzen dituztenak bezalakoak. Erregeak esan zuen apaingarriek gelan giro atseginagoa eta etxeagoa sortarazten zutela, eta zeuden lekuan uzteko. Dukearen gela txiki xamarra zen, baina nahikoa berarentzat, eta nire gelatxoak ere bai niretzat.

Gau horretan afari galanta izan zuten, eta gizon eta emakume guztiak bertan ziren. Ni erregearen eta dukearen aulkien atzean zutik geratu nintzen horiei zerbitzatzeko, eta beltzek gainontzekoei zerbitzatzeko zieten. Mary Jane mahaiburu zegoen, Susan aldamenean zuelarik, eta hura esaten aritu zen, ogiak txarrak zeudela, eta gatzunetan jarritakoa ere bai; oilasko frijitua gogorra eta lehorra zegoela... eta emakumezkoek lausenguak entzuteko esaten dituzten tontakeria guzti horiek, eta jende guztiak zekien dena oso ona zegoela, eta honela zioten: «Nola ateratzen zaizkizu ogiak kolore gorri-beltz dotore horrekin?» eta «Non demontretik ateratzen dituzu gatzune saltsa zoragarri horiek? eta, badakizu, afaritan jendeak erabiltzen duen zurikeriazko berriketa guzti hori.

Eta afaria bukatu zutenean, *erbiezpaina* eta biok sukaldean afaldu genuen besteek utzitakoa, beste ahizpek beltzei gauzak jasotzen laguntzen zieten bitartean. *Erbiezpaina* Ingalaterrako berriak atera nahian zirikatzen hasi zitzaidan, eta, arraioa, bai leku irristakorrean ibil erazi ninduela zenbaitetan. Esan zuen:

— Inoiz ikusi al duzu erregea?

— Zein errege? William laugarrena? Ez nuen ikusiko bada... gure elizara joaten da —banekien urteak zirela hura hil zela, baina ez nuen ezer esan. Gure elizara joaten zela adierazi nionean, hark esan zuen:

— Zer... beti?

— Bai... beti. Bere aulkia gurearen pare parean dago... pulpituaren beste aldean.

— Londonen bizi zela uste nuen.

— Bai han bizi da. Non bizi izango zen bada?

— Baina ez al zineten zuek Sheffielden bizi?

Hantxe harrapatu ninduela iruditu zitzaidan. Oilaskoaren hezurra kontrako eztarrira joan zitzaidala itxura egin behar izan nuen, handik nola atera pentsatzeko denbora izan nezan. Orduan esan nuen:

— Esan nahi nuen gure elizara joaten dela beti Sheffielden denean. Uda garaian izaten da hori, itsasoko bainuak hartzera etortzen denean.

— Baina, zer diozu... Sheffield ez dago itsaso ondoan.

— Nork esan du halakorik?

— Zeuk esan duzu.

— Ez dut hori esan.

— Esan duzu.

— Ezetz.

— Baietz.

— Ez dut horrelakorik esan.

— Zer esan duzu orduan?

— Esan dut itsaso bainuak hartzera etortzen dela... horixe da esan dudana.

— Hori bada! Eta nola hartuko ditu itsasoko bainuak itsaso ondora joan gabe?

— Begira —esan nuen—, inoiz ikusi al duzu Congress urik?

— Bai.

— Eta Congressera joan behar al duzu horren bila?

— Ez, noski.

— Bada, William laugarrenak ere ez du itsasora joan beharrik itsas bainuak hartzeko.

— Nola hartzen ditu orduan?

— Hemen inguruko jendeak Congresseko ura hartzen duen bezala..., upeletan. Han Sheffieldeko jauregian labeak dituzte, eta hark ur beroa nahi izaten du. Ezingo lukete horrelako ur pila han urrutian itsasoan berotu. Horretarako tresnarik ez dute.

— Orain ulertzen dut. Hasieran hori esan eta denbora aurreratu zenukeen.

— Hori esan zuenean larrialditik kanpo ikusi nuen berriz neure burua, eta lasai eta gustura geratu nintzen. Ondoren, esan zuen:

— Zu ere Elizara joaten al zara?

— Bai... beti.

— Non duzu eserlekua?

— Non izango dut ba... geure aulkian.

— Noren aulkian?

— Gurean bada..., osaba Harveyenean.

— Berean? Zertarako nahi du hark aulkia?

— Gainean esertzeko. Zertarako uste zenuen beharko zuela?

— Pulpituan izango zela uste nuen.

Deabruak zeramala agurea! Predikaria zela ahaztu nuen. Berriro ere harrapatu ninduela konturatu nintzen, eta beste hezurra erabili nuen bitartean zerbait pentsatzeko. Gero esan nuen:

— Arraiopola, ez duzu uste izango eliza bakoitzean predikari bat besterik ez denik?

— Zertarako behar dituzte gainontzekoak?

— Zertarako? ...erregearen aurrean hitz egiteko. Ez dut inoiz zu bezalako neskarik ikusi. Hamazazpitik gora dituzte.

— Hamazazpi! Ene! Bada, nik ez nioke horrelako txirikorda luzeari entzungo, ezta horregatik aintza iritsiko ez banu ere. Astebete beharko dute.

— Bai ta zera ere! Ez dute denek egun berean hitz egiten.... Batek besterik ez.

— Eta, zer egiten dute gainontzekoek?

— Oi, gauza askorik ez. Inguruan ibili, erretilua pasa..., eta antzeko gauzak. Baina bestela ez dute ezer egiten.

— Orduan zertarako daude?

— Itxura egiteko. Ez al dakizu ezer?

— Ez ditut lelokeria horiek jakin nahi. Ondo hartzen al dituzte zerbitzariak Ingalaterran? Guk

beltzak hartzen ditugun baino modu hobean hartzen al dituzte?

— Ez! Zerbitzaria han ez da inor. Zakurrak baino okerrago erabiltzen dituzte.

— Ez al dituzte jai egunik izaten, gure beltzek, Gabonetako eta Urteberriko astean, eta Uztailaren lauan izaten duten bezala?

— Entzun ongi! Ezagun duzu ez zarela inoiz Ingalaterran izan. Begira *erbiez...*, begira Joanna, haiek ez dute urte hasieratik amaierara jai bakarrik ikusten; ez dira inoiz ez zirkora ez antzerkira joaten, ez beltzen emanaldietara, ez inora.

— Eta elizara?

— Ezta ere.

— Baina *zu* beti joaten zara elizara.

Berriro hanka sartu nuen. Agurearen zerbitzaria nintzela ahaztu nuen. Baina berehalakoan azalpen moduko batean murgildu nintzen: norbaiten laguntzaile eta zerbitzari arrunta izatea ez zela gauza bera, eta hark elizara joan beharra zuela nahi bazuen eta ez bazuen, eta familiaren ondoan eseri behar zuela, legeak gainera hala agintzen zuelako. Baina ez nuen nonbait oso

ongi adierazi, eta amaitu nuenean konturatu nintzen nik esandakoak ez zuela ase. Esan zuen:

— Indio hitza eman iezadazu ez didazula gezur pila esan?

— Indio hitza —esan nuen.

— Gezur bakar bat ere ez?

— Bat ere ez. Ez dizut gezurrik esan —esan nuen.

— Jar ezazu eskua liburu honen gainean eta esan ezazu.

Ikusi nuen hiztegi bat besterik ez zela, eta eskua gainean jarri eta esan nuen. Orduan lasai-xeago zirudien, eta esan zuen:

— Esandako gauza batzuk sinetsiko dizkizut; baina Jaungoikoaren izenean, ez dizut gainontzekoa inola ere sinetsiko.

— Zer ez duzu sinetsiko, Joe? —esan zuen Mary Janek, Susan atzetik zuela, gelan sartzen bitartean—. Ez da gizalegezkoa ez eta atsegina ere zuk mutilari horrela hitz egitea, kanpotarra izanik eta lagunak horren urruti dituelarik. Nahiko al zenuke zu horrela erabiltzea?

— Beti gauza bera egiten duzu, Maim... beti mina hartu ez duenari laguntza eman nahian ibil-

tzen zara. Ez diot ezer egin. Gehiegikeria batzuk esan dizkidala uste dut; eta esan diot ez nituela denak irentsiko; eta horixe da esan dudan guzti guztia. Uste dut txikikeria hori jasan ahal izango duela, ezta?

— Berdin zait txikia edo handia izatea, gure etxean dago eta kanpotarra da, eta itsusia da hori esatea. Zuri egokituz gero, lotsatu egingo zinateke; eta ezin zaio inori esan lotsa eraziko duen gauzarik.

— Baina, Maim, esan du...

— Berdin da zer esan duen..., hori ez da kontua. Zuk egin behar duzuna da modu atseginean jokatu berarekin, eta ez bere herritik eta jendarretik urrun dagoela gogora eraziko dion gauzarik esan.

Esan nuen nirekiko: «Honelako neska bati dirua lapurtzen utzi behar al diot agure narrasti horri!»

Gero Susan hasi zen dantzan; eta benetan esaten dizut, *erbiezpain*a-ri hilobitik entzuteko moduko errierta egin zion.

Esan nuen nire artean: «Eta beste honi ere utziko al diot agureari dirua lapurtzen!»

Gero Maryk ekin zion berriz, eta modu goxo eta maitagarrian, hark egin ohi zuen bezala, aurrera egin zuen, eta amaitu zuenerako *erbiez-pain* gaixoak ez zuen zer esanik. Beraz garrasi eginez erantzun zuen.

— Ederki, orduan —esan zuten beste neskek—, eska iezaiozu barkamena.

Eta hala egin zuen. Eta oso modu ederrean gainera. Entzuteko ere oso modu atsegina zen; eta mila gezur esan nahi nizkiokeen berriro horrela hitz egin erazteko.

Esan nuen nirekiko: «Honi ere dirua lapur diezaion utzi behar al diot?» Amaitu zuenean, denak biziki ahalegindu ziren etxean eta lagunartean egon nendin. Zital, maltzur eta nirekoia nintzela sentitu nuen, eta orduan esan nuen nirekiko: «Erabakia dut; dirua itzuliko diet edo bestela leher egingo dut».

Orduan alde egin nuen... ohera nindoala esan nien, lehenago edo beranduago hala egingo bainuen. Bakarrik geratu nintzenean horretaz pentsatzen hasi nintzen medikuarengana joango ote nintzen ezkutuan, eta iruzurtzaileak salatu. Ez, ez litzateke egokia izango. Beharbada nork esan

zion aitortuko zuen, eta orduan dukea eta erregeak astindu egingo ninduten. Mary Janengana ezkutuan joan eta esango al diot? Ez, ez nintzaketete ausartuko. Haren aurpegia ikusi eta susmargarria irudituko zitzaien, ziur; dirua izanik isilik alde egingo zuten. Iruditzen zait, neska laguntza bila hasiz gero, ni istiluan nahastuko ninduela guztia amaitu aurretik. Ez, bide egoki bakar bat besterik ez zen. Dirua lapurtu egin behar nuen, nola edo hala; eta nire susmorik izan ez zezaketen moduan lapurtu behar nuen. Lanbide ona dute hemen; eta ez dute alde egingo familia eta herri honetatik atera nahi dutena eskuratu bitartean, beraz badut aukera egokia bilatzeko denbora nahikoa. Lapurtu eta ezkutatu egingo dut; eta handik egun batzuetara ibaian behera urruti izatean, eskutitza idatzi eta Mary Janeri dirua non ezkutatu dudan esango diot. Baina hobe gaur gauean bertan lapurtzen badut, ahal izanez gero, beharbada medikuak ez du berak adierazi duen adina etsi eta; hemendik kanpora uxa ditzake oraindik.

Beraz, pentsatu nuen gora joan eta gelak miatuko nizkiela. Goian pasabidea ilun zegoen,

baina aurkitu nuen dukearen gela, eta haztaka hasi nintzen diruaren bila eskuak luze jarrita; baina gogoratu zitzaidan ez zela erregearen izaerarekin bat zetorrena bere eskutatik urrun beste baten eskutan dirua uztea; beraz bere gelara joan eta haztaka hasi nintzen han. Konturatu nintzen ezin nuela ezer egin kandelarik gabe, baina ez nintzen ausartzen bat pizten. Orduan beste modu batera jokatzeari on iritziz nion, alegia, bikotearen zain egon, eta ezkutuan esaten zutena entzun. Ia orduantxe entzun nituen haien oin-hotsak hurbiltzen, eta ohe azpian sartzera nindoan; eskua luzatu nuen, baina ohea ez zegoen nik uste nuen lekuan, eta Mary Janen soinekoak estaltzen zituen gortina ukitu nuen. Haren atzera jauzi egin eta arropa artean txirikordatu eta izpirik ere mugitu gabe geratu nintzen bertan.

Sartu eta atea itxi zuten; eta dukeak beste ezer egin aurretik ohe azpian begiratu zuen. Orduan poztu egin nintzen ohea nahi izan nuen garaian ez nuelako aurkitu. Eta bestalde, badakizu, gauza erraza izaten da ohe azpian sartzea

ezkutuan zabiltzanean. Eseri egin ziren, eta erregeak esan zuen:

— Eta, zer duzu? Azkar esan ezazu esan beharrekoa, hobe genuke eta behean aieneka jo eta ke aritzea, hemen goian egotea baino, gutaz hitz egin dezaten horiei aukera ematen diegularik.

— Hauxe da, Caper. Ez nago lasai; ez nago gustura. Medikiak kezkatzen nau. Zure asmoak jakin nahi nituzke. Zerbait bururatu zait, eta uste dut ideia zuzena dela.

— Eta, zer da, duke?

— Hobe dugula hemendik hanka egitea, goizeko hirurak jo baino lehen, eta ibaian behera airean joatea eskuratu dugunarekin. Batez ere, kontutan hartuz zein erraz lortu dugun: eman egin digute, muturrera bota digutela esan genezake, geureganatzeko lapurtu egin beharko genuela uste genuenean. Gauzak bere horretan utzi eta desagertzearen alde nago.

Gogogabetu egin ninduten. Zuela ordubete edo beste era batera izan zatekeen, baina orduan hark lur jota utzi eta gogogabetu ninduen. Erregeak bere onetik aterata esan zuen:

— Zer? Eta gainontzeko ondasunak saldu gabe utzi? Inozoak bezala alde egin, eta zortzi edo bederatzi mila dolar balio duten ondasunak hor botata utzi beste batek jasotzeko prest?... Gauza onak dira gainera eta erraz saltzeko modukoak.

Dukea marmarka aritu zen; esan zuen urre zorroa nahikoa zela, eta ez zuela gehiago sartu nahi..., ez ziela umezurtz horiei zeukaten guztia lapurtu nahi.

— Baina, zer diozu! —esan zuen erregeak—. Ez diegu diru hau besterik lapurtuko. Ondasunen erosleek jasango dituzte kalteak, izan ere, gureak ez direla jakin orduko, eta hori guk alde egin eta berehala gertatuko da, salmentak ez du baliorik izango, eta lehengo eskuetara itzuliko da dena. Umezurtz horiek etxea berreskuratuko dute, eta horrekin nahikoa dute; gazteak eta neska bizkorrak dira, eta erraz atera daitezke aurrera. Ez dute kalterik izango. Milaka eta milaka dira horiek baino okerrago bizi direnak. Zer arraio, ez dute kexuka ibiltzeko arrazoirik.

Erregeak bestea zoratu arte hitz egin zuen; eta hark azkenean amore eman behar izan zuen,

eta baiezkoa eman, baina esan zuen zorakeria galanta zela han geratzea, medikua beren atzetik izanik. Baina erregeak esan zuen:

— Kaka zaharra medikua! Zergatik kezkatu behar dugu horregatik? Ez al ditugu herriko tentel guztiak gure alde? Eta ez al da edozein herri-tan gehiengo nahikoa?

Eta hala behera itzultzeko prest zeuden. Dukeak esan zuen:

— Ez dut uste diru hori leku egokian jarri dugunik.

Horrek suspertu ninduen. Pentsatzen hasia nintzen inongo aztarna lagungarririk ez nuela izango. Erregeak esan zuen:

— Zergatik?

— Mary Jane hemendik aurrera beltzez jantzi-ta ibiliko delako, eta berehala gelak atontzen dituen zerbitzari beltzari aginduko diote arropa horiek bildu eta gorde ditzan; eta zuk uste duzu beltz batek dirua topatuz gero ez lukeela zerbait hartuko?

— Burua lehengo lekuan duzu berriz, duke — esan zuen erregeak—; eta gortina atzean ni nengo-en lekutik metro erdira edo eskua luzatu eta

zerbaiten bila hasi zen. Hormaren kontra estu-estu jarri, eta ez nintzen mugitu, dardarka nengo-arren; eta neure buruari galdegiten nion zer esango ote zidan bikote hark ni harrapatuko banindu. Baina erregeak zorroa hartu zuen nik burutapen erdia amaitu baino lehenago, eta ez zuen ni han nenbilela susmatu. Hartu eta zorroa ohearen lumatxaren azpiko lastairaren zulo txo batetik sartu zuten, eta metro erdia edo sartu zuten lasto artean barrurantz, eta esan zuten han ongi egongo zela, beltzak lumatxa atondu eta lastairari urtean behin edo bitan besterik ez ziola buelta emango, eta handik lapurtua izateko arriskurik ez zela.

Baina nik banekien ordea. Bikotea eskaileren erdira iritsi baino lehenago atera nuen zorroa lastairatik. Ilunpetan igo nintzen nire gelatxora, eta han ezkutatu nuen beste nonbait gordetzeko aukera hobea izan bitartean. Iruditu zitzaidan hobe izango zela dirua etxetik kanpo ezkutatzea, horiek dirua falta zela konturatuz gero etxea goitik behera miatuko zutelako. Ziur nengo horretaz. Gero arropak jantzita oheratu nintzen; baina nahi izanez gero ere ezingo nukeen loak

hartu, irrika bizian nengoen eta lana amaitzeko. Beranduago erregea eta dukea gorantz zetozela entzun nituen; koltxoi gainean zilipurdi egin eta handik jaitsi nintzen, eta etzanda geratu nintzen zer gertatuko ote zen ikusteko, kokotsa eskaile-raren azken mailan jarrita nuelarik. Baina ez zen ezer gertatu.

Eta hala geratu nintzen azken hotsak isildu ziren arte, eta goizeko hots berriak oraindik hasi ez zirenean, eskaileran behera isil isilik jaitsi nintzen.

Hogeita zazpigarren atala

Poliki-poliki hurbildu eta ate ondoan entzuten geratu nintzen; zurrungan ari ziren, eta hanka punttetan aurrera egin nuen, eta lasai jaitsi nituen eskailerak. Ez zen inon hotsik entzuten. Jangelako ateko zirrikitu batetik begiratu, eta gorpua zaintzen ari ziren gizonak ikusi nituen aulki gainetan lo zerraldo. Atea zabalik zegoen egongelarantz, gorpua zetzan gelarantz alegia, eta kandela bakarra zegoen bi geletan. Aurrera jo nuen, eta egongelako atea irekita zegoenez, Peterren gorpua besterik ez zela han ikusi, eta aurrera egin nuen; baina sarrerako atea giltzaturik zegoen, eta giltzarik ez zen ageri. Orduantxe sumatu nuen norbait zetorrela eskaileretan behera nire atzetik. Egongelan azkar sartu, eta inguruan begiratu nuen presaka. Hilkutxa zen zorroa ezkutatzeke ikusi nuen leku bakarra. Estalkitxoan metro batean edo alde batera jarrita zegoen, eta barruan zegoen hildakoaren aurpegia agerian uzten zuen, oihal bustia gainean jarrita, eta hil-atorra jantzita zituelarik. Diru

zorroa bultza eta barruan sartu nuen estalkiaren azpian, eskuak gurutzaturik zituen lekutik behe-raxeago, eta horrek hotzikara eman zidan, oso hotzak zituelako, eta gero gela berriz azkar gurutzatu eta ate atzean ezkutatu nintzen.

Atzetik etorri zena Mary Jane zen. Hilketxara hurbildu zen, isil isilik, makurtu eta barrurantz begiratu zuen; gero mukizapia atera eta negarrez hasi zela ikusi nuen, entzuten ez banion ere, eta atzea ematen zidan arren. Handik azkar atera nintzen, eta jangelatik igaro ahala bururatu zitzaidan hobe nuela ziurtatzea begiraleek ez nindutela ikusi; beraz ateko zirrikitutik begiratu nuen eta dena behar bezala zegoela ikusi. Ez ziren mugitu.

Gora lotara joan nintzen, goibeldurik, gauzak, halako lanak eta arriskuak izan ondoren, atera ziren bezala atera zirelako. Nire artean esan nuen: dagoen lekuan geratzen bada, ongi dago; horrela ibaian behera ehun edo berrehun mila egin ondoren, Mary Janeri idatz diezaioket, eta hark gorpua lurpetik atera eta dirua berreskura dezake. Baina ez da hala gertatuko; dirua aurkituko dute estalkia torlojatzera etortzen direnean.

Orduan erregeak hartuko du berriz, eta denbora luzea beharko da hari eskua luzatu eta lapurtzeko beste aukera izan arte. Zalantzarik gabe jaitsi nahi nuen eta dirua handik atera, baina ez nintzen hori egitera ausartzen. Minutuak igaro ahala egunsentia hurbilago zegoen, eta laster begiraleetako batzuk mugitzen hasiko ziren, eta harrapa nintzaketen, eta harrapatu inork zaintzeko eman ez zizkidan sei mila dolar eskutan nituelarik. Ez nuen horrelako saltsetan sartu nahi, esan nion neure buruari.

Goizean eskailerak jaitsi eta behera joan nintzenean, egongela itxita zegoen, eta begiraleak joanak ziren. Familia, Bartley alarguna eta gure tribua beste inor ez zebilen. Aurpegira begiratu nien ezer gertatu ote zen jakin ahal izateko, baina ezin nuen ezer antzeman.

Eguerdi aldera lurperatzailea etorri zen bere laguntzailearekin, eta hilkutxa gelaren erdian jarri zuten aulki pare baten gainean, eta ondoren etxeko aulki guztiak errenkan jarri eta auzokoei gehiago eskatu zizkieten sarrera, egongela eta jangela aulkiz bete zituzten arte. Ikusi nuen hilkutxaren estalkia lehen bezalaxe zegoela, baina

ezin nuen barruan begiratzera hurbildu, jendea inguruan zebilelako.

Gero jendetza parrastan sartzen hasi zen, eta iruzurtiak eta neskak hilkutxaren buru ondoan eseri ziren lehenengo errenkan. Ordu erdiz jendea, bata bestearen atzean, poliki-poliki ibili zen haren aurrean, eta une batez hildakoaren aurpegiari begiratzeko zioten. Batzuek malkoren bat isurtzen zuten, eta giroa isila eta ospe handikoa zen, neskek eta iruzurtzaileek besterik ez zituzten zapiak begietan eta buruak makurtuta, negar zotinka ere pixka bat ari zirelarik. Oinek lurtean egiten zuten hotsa besterik ez zen entzuten, eta sudurren zintz egiteak, jendeak gehiagotan egiten baitu zintz hiletetan beste edozein tokitan baino, elizan ere gertatzen den bezalaxe.

Aretoa jendez gainezka zegoenean, lurperatzailea alde batera eta bestera zebilen, eskularru beltzak jantzita, kontu handiz eta poliki, azken ukituak eman, eta jendeari gauzak txukun eta modu erosoan jartzen, eta sagua baino isilago zebilen gainera. Ez zuen hitzik esaten; jendea eramaten zuen alde batetik bestera, barrura joaten laguntzen zien berandu sartzen zirenei,

bideak irekitzen zituen jende artean, eta guzti hori burua eta eskuak mugituz egiten zuen. Gero bere lekua hartu zuen hormaren kontra. Gizon apal, irristakor, eta isilekoa zen, izan ere; eta ez zuen harri kozkor batek baino irribarre zabalago-rik.

Harmoniuma ekarri zuten hiletarako, txar horietako bat, eta dena prest zegoenean, emakume gazte bat eseri eta musika jotzen hasi zen. Algaratsu eta ozen xamarra ere bazen tresna hori, eta denek abesteari ekin zioten; Peter zen, nire ustetan, lasai eta behar bezala zegoen bakarra. Orduan Hobson apaiza poliki eta handien eran hasi zen hizketan, eta une hartan bertan ikaragarritzko zaratak lehertu zuen sotoan; zakur bat besterik ez zen, baina iskanbila galanta sortu zuen, eta aurrera egin zuen etengabe; predikaria hilkutxaren aurrean zutik jarrita, itxaron beharra izan zuen..., ezin zen ezertxo ere entzun. Nekagarria zen, eta bazirudien inork ez zekiela zer egin. Baina berehala lurperatzaile hankaluzea ikusi genuen predikariari keinu egiten ziola, esanez bezala: «Lasai, nik konponduko dut.» Gelditu egin zen berriz eta hormaren kon-

tra irristaka hasi zen mugitzen, sorbaldak soil soilik jendearen buruen gainetik erakusten zituelarik. Aurrerantz egin zuen irrist eta iskanbila eta hots gero eta ikaragarriagoak ziren; eta azkenean, gelako bi aldeak egin zituenean, satora jaitsi eta desagertu zen. Handik segundo batzuetara danbateko bat entzun genuen, eta zakurrak ulu harrigarri pare bat egin eta amaitu zuen, eta orduan dena heriotza bezala isil isilik geratu zen, eta predikariak ospe handiko hizketaldia hasi zuen lehen utzitako lekuan. Minutu pare bat beranduago han azaltzen da gure lurperatzailea, berriro bizkarra hormaren kontra jarri eta irrist eginez; irrist aurrera, eta irrist aurrera, gelaren hiru hormetan barrena. Gero zutitu, eskua ahoaren aurrean alde batera jarri, eta lepoa tente duelarik predikariari begiratzen dio, jendearen buruen gainetik, eta esaten du, zurrumurru zakar antzekoa erabiliz: «Arratoia zuen!» Gero berriz jaitsi eta hormaren kontra irrist eginez itzultzen da bere lekura. Jendeari lasaitasun ederra eman ziola gauza nabarmena zen, horiek noski gertatutakoa jakin nahi zutelako. Gauza txiki horiek erraz egiten dira, eta gauza txikiak

dira gizonari begirunea eta jendearen maitasuna ekartzen diotenak. Ez zen herri osoan lurperatzailea baino gizon ospetsuagorik.

Hiletaren sermoia bikaina izan zen, baina predikariak luze eta aspergarriegia egin zuen; gero erregeak parte hartu zuen, betiko zarpailkeriak esan, eta azkenean amaitu zen guztia. Lurperatzailea poliki-poliki hurbildu zen hilkutzara bihurkina eskutan zuelarik. Beldurrak airean nengoen orduan, eta arretaz begiratu nion. Ez zuen ezer egin; estalkia kontuz bere lekura eramanean, leun eta eztiki, eta torlojuak sartu zituen sendo eta azkar. Eta hantxe geratu nintzen! Ez nekien dirua barruan zegoen ala ez. Beraz, pentsatu nuen: jo dezagun norbaitek diru hori ezkutuan eraman egin duela, nola jakingo dut nik Mary Janeri idatzi behar diodan ala ez. Jo dezagun lurpetik ateratzen duela eta ez duela ezer aurkitzen, zer pentsatuko luke nitaz? Arraiopola, esan nuen: harrapatu eta kartzelan sar nazakete; hobe izango dut isilik egotea eta gauzak ezkutuan gordetzea, eta ezer ez idaztea; bai ederki nahasi ditudala gauzak oraingoan, gauzak zuzendu nahian, mila aldiz okertu ditut. Gauzak

zeuden bezala utzi izan banitu baldinbaitere; pikutara doala guztia!

Gorpua lurperatu eta etxera itzuli ziren, eta aurpegiei begira hasi nintzen berriz, nahitaez begiratu beharra nuen, ezin nuen lasai egon. Baina ez nuen handik ezer atera; aurpegiek ez zidaten ezer esan.

Erregeak zenbait etxetara agerraldiak egin zituen iluntzean, eta hitz goxoak esan zizkien denei, oso modu atseginean; eta adierazi zien, alegia, Ingalaterrako bere eliza-senideak kezka-tan izango zirela bera itzuli arte, eta azkar ibili, eta berehala konpondu behar zituela ondoretasunaren arazoak etxera itzultzeko. Nahigabeturik zegoen horren presaka ibili beharragatik, eta besteak ere halaxe zeuden; gustatuko litzaieke egun gehiagotarako geratzea, baina ulertzen zuten ezinezkoa zuela. Baita ere esan zuen neskak Williamek eta biekin batera eramango zituela etxera; eta horrek jendea pozik jarri zuen, era horretan neskak egokiera onean, eta beren sendikoen artean izango zirelako; eta neskak ere poztu egin ziren..., eta poztu mundu honetan zorigaitzen bat izan zutenik ahaztu arte; eta

esan zioten agureari nahi zuen bezain azkar sal-
tzeko gauza guztiak, eta joateko prest izango
zituela. Gaixoak halako gustura eta pozik zeude-
la, eta besteak azpikerietan eta gezurretan ari
zitzaiela ikustean bihotzak min ematen zidan,
baina arriskurik gabeko biderik ez nuen aurki-
tzen muturra sartu eta hango martxa aldatzeko.

Errege petral horrek etxea, beltzak eta onda-
sun guztiak berehalakoan aldarrikatu zituen:
hiletaren egunetik bi egunetara izango zen sal-
menta; baina inork nahi izanez gero haren aurre-
tik bakarkako erosketa egin zezakeen.

Hileta egin eta hurrengo egunean eguerdi
aldera edo, nesken pozak lehenengo astindua
jasan behar izan zuen; beltz salerosle bikotea
azaldu, eta erregeak salneurri onean saldu ziz-
kien etxeko beltzak, hiru egun barruko ordainke-
ta bidez, horiek esaten zioten bezala, eta hantxe
joan ziren, bi semeak ibaian gora Memphisera,
eta ama ibaian behera Orleansera. Iruditu zitzai-
dan neska gaixoek eta beltzek minez leher egin
behar zutela; hango penak eta negarrak ikusi
eta ia gaixotu egin nintzen. Neskek esan zuten
ez zitzaiela burutik ere pasa familia berezia eta

herritik kanpo salduta ikusi beharko zutenik. Ezin dut burutik baztertu ikuskizun hori, neska gaixo horiek eta beltzak bata bestearen lepotik zintzilik eta negarrez; eta iruditzen zait ezin eraman izango nuela, lehertu egingo nuela eta bikotea salatu, jakin izan ez banu salmentak baliorik ez zuela eta beltzak aste pare batean etxera itzuli-ko zirela.

Gertakizunak herrian ere zalapartak sortu zituen, eta askok argi eta garbi adierazi zuten lotsagarria zela ama eta umeak modu horretan bereiztea. Horrek neurri batean iruzurtzaileei kalte egin zien; baina agure tentelak aurrera egin zuen, dukeak egin edo esan zezakeena kontutan hartu gabe, eta, egia esango dizut, dukeak ez zegoen batere lasai.

Hurrengo egunean enkantea egin behar zuten. Goizean egunak argitu ondoren, dukeak eta erregea ganbarara igo ziren eta esnatu egin ninduten, eta begiradan ezagutu nuen zerbait gertatu zela. Erregeak esan zuen:

— Herenegun gauean nire gelan izan al zinen?

— Ez, maiestate —horrela deitzen nion beti geure taldekoak besterik inguruan ez zebile-nean.

— Bart edo bart gauean izan al zinen?

— Ez, maiestate.

— Hitz eman iezadazu; ez gezurrik esan gero.

— Hitza ematen dizut, maiestate. Egia esaten ari natzaizu. Ez naiz zure gelan izan Mary Janek zuri eta dukeari bertara lagundu eta gela erakutsi zizuenez geroztik.

Dukeak esan zuen:

— Beste inor ikusi al duzu bertan sartzen?

— Ez, jaun goren hori, ez dut gogoan, ez dut uste.

— Egon eta pentsatu!

Pixka batean pentsatzen aritu nintzen, eta aukera ona iruditu zitzaidan. Orduan esan nuen:

— Izan ere, beltzak ikusi ditut zenbait aldiz zure gelan sartzen. Biak tente jarri ziren, eta hasieran ez zutela hori espero edo zirudien, eta gero baietz, espero zutela. Esan zuen dukeak:

— Zer, denak?

— Ez, gutxienez denak batera ez. Alegia, ez dut uste denak batera ateratzen ikusi ditudanik behin batean ezik.

— Baina, baina... noiz izan da hori?

— Hiletaren egunean gertatu zen. Goizean. Ez zen goiz, berandu arte lotan geratu nintzelako. Eskailera jaisten hastekoa nintzen, eta orduan ikusi nituen.

— Segi aurrera, segi aurrera... zer egin zuten? Nolako jarrera zuten?

— Ez zuten ezer egin. Eta ez zuten inolako gauza harrigarririk egin, nik ikusi ahal izan nuen bezala behintzat. Hanka punttetan irren ziren, eta berehala iruditu zitzaidan maiestatearen gela atontzera sartu zirela, edo horrelako zerbait, jai-kita izango zinelakoan, baina lotan zinela ikusi-rik, nahaspila horretatik ezkutuan ihes egin nahiko zuten zu esnatu gabe, ordurako esnatu ez bazintuzten behintzat.

— Arraioa, horixe besterik ez genuen behar! —esan zuen erregeak—; eta biei gaixo eta tentel itxura galanta jarri zitzaien. Zutik geratu ziren minutu batean pentsatzen eta buruari hatz egi-

nez, eta gero dukeak barre zakarra eginez eten zuen, eta esan:

— Hori bai dela hori! Bai ederki adarra jo digutela beltz horiek. Lurralde honetatik joan egin behar zutela eta nahigabeturik omen zeuden! Eta nik sinetsi gainera hala zeudela! Eta zuk ere bai, eta jende guztiak. Ez esan gero niri beltzek ez dutela erraztasun istrionikorik (antzerkia egiteko erraztasunik). Horretan izan duten jarduteko modua ikusi, eta edonori ziria sartuko liokete. Horiek bai balio dutela diru pila, horiek! Dirua izango banu eta antzerkiak egiteko aretoa, ez nuke antzezle talde hoberik aurkituko..., eta guk bi sosen truke saltzea ere. Eta, oraindik sos horiek erabiltzeko aukerarik izan gabe gainera. Non dira sosak? zera, ordainketa jasotzeko agiria.

— Bankuan dirua jasotzeko zain. Non izango ziren bestela?

— Ongi dago hori, eskerrak.

Esan nuen, lotsatu xamarra:

— Okerrik izan al da?

Erregeak jira egin eta niri begira oihu egin zidan:

— Hori ez da zure kontua! Isilik egon, eta zure gauzetan sartu muturra, baldin badituzu behintzat. Gogoan izan hori herri honetan zauden bitartean, entzun duzu? Gero esan zion dukeari:

— Hau irentsi beharra dugu, eta ez dugu ezer esango; isilik egon eta kito.

Eskaileran behera joatekoak zirenean, dukeak barre egin zuen berriz, eta esan zuen:

— Salmenta azkarrak eta irabazi eskasak! Aberasbide ederra, bai! Erregeak haserre begiratu eta esan zion:

— Onerako izango zelakoan, azkar saldu nahi izan ditut ondasunak. Irabaziak hutsa izan badira, edo hutsa baino gutxiago, batere ez, nire erruz izan al da zure erruz baino gehiago?

— Etxe honetan izango lirateke horiek, eta gu berriz ez, nire esanak entzunak izan balira.

Erregeak modu lotsagabearen erantzun zion egoera horren aurrean hori egin zezakeen neurrian, eta gero norabidea aldatu eta niri egin zidan eraso, beltzak gelatik modu horretan irte ten ikusi, eta ez nintzaiolako esatera joan... Esan zidan edozein txoriburuk sumatuko zuela zerbai-

tetan zebiltzala. Gero berriz hasi zen dantzan eta bere buruari gaizki esaka jardun zuen; eta esan zuen dena goiz horretan ohean ohiko atsedena hartzen ez zelako gelditu gertatu zela, eta inondik ere ez zuela hori berriz egingo. Marmarka alde egin zuten; eta ni oso pozik geratu nintzen beltzei errua bota nielako eta gainera horiei kalterik egin gabe.

Hogeita zortzigarren atala

Geroxeago jaikitzeke ordua iritsi zen, eta ganbarako eskailera jaitsi eta behera joateko bidea hartu nuen, baina nesken gelara iristean, atea zabalik topatu nuen, eta larruzko kutxa zaharra zabalik, neska Ingalaterrara joateko gauzak prestatzen aritu baitzen, eta haren ondoran eserita Mary Jane ikusi nuen. Baina geldirik zegoen orduan, magalean soineko tolestaturazuelarik, eta aurpegia eskuen artean eutsi eta negar eginez. Atsekabetu ninduen horrek; edozein atsekabetuko luke noski. Sartu eta esan nion:

— Mary Jane andereño, jendea nahigabeturik ikusteak ezin duzu eraman, eta nik ere ez..., gehienetan. Esadazu zer gertatzen zaizun.

Esan egin zidan. Eta beltzen arazoa zen..., horixe uste nuen nik ere izango zela. Esan zuen gertakizun horrek Ingalaterrako bidaia ederra ia hondatu zuela; ez zekien bertan inoiz zoriontsu izango ote zen, jakinik amak eta haurrek ez zutela berriz elkar ikusiko..., eta orduan negarrari

ekin zion inoiz baino gogorrago, besoak gorantz zabalik jarrita, eta esan zuen:

— Ene, ene, ez dutela inoiz elkar ikusiko pentsatzeak soil soilik!

— Baina ikusiko dute..., eta bi aste barru gainera..., nik badakit hori! —esan nuen:

Bi aldiz pentsatu gabe esan nuen, bai horixe! Eta mugitzeko denborarik izan baino lehen, besoak lepo ingurura bota zizkidan, eta berriro esateko erregutu zidan, berriz esateko, eta berriz esateko!

Pentsatu gabe hitz egin nuen, gehiegi hitz egin gainera, eta lanak izango nituen handik ateratzen. Pixka bat itxaroteko eskatu nion, eta eseri egin zen, ezin egonean eta urduri, baina dotore, nolabaiteko lasaitasuna eta poza ere adierazten zuelarik, hagina atera dioten pertsona baten antzera. Pentsatzen aritu nintzen pixka batean. Esan nuen nirekiko, iruditzen zait estualdian dagoenak guztiari aurre egin eta egia esaten badu askotxo jartzen duela arriskuan, ziurtasun osoz ezin esan badezaket ere, esperientziarik ez dudanez gero; baina, dena dela, hala iruditzen zait; oraingoan ordea, ez dakit zer arrazoi-

rengatik, neure buruari egia esatea hobea iruditzen zaio, eta gainera arrisku txikiagoa, gezurra esatea baino. Buruan gorde behar dut, eta noiz-bait horretaz pentsatu, gauza harrigarria eta bitxia baita. Ez dut inoiz horrelako egoerarik aurrean ikusi. Azkenean erabakia hartu nuen; ausartu egingo naiz; oraingoan egia esango dut, hori egitea sutauts pila baten gainean eseri, sua eman eta nora zoazen ikustea bezalako zerbait iruditzen bazitzaidan ere.

— Mary Jane, ba al duzu herritik kanpo edo lekuren bat, bertara joan eta hiruzpalau egun egiteko?

— Bai..., Lothrop jaunaren etxea. Zergatik?

— Ez kezkatu orain horregatik. Esaten badi-zut zergatik dakidan bi aste barru beltzek etxe honetan berriz elkar ikusiko dutela, eta horren frogak ematen badizkizut, joango al zara Lothrop jaunaren etxera lau egunetarako?

— Lau egunetarako! —esan zuen—; urtebeterako ere bai!

— Ederki —esan nuen—, zure hitza besterik ez dut nahi..., nahiago dut hori beste edonoren Biblia gaineko zin egitea baino —irribarre egin

zuen eta aurpegia gorritu zitzaion goxo goxoki, eta nik esan nuen—: Axola ez bazaizu atea itxi, eta giltzatu egingo dut.

Gero itzuli eta eseri egin nintzen, eta esan nion:

— Ez oihurik egin. Eserita egon zaitez geldirik, eta gizon baten moduan entzun ezazu. Egia esan behar dizut, eta aurre egin behar diozu, Mary andereño, gauza txarra baita, eta gogorra egingo zaizu, baina ezin zaio ezer egin. Zure osaba horiek ez dira osabak inondik ere, gezurti pare bat dira..., iruzurtzaile arruntak. Hara, okerrera egin dugu..., gainontzekoa errazagoa egingo zaizu.

Astindu ederra eman zion; baina bide errazean nenbilen orduan, eta aurrera egin nuen, haren begiek gero eta distira biziagoa hartu zuten, eta baporera zihoan gazte tentel hura topatu genuenez gero gertatutako gauza mardikatu guztiak esan nizkion argi eta garbi, etxeko atarian erregearen besotara bere burua bota eta hamasei edo hamazazpi aldiz musu eman zion artekoa alegia... Gero tente jarri zen, aurpegia,

eguzkia sartzen denean bezala, sutan zuelarik, eta esan zuen:

— Astakirten hori! Goazen, ez dezagun minuturik galdu, ez eta segundo bat ere, bikeztatu eta lumez estaliko ditugu, eta ibaira bota!

Esan nuen:

— Bai horixe! Baina zer esan nahi duzu, Lothrop jaunaren etxera joan aurretik egingo dugula, ala...

— Ene —esan zuen—, zertan ari nintzen ni pentsatzen! —eta berehala eseri zen berriz—. Ez jaramonik egin nik esandakoari, ez mesedez, ez diozu egingo, ezta? —bere zetazko eskua nirearen gainean jartzen zuen bitartean, hori egin baino lehenago hilko nintzatekeela esan erazten zidan moduan—. Ez nuen uste horrenbeste haserre eraziko ninduenik —esan zuen—; orain segi aurrera, eta ez dut horrelakorik berriz egingo. Esadazu zer egin behar dudan, eta esaten didazuna egingo dut.

— Ederki —esan nuen—, bikote gaiztoa da iruzurtzaile pare hori, eta niri tarte batean beraiekin bidaia egitea egokitu zait, eta hala egin behar dut nahitanahiez; nahiago dut ez

esan zergatik, eta salatzen badituzu herri osoak atzaparrak aterako dizkie, eta ni ongi aterako naiz, baina bada zuk ezagutzen ez duzun beste pertsona bat buruhauste galantak izango dituen. Lagundu egin behar diogu, ezta? Noski. Orduan ezin ditugu salatu.

Hitz horiek ideia bikaina ekarri zidaten burura. Agian Jim eta biok iruzurtzaile horiengandik bereiz gintezkeela ikusi nuen; eta horiek kartzelan sartu, eta gero alde egin genezakeela. Baina ez nuen egunez almadian ibili nahi, galderei erantzuteko ontzi gainean bakarra izanik, beraz ez nuen plana gauean berandu arte lanean jarriko. Esan nuen:

— Mary Jane, zer egingo dugun esango dizut, eta ez duzu Lothrop jaunaren etxean oso luze ere egon beharko. Zenbat milatara dago?

— Lau milatara baino gutxixeago, mendi aldean.

— Nahikoa izango da hori. Orain harantz abiatuko zara, eta gaueko bederatziak edo bederatzi t'erdiak arte ezkutuan egon, eta gero haiei etxera itzultzen laguntzeko esan, zerbaiten premia duzula edo esan. Hamaikak baino lehenago

hona iristen bazara, jar ezazu kandela leiho ondoan, eta ez banaiz ordurako azaldu, itxaron hamaikak jo arte, eta orduan azaltzen ez banaiz horrek esan nahiko du alde egin dudala, bizirik eta osorik ihes egin dudala. Orduan etxetik irten, berria inguruan zabaldu, eta ziri-sartzaileak atxilotuko dituzte.

— Ongi —esan zuen—, horrelaxe egingo dut.

— Eta ihes egin ezin izango banu, eta horiekin batera harrapatuko banindute, garbi adierazi beharko duzu nik alde aurretik dena esan nizula, eta nire alde egon beharko duzu ahal duzun gehiena.

— Zure alde egon, horixe zure alde izango nauzula. Ez dizute ile bakar bat ukituko! —esan zuen, eta era berean ikusi nuen hori esan zue-nean sudur zuloak zabaldu eta begiak lausotzen zitzaizkiola.

— Eta ihes egiten badut —esan nuen—, ez naiz hemen izango zital horiek zure osabak ez direla frogatu ahal izateko, eta ezingo nuke hori egin hemen egonda ere. Zin egin nezake gezurti eta lotsagabe zikinak besterik ez direla, besterik ez; zerbait bada ere. Baina badira beste

batzuek nik baino hobeto egin dezaketena, eta niri baino errazago sinetsiko dieten pertsonak dira. Esango dizut nola aurki ditzakezun. Eman lapitza eta paper puska. Hara, «*Erregetasun berdingabea, Bricksville.*» Jaso, eta ez galdu gero. Auzitegian ezer jakin nahi badute bi horiei buruz, bidal dezatela norbait Bricksvillera esanez Erregetasun Berdingabea antzeztu zuten bi gizonak harrapatu dituztela, eta lekukoak eska ditzatela. Herri osoa jaitsiko zaizu hona aitaren esan orduko, Mary andereño. Eta gainera suak hartuta etorriko dira.

Iruditu zitzaidan dena antolaturik genuela, eta esan nuen:

— Utz ezazu enkanteak aurrera jo dezala, eta ez arduratu. Inork ez ditu gauzak ordaindu beharko enkantea egin eta egun osoa igaro baino lehenago, epe motzean egin dutela kontutan hartuz, eta horiek ez dute hemendik alde egingo dirua eskuratu bitartean, eta gauzak antolatu ditugun eran salmentak ez du baliorik izango, eta ez dute dirurik eskuratuko. Beltzekin gertatu zen bezalaxe gertatuko da: ez zen salmentarik izan, eta beltzak hemen izango dira

laster. Oraindik ezin dute beltzen dirua jaso. Ez daude ez batere aldarte onean, Mary andereño.

— Ongi —esan zuen—, gosaltzera jaitsiko naiz orain, eta gero zuzenean Lothrop jaunaren etxera abiatuko naiz.

— Ez da hori jokabide zuzena, Mary Jane —esan nuen—, ez eta pentsatu ere; zoaz gosaldu aurretik.

— Zergatik?

— Zergatik iruditzen zaizu esan dizudala hemendik alde egiteko, Mary?

— Ez zait burutik pasa..., eta pentsatzen hasiz gero ere, ez dakit. Zergatik?

— Bada, izan ere ez zarelako begi-eroa duten horiek bezalakoa. Ez dut zure aurpegia baino liburu hoberik ezagutzen. Edonor aurrean jarri eta inprimategiko letra handiak bezain ongi irakur daiteke. Uste al duzu ausartuko zinatekeela osabei aurre egiten, egunon esatera eta musu ematera hurbiltzen bazaizkizu, eta ez...

— Ez, ez! Gosaldu aurretik joango naiz..., eta gustura. Eta ahizpak horiekin batera utzi?

— Bai, ez kezkatu horregatik. Pixka batean jasan behar izango dute. Susmoa hartuko lukete

denak batera desagertuko bazinete. Ez dut ez haiek, ez ahizpek, ez herriko inork zu ikustea nahi; auzoko batek gaur goizean zer moduz dauden osabak galdetuko balizu, zure aurpegiak zerbait adieraziko lioke. Ez, joan zaitez zuzenean, Mary Jane, eta ni besteekin moldatuko naiz. Esango diot Susani besarkada bat eta musu emateko osabei eta esateko joan beharra izan duzula ordu batzuetarako atsedeen hartzera edo giroz aldatzera, edo lagun bat ikustera, eta gauerako edo bihar goizerako itzuliko zarela.

— Laguna ikustera joan naizela bai, ongi dago, baina besarkada ematearena ez.

— Horrela egingo dut, orduan.

Erantzun ona zen neskari esateko..., ez zuen kalterik ekarriko. Garrantzi gutxiko gauza zen, eta ez zuen lan handirik ematen; eta gauza txiki horiek dira jendearen bidea gehien errazten dutenak, hemen behean; Mary Janeri on egingo zion, eta erraz egin zitekeen. Gero esan nuen:

— Bada beste gauza bat..., diru zorroa.

— Beraien eskutan dago; eta nola lortu zuten pentsatzeak lotsa erazten nau.

— Oker zaude horretan. Ez dago beraien eskutan.

— Noren eskutan dago bada?

— Jakin nahiko nuke, baina ez dakit. Nik izan nuen, lapurtu egin nielako: zuri emateko lapurtu nien; eta badakit non ezkutatu nuen, baina beldur naiz leku horretan ez ote den geratu. Damaturik nago, Mary Jane, goitik behera nago damaturik; baina ongi ari nintzelakoan egin nuen; zintzo jokatu nuen. Ia harrapatu ninduten, eta topatu nuen lehenengo lekuan ezkutatu, eta korrika alde egin behar izan nuen..., eta ez zen oso leku ona gertatu.

— Ez leporatu zeure buruari gertatutakoa..., ez da zuzena hori egitea, eta ez dut onartuko..., ezin izan zenuen besterik egin; ez zen zure erruz izan. Non ezkutatu zenuen?

Ez nion berriro bere atsekabeetan pentsa erazi nahi; eta ezin hitz egin erazi nion nire ahoari, eta hari gorpua hilkutxan etzanda, diru zorroa sabel gainean zuelarik gogora ekarri. Beraz une batez ez nuen ezer esan; gero esan nuen:

— Hobe izango dut non ezkutatu nuen ez esatea, Mary Jane, barkatzen badidazu; baina paper batean idatziko dizut, eta Lothrop jaunaren etxera zoazela irakurri ahal izango duzu, nahi baldin baduzu. Ongi al deritzozu?

— Bai, bai.

Eta halaxe idatzi egin nuen: «Hilkutxan sartu nuen. Gelan nengoen zu gauean berandu negarrez aritu zinenean. Ate atzean nengoen, eta erruki nintzaizun, Mary Jane.»

Begiak busti erazi zizkidan pixka bat, gauean bera bakarrik negarrez ari zela gogoratzeak, eta deabru horiek hantxe etxe berean zebiltzala, neska lotsa erazten eta han lapurtzen; eta pape-
ra bildu eta eman nionean, berari ere begiak busti zitzaizkiola ikusi nuen; eskutik tinko heldu zidan, eta esan zuen:

— Agur. Dena zuk esan duzun bezala egiten ahaleginduko naiz; eta ez bazaitut berriz ikusten, ez zaitut inoiz ahaztuko, eta askotan eta askotan pentsatuko dut zutaz, eta zure alde ere errezatuko dut!

Eta joan egin zen.

Nire alde erreztatu! Iruditu zitzaidan ezagutu banindu bere tankerari zegokion beste lanbide-
ren bat aukeratuko lukeela. Baina apustu egingo nuke, hori jakinda ere, gauza bera egiteko prest legokeela..., horrelakoa zen. Judasen alde ere erreztazera ausartuko litzateke, hori buruan sartuz gero..., ez zuen hark inoiz atzera jotzen, hala uste dut. Nahi duzuna esan dezakezu, baina nire ustetan nik ikusitako neskek baino kemen handiagoa zuen; nire ustetan kemenez bete betea zegoen. Lausengua dirudi, baina ez da hala. Eta edertasunari dagokionean..., eta zintzotasunari baita ere..., beste guztien gain zegoen. Atetik ateratzen ikusi nuenez gero, ez dut berriz ikusi; ez, ez dut geroztik ikusi, baina uste dut milioika eta milioika aldiz pentsatu dudala neska horretaz, eta nire alde erreztatuko zuela esan zuen hartaz; eta nik haren alde erreztatzeak onik ekarriko lukeela inoiz uste izan banu, horixe egingo nukeen ez lehertzearren.

Uste dut Mary Jane atzeko atetik irten zela; ez baitzuen inork alde egiten ikusi. Susan eta *erbiezpaina* topatu nituenean, esan nuen:

— Nola deritze ibaiaren beste aldean bizi eta batzuetan zuek ikustaldiak egiten diezuen horiei?

Esan zuten:

— Badira zenbait; baina Proctortarrengana joaten gara gehienetan.

— Horixe da izena —esan nuen—; ia ahaztu nuen. Mary Janek esan dit zuei jakin erazteko presaka joan beharra izan duela... Horietakoren bat gaixorik omen dago.

— Nor?

— Ez dakit; behintzat ez zait burura etortzen; baina uste dut zera dela...

— Jesus ene, Hanna behintzat ez izatea espero dut.

— Horixe da bada —esan nuen— Hanna bera da...

— Ene..., eta lehengo astean horren ongi zegoen! Oso gaizki al dago?

— Izenik ere ez du. Gau osoa gaixo-beilan pasa omen dute, hori esan dit Mary Janek, eta ez dute uste ordu asko egingo dituenik.

— Besterik ez genuen behar! Zer gertatzen zaio?

Ezin nuen une horretan zentzuzko gauzarik asmatu, eta esan nuen:

— Lepamina.

— Bai zera, lepamina! Inork ez du beilarik egiten lepamina duena zaintzeko.

— Ez al dute egiten? Hobe dute, bai, egitea lepamin horrekin. Desberdina da lepamin hori. Mota berria da, Mary Janek esan dit.

— Nolakoa da bada mota berri hori?

— Beste gauzekin nahasia dago.

— Ze gauzekin?

— Elgorria, zakur eztula, disipula, tisisa, laru-mina, meningitisa, eta ez dakit zer gehiago.

— Ene! Eta lepamin esaten diote horri?

— Hori esan zidan Mary Janek.

— Eta, zer demostrerengatik deitzen diote lepamina?

— Bada, lepamina delako. Hala hasten omen da.

— Horrek ez du zentzurik. Norbaitek oztopo egin, eta pozoia hartu, eta putzu batera erori, eta lepoa hautsi, eta burumuinak bere tokitik ateratzen bazaizkio, eta beste bat etorri eta nola hil den galdetzen badu, eta txepel batek «oztopo

eginez» erantzuten badu, zentzurik izango al luke? Ez. Bada horrek ere ez du zentzurik. Erraz itsasten al da?

— Erraz itsasten den? Hori gauzak esaten dituzunak. Eskuarea ilunpetan bezain errez. Ziur egon, ez badiozu hortz bati ematen, besteari emango diozu. Eta ezingo duzu hortza atera eskuare osoa atzetik itsatsita eraman gabe. Eskuarearen antza du lepamin horrek, esan genezake..., eta ez da nolana hiko eskuarea gainera, hartuz gero ongi itsasten da.

— Ikaragarria iruditzen zait —esan zuen erbiezpainak—. Osaba Harveyrengana joan eta...

— Bai, bai —esan nuen—, nik horixe egingo nuke. Noski, noski egingo nukeela. Ez nuke denborarik galduko.

— Zergatik ez zenuke hori egingo?

— Azter ezazu pixka bat, eta beharbada ulertuko duzu. Ez al dute osabek Ingalaterrara lehenbailehen itzuli behar? Eta beraiek alde egin eta zuei bidaia bakarrik egiten uzteko bezain bihotz gogorrek direla uste al duzu? Badakizu zuek joan arte itxarongo luketela. Honaino ongi. Harvey

osaba predikaria da, ezta? Ederki, orduan, predikari batek ziria sartuko al lioke baporeko diru arduradunari? Ziria sartuko al lioke ontzi arduradunari, Mary Janeri ontziratzen utz diezaioten? Badakizu ezetz. Zer egingo luke orduan? Esango luke: «Tamalgarria da, baina elizako gorabeherak aurrera egin beharko dute ahal duten bezala, nire iloba izugarrizko pluribus-unum lepamina hartzeko arriskuan izan baita, eta nire eginbeharra da egon eta gaixotasuna harrapatu duen ikusteko behar diren hiru hilabeteak hemen igarotzea. Baina berdin zaio, iruditzen bazaizu onena dela Harvey osabari esatea...

— Bai eta zera ere, eta tuntunak bezala hemen geratu Ingalaterran gustura ibili beharrean Mary Janek gaixotasuna harrapatu duen edo ez duen jakin arte zain egoteagatik? Tontakeriak esaten dituzu, bai horixe.

— Dena dela, beharbada auzokoren bati esan beharko zenioke.

— Entzun ongi. Txorakeriaren marka guztiak hautsiko dituzu zuk. Ez al duzu ikusten batak besteari esango diola? Inori ez esatea beste biderik ez dago.

— Beharbada zuzen zaude..., bai, zuzen zaudela uste dut.

— Baina uste dut Harvey osabari pixka bate-rako joan egin dela esan beharko geniokeela, harengatik kezkatu ez dadin.

— Bai, Mary Jane andereñok zuk hori egitea nahi du. Hark esan dit: «Esan iezaiezu Harvey eta William osabei besarkada bat emateko, eta ni ibaiaren beste aldera joan naizela zera..., nola da familia aberats horren izena, osaba Peterrek askotan gogoan zuena? Familia hori...

— Apthorptarrak esan nahiko duzu, ezta?

— Noski; horiek dira izen petralak. Erditan ezin ditut gogora ekarri. Bai, hark esan du Apt-horptarrei esatera joan dela enkantera huts egin gabe etor daitezten, etxe hau erosteko, osaba Peterrek beste inork baino gehiago horiek eroste-a nahiko lukeelako; eta han geratuko dela eto-rriko direla ziurta diezaioten arte, eta orduan, oso nekaturik ez badago, etxera itzuliko dela; nekaturik badago berriz, edozein modutara ere goizean itzuliko dela etxera. Esan dit baita ere, ez aipatzeko Proctortarrak, Apthorptarrak beste-rik ez..., hori egia osoa baita gainera, horienga-

na etxearen erosketaz hitz egitera joatekoa delako, horixe esan zidan berak.

— Ederki —esan zuten, eta osaben bila alde egin zuten, eta besarkadak eta musuak eman zizkieten eta mezua esan zieten.

Dena konponduta zegoen. Neskek ez zuten ezer esango Ingalaterrara joan nahi zutelako; eta erregeak eta dukeak nahiago zuten Mary Jane handik kanpora izan enkantearen alde lanean Robinson doktorearen inguruan baino. Gustura nengoen; lanean ongi aritu nintzela iruditu zitzaidan... Ez nuen uste Tom Sawyer berak nirea baino lan hobea egin ahal izango zuenik. Noski itxura hobea emango zion, baina ez nintzen ni horretan oso trebea, ez baininduten horretarako hazi.

Enkantea herriko plazan egin zuten, arratsean, eta aurrera luze jo zuen, eta agurea han inguruan zebilen, aurpegi zerutiarrena jarrita, goian enkante arduradunaren ondoan, noizean behin Bibliaren zatiak tartekatzen zituelarik, edo nolabaiteko esaera samurrak; eta dukea ere han zebilen ahal zuen adina *gu, gu* eginez laguntasu-

na lortu nahian, eta jende aurrean nabarmen-tzen zelarik.

Baina azkenean, kostata baino, iritsi zen amaiera, eta dena saldu zuten. Dena kanposan-tuko lur sail txiki ziztrin zahar bat ezik. Beraz hori ere saldu beharra zuten. Ez dut inoiz erregea bezalako jirafarik ikusi, dena irentsi eta irentsi nahian. Horretan ari zirela, bapore bat kaira iritsi zen, eta bi minututan jendetza hurbiltzen hasi zen ujuka, garrasika eta barrezka, eta denak batera esanez:

— Hemen dituzue aurkakoak! Hemen dituzue Peter Wilks zaharraren oinordekoen bi pare!... Eta dirua ordainduz gero, horietako pare baten alde aukera egin dezakezue!

Hogeita bederatzigarren atala

Itxura oneko gizon zahar bat zekarten, eta itxura bera zuen gizon gaztea, eskuineko besoa zapien lotuta zeramalarik. Hori zen hori garrasi, eta barre egiteko modua, eta lehengo horretan aurrera egitekoa. Baina ez nion horri barregarria irizten, eta iruditzen zitzaidan dukeak eta erregeak ere lanak izango zituztela antzekorik antzematen. Aurpegia zurbilduko zitzaizela pentsatu nuen, baina izpirik ere ez zitzaien aldatu. Dukeak ez zuen ezertarako agerian utzi gertatzen ari zenaz susmo txarrak zituenik, aitzitik aurrera egin zuen *go-go* esanez, pozik eta patxadan, pil-pilka ari den esnearen antzera; eta erregeari dagokionez, errukiturik begiratzen zien behin eta berriz iritsi berriei, munduan horrelako gezurti eta zitalak izan zitezkeela pentsatzeak, sabeleko mina bete betean eragingo balio bezala. Oi, bai ederki egin zuela, jende ezagun asko erregearen ondora hurbildu zen, bere alde zeudela adierazi nahian. Agure iritsi berria zor eta lor zegoela zirudien, bertan zerraldo erortzeko

moduan. Geroxeago hizketan hasi zen, eta berehala konturatu nintzen ingelesak bezalaxe hitz egiten zuela, ez erregeak hitz egiten zuen bezala, erregearena ere, horien imitazioa izateko, nahikoa ona zelarik. Ezin ditut gizon zaharraren hitzak adierazi, ez eta haren antzera hitz egin; baina jendeari begira jarri, eta honelako zerbait esan zuen:

— Ezuste galanta topatu dut; eta aitortu behar dut, argi eta garbi, ez nagoela egoera aproposenean horri erantzuteko; izan ere, anaia eta biok ezbeharrak izan baititugu; anaiak besoa hautsi du, eta gure bidai poltsak goiko herri batean jaitsi dituzte nahastuta bart gauean ilunpetan. Ni nauzue Harvey Peter Wilksen anaia, eta hori William bere anaia da, ez entzun eta hitz egin ere ezin duena..., eta orain gainera keinu gehiegi egin ere ez, esku bakarra baitu mugitzeko. Aipatutako horiek berak gara; eta egun pare bat igaro, eta ekipaia eskuratu bezain laster frogatu ahal izango dut. Baina, bitartean, ez dut besterik esango; hotelera joango naiz eta han zain izango naiz.

Gizona eta gormutu berria joan egin ziren; eta erregeak barre egin eta hitzak marruskatuz esan zuen:

— Besoa hautsi..., litekeena bai..., eta oso aproposa gainera keinuak egin behar, eta nola egin ikasi ez duen gezurtiari sinesteko. Ekipaia galdu! Primerakoa hori ere!... eta burutapen argia... egoera kontutan hartuta!

Eta barre egin zuen berriz; eta beste guztiek ere barre egin zuten, hiru edo lau, edo agian dozena erdiak salbu. Horietako bat medikua zen, bestea begirada zorrotza zuen gizon bat, burusi oihalez egindako poltsa zahar itxurakoa eskutan zuelarik. Gizona baporean etorri berria zen, eta medikuari ahots isilean hitz egiten ari zitzaion, eta noizean behin erregeari begiratzen zion, baietz esanez, buruari eragiten zion bitartean. Levi Bell zen, Louisvillera joana zen abokatua; eta bestea handik igaro, eta gizon zaharrak esandakoa entzun, eta orduan erregeari entzuten ari zitzaion gizon handi zakar eta sendoa zen. Erregeak amaitu zuenean, gizon sendo hori zutitu egin zen eta esan zuen:

— Aizu, begira hona; Harvey Wilks baldin bazara, esan ezazu noiz iritsi zinen herri honetara?

— Hiletaren bezperako egunean, laguna — esan zuen erregeak.

— Zer ordutan?

— Arratsean..., eguzkia sartu baino ordu bat edo bi lehenago.

— Nola etorri zinen?

— *Susan Powell* ontzian etorri nintzen, Cincinnatiatik.

— Orduan, nola uler daiteke zu goiz horretan Lurmuturraren inguruan egotea... kanoa batean?

— Ni ez nengoen Lurmuturraren inguruan goiz horretan.

— Gezurra da.

Batzuek jauzi egin eta gizonarengana aurreratu ziren, eta erregutu zioten ez horrelakorik esateko gizon zahar bati, predikaria izanik gainera.

— Predikari madarikatua bai hori! Iruzurtzaile eta gezurtia besterik ez da. Goiz horretan Lurmuturrean zegoen. Ni han bizi naiz, ezta? Izan ere, ni han nengoen, eta bera ere han zegoen.

Han ikusi nuen. Kanoa batean etorri zen Tim Collinsekin eta mutil batekin.

Medikuak parte hartu eta esan zuen:

— Ezagutuko al zenuke mutila berriz ikusiz gero, Hines?

— Baietz uste dut, baina ez dakit. Baina, hor-
txe dago. Hori dela zalantzarik ez dut.

Niri ari zitzaidan eskua zuzentzen. Medikuak esan zuen:

— Lagunak, ez dakit etorri berri diren bi horiek iruzurtzaileak diren ala ez; baina hemen-
go hauek ez badira iruzurtzaileak, ni txepelburua
naiz, eta kito. Gure ekinkizuna dela uste dut
hauei alde egiten ez uztea gauza argitu bitar-
tean. Goazen, Hines; zuek denok ere zatozte.
Bikote hau tabernara eraman eta bestearen
aurrean jarriko dugu, eta iruditzen zait zerbait
argituko dugula honekin amaitu aurretik.

Eromena zen jendetzarentzat, ez zen hala
izango, beharbada, erregearen lagunentzat; eta
guztiak abiatu ginen. Eguzkia sartzeko garaia
izango zen. Medikuak eskutik hartuta nindera-
man, nahikoa atsegina zen, baina ez zidan ezer-
tarako eskua askatu.

Hoteleko gela handi batean sartu ginen, kandelak piztu, eta bikote berriaren bila joan ziren. Lehenik, medikuak esan zuen:

— Ez dut gogorregi jokatu nahi bi gizon hauekin, baina iruzurtzaileak direla uste dut, eta guk ezagutzen ez ditugun laguntzaileak ere izan ditzakete. Baldin badituzte, ez al lukete Peter Wilksek utzitako urre zorroarekin ihes egingo? Litekeena da. Gizon hauek iruzurtzaileak ez badira ez dut uste gaizki ikusiko dutenik diruaren bila norbait bidaltzea eta gure eskutan uztea behar bezalakoak direla frogatu bitartean, ezta?

— Denak bat etorri ziren. Eta iruditu zitzaidan gure adiskideak ez zeudela oso egoera onean, hasi orduko. Baina erregea errukiturik zegoela soil soilik zirudien, eta esan zuen:

— Jaunak, nahiago nuke dirua hemen egotea, gertakizun penagarri honen azterketa zuzen, agirikoa, eta goitik beherakoa egiteko oztopoak jartzeko asmorik ez baitut; baina, ai ene, dirua ez dago hemen; joan eta ikus dezakezue, nahi baduzue.

— Non da orduan?

— Ilobak eman zidanean hartu eta berarentzat gorde nuen nire ohearen lastaira barruan, ez bainuen bankuan sartu nahi hemen izango ginen egun gutxi horietarako, eta ohea arriskurik gabeko lekua izango zelakoan, beltzak ezagutzen ez genituelako, eta gure Ingalaterrako zerbitzarien antzera jatorrak izango zirela iruditu zitzaigulako. Beltzek hurrengo goizean lapurtu zuten ni gelatik behera joan ondoren; eta saldu nituenean ez nintzen oraindik horren faltaz ohar-tu, eta hura hartu eta alde egin zuten. Nire zerbitzariak emango dizue horren berri jaunak.

Medikuak eta beste batzuek esan zuten: «Baita zera ere!» eta konturatu nintzen inork ez ziola erabat sinetsi. Gizon batek galdegin zidan beltzak lapurretan ikusi ote nituen. Nik ezetz esan nuen, gelatik ezkutuan irteten eta korrika alde egiten ikusi nituela, eta ez zitzaidala burutik pasa horrelakorik, iruditu zitzaidala nagusia esnatu ote zuten beldur izango zirela eta alde egin nahian ibiliko zirela hari aurre egin behar ez izateko. Besterik ez zidaten galdegin. Orduan medikua niri begira jarri eta esan zidan:

— Zu ere ingelesa al zaitugu?

Baietz esan nuen; eta bera eta beste batzuek barre egin, eta esan zuten: «Hara berriz!» Orduan ikerketa orokorrari ekin zioten, eta han ibili ginen, gora eta behera, orduak joan eta orduak etorri, eta inork ez zuen afariaz ezer esan, horretan pentsatzen zutenik ere ez zirudien..., eta aurrera egin zuten etengabe; eta ez dut inoiz hori baino estualdi okerragorik topatu. Erregeari bere kontakizuna esan erazi zioten, eta gizon zaharrari berea; eta edonork, aurreiritziak zituzten txoriburu pila ez izanez gero behintzat, ikus zezakeen gizon zaharrak egia esaten zuela eta besteak gezurra. Geroago nekiena konta erazi zidaten. Erregeak ezkerreko begiko bazterretik begiratu zidan zeharka, eta horrela jakin nuen nondik nora esan behar nituen gauzak. Sheffieldeko berri ematen hasi nintzaien, han nola bizi ginen, Ingalaterrako Wilkstarren gorabeherak, eta abar; baina ez nuen oso aurrera egin medikua barrez hasi zitzaidanean; orduan Levi Bell, abokatuak, esan zuen:

— Eser zaitez, gazte, ni ez nintzateke gehiago ahaleginduko. Uste dut gezurrak esaten ez zaudela ohituta, ez dirudi eta erraztasunez ari

zarenik. Jardun egin behar duzu. Trakets xamar egin duzu..

Bost axola zitzaizkidan hitz atsegin horiek, baina dena dela poztu egin nintzen barkamena eman zidalako.

Medikua zerbaitetan hasi zen, eta jira egin eta esan zuen:

— Hasieran herrian izan bazina, Levi Bell...

Erregeak eten egin zion, eskua ematera joan zitzaion, eta esan zuen:

— Hara, hainbestetan hildako anaia gizajoak idatziz aipatu zuen lagun zaharra al zara?

Abokatuak eta biak eskua elkarri eman zioten, eta abokatuak irribarre egin zion eta gustura zirudien. Pixka batean hizketan aritu ziren, eta gero bazter batera jo eta ahopeka hitz egin zuten. Azkenean abokatuak ozenki esan zuen:

— Dena konponduta geratuko da. Agindua hartu eta batera gorde egingo dut, zure anaiarenarekin batera, eta orduan dena behar bezala dagoela ikusiko dute.

Papera eta luma hartu zuten, eta erregea eseri egin zen, burua alde batera okertu, mihiari kosk egin, eta zirriborro batzuk egin zituen;

orduan luma dukeari eman zioten..., eta lehenengo aldiz dukea urduri zegoela zirudien. Baina lumari begiratu eta idatzi egin zuen. Gero abokatuak gizon zahar iritsi berriarengana jo zuen eta esan:

— Anaia eta biak mesedez lerro batzuk idatzi eta gero sinatu.

Gizon zaharrak idatzi egin zuen, baina inork ezin zuen hark idatzitakoa irakurri. Abokatuak erabat zor eta lot geratu zela zirudien, eta esan zuen:

— Honek bai harritu nauela... —eta eskutitz zahar pila poltsikotik atera, eta arretaz begiratu zituen, eta gero berriz gizon zaharraren idazkerari begiratu zion arretaz, eta gero haiei berriz. Ondoren esan zuen:

— Eskutitz zahar hauek Harvey Wilksenak dira, eta hemen ditut bi idazkerak; edonork ikus dezake horiek ez dituztela eskutitzak idatzi.

Erregea eta dukea azpikerian erorita eta barregarri jarrita ziruditen, bai horixe, abokatuak nola harrapatu zituen ikusita.

— Eta hemen dugu gizon zahar honen idazkera, eta edonork esan dezake, lan handirik

hartu gabe, berak ere ez dituela idatzi..., egia esateko, honek egin dituen zirriborroak ezin esan daiteke hitzak ere direnik. Hemen ditugu beste honen eskutitzak...

Gizon zahar iritsi berriak esan zuen:

— Mesedez, gauzak azaltzen utziko al didazu? Inork ezin du nire idazkera irakurri nire anaiak ezik..., eta berak berridazten dizkit eskutitzak. Anaiaren idazkera da hor duzuna, ez nirea.

— Ederki! —esan zuen abokatuak—. Honelaxe ditugu gauzak. Williamen eskutitzak ere badi-tut; lerro bat edo idatz erazten badiozu, orduan ikusi ahal...

— Ezin du ezkerreko eskuz idatzi —esan zuen gizon zaharrak—. Eskuineko eskua erabil baleza, ikusiko zenuke bere eskutitzak idatzi dituela eta nireak ere bai. Jarri biak batera, mesedez..., idazkera berbera dute.

Abokatuak hori egin, eta esan zuen:

— Hala dela uste dut..., eta ez bada, edozein modutara ere lehenago ikusi diedan baino antz handiagoa dute. Ederki, ederki! Uste nuen bide zuzenetik ari ginela guzti hau konpontzeko,

baina neurri batean dena pikutara joan zaigu. Dena dela, gauza bat argitu dugu, bi horiek ez dira ez bata eta ez bestea Wilkstarrak —eta buruari eragin eta erregeari eta dukeari begiratu zien.

— Eta, zer diozue? —agure zahar buruhandi horrek ez zuen orduan ere etsi! Ez eta gutxiago ere. Esan zuen hori ez zela azterketa fidagarria. Esan zuen William anaia munduko adarjotzaile madarikatuena zela, eta ez zuela idazteko ahaleginik ere egin..., bazekiela Williamek barregarrikeriaren bat egingo zuela luma paperaren gainean jarri orduko. Berotu egin zen eta aurrera egin zuen txorrotxioka eta txorrotxioka, erregea bera esaten ari zena sinesten hasi zen arte, baina berehala jaun zahar iritsi berriak eten egin zion, eta esan zuen:

— Zerbait bururatu zait. Ba al da hemen anai... Peter Wilks hildakoa hilobiratzeko bezituzen parte hartu zuen inor?

— Bai —esan zuen norbaitek—, ni eta Ab Turner aritu ginen. Hemen gara biok.

Orduan gizon zaharra erregeari begira jarri zen, eta esan zuen:

— Agian jaun horrek esan diezadake zer zuen bularrean tatuaturik?

Orduan bai erregeak indarrak atera behar zituela, edo bestela ibaiak moztutako ibai bazterreko hondar pila bezala urperatuko zen; espero ez zuelarik gaineratu zitzaion..., eta egia esateko, edonor urperatzeko modukoa zen, aurretik ezer jakin gabe horrelako eraso gogorra gainera etortzea..., izan ere, nola jakin behar zuen hark zer zuen gizonak tatuatua? Kolorea joan zitzaion pixka bat; nahitanahiez joan behar zitzaion; eta isiltasuna nagusitu zen, eta denak aurrerantz makurtu eta hari begira geratu ziren. Esan nion neure buruari: oraingoan amore emango du..., beste aukerarik ez du. Egin al zuen, ordea? Ez da erraz sinesteko modukoa, baina ez zuen etsi. Aurrera, egitea bururatu zitzaion nire ustez jendea aspertu arte, batzuek alde egingo zutelakotan, bera eta dukea lasaiago geratu eta orduan alde egiteko. Dena dela, hantxe geratu zen eserita, eta berehala irribarrez hasi, eta esan zuen:

— Ufa! Galdera zaila egin didazu, ezta, Bai, jauna, esango dizut zer duen bularrean tatuatua. Gezi urdin txiki eta meharra da..., horixe da; eta

ez baduzu oso gertutik begiratzen, ezingo duzu ikusi. Eta zer diozu... e?

Ez nuen inoiz hori baino agure zitalagorik ikusi, horrelako lotsagarrikeria garbi eta galantak egiten zituenik.

Gizon zahar iritsi berriak jira egin zuen halako batean Ab Turner eta bere laguntzaileari begiratzeko, eta begiak piztu egin zitzaizkion erregea harrapaturik balu bezala, eta esan zuen:

— Entzun duzue esan duena! Ba al zen horrelako arrastorik Peter Wilksen bularrean?

Biek ozenki esan zuten:

— Ez genuen horrelakorik ikusi.

— Ongi! —esan zuen gizon zaharrak—. Bularrean hauxe ikusi zenuten: P txiki eta zirriborrotsua, B (gaztetan erabiltzen zuen inisiala) eta W, hiruren tarteetan marratxoak jarrita, alegia: P-B-W..., eta gizonak paper batean jarri zituen era honetan—. Zatozte..., ez al zen hau ikusi zenutena?

Biok hitz egin zuten berriz ahots ozenean, eta esan zuten:

— Ez, ez genuen hori ikusi. Ez genuen batere arrastorik ikusi.

Une horretan denak bero —ero zeuden; eta esan zuten oihuka:

— Horiek denak dira iruzurtzaileak! Uretara bota ditzagun! Ito ditzagun! Herritik kanpora bidal ditzagun!

Denak batera ari ziren algara bizian, eta iskanbila galanta entzuten zen. Baina abokatuak mahai gainera jauzi egin, eta oihuka esan zuen:

— Jaunak..., jaunak! Entzun iezadazue hitz bat..., hitz bakar bat..., *mesedez!* Badago beste modu bat..., goazen, atera dezagun gorpua lur azpitik, eta begira diezaiogun.

Hori onartu egin zuten.

— Hori, hori! —oihu egin zuten, eta abiatzen hasi ziren; baina abokatuak eta medikuak esan zuten garrasika:

— Itxaron, itxaron! Eutsi lau gizon horiei eta mutilari lepotik, eta eraman ditzagun gurekin batera!

— Eramango ditugu! —oihu egin zuten—. Eta ez baditugu arrastoak aurkitzen talde osoa astinduko dugu!

Beldurrak airean nengoen, bai horixe. Baina, jakina, irtenbiderik ez nuen. Gu guztiok harrapa-

tu, eta aurrerantz ibil erazi gintuzten, hilobirantz zuzen-zuzen, herri osoa orpoz orpo genuelarik, gaueko bederatzia izateko zarata nahikoa egingen genuelarik.

Gure etxe aurretik igaro ginenean damutu egin nintzen Mary Jane herritik kanpora bidali izanaz; izan ere orduan hari keinu egin baniezaio, azkar abiatu zatekeen ni handik ateratzera, eta gure alfer-handi horiek salatu zituzkeen.

Artaldearen moduan gindoazen ibaiko bidean aurrera, gelditu gabe zalapartaka basa-katuen eran; eta guztia beldurgarriagoa bilakatzeko, zerua ilundu, eta tximistak zeruan alde batetik bestera keinuka hasi ziren, eta haizea hosto artean dardarka. Ez nuen inoiz arazo larriagorik eta arriskutsuagorik begien aurrean izan; eta zor eta lor nengoen nolabait; dena nik espero ez bezala gertatzen ari zen: dena neronek antolatua izan beharrean, eta festa guztia ikusteko aukera izan ordez, eta estualdia aurrez aurre ikusi, Mary Jane atzean laguntzaile nuelarik, ni handik osorik ateratzeko, ez nuen une horretan ezertxo ere ni bat-bateko heriotzatik bereizten

ninduenik, tatuai arrasto horiek besterik. Aurkituko ez balituzte...

Ezin nituen pentsakizun horiek eramane; eta hala ere, ezin nuen beste ezertan pentsatu. Gero eta ilunago zegoen, eta une aproposa zen jendezaren artetik ihes egiteko; baina gizon handikote horrek esku muturretik heltzen ninduen, Hinesek, eta Goliati ihes egiten ahalegintzea bezalaxe zen hori. Aurrera arrastaka neraman, su eta gar baitzihoan; eta lasterka ibili beharra nuen haren parean joan ahal izateko.

Kanposantura iritsi zirenean ardiak bezala sartu ziren bata bestearen atzean eta urak gainezka egiten duenean bezalaxe barreiatu ziren. Hilobira iritsi orduko konturatu ziren behar zituztenak baino ehun aldiz pala gehiago zituztela, baina inori ez zitzaion bururatu linterna eramatea. Hala ere, zulatzeari ekin zioten tximisten distiren argipean, eta gizon bat bidali zuten linterna bila handik mila erdira zegoen lehenengo etxera.

Zuloa egin eta egin aritu ziren eten gabe, eta ilundu egin zuen ikaragarri, euria hasi zuen, haizea xuxurlaka eta marmarka ari zen, tximistak

gero eta biziagoak ziren, eta trumoiak danbatekoka ari ziren; baina hango jendea ez zen horretaz konturatzen, lanak erabat hartuta baitzituen; eta minutu batez gauza guztiak eta jendetzaren aurpegi guztiak ikus zenitzakeen, eta lurrez betetako palak hilobitik airean ateratzen zituztela; hurrengo unean iluntasunak dena estali zuen, eta ezin zitekeen ezer ikusi.

Azkenean atera zuten hilkutxa, eta estalkiaren torlojuak askatzen hasi ziren, eta orduan hango zalapartak, bultzakadak eta astinduak, muturra sartu eta zerbait ikusteko, ez ziren edonon ikusten diren horietakoak; eta ilunpe horretan gainera, ikaragarria zen. Hinesek min handia ematen zidan eskumuturretik heltzean, horrenbeste tiratuz eta estutuz, eta iruditu zitzaidan nihan nengoela ere ahaztu egin zuela, erabat urduri eta arnas beharturik baitzegoen.

Halako batean tximistak argitasun zuriko errenka bikaina jaurtiki zuen, eta norbaitek oihu egin zuen:

— Mila deabru! Urrearen zorroa du bular gainean!

Hinesek garrasi egin zuen, beste guztiek bezala, eta nire eskumuturra askatu eta brast egin zuen aurrera han zegoena begiratzeko, eta inork ezingo lizuke esan neure burua askatu eta nola abiatu nintzen biderantz lasterka eta ilunpetan.

Bidea niretzat nuen oso osorik, eta hegan egin nuen benetan..., izan ere, ni besterik ez zihoan bidean aurrera hango iluntasun sendoa ezik, eta aldian behingo distirak, euriaren durrunda, haizearen astinduak, eta trumoiak leherketak; eta sinets ezazu; bai presaka ibili nintzela!

Herrira iritsi nintzenean, ikusi nuen inor ez zebilela kanpoan ekaitz giro horretan, horrenbestez ez nintzen etxe arteko kaleen bila ibili, eta zuzen-zuzen presaka jo nuen kale nagusira; eta gure etxera hurbiltzerakoan hari begira jarri eta hala geratu nintzen. Ez zen argirik; etxea ilunpetan zegoen..., eta horrek gogangabetu eta goibel erazi ninduen, ez nekien zergatik. Baina azkenean, haren aurretik bizkor igarotzen ari nintzenean, plast! argia azaldu zen Mary Janen leihoan. Eta halako batean bihotza puztu egin

zitzaidan, eztanda egin nahiko balu bezala; eta berehalakoan etxea eta beste gauza guztiak atzean utzi nituen ilunpetan, eta ez nituen handik aurrera berriz ikusiko. Munduko neskarik onena zen, eta ausartena.

Herrian gora jo, eta hondar pila ikusteko adina urruti nengoenean, ontzi bat hartu eta eramateko erne ibili nintzen begira; eta tximistak kateaturik ez zegoen horietako bat erakutsi zidan bezain laster, harrapatu eta handik ateranuen. Kanoa zen, eta soka soil batek lotzen zuen. Hondar pilara iristeko ikaragarritzko tartean handik, han urrutian izango zen ibaiaren erdian, baina ez nuen denborarik galdu; eta azkenean almadiara iritsi nintzenean leher eginik nengoen, eta gustura etzan eta arnasa hartu nukeen horretarako astirik izan banu. Baina ez nuen hori egin. Ontziratu ahala oihu egin nuen:

— Goazen, Jim, askatu ontzia! Jainkoari esker-rak geure buruen jabe gara berriz!

Jim presaka irten, eta niregana zetorren besoak zabal zabalik jarrita; bai pozik zegoela; baina tximistaren argitan ikusi nuenean, bihotza ia ahorraino etorri zitzaidan, eta ontzi gainetik

atzerantz erori nintzen; izan ere, Lear Erregea, eta arabiarra itota, biak batera zela ahazturik nuen, eta ia beldurak eraginda gibelak eta guzti atera zitzaizkidan kanpora. Baina Jimek handik atera ninduen, eta ni besarkatzen, bedeinkatzen, eta abar egiten hastekoa zen, oso pozik baitzegoen itzuli nintzelako eta erregea eta dukea atzean utzi genituelako, baina nik esan nion:

— Egon, egon..., gosaritarako utz ezazu, gosaritarako! Askatu soka eta irrist egin dezala!

Bi segundo barru ibaian behera ari ginen irristan, eta pozgarria zen benetan berriro libre eta geure buruen jabe izatea ibai handi horretan, aldamenean lanik ematen zigun inor izan gabe. Alde batetik bestera korrika ibili behar izan nuen pixka batean, jauzi egin eta minutu batzuetan orpoei danba lurraren kontra eragin, ezin nuen besterik egin; baina gutxi gorabehera hirugarren danbatekoarekin batera oso ongi ezagutzen nuen hotsa entzun nuen..., arnasari eutsi, entzun, eta itxaron egin nuen..., eta halaxe, hurrengo argi distirak ur gainean eztanda egin zuenean, hantxe zetozen!..., arraunei gogor era-

ginez eta txalupa burrunbaka zekartelarik! Erregea eta dukea ziren.

Horrenbestez, indarrak galdu, ohol gainera erori, eta etsi egin nuen; eta horixe besterik ezin egin izan nuen negarrari eusteko.

Hogeita hamargarren atala

Ontziratu zirenean, erregea eraso egitera etorri zitzaidan, eta lepotik heldu, eta esan zidan:

— Musu huts utzi nahian ibili zara, e mukitsu? Gurekin ibiltzen nekatu al zara..., e?

Esan nuen:

— Ez, maiestate, ez..., mesedez ez, maiestate!

— Orduan, azkar, esan ze asmo zenituen, edo bestela oraintxe birikak aterako dizkizut!

— Begirunez, dena gertatu den bezala esango dizut, maiestate. Eskutik hartuta ninduen gizonak oso zintzo jokatu du nirekin, eta esan eta esan aritu zait nire adineko semea zuela, eta iaz hil zitzaiola, eta errukigarria iruditzen zitzaiola mutil bat horrelako egoera arriskutsuan ikustea; eta urrea aurkitzean denak zor eta lor geratu eta hilkutxara presaka hurbildu direnean, eskua askatu eta marmarka esan dit: «Joan azkar, orain, edo bestela zintzilikatuko zaituzte! eta ihes egin dut. Ez zidan gauza onik ekarriko

han geratzeak..., ezin nuen ezer egin, eta ez nuen zintzilikaturik bukatu nahi ihes egiteko aukera izanik. Halaxe lasterka aritu naiz etengabe kanoa aurkitu arte; eta hona iritsi naizenean Jimi azkar abiatzeko esan diot, bestela harrapatu eta zintzilikatu egingo nindutela, eta esan diot zoritxarrez ez nuela uste zu eta dukea bizirik izango zinetenik, eta oso nahigabeturik nengoen, eta Jim ere bai, eta ikaragarri poztu naiz etortzen ikusi zaituztedanean, Jimi galde diezaiokezu nahi baduzu.

Jimek halaxe gertatu zela esan zuen; eta erregeak isiltzeko agindu zion, eta esan zuen:

— A, bai, litekeena da, bai!

Eta berriro astindu ninduen, eta esan zuen iruditzen zitzaiola ito egingo ninduela. Baina dukeak esan zuen:

— Utzi mutikoa bakean, agure txepela! Beste era batera jokatuko al zenukeen zuk? Bere bila ibili al zara aske geratu zarenean? Ez dut uste.

Orduan erregeak aske utzi ninduen, eta herriaren aurka eta denen aurka gaizki esaka hasi zen. Baina dukeak esan zuen:

— Hobe zenuke zeure buru madarikatu horren kontra gaizki esaka aritzea, gehiena merezi duzu eta. Hasiera hasieratik ez duzu zentzuzko gauzarik egin, salbu eta gezi urdin arrasto horrena asmatzerakoan horren hotz eta lotsagabeki jokatu duzunean. Aparta izan da hori..., primerakoa izan da; eta horri eskerrak onik atera gara. Horregatik izan ez balitz, espetxeratu gintuzketen ingelesen bidai poltsak iritsi bitartean, eta gero, kartzela, bai horixe! Baina trikimailu horrek kanposantura eraman ditu, eta urreak are mesede handiagoa egin digu; eskutik heltzen gintuzten tentel horiek jakin-minez, gu aske utzi, eta presaka han zegoena ikustera hurbildu ez balira, gorbatak jantzita lo egingo genukeen gaur gauean..., guk behar baino garantia luzeagoko gorbatak jantzita, alegia.

Isilik geratu ziren pixka batean..., pentsatzen; gero esan zuen erregeak burua beste nonbait balu bezala:

— Hara, eta guk beltzek lapurtu zutela uste genuen! Horrek larritu egin ninduen.

— Bai —esan zuen dukeak, poliki xamar, ziurtasunez eta ironiaz—: Bai, hori uste izan dugu.

Handik minutu erdira erregeak poliki-poliki esan zuen:

— Gutxienez..., nik uste izan dut.

Dukeak modu berean esan zuen:

— Ez bestela da..., nik uste izan dut.

Erregea berotu egin zen, eta esan zuen:

— Begira, Bilgewater, zertaz ari zara?

Dukeak esan zuen kementsu:

— Horretaz ari garenez gero, agian zuk esan beharko didazu zertaz ari zaren.

— Utikan! —esan zuen erregeak irri mingarri—; Baina ez dakit..., agian lotan izango zinen, eta ez zinen egiten ari zinenaz konturatu.

Dukeari orduan ilea lastu zitzaion, eta esan zuen:

— Utzi tentelkeria madarikatu horiek alde batera..., ergela naizela uste al duzu? Ez al zara konturatzen badakidala nork jarri zuen dirua hil-kutxan?

— Bai, jauna! Badakizu, bai..., zerorrek jam zenuen eta!

— Gezurra!... eta dukea eraso egitera joan zitzaion. Erregeak oihu egin zuen:

— Kendu esku horiek!... Askatu lepoa!...

Esandakoan atzera egingo dut!

Dukeak esan zuen:

— Lehenik onar ezazu dirua bertan ezkutatu zenuela, egunen batean ni bakarrik utzi, hona itzuli, dirua hartu eta guztia zuretzat izan zedin.

— Egon pixka bat, duke..., erantzun iezadazu zintzo eta gizalegeak dioen bezala; ez ba zenuen dirua han sartu, esan, eta sinetsiko dizut, eta barkamena eskatuko dizut esandakoagatik.

— Agure petral hori! Ez nuen ezkutatu, eta badakizu zuk ez nuela nik ezkutatu. Eta, orain zer?

— Sinesten dizut. Baina erantzun mesedez beste azken galdera honi..., ez haserretu; ez al zitzaizun bururatu dirua hartu eta nonbait ezkutatzea?

Dukeak ez zuen tarte batean hitzik esan; gero esan zuen:

— Horrek ez du axolarik, edozein modutara ere nik ez nuen hori egin. Baina zuri bururatu bakarrik ez zitzaizun egin, benetan egin ere bai.

— Ez nadila inoiz hil hori egin badut, duke, eta benetan esaten dizut. Ez dizut esango asmo-

rik izan ez nuenik, izan nituen eta; baina zuk..., alegia norbaitek..., aurea hartu zidan.

— Gezurra! Zeuk egin zenuen, eta egin zenuela esan beharko duzu, bestela...

Erregea zintzur hotsak egiten hasi zen, eta gero arnas beharturik esan zuen:

— Nahikoa! Aitortzen dut!

Hori entzuteak poztu egin ninduen, eta lehen baino lasaiago geratu nintzen. Orduan dukeak eskuak lepotik kendu, eta esan zion:

— Berriz atzera egiten baduzu, itoko zaitut. Aproposa da zuretzat hor bazterrean eseri eta umeak bezala negar zotinka aritzea..., zure tankerako gauza da, jokatu duzun bezala jokatu ondoren. Ez dut zu bezalako ostraka zaharrik inoiz ikusi, hortxe dena irentsi nahian...I eta nik denbora guztian aita izango bazina bezala sine-tsi dut zugaran. Lotsaturik egon beharko zenuke beltz gizajo pila horiei guztia leporatzen zieten bitartean, zu hortxe lasai eta horien alde ezer esan gabe geratzeagatik. Lotsagarri senti eraz-ten nau zikinkeria hori sinetsi nuela pentsatzeak. Madarikatu hori, orain ulertzen dut defizita estal-tzeko zenuen lehia... *Berdingabeko* dirua eta

hemengo eta hango dirua eskuratu nahi zenuen, eta guztia bildu eta eraman!

Erregeak esan zuen, burumakur, eta oraindik jinjanka mintzatzuz:

— Baina, duke, zuk esan zenuen defizita estaltzeko, ez nik.

— Zaude isilik! Ez dizut hitz bakar bat ere entzun nahi! —esan zuen dukeak—. Ikusten duzu zer atera duzun. Diru guztia berreskuratu dute, eta gainera gurea ere eraman digute xentimo bat edo bi ezik. Joan zaitez ohera..., eta ez gero aipatu niri defizit gehiagorik, bizirik zauden bitartean!

Erregea arrastaka sartu zen denda barruan, eta botila hartu zuen kontsolagarri; eta luzaro gabe dukeak ere bereari eutsi zion, eta ordu erdi barru ogi eta jaki ziren berriz, eta zenbat eta mozkorrago egon orduan eta maitagarriago ari ziren; eta elkar besarkaturik lo hartu eta zurrungan hasi ziren. Edariak apal-apal jarri zituen biak, baina konturatu nintzen edariak ez zuela erregea nahikoa apaldu burutik baztertzeke adina ez zuela berriro ezeztatu behar diru zorroa berak ezkutatu zuela. Horrek lasaitu eta ase nin-

duen. Loak hartu zituenean, noski, guk berriketa luzea izan genuen, eta Jimi gertatutako guztia esan nion.

Hogeita hamaikagarren atala

Ez genuen inongo herritan geratu zenbait egunetan; ibaian behera aritu ginen etengabe. Hegoaldean ginen bete betean, eguraldi berotan, eta etxetik oso urruti. Hasi ginen goroldio espainiarra zuten zuhaitzak ikusten, adarretatik zintzilik bizar luze grisak balira bezala. Lehenengo aldia zen goroldioa era horretan hazita ikusten nuela, eta basoak itxura ospetsua eta goibela hartzen zuen. Orduan iruzurtzaileei iruditu zitzaien han arriskurik ez zela, eta herrietan lanean hasi ziren berriz.

Lehenik ez edatearen aldeko hitzaldia eman zuten; baina ez zuten biak mozkortzeko adina irabazi. Gero beste herri batean dantza eskola eratu zuten; baina kanguru batek egiten duena baino gehiago ez zekiten dantzan, eta lehenengo jauziak egin zituztenean, ikusle guztiak zutitu eta jauzika herritik bidali zituzten. Beste batean deklamazio lanetan ahalegindu ziren, baina ez zuten luzeegi deklamatu entzulegoa zutitu, madarikazio gogorrak bota, eta alde egin erazi

zienean. Misiolaritzan ere jardun zuten, eta mesmerismoan, eta medikuntzan, eta etorkizuna asmatzen ere bai, eta denetatik pixka bat egin zuten; baina ez zirudien zorte ona egokitu zitzaienik. Azkenean sosik gabe geratu ziren, eta ur gainean aurrera gindoazen bitartean, atzera eta aurrera ibiltzen ziren almadian, pentsatzen, eta pentsatzen, eta batzuetan egun erdian ere hitzik esan gabe, eta ikaragarri goibel eta etsiak hartuta.

Azkenean aldatu egin zuten jokaera, bata bestearen ondoan jarri eta kanpadenda barruan ahopeka eta ezkutuan hasi ziren hitz egiten bizpahiru orduz aldiro. Jim eta biok larritu egin ginen. Ez zitzaigun horren itxura atsegin. Iruditu zitzaigun besteetan baino deabrukeria okerragoren bat ari zirela prestatzen. Zer ote zen eta zer ote zen aritu ginen pentsatzen, eta azkenean erabaki genuen norbaiten etxean edo dendetan lapurtuko zutela, edo diru faltsuketan arituko zirela, edo antzeko zerbaitetan. Nahikoa beldurrik ginen orduan, eta bat etorri ginen guk ez genuela horrelako eginkizunekin zerikusirik izango, eta aukerarik txikiena ikusten bagenuen

musu-huts utziko genituela, eta alde egingo genuela. Egun batean goizean goiz almadia ongi ezkutatu genuen leku egoki batean, Pikesville izena zuen herrixka txiki batera iritsi baino bi mila lehenago, eta erregea lehorrera joan zen, eta esan zigun ezkutuan egoteko, herrian *Erregetasun Berdingabearen* berririk ba ote zuten sumatzera zihoan bitartean. («Etxeren batean lapurtzera, esan nahi duzu», esan nuen nire artean; «eta lapurtu ondoren hona itzuliko zara eta ez duzu jakingo zer gertatu zaigun, Jimi eta bioi, eta almadiari..., eta galdezka aritu beharko duzu.») Eta esan zuen eguerdirako itzuliko ez balitz, horrek dena behar bezala zegoela adieraziko lukeela, eta dukea eta biok herrira joan gintezkeela.

Hantxe geratu ginen gu. Dukea haserre eta izerditan zebilen atzera eta aurrera, eta oso umore txarrez zegoen. Edozein gauzarengatik erriertan egiten zigun, eta dena oker egiten genuela zirudien; gauza txiki bakoitzean akatsak ikusten zituen. Zerbait zerabilen hark buruan. Poztu egin nintzen eguerdia iritsi eta erregea itzuli ez zenean; behintzat aldaketaren bat izan-

go genuen..., eta agian *aldaketa* nagusirako aukera. Dukea eta biok herrira joan, eta erregearen bila ibili ginen; azkenean taberna kaxkar baten atzeko gelan aurkitu genuen, mozkor-mozkor eginda, eta alfer-handi pila inguruan zituelarik, haren kontura barre egiten; erregea berriz indar guztiz biraoka eta madarikazioka ari zitzaien, baina horren mozkorturik zegoenez ezin zuen ibili, eta ezin zien ezer egin. Dukea iraintzen hasi zitzaion, agure txepela zela esanez, eta erregeak era lotsagabean erantzun zion; eta horretan ari ziren une berean, ihes egin nion, hanka egin, eta ibaiko bidean behera lasterka abiatu nintzen oreina banintz bezala..., gure aukera aurrean ikusi bainuen; eta denbora luzean ez gintuztela Jim eta biok berriz ikusiko hartu nuen erabakia. Arnasa hartu ezinik iritsi nintzen, baina pozez zorutzen, eta oihu egin nuen:

— Askatu almadia Jim, aske gara!

Baina ez zen erantzunik izan, eta ez zen inor kanpadendatik irten. Jim joan egin zen! Oihu egin nuen... eta gero berriz... eta berriz; eta basoan alde batera eta bestera lasterka ibili nin-

tzen deiadarka eta garrasika; baina alferrik... Jim joan egin zen. Gero eseri eta negar egin nuen; ezin nion negarrari eutsi. Hala ere ezin izan nuen denbora luzean eserita geratu. Berehala bidera irten, eta zer komeni zitzaidan egitea pentsatzen ari nintzelarik, oinez zihoan mutil batekin egin nuen topo; beltz kanpotarren bat, hala eta hala jantzita, ikusi ote zuen galdegin nion, eta esan zidan:

— Bai.

— Non? —esan nuen.

— Silas Phelpsen etxean, hemendik behe-rantz bi milatara. Beltz iheslaria duk, eta harrapatu egin diate. Horren bila ari al huen?

— Ez, motel, ez! Basoan topatu nian duela ordu pare bat edo, eta esan zidaan oihu egiten banuen birikak aterako zizkidala..., eta lurrean etzan eta bertan geratzeko; eta hori egin nian. Orduz gero hantxe egon nauk, ateratzeko beldurrez.

— Ez duk bada berriz beldurturik ibili beharrik, harrapatu diate eta. Hegoaldean nonbaite-tik ihes egin omen zian.

— Ederki egin diate gizon hori harrapatzen.

— Bai, horixe! Berrehun dolarretako diru saria eskaintzen ziaten horren truke. Hori dirua lurrean botata aurkitzea bezalaxe duk.

— Bai hala da..., eta nirea izan zitekeen handiagoa izan banintz; nik ikusi diat lehenengo. Nork atxiki dik?

— Gizon zahar batek, kanpotarra zen, eta diru saria eskuratzeko aukera berrogei dolarren truke galdu dik; ibaian gora joan behar zuenez ezin itxaron zezakeelako. Zer iruditzen zaik hori? Nik itxarongo nuke bai, baita zazpi urte itxaron ere.

— Nik ere bai —esan nuen—. Baina agian diru saria ez huen handiagoa izango, horren merke saldu badu. Oker ulerturen bat edo izan zitekean.

— Ez, bada, dena zuzen zegoan..., zuzen baino zuzenago. Neronek ikusi nian agiria. Horren berri ematen zian goitik behera..., haren irudia balitz bezala, eta nongo landetakoa zen esaten zian. New Orleansetik beherakoa edo. Ez jauna, ez, ez zegok hik esaten huen horren beldurrik. Eta, emango al didak tabako pixka bat?

Ez nuen batere, eta alde egin nuen. Almadia-
ra joan, eta kanpadenda barruan eseri eta zer-
bait asmatu nahian aritu nintzen. Baina ez nuen
ondoriorik atera. Buruak min eman arte aritu
nintzen pentsatzen, baina handik ateratzeko
modurik ez nuen ikusten. Halako bidaiia luzea
egin ondoren, eta lotsagabe horiei eskainitako
laguntza eskaini ondoren, dena alferrik izan zen,
dena apurtuta eta txikituta geratu zen, horiek
jimi horrelako azpikeria egiteko asmo txarra izan
zutelako; esklabo bilakatu zuten berriz, bizitza
osorako, eta ezezagunen artean gainera, eta
berrogei dolar zikinen truke.

Halako batean esan nion neure buruari
jimentzat mila aldiz hobe izango litzatekeela
familia zuen etxean esklabo izatea, esklabo izan
behar bazuen behintzat, eta Tom Sawyerri esku-
titza idatzi beharko niokeela Jim non zegoen esa-
nez honek Watson andereñori esan ziezaion.
Baina berehala baztertu nuen asmo hori, bi arra-
zoirengatik: hura haserre eta amorraturik egon-
go litzateke beltzak etxetik ihes egin eta horren
maltzur eta esker gaiztoko izateagatik, eta
horregatik saldu egingo luke berriz hegoaldera;

eta hori egingo ez balu, jakina da denek gutxies-
ten dutela esker gaiztoko beltza, eta hori adiera-
ziko liokete Jimi denbora guztian, eta orduan
gutxietsia eta zoritxarrekoa izango litzateke. Eta
orain pentsatu nitaz! Huck Finnek beltz bati ihes
egiten lagundu dio. Berria handik eta hemendik
zabalduko litzateke, eta herrikoren bat berriz
ikusiko banu, makurtu eta zurikerietan hasi
beharko nuke lotsa-lotsa eginda. Hauxe zen ger-
tatzen zitzaidana: norbaitek okerren bat egiten
duenean, gero ez dituela ondorio txarrak onartu
nahi izaten. Ezkutuan gorde dezakeen bitartean,
ezer txarrik ez duela egin iruditzen zaio. Hori zen
juxtu-juxtu nire egoera. Zenbat eta gehiago
aztertu, barneko harrak lan handiagoak ematen
zizkidan, eta gaizto, zital eta gaitzetsiagoa ikus-
ten nuen neure burua. Eta azkenean, halako
batean garbi ikusi nuen Jaungoikoaren Probiden-
tziaren eskua bera zela aurpegian zapla jotzen
ninduena eta nire gaiztakeriak zerutik beti ikus-
ten zituela jakin erazten zidana, nik berriz, inoiz
kalterik egin ez zidan emakume zahar gaixo bati
beltza lapurtzen niolarik, eta orain erakusten
zidan badela beti zelatan dagoen norbait, eta

Horrek lotsagarrikeriak neurri bateraino iristen uzten dituela, baina ez areago. Beldurrak harturik ia bertan lurrera erori nintzen. Ahalegindu nintzen nola edo hala gauzak baretzen eta egoera nire alde jartzen, eta esan nuen gaiztoa hazi nindutela, eta nik ez nuela errurik; baina, hala ere, barruan nuen zerbaitek esaten zidan: «Horixe zenuen igandeetako eskola, joan zintezkeen; eta joan izan bazina, han irakatsi zizuketzen zuk beltz horrekin jokatu duzun bezala jokatzeko duenak betiko sutara joaten dela.»

Dardara eragin zidan. Eta errezatzeko erabakia ia hartua nuen; eta ahaleginak egin horrelako mutil gaiztoa izateari utzi, eta zintzoagoa izateko. Belaunikatu egin nintzen. Baina hitzik ez zitzaidan ahora etortzen. Zergatik ez? Alferrik zen Hari gauzak ezkutatzen saiatzea. Ezta neure buruari ezkutatzea ere. Oso ongi nekien zergatik ez zitzaizkidan hitzak bururatzen. Bihotza ez nuelako garbia; benetan ari ez nintzelako; zuri-kerietan ari nintzelako. Bekatuari ihes egiteko itxura egiten ani nintzen, baina nire barruan bekaturik handienari eusten nion. Ahoari esan erazi nahi nion zuzen eta garbi jokatu nuela,

eta beltzaren nagusiarri idatzi eta non zegoen esango niola; baina nire baitan hori gezurra zela ongi nekien..., eta Hark ere bazekien. Ezin dira gezurrak errezatu..., horretaz konturatu nintzen.

Kezkak besterik ez nituen, buruan gainezka; eta ez nekien zer egin. Azkenean zerbait bururatu zitzaidan; eta esan nuen: eskutitza idatziko dut... eta gero ikusiko dut errezatzeko gai naitzen. Harrigarria izan zen, berehala geratu nintzen luma baino arinago, eta kezka guztiak alde egin zidaten. Papera eta lapitza hartu nituen, pozik eta urduri, eta eseri eta idatzi egin nuen:

Watson andereño jim zure beltz iheslaria Pikesvilletik behera bi milatara duzu Phelps jaunak du eta dirusaria bidaltzen badiozu itzuliko dizu.

HUCK FINN

Bizitza osoan ez bezala zintzo eta bekatutik garbi ikusi nuen lehenengo aldiz neure burua, eta banekien orduan errezatu nezakeela. Baina ez nuen hori berehalakoan egin, papera utzi, eseri, eta pentsatzen hasi nintzen..., alegia, ona zela gauzak horrela gertatu izana, eta zein gertu

ibili nintzen betiko galera eta infernutik. Eta aurrera egin nuen pentsakizunetan. Eta ibaian behera egin genuen bidaia etorri zitzaidan burura; eta Jim ikusten nuen aurrean denbora guztian, egunez eta gauez, batzuetan ilargiaren argitan, besteetan ekaizpean, ur gainean aurrera gindoazelarik, hizketan, abesten, eta barre eginez. Baina ez nuen neure burua haren kontragor jartzeko modurik ikusten, bestela baizik. Jim ikus nezakeen nire begirale txanda egiten berea egin ondoren, eta niri hots egin beharrean, lo egiten uzten zidalarik; eta haren poza ikus nezakeen laino tartetik itzuli nintzenean; eta zingiran azaldu nintzaionean, han goian mendekuarena gertatu zen lekuan; eta antzeko egoeretan; eta beti maitea esaten zidala, eta laztantzen ninduela, eta niri laguntzeko ahal zuen guztia egiten zuela, eta nire onerako ari zela beti; eta azkenean burura etorri zitzaidan, bizia salbatu nion hura, bi gizon haiei ontzi gainean nafarrerria genuela esan nienean, eta nola eman zizkidan eskerrak, eta nola esan zidan Jim zaharrak ni ninduela munduko lagun bakarra,

eta orduan zuen bakarria; eta gero nahigabe ingurura begiratu, eta papera ikusi nuen.

Estualdian nengoen. Papera jaso eta eskutan eutsi nuen. Dardarka nengoen, bi gauzen artean behin betirako erabakia hartu behar nuelako, eta banekien. Pixka batean aztertu nuen, arnasari pixka bat eutsiz, eta gero esan nuen nire artean:

— Ederki, orduan infernura joango naiz —eta papera puskatu nuen.

Burutapen ikaragarriak ziren, eta hitz ikaragarriak, baina esan nituen. Eta esanak utziko nituen; eta ez nuen inoiz aldaketarik egitea pentsatuko. Burutik baztertu nituen gauza guzti horiek, eta gaiztakerietara itzuliko nintzela erabaki nuen, nire tankeragokoa baitzen, horretarako hazi nindutenez gero, eta ez beste gauzetarako. Eta lehenengo eta behin, lanean hasi eta Jim lapurtu eta aske utziko nuen berriz; eta ezer okerragorik asmatu ahal izango banu, hori ere egingo nuke; izan ere, horretan sarturik nengoenez gero, eta ongi sartuta gainera, azken mugaraino ere jo nezakeen.

Gero hori nola egin pentsatzen hasi nintzen, eta buruan mila eratara aztertu ondoren, azke-

nean nire gustuko plana aurkitu nuen. Ibaian beheraxeago zegoen zuhaitzi ugariko uharte bat begiz jo nuen, eta nahikoa ilundu bezain laster almadia hartu, eta harantz abiatu nintzen. Ontzia bertan ezkutatu, eta gero lotara joan nintzen. Gau osoa segidan egin nuen lo, eta egunak argitu baino lehen jaiki nintzen. Gosaldu, arropa berriak jantzi, eta zaharrak eta beste gauza bat edo beste hartu, fardela egin eta denak batera lotu nituen, kanoan sartu eta ibai bazterrera abiatu nintzen. Phelpsen etxea baino beheraxeago lehorreratu nintzela iruditu zitzaidan. Fardela basoan ezkutatu nuen, gero kanoari harriak barruan sartu nizkion, urez bete, eta urperatu zedin utzi nuen, behar izanez gero berriro aurki nezakeen lekuan, ibai bazterreko zerrategi baten errekatxotik mila laurdena edo beheraxeago.

Ondoren bidean gora jo nuen, eta zerrategi ondotik igaro nintzenean iragarki hau jarrita zuela ikusi nuen: «Phelpsen zerrategia», eta berrehun edo hirurehun metro egin eta etxaldeetara iritsi nintzenean begiak zorroztu nituen, baina ez nuen inor inguruan ikusi, ordurako egu-

nak ederki argitu zuen arren. Baina bost axola zitzaidan, ez nuen oraindik inor ikusi nahi..., lekua aztertu besterik ez nuen nahi. Nire asmoaren arauera herrixkatik iristekoa nintzen, ez beheko aldetik. Beraz ongi begiratu ondoren, zuzen-zuzen herrirantz abiatu nintzen. Bertara iritsi orduko ikusi nuen lehenengo gizona dukea izan zen. *Erregetasun Berdingabearen* iragarkia ari zen horman itsasten, hiru gauetako emanaldia, aurrekoan bezala. Hura azala iruzurtzaile horiek zutena! Gainean nuen itzuri egin nahi izan nionerako. Zor eta lot zirudien, eta esan zuen:

— Kaixo! Nondik zatoz? —esan zuen, pozik eta jakin-minez balego bezala—. Non duzu almadia? Leku egokian ezkutatu al duzu?

— Hara, horixe bera galdetu behar nion oraintxe jaun goren horri —esan nuen—.

Orduan ez zirudien horren pozik zegoenik, eta esan zuen:

— Zer dela eta galdegin didazu hori?

— Izan ere —esan nuen—, erregea atzo taberna zulo horretan ikusi nuenean, esan nion neure buruari, ezingo dugu denbora luzean etxeratu, mozkorraldia baretu bitartean; beraz den-

bora pasa ibili nintzen herrian atzera eta aurrera horren zain. Gizon batek hamar xentimo eskaini zizkidan txalupan ibaiaren beste aldera joaten laguntzen banion ardi baten bila joateko, eta berarekin joan nintzen; baina ontzira sartzeko ardia bultzaka ari ginenean, gizonak soka eman zidan eutsi niezaion, eta ardiaren atzean jarri zen bultza egin eta animalia ontzian sartzeko, ardia indartsuegia zen niretzat, soka askatu zitzaidan, eta ihes egin zigun, eta atzetik bila joan gintzaizkion. Zakurrik ez genuen, eta atzetik ibili behar izan genuen leher egin erazi genuen arte. Iluntzea arte ez genuen harrapatu, gero ibaia gurutzatu genuen animalia eta guzti, eta almadiarantz abiatu nintzen. Iritsi eta han ez zegoela konturatu nintzenean, esan nuen nire artean: «Zerbaitetan sartu dira, eta alde egin beharra izan dute; eta nire beltza ere eraman dute, munduan dudan beltz bakarra, eta orain lurralde ezezagunean nago, eta ez ondasunik, eta ez besterik ere ez dut, eta ezta bizia aurrera ateratzeko modurik ere.» Eseri eta negar egin nuen, eta basoan lotan eman nuen gaua. Baina

zer gertatu da orduan almadiarekin?... eta Jim, Jim gizajoa!

— Deabruak naramala baldin badakit..., alegia, almadiarekin gertatu dena baldin badakit. Agure txepel horrek salerosketaren bat egin, eta berrogei dolar irabazi zituen, eta taberna zuloan aurkitu genuenerako hango alferrak dolar erdiko apustuak egin, eta bana banan irabazi zizkieten xentimo guztiak, whiskytan gastatu zituenak ezik; eta bart gauean azkenean etxeratu ahal izan nuenean, almadia ez zegoela ikustean, esan genuen: «Mutiko maltzur horrek almadia lapurtu, eta alde egin digu, eta ibaian behera joan zaigu.»

— Ez nioke beltzari alde egingo, ezta? Munduan dudan beltz bakarra, eta ondasun bakarra.

— Ez genuen hori kontutan hartu. Egia esan, gure beltza balitz bezala hartzen genuen; bai, hala hartzen genuen..., goiak daki hark eman zizkigun lanak. Eta ikusi genuenean almadiarik ez zela, eta xentimorik gabe ginela, ez zegoen *Erregetasun Berdingabea* ahalegintzea beste irtenbiderik. Orduz gero lan eta lan aritu naiz,

eta lehorra baino lehorrago nago. Non dituzu hamar xentimo horiek? Emazkidazu.

Nahikoa diru nuen, eta hamar xentimo eman nizkion, baina eskatu nion jateko gaietan erabil zitzan, eta niri ere zerbait emateko, beste dirurik ez nuelako, eta bezperaz gero jan gabe nengoe-lako. Ez zuen hitzik esan. Berehalakoan jira egin eta niri begira esan zuen:

— Beltz horrek salatuko gaituela uste al duzu? Hori eginez gero larrutuko genuke!

— Nola salatuko gaitu? Ez al du ihes egin?

— Ez! Agure txepel horrek saldu egin zuen, eta ez zuen dirua erdibitu, eta dirua joan zaio dagoeneko.

— Saldu? —esan nuen, eta negarrez hasi nintzen—. Baina nire beltza zen, eta nire dirua. Non da? Nire beltza nahi dut.

— Ezin duzu beltza eraman, eta kito..., eta lehortu malko horiek. Entzun... uste duzu gu salatzeko ausardia izango zenukeela? Nola arraio bururatu zait zugar uste ona izatea. Salatu nahi bagaituzu...

Isildu egin zen, baina ez nuen dukea inoiz begiratu itsusi hori jarrita ikusi. Negar zotinka aurrera egin nuen, eta esan nuen:

— Ez dut inor salatu nahi; eta gainera ez dut salatzeke denborarik. Nire beltzaren bila joan beharra dut.

Kezkaturik zegoela zirudien, eta zutik geratu zen, iragarkiak besoan zurrunbiloka zituelarik, kopeta zimur jarrita, eta pentsatzen. Azkenean esan zuen:

— Gauza bat esango dizut. Hiru egun egin behar ditugu hemen. Hitz ematen badidazu ez gaituzula salatuko, eta ez diozula beltzari gu salatzen utziko, non aurki dezakezun esango dizut.

Hitz eman nuen, eta hark esan zuen:

— Nekazari batek erosi zuen. Izena Silas Ph...
—eta orduan eten egin zuen.

Ikusten duzu egia esaten hasi zitzaidala, baina eten egin zuenean, berriz hasi zen hori aztertzen eta horretaz pentsatzen, eta iruditu zitzaidan iritziz aldatzen hasi zela. Eta hala egin zuen. Ez zuen nigan uste onik izateko asmorik;

hiru egun horietan ez nuela muturra sartuko ziurtatu nahi zuen. Luzaro gabe esan zuen:

— Erosi zuen gizonak Abram Foster du izena, Abram G. Foster, eta mendian hemendik berrogei milatara bizi da, Lafayeteko bidean.

— Ederki —esan nuen—. Hiru egunetan egin dezaket bidea. Arratsaldean bertan abiatuko naiz.

— Ez, ez, oraintxe abiatuko zara; eta ez duzu denborarik galduko, eta bidean ere ez duzu berriketarik egingo. Ahoa ongi estutu eta segi aurrera, eta horrela ez duzu gurekin istilurik izango, entzun duzu?

— Hori zen entzun nahi nuen agindua, eta horretarako egin nituen ahaleginak. Aske egon nahi nuen nire planak aurrera eramateko.

— Alde hemendik —esan zuen— eta nahi duzuna esan Foster jaunari. Agian sinets erazi diezaiokezu Jim zure beltza dela... badira paperik eskatzen ez duten ergel horietakoak..., hegoaldean horrelakoak badirela entzun dut behintzat. Eta esku papera eta dirusaria gezurretakoak zirela esaterakoan, beharbada sinetsiko dizu, horiek argitaratzean zein genuen asmoa esaten

badiozu. Segi aurrera orain, eta nahi duzuna esan iezaiozu; baina ez mihiari eragin bidean zoazen bitartean.

Eta handik joan, eta mendian barrena jo nuen. Ez nuen atzera begiratu, baina zelatan ari zitzaidala sumatzen nuen. Banekien ordea noiz-bait nekatuko zela. Zuzen-zuzen jo nuen mendi aldera mila bat edo egin, eta han gelditu nintzen arte; gero basoan sartu, eta atzera egin nuen Phelpsen etxe alderantz. Iruditu zitzaidan hobe nuela nire asmoak aurrera eramatea lehenbailehen, tontakerietan ibili gabe, Jimek ahoa isil zezan nahi nuen bikote horrek alde egiten ez zuen bitartean. Ez nuen era horretako jendearekin arazorik izan nahi. Nahikoa nuen haiek egingako gauza guztiak ikusita, eta ez nituen ezertarako aldamenean izan nahi.

Hogeita hamabigarren atala

Bertara iritsi nintzenean dena isil isilik zegoen, igandea zirudien, eta eguraldi bero eta eguzkitsua egiten zuen. Airean zomorro eta eulien zurrumurru apala entzuten zen. Dena bakardadean zegoen eta jendea hilik edo joana zela zirudien; eta haize eztiak hostoak leunki ukitzen zituenean, goibel erazten zintuen, izpirituak xuxurlatzen ari zirela baitzirudien..., aspaldian hilik zeuden izpirituak..., eta beti susmatzen zenuen zutaz ari zirela hizketan. Halakoetan edonori pizten zitzaion hilik egoteko gogoia, eta dena amaitutzat ematekoa.

Phelpsen etxaldea kotoi landa txiki horietakoa zen, eta guzti horiek antzekoak dirudite. Egurrezko hesia zuen inguruan ia hektarea bateko lurraldeak; hesira igo eta beste aldera igarotzeko, eta emakumezkoak zaldi gainera jauzi egiteko, enbor zerratuz eginiko mailak zituen bata bestearen gainean jarririk eskailerak osatuz, luzera desberdinetako upelak balira bezala; belar zatitxo eskasak ageri ziren lurralde zaba-

lean, eta zati gehienetan hutsa eta laua zen, ilea zaharkitua duen sonbreiruaren antzera; zurientzat egurrezko etxe handi bikoitza zuten; azala kenduta zuten enborrez egina, zulotxoetan buztina edo morteirua zutelarik, eta buztin zerrendek noizbait kareztatuak izan zirela ziruditen; enbor borobilezko sukaldea zuen, eta pasabide handi, zabal, eta teilatudunak elkartzen zuen etxearekin; janariak keztatzeko egurrezko etxetxoak sukaldearen atzean; hiru egurrezko txabola beltzentzat errenkan jarrita janariak keztatzeko etxetxoaren beste aldean; inguruan ezer ez zuen txabola txiki bat behean atzeko hesiaren kontra, eta beste eraikuntza batzuk beste aldean beherraxeago; errauts biltegia, eta ontzi handi bat xaboia irakiteko txabola txikiaren ondoan; eserlekua sukaldeko atearen ondoan, ur baldea eta kalabaza ondoan; zakurra eguzkitan lotan; zakur gehiago lotan han-hemenka; hiru zuhaitz itzaltsu hango bazter batean; larre mahats eta mahatsondo arantzadunen sasiak hesi ondoko bazter batean; hesiaren beste aldean baratzea eta sandien ereintza; ondoren kotoi landak hasten ziren; eta harantzago soroak, basoak.

Hesia inguratu eta errauts biltegiaren ondoan zeuden atzeko egur mailak igo, eta sukaldarantz abiatu nintzen. Pixka bat aurrera egin nuenean, txirikaren durrunda motela entzun nuen, intzirika gora eta berriz behera ari zelarik; eta orduan ez nuen zalantzarik izan nahiago nuela hilik egon..., hori baita mundu honetako hotsik goibelenena.

Aurrera egin nuen, inolako plan jakinik kontutan hartu gabe, eta Probidentziak garaia iristean ahoan hitz egokiak jarriko zizkidalakoan; ordurako banekien eta Probidentziak beti jartzen zizkidala ahoan hitz egokiak, lana bakean egiten uzten banion.

Bide erdira iritsi nintzenean, lehenik zakur bat eta gero bestea zutitu eta eraso egitera etorri zitzaizkidan, eta, jakina, ni nengoen lekuan geratu eta aurre egin zuen eta isilik geratu nintzen. Eta hura zarata egin zutena! Minutu laurdenean gurpilaren ardatzaren antzekoa nintzen, nolabait esateko, eta gurpilaren errailak zakurrek osatzen zituzten: elkarren ondoan pilatu, eta hamabost zakurrez edo osatutako borobila nuen inguruan, eta lepoak eta sudurrak niregana

zuzentzen zituzten, zaunka eta uluka; eta gero eta gehiago zetozkidan; hesi gainetik jauzika eta itzul inguru guztietatik ateratzen zirela ikus zitezkeen.

Emakume beltza sukaldetik irten eta lasterka zetorren alferra eskuan zekarrelarik, oihu eginenez: «Alde! Tige! Spot! alde, uxa!», eta lehenik bat eta gero bestea danba astindu eta uluka bidali zituen, eta gero gainontzekoak atzetik joan zitzaizkien; eta berehalakoan, erdiak itzuli ziren, niregana isatsari eraginez eta nirekin adiskidetu nahian. Ez dago ez zakur gaiztorik, inolaz ere.

Eta emakumearen atzetik neska beltz txikia eta bi mutil beltz txiki etorri ziren, ehun zurizko alkandorak besterik soin gainean ez zeramatelarik; amaren soinekotik zintzilikatzen ziren, eta atzean jarri eta handik begiratzen zidaten, lotsaturik, beti egin ohi duten bezala. Eta han azaldu zen berrogeita bost edo berrogeita hamar urtetako etxeko andre zuria etxetik lasterka, burua agirian zuelarik, eta gorua eskuan hartuta; haren atzetik ume zuriak zetozen, beltz txikiak bezalaxe jardun zutelarik. Andrea irribarrez ari zen ia

pozez lurrera erortzeko moduan... eta esan zuen:

— Zu zara, azkenean! ...ezta?

«Bai, andrea» esan nuen ezer pentsatu aurretik.

Eutsi eta estu-estu besarkatu ninduen; eta ondoren eskuak hartu eta gogor astindu zizkidan, begietan malkoak azaldu eta aurpegian behera isuri zitzaizkion arte; eta ez zirudien nahikoa besarkatu eta estutu ninduenik, eta etengabe esaten zuen: «Ez duzu zure amaren nik uste nuen adinako antzik, baina ene, horrek zer axola du, bai pozik nagoela zu ikusteagatik! Jauna, jauna, jan ere egingo zintuzket! Haurrak, Tom lehengusua da! Zatozte agurtzera.

Baina buruak makurtu zituzten, hatz txikiak ahoan sartu, eta amaren atzean ezkutatu ziren. Amak aurrera egin zuen hizketan:

— Lize, joan azkar eta presta iezaiozu orain-
txe gosari beroa... edo ontzian gosaldtu al duzu?

Ontzian gosaldtu nuela esan nion. Eta ondoren etxerantz abiatu zen, eskutik hartuta neramalarik, eta haurrak urrundu gabe atzetik zetozkigun. Iritsi ginenean ezarlekua zumezkoa zuen

aulki batean eseri ninduen, eta bera nire aurrean eseri zen aulkitxo batean, bi eskuetatik heltzen zidalarik, eta esan zuen:

— Orain goitik behera ederki ikus zaitzaket, eta ene, urte hauetan horrenbeste aldiz irrikaz egon ondoren, azkenean iritsi da garaia! Egun pare bat edo gehiago daramagu zure zain. Zerk atzeratu zaitu?... ontziak hondoa jo du ala?

— Bai, andrea... ontziak...

— Ez esan bai andrea... esan izeba Sally. Non jo zuen hondoa?

Ez nekien oso ongi zer esan, ontzia ibaian gora ala behera zihoan ez nekielako. Baina askotan senez jokutzen dut; eta senak esaten zidan hegoaldetik gorantz zetorrela, Orleans ondotik. Honek, ordea, ez zidan laguntza handiegirik eman, han beheko hondar pilen izenik ez bainekien. Hondar pila baten izena asmatu beharra izango nuen, edo bestela hondoa jo genuen lekuaren izena ahaztu... edo... Orduan zerbait bururatu zitzaidan, eta bota egin nuen:

— Ez da hondoa jotzeagatik izan... horrek pixka bat besterik ez gintuen atzeratu. Zilindro baten ipurdiak leher egin zuen.

— Ene, Jaungoikoa! Zauritu al du inor?

— Ez, andrea. Beltz bat hil zuen.

— Eskerrak; batzuetan jendea zauritu izan du eta. Duela bi urte Gabonetan, zure osaba Silas New Orleansetik gorantz zetorren *Lally Rook* ontzi zaharrean, eta zilindro-ipurdiak leher egin, eta gizon bat elbarritu zuen. Eta uste dut azkenean hil egin zela. Bataiatzailea zen. Osaba Silasek Baton Rougen ezagutzen zuen haren etxekokak ongi ezagutzen zituen familia bat. Bai, orain gogoratu zait, bai hil egin zen. Pasmok hartu zuen, eta hanka moztu behar izan zioten. Baina horrek ez zuen bizirik atera. Bai, pasmoa izan zen... horixe izan zen. Gorputza urdindu zitzaion, eta hil egin zen aintzazko berpiztueraren itxaropenean. Esaten dutenez haren itxura ikaragarria zen. Osaba egunero joan zaizu bila herrira. Eta berriro joana da, duela ordubete eskas; une batetik bestera itzultzekoa da. Ez al duzu bidean ikusi?... gizon heldu xamarra, eta...

— Ez, ez dut inor ikusi, izeba Sally. Egunsentiarekin batera lehorreratu da ontzia, eta kaiko ontzian ekipaia utzi, eta herri inguruan eta mendi aldean oinez ibili naiz, denbora pasa hona

goizegi ez iristeko; eta hori dela eta atzeko bide-
tik etorri nain.

— Nori eman diozu ekipaia?

— Inori ez.

— Baina, umea, lapurtu egingo dizute!

— Ez, ezkutatu dudan lekutik ez dut uste
lapurtuko dutenik —esan nuen.

— Nola gosaldu duzu horren goiz ontzian?

Irristakorra zen egoera, baina esan nuen:

— Kapitainak han inguruan atzera eta aurre-
ra ibiltzen ikusi nau, eta esan dit hobe nuela zer-
bait jatea lehorreratu aurretik; eta beraz bere
gelara eraman nau ofizialeen gosaritara, eta
nahi izan dudan guztia eman dit.

Oso urduri nengoen, eta ez nion andreaki
behar bezala entzuten. Haurrak nituen denbora
guztian gogoan. Bazter batera eraman nahi
nituen, eta pixka bat zirikatu, eta ni nor nintzen
esan erazi. Baina aukerarik ez nuen topatzen.
Phelps andreak eten gabe hitz egiten zuen.
Luzaro gabe hotzikarak bizkarra goitik behera
hartu zidan, hau esan baitzuen:

— Baina hizketan eta hizketan ari gara, eta
ez didazu hitzik esan ez Sis, eta ezta beste inori

buruz ere. Orain nik atsedean alditxo hartuko dut, eta zuk ekingo diozu; esadazu dena... guztien berri emadazu... bakoitzarena; eta zer moduz dauden, eta zertan ari diren, eta niretzat eman dizkizuten ohar guztiak; eta bururatzen zaizkizun gauza guztiak.

Estualdian harrapaturik nengoela konturatu nintzen... eta ongi harrapaturik gainera. Prohibitentzia alboan izan nuen ordura arte, baina hondarretan barruraino sartuta nengoen orduan. Ikusi nuen alferrik izango zela aurrera egitea... Etsi beharra nuen. Orduan esan nuen nirekiko, orain duzu aukera egia esateagatik arriskuan jartzeko. Hizketan hasteko ahoa ireki nuen; baina andreak heldu eta bultza eginez ohe atzean sartu ninduen, eta esan zuen:

— Hemen dator! Makurtu burua beherago... horixe, ongi dago; ez zaitu ikusiko. Hortik ez atera. Adarra joko diogu pixka bat. Haurrak, ez hitzik esan.

Larrialdian ikusi nuen neure burua. Baina alferrik zen kezkatzea; ezin nuen besterik egin, isil isilik zain egon, eta prest tximistak jotzen zuenean handik ateratzeko.

Etxeko jauna sartu zenean haren ikustaldi azkarra besterik ez nuen izan, gero oheak ezkutatatu zuen. Phelps andreak jauzi egin eta presaka hurbildu zitzaion eta esan zuen:

— Etorri al da?

— Ez —esan zuen senarrak.

— Jaungoikoa! —esan zuen andreak—, zer demontre gertatuko zitzaion?

— Ezin dut ulertu —esan zuen etxeko jaunak—; eta esan behar dut, horrek ikaragarri kezkatzen nauela.

— Kezkatu? —esan zuen andreak—. Burua galtzeko zorian nago! Iritsi beharra zuen; eta bidean zetorrela ez zenuen bada ikusiko. Badakit hori gertatuko zela... zerbaitek hala gertatu dela esaten dit.

— Baina, Sally, bidean bazetorren nahitaez ikusi beharra nuen... zuk badakizu hori.

— Baina, oi ene, oi ene, zer esango du Sisek? Iritsi behar izan du! Bidean utzi behar izan duzu. Mutila...

— Ez gehiago kezka erazi kezkatu nago eta dagoeneko. Ezin dut inolaz ere ulertu. Ez dakit zer egin, eta berdin zait hala dela esatea:

beldurturik nago. Baina etorri den itxaropenik ez dago; ezin etor zitekeen nik bidean ikusi gabe. Sally, ikaragarria da... benetan ikaragarria... zer-bait gertatuko zitzaion ontziari, ziur!

— Hara, Silas! Begira harantz!... bidean gora!... ez al dator norbait?

Leihora jo zuen azkar eta ohe buruaren alboan geratu zen, eta Phelps andreari aukera ezin hobea eskaini zion. Bizkor makurtu zen, ohearen oinean, bultza egin zidan, eta atera egin nintzen; eta leihotik atzera zetorreanean, han jarri zitzaion zutik andrea irribarretsu eta etxea sutan dagoeanean gertatzen den bezala, distira bizia zeriola, eta ni Karen ondoan otzan-otzan eta izerditan. Etxeko jauna begira geratu zitzaidan, eta esan zuen:

— Baina, nor da hori?

— Nor uste duzu dela?

— Susmorik ere ez dut. Nor da?

— Tom Sawyer da!

Arraioa, ia atzerantz erori nintzen lurrera. Baina ospatzeko denborarik ez nuen; nagusiak eskutik heldu, eta estutu eta estutu aritu zitzaidan; eta denbora guztian, han zebilen emaku-

mea dantzan, barrezka eta negarrez; eta gero biak batera han hasi zitzaizkidan galderak bota eta bota Sid, Mary, eta tribuaren gainontzekoez.

Baina haien poza hutsa zen nire pozaren ondoan; berriz jaio nintzela iruditzen zitzaidan: bai pozik nengoela nor nintzen nekielako... Loturik izan ninduten bi ordutan; eta azkenean kokotsa aurrera egin ezinik jota geratu zitzaidanera-ko, nire familiaz —Sawyer familiaz esan nahi dut— esan nien hamaika Sawyer familiei inoiz gertatu zitzaiena baino gehiago. Eta azaldu nien nola lehertu zitzaigun zilindroaren ipurdia White Riverren ahoan eta hiru egun behar izan genituela hori konpontzeko. Eta ederki aritu nintzen, eta sinets erazi nien, ez baitzekiten hori konpontzeko hiru egun behar ziren ala gehiago. Izen hori esan ordez torloju ipurdia esan izan banie berdin-berdin sinetsiko lukete.

Nahikoa gustura nengoen alde batetik begiratuta, baina ez oso gustura bestetik. Erraza eta eroso zen Tom Sawyer izatea; eta erraza eta eroso iruditu zitzaidan dena, baporea ibaian behera zarata egiten zetorrela entzun nuen arte. Orduan esan nuen nire artean: jo dezagun Tom

Sawyer datorrela ontzian... Eta jo dezagun une batetik bestera hemen azaltzen dela, eta nire izena oihukatzen duela nik hari isiltzeko keinurik egiteko denbora izan baino lehenago. Ezin zen horrelakorik gertatu; ez zen inolaz ere komeni. Bidera jo beharra nuen eta ezkutuan haren zain egon. Beraz esan nien etxekoei herrira joan behar nuela ekipaiaren bila. Etxeko nagusiak lagundu nahi izan zidan, baina ezetz esan nion, neronek zaldia gida nezakeela, eta ez nuela niregatik nekerik hartzea nahi.

Hogeita hamahirugarren atala

Herrira abiatu nintzen gurdian, eta bide erdia egin nuenean beste gurdi bat zetorrela ikusi nuen, eta, hain zuzen ere, Tom Sawyer zen. Gelditu eta itxaron egin nuen gurdia hurbildu zitzaidan arte. Esan nuen: Itxaron! eta nire aurrean geratu zen. Tom ahoa zabal-zabal jarri zuen, kutxa zahar baten antzera, eta horrela geratu zen; hiruzpalau aldiz irentsi zuen txistua eztarria lehorra dutenek egiten duten bezala, eta gero esan zuen:

— Ez diat inoiz kalterik egin. Badakik. Orduan zergatik etorri haiz ni harrapatzera?

— Ez nauk itzuli... joan ere ez nauk egin — esan nuen.

Ahotsa entzun zidanean bere onera etorri zen pixka bat, baina oraindik ez zen erabat lasaitu.

— Ez niri itsuskeriarik egin gero —esan zuen—, nik ez niake egingo eta. Indio zintzoaren hitza emango al didak ez haizela mamua?

— Indio zintzoaren hitza ezetz —esan nuen.

— Ederki... nik... nik... ederki, horrek dena garbi utzi beharko luke, noski; baina gauza bat ezin diat inondik ere ulertu. Aizak, ez al hinduten akabatu?

— Ez, ez ninditean... itxura egin nian. Hator hona eta uki nazakek ez ba duk sinesten.

Hori egin zuen, eta lasaiago geratu zen; eta horren pozik zegoen ni berriz ikusteagatik, ezen zer egin ere ez baitzuen asmatzen. Eta berehalaxe jakin nahi zuen gertatutako guztia; abentura ikaragarria zelako, eta misterioitsua, eta horrek bihotzean ukitu zuen. Baina esan nuen, hori geroxeagoko utzi; eta gurdi gidariari pixka bat itxaroteko eskatu nion, eta gu aurreratu egin ginen bitartean; nire egoeraren berri eman, eta zer komeni zitzaigun egitea galdegin nion. Esan zidan minutu batean edo bakean uzteko eta ez ezer esateko. Pentsatzen eta pentsatzen aritu zen, eta handik tarte batera esan zuen:

— Ederki, asmatu diat. Sar ezak nire ekipaia hire gurdian, eta hirea dela itxura egin ezak; eta poliki itzul hadi bidean denbora pasa ibili ondoren, etxera behar den garaian iristeko; eta ni pixka batean herrirantz ibiliko nauk, eta atzetik

berriz abiatu, eta hi baino ordu erdi edo ordubete beranduago iritsiko nauk; eta hasieran ezagutzen ez nauala itxura egin dezakek.

Esan nuen:

— Konforme; baina itxaron pixka bat. Baduk beste gauza... nik beste inork ez dakiena. Eta hau da, beltz bat lapurtu nahi diat esklabutzatik aske uzteko... eta Jim dik izena... Watson andereñoren Jim zaharra.

— Zer? Jim dagoela...

Isildu eta aztertzen ari zela zirudien. Nik esan nuen:

— Bazekiat zer esango duan. Esango duk gauza zikin eta arbuiagarria dela; eta zer axola dik?... ni ere arbuiagarria nauk, eta lapurtu egingo diat, eta isilik egon hadila nahi diat. Egongo al haiz? Begiak altxatu zituen, eta esan zuen:

— Lapurtzen lagunduko diat.

Zor eta lot geratu nintzen, tiro egin balidate bezala. Inoiz entzundako hitzik harrigarrienak iruditu zitzaizkidan... eta esan behar dut, Tom Sawyerrek nire oniritzia neurri handian galdu zuela. Ezin nuen sinetsi ordea. Tom Sawyer beltz-lapurra!

— Bai, zera —esan nuen—, adarra jotzen ari haiz.

— Ez, ez nauk adarra jotzen ari.

— Ederki, orduan —esan nuen—, adarra jotzen edo adarra jo gabe, entzuten baduk, beltz bati buruz ezer esaten dutela, ez ahaztu ez dakiala ezer horretaz, eta nik ere ez dakidala ezer horretaz.

Gero kutxa hartu eta nire gurdian jarri genuen, eta hark bere bidea hartu zuen, eta nik nirea. Baina, nola ez, pozaren pozez eta pentsa-kizunetan murgildurik, ahaztu egin zitzaidan poliki gidatzearena; eta halako bidaia luzea egiteko azkarregi iritsi nintzen etxera. Etxeko nagusia ate ondoan zegoen, eta esan zuen:

— Ez al da zoragarria? Nork esan behar zuen behor hori horrelakorik egiteko gai zenik. Denbora neurtu behar genion, baldinbait! Eta ez du izerdi tantorik ere bota... ezta tantorik ere. Zoragarria da. Ez nuke orain ehun dolarrengatik ere salduko; ez nuke salduko, benetan; eta lehenago hamabostean saldu nukeen, eta gehienez hori balio zuela uste nuen.

Hori besterik ez zuen esan. Inoiz ikusi nuen arimarik zintzoena eta pertsonarik tolesgabeena zen. Baina ez zen harritzekoa, ez baitzen nekazaria soil soilik, predikaria zen baita ere, eta egurrezko elizatxoaren soroen atzean, berak bere diruz egindakoa, eliza eta eskola izateko, eta ez zuen dirurik eskatzen predikuengatik, horiek balio handikoak izan arren. Baziren haren modu berean jarduten zuten nekazari-predikari ugari han, Hegoaldean.

Ordu erdi beranduago Tomen gurdia etxe aurreko mailetara iritsi zen, eta izeba Sallyk leihotik ikusi zuen, gehienez ere berrogeita hamar metrotara zegoelako, eta esan zuen:

— Hara, norbait dator! Nor ote da? Kanpotarren bat dela uste dut. Jimmy (umeetako bat zen), joan azkar eta esan Lizeri beste plater bat jartzeko mahaian bazkaritarako.

Denak sarrerako atera joan ziren presaka, izan ere, kanpotarrak ez baitira egunero azaltzen, eta horregatik sukarrak bako bako jakin-min handiagoa sortzen dute, azaltzen direnean. Tomek egurrezko mailak igo zituen eta etxerantz zetorren; gurdia bidean gora herrirantz binbili-

banbala zihoan, eta gu denak pilaturik ginen sarrerako atean. Tomek dendan erositako jantzi berriak zeramatzan, eta entzulegoa zuen aurrean, eta hori oso gustukoa zuen beti Tom Sawyerrek. Horrelakoetan ez zuen gehiegi nekatu behar izaten egoerak eskatzen zuen neurriko antzerkia egiteko. Ez zen etxe aurreko tartea ardiak bezala otzan-otzan igaroko lukeen mutil horietakoa; ez, lasai eta burua tente jarrita hurbildu zen, ahariaren moduan. Gure aurrera iritsi zenean sonbreirua dotore eta kontu handiz altxa zuen, lotan dauden tximeletez betetako kutxaren estalkia, tximeletak ez esnatzeko altxatuko lukeen moduan, eta esan zuen:

— Archibald Nichols jauna izango zara, noski?

— Ez, mutiko —esan zuen etxeko jaunak—, sentitzen dut esan beharra, baina gidariak iruzur egin dizu; Nicholsen etxea hemendik aurrera hiru milatara duzu. Sartu, sartu.

Tomek bizkar gainetik atzerantz begiratu, eta esan zuen:

— Beranduegi... dagoeneko ez da ageri.

— Bai, joan egin da, ume, eta zuk etxera sartu eta gurekin bazkaldu beharko duzu; eta gero eramango zaitugu Nicholzen etxera.

— Oi, ez nizueke enbarazurik egin nahi; ezta pentsatu ere. Oinez joango naiz... berdin zait urrutira joan behar badut ere.

— Baina guk ez zaitugu oinez joaten utziko ordea... hori ez litzateke Hegoaldeko abegi onarekin bat etorriko. Sartu barrura.

— Bai, sartu —esan zuen izeba Sallyk—. Guretzat ez da inolako lanik, ez horixe. Geratu egin behar duzu. Hiru mila luze eta hautsez beteak dituzu, eta ezin zaitugu oinez joaten utzi. Eta gainera etortzen ikusi zaitudanean esan diet beste platera jartzeko, beraz ezin diguzu huts egin. Sartu barrura, etxean zaude.

Tomek eskerrak eman zizkien bihotz bihotzez eta modu atseginean, amore eman zuen itxuraz, eta sartu egin zen. Barruan zegoenean, Ohion zegoen Hicksvilleko kanpotarra zela esan zuen, eta izena William Thompson zuela... eta berriz makurtu zuen burua.

Hizketan eta hizketan aritu zen, Hicksvilleko eta bertako jendearen ahal zituen gauza guztiak

asmatzen; ni berriz urduri xamar nengoen, ez bainekien horrek nola lagunduko zidan niri estualditik ateratzen; eta azkenean, oraindik hizketan ari zelarik, mahaiaren beste aldetik tente jarri eta izeba Sallyri musu eman zion ahoan, eta gero eserlekuan atzerantz egin zuen, patxadan eseri, eta hizketan aurrera egin zuen; baina izebak jauzi egin eta ahoa garbitu zuen eskuaren atzealdea erabiliz, eta esan zuen:

— Mukitsu lotsagabea!

Minduta zirudien Tom, eta esan zuen:

— Harritu egin nauzu, andrea.

— Harritu egin zaitudala... Baina nor uste duzu naizela? Gogoak ematen dit, hartu eta... esan, zer egin nahi zenuen niri musu emanda?

Tom lotsaturik zirudien, eta esan zion izebari:

— Ez nuen ezer egin nahi. Ez nuen kalte egiteko asmorik. Nik... atsegina irudituko zitzaizula uste nuen.

— Baina, burutik jota zaude ala? —gorua eskutan hartu, eta ezingo liokeela hari eutsi zirudien mutilari kaskarrekoa eman gabe—. Zergatik iruditu zaizu atsegin izango nuela?

— Bada, ez dakit. Haiek... zera... haiek esan zidaten hori.

— Haiek esan zizuten hori? Esan dizutenak ere zu bezalako txoriburuak izango dira. Ez dut inoiz horrelakorik ikusi. Nortzuk dira besteak?

— Denak... Denek esan zidaten, andrea.

Ezin zuen gehiago jasan; begiei distira zerien, hatzak mutilari atzaparka egin nahiko balio bezala mugitzen zituen, eta esan zuen:

— Nortzuk dira denak? Emazkidazu izenak... edo bestela txepel bat gutxiago izango dugu.

Zutitu eta goibeldurik zirudien. Sonbreirua eskutan zerabilen, eta esan zuen:

— Barkatu, ez nuen uste hau gertatuko zenik. Haiek esan zidaten. Denek esan zidaten. Denek esan zuten zuri musu emateko, eta atsegingo zitzaizula. Denek esan zuten... bana banan. Baina barkatu, andrea, ez dut berriz egingo... benetan.

— Ez duzu egingo, ez. Horixe ez duzula egingo!

— Ez, andrea. Benetan esaten dizut, ez dut berriz egingo. Zuk eskatu arte.

— Nik eskatu arte! Ez dut beste horrenbeste ikusi bizitza osoan! Hitza ematen dizut, mundu hasierako Mathusalem ergel horrek bezain bizitza luzea izango bazenu ere, ez nizukeela zuri hori eskatuko... edo zure antzeko bati.

— Horrek ere harritzen nau —esan zuen Tomek—. Ezin dut inolaz ere ulertu. Baietz esan zidaten, eta nik ere baietz uste nuen. Baina...

Isildu eta poliki-poliki inguruan begiratzen hasi zen, laguntasunezko begirada nonbait aurkitu nahiko balu bezala. Etxeko nagusiarengana iritsi zenean, gelditu eta esan zion—:

— Ez al zenuen uste nik musu ematea atsegingo zitzaiola, jauna?

— Ez, nik... nik... bada, ez nuen uste.

Gero inguruan begiratu zuen berriz lehengo modu berean, eta niri begira geratu zitzaidan, eta esan zuen:

— Tom, ez al zenuen uste izeba Sallyk besoak zabaldu eta «Sid Sawyer» esango zuenik?

— Jaungoikoa! —esan zuen andreak, mutilaren hizketari eten egin zion, eta jauzi egin zuen harengana joateko—. Bihurri lotsagabe hori, modu horretan adarra jotzea ere.

Besarkatzera hurbildu zitzaion izeba, baina Tomek uko egin zion, eta esan zuen:

— Ez, zuk eskatu arte.

Denborarik galdu gabe eskatu zion, eta besarkatu eta musukatu zuen behin eta berriz, eta ondoren mutila gizonari eskaini zion, eta honek geratu ziren apurrak hartu zituen. Ondoren lasaitu egin ziren berriz, eta esan zuen andreak:

— Ene, ene, hau bai dela ezustea. Ez genuen uste zu etorriko zinenik, Tom bakarrik zetorrela uste genuen. Sisek ez zidan idatzi Tomez gain beste inor etorriko zenik esanez.

— Ez genuelako uste Tomez gain beste inor etorriko zenik —esan zuen Tomek—; baina erregutu eta erregutu nion, eta azkeneko minutuan baiezkoa eman zidan ni ere hona etortzeko; eta orduan ibaian behera gentozela Tom eta bioi bururatu zitzaigun primerako ezustea izango zela bera zuen etxera aurretik iristea, eta ni atzeratu eta beranduago etortzea, eta kanpotarra nintzela itxura egitea. Baina ez dugu asmatu, izeba Sally. Hau ez da kanpotarrentzat leku ona.

— Ez... gaztetxo bihurrientzat, Sid. Masail hezurretan zapla eman behar nizukeen. Ez dakit noiztik ez nintzen horrenbestearino nire onetik ateratzen. Baina, horrek ez du axola, ez zaizkit esandako hitzak axola... prest nengoke horrelako mila txantxari aurre egiteko zuek hemen izateagatik. Horrelako antzerkia egitea bururatzea ere! Ez dut ezkutatuko ia bertan geratu naizela zor eta lor musu handi hori eman didazunean.

Etxea eta sukaldearen artean zegoen pasabidean bazkaldu genuen; eta mahaian baziren zazpi familiarentzat adinako gauzak... eta dena beroa gainera; ez zen soto hezeko armairuan sartuta gaua pasa duen haragi geza eta lehorrik, goizean kanibal zahar eta hotz baten puska dirudiena. Osaba Silasek bedeinkapen luze xamarra egin zion janariari, baina pena merezi zuen, eta gainera ez zen ezer hoztu, horrelako geldialdiak eginez askotan gertatu ohi den bezala.

Arratsalde osoan hizketaldi luzea izan genuen, eta ni eta Tom erne ibili ginen denbora guztian, baina alferrik, ez zuten hitzik esan beltz iheslariari buruz, eta ez ginen ausartzen horreta-

rako bide ematera. Baina gauean afaritan, mutil txikietakoa batek esan zuen:

— Aita, Tom, Sid eta hirurok joan al gaitezke emanaldia ikustera?

— Ez —esan zuen etxeko nagusiak—, uste dut ez dela emanaldirik izango, eta izango balitz ere, ezingo zenukete joan; beltz iheslariak eman digulako goitik behera Burtoni eta bioi emanaldi lotsagarri horren berri, eta Burtonek esan du jendeari esango ziola; beraz uste dut alfer zikin horiek dagoeneko botako zituztela herritik kanpora.

Hantxe nituen! ...baina ezin nuen ezer egin. Tom eta biok gela eta ohe berean egin behar genuen lo; eta, nekaturik ginenez gero, gabon esan, eta ohera igo ginen afaldu eta berehala; leihotik atera, tximist orratzaren burdinatik behera irrist eginez jaitsi, eta herrirantz abiatu ginen; izan ere, ez nuen uste dukea eta erregeari inork ezer aditzera emango zienik, eta azkar ibiltzen ez banintzen eta ez banien gertatuko zena aditzera ematen, berriro ere istiluak izango zituzten.

Bidean Tomek kontatu zidan nola uste zuen jendeak hil nindutela, eta aita hori gertatu eta berehala desagertu zela, eta ez zela berriz azaldu, eta Jimek ihes egin zuenean herrian izan zen iskanbila; eta nik Tomi esan nion *Erregetasun Berdingabekoen* iruzurtzaileei buruzko guztia, eta almadiako bidaiaz epe horretan esan ahal izan nion guztia; eta herrira iritsi eta erdialdean genbiltzanean —zortzi t'erdiak edo izango ziren, ordurako— jende pila ikusi genuen bere onetik aterata zetorrela, suziak eskutan zituztelarik, oihuka eta garrasi bizian, latorrizko ontziei dandatekoak astintzen, eta tronpetak jotzen; eta alde batera jauzi egin behar izan genuen horiei aurrera egiten uzteko; eta gure ondotik igaro zirenean erregea eta dukea burdina batean zangalatraba jarrita zituztela ikusi nuen, alegia, erregea eta dukea izango zirela banekien, bike, eta lumaz goitik behera estalita egonik, giza irudien itxurarik inondik ere ez zuten arren: soldaduen lumazko gangar pare handi beldurgarria ziruditen. Horrek gogangabetu ninduen; eta erruki nintzaien iruzurtzaile gizajoei, iruditzen zitzaidan ezingo nituela inoiz gorrotatu. Gauza

ikaragarria zen hori ikustea. Gizakiak, bata bestearen aurka jarduten dutenean, benetan odol gaiztokoak izan daitezke.

Beranduegi zela konturatu ginen... ezin genien laguntzarik eman. Atzean geratu ziren batzuei zer gertatu zen galdegin genien, eta esan zuten denak joan zirela txintxo-txintxo funtzioa ikustera; eta isilik eta zekitena agerian jarri gabe geratu zirela, errege gizajoa agertokiaren erdi erdian zilipurdika ikusi zuten arte; orduan norbaitek hasteko keinua egin, eta jendea altxa eta bikotea astintzera joan zela.

Poliki-poliki itzuli ginen etxera, eta ez nengoen lehen bezain sutsu, gutxietsia eta lotsaturik baizik, eta neurri batean, errudun, ezer egin ez banuen ere. Baina hori gertatzen da beti; on egin edo kalte egin berdin-berdin da, pertsonaren barruak ez du zentzurik, eta aurka egingo dizu beti. Kaleko zakurren bat banu, eta pertsona baten barruak baino gehiago jakingo ez balu, pozoitu egingo nuke. Barruan dugun edozer gauza baino leku gehiago hartzen du barneko har horrek, eta ez du ezertarako balio. Tom Sawyerrek gauza bera esaten du.

Hogeita hamalagarren atala

Hitz egiteari utzi, eta pentsatzen hasi ginen.

Geroxeago esan zuen Tomek:

— Hara, Huck, bai txepelak izan garela lehenago ez asmatzeagatik! Apustu egingo diat Jim non dagoen badakidala.

— Ez! Non?

— Hor beheko errauts biltegi ondoko txabola horretan. Begira, bazkaltzen ari ginenean, ez al duk beltz bat hor sartzen ikusi janariak zeramatzala?

— Bai.

— Norentzat uste huen izango zela janari hori?

— Zakur batentzat.

— Nik ere bai. Baina, ez huen zakurrarentzat.

— Zer bada?

— Beste gauzen artean sandia zeramatzala-ko.

— Hala duk... nik ere ikusi nian. Lehenago ez bururatzea ere zakurrek ez dutela sandiarik

jaten! Horrek adierazten dik aldi berean ikusi eta ez ikusi ere egin daitekeela.

— Beltzak giltzarrapoa ireki zian sartu zenean, eta berriro itxi zian atera zenean. Osa-bari giltza eman zioan, mahaitik altxa ginen garaian..., giltza bera, nik uste. Sandiak gizona adierazten dik, giltzak preso; eta ez diat uste bi preso izango direnik, jendea horren atsegín eta ona den honelako landaketa txiki batean. Jim duk preso. Ederki; pozten nauk detektibeen eran asmatu dugulako; ez niake piperrik emango beste edozein biderengatik. Orain hik pentsa ezak, eta asma ezak Jim lapurtzeko planen bat, eta nik ere nirea asmatuko diat; eta onena iruditzén zaiguna aukeratuko diagu.

Hori burua, hori, mutil batena izateko! Tom Sawyerren burua izango banu ez nuke dukea izateagatik trukatu, ezta baporeko kontramaisu izateagatik ere, ezta zirkoko pailazo, eta ezta bururatzen zaidan beste edozer gauza izateko ere. Plan bat asmatzen hasi nintzen, baina zerbaitetan aritzeko besterik ez; oso ongi nekien nondik aterako zen plan egokia. Berehala Tomek esan zuen:

— Prest?

— Bai —esan nuen.

— Ederki... bota.

— Hau duk nire plana —esan nuen—. Erraz asma zezakeagu Jim hor dagoen. Gero nire kanoa hartu, eta almadia uhartetik ekarriko genuke. Orduan lehenengo gau ilunean, etxeko nagusia ohera joan ondoren, praketatik giltza lapurtuko genioke, eta ibaian behera abiatuko ginateke almadian, Jimekin batera, egunez ezkutatatu eta gauetz aurrera eginez, Jim eta biok egin izan dugun bezala. Ez al litzateke plan hori egokia izango?

— Egokia? Bai, bai, egokia izango litzateke, arratoi borroka bezain egokia. Baina, errazegia duk; ez dik katramilarik. Nola izango duk plan ona, hori baino istilu gehiagorik ez badu? Antzarraren esnea baino ahulagoa duk. Begira, Huck, xaboi lantegi batean egindako lapurretaz baino gutxiago hitz egingo litzateke horretaz.

Ez nuen ezer esan, ez nuelako beste erantzunik espero; baina banekien bere plana prestatu-rik izatean, horrek ez zituela antzeko aurkako hitzik jasoko.

Eta ez zituen jaso. Esan zidan bururatu zitzaiona, eta berehala konturatu nintzen nireak baino hamar aldiz gehiago balio zuela itxuran, eta gainera gu guztiok hil gintzakeela, eta Jim nire planak bezain aske bilakatu zezakeela. Pozik nengoen, eta esan nuen horretan saiatuko ginela. Ez da beharrezkoa plana zein zuen orduan azaltzea, banekielako ez zela modu horretan geratuko. Ziur nengoen aldian-aldian aldatu egingo zuela, eta gauza harrigarriak egi-tera joko zuela aukera izan ahala. Eta hori egin zuen, hain zuzen ere.

Dena dela, gauza batean ez zen zalantzarik; alegia, Tom Sawyer zinez ari zela, eta beltza esklabutzatik aske uzten laguntzeko prest nuela. Hori zen gehiegizkoa iruditzen zitzaidana. Itzal handiko mutila zen, eta ongi hazitakoa; eta izen ona ere bazuen galtzeko; eta izen oneko familia; eta mutil argia zen eta ez txoriburua; jantzia eta ez eskola gabea; ez zen zuhurra, eskuzabala bai-zik; eta hala ere, hortxe zegoen, harrokeriaren, zuzentasunaren, edo sentipenaren zentzu handiagorik izan gabe lan horretan sartzeari ezetza emateko, bere burua eta familia osoa edonoren

aurrean lotsa eraziko zuelarik. Ezin nuen ulertu, inondik ere. Lotsagarria zen, eta banekien hori esan behar mola, benetako laguna izan nahi baldin banuen; gauzak zeuden lekuan utz erazi behar nizkion, eta laguna handik osorik atera behar nuen. Eta hasi nintzaion hori esaten, baina isil erazi ninduen, eta esan zuen:

— Ez al zaik iruditzen badakidala zertan ari naizen? Ez al diat bestetan jakiten zertan nabilen?

— Bai.

— Ez al diat esan beltza lapurtzen lagunduko niala?

— Bai.

— Orduan zer.

Hori besterik ez zuen esan, eta nik ere ez nuen besterik esan. Bestela ere ez nion ezer esaten; izan ere, hark zerbait egingo zuela esaten zuenean, beti egiten baitzuen. Baina ez zitzaidan buruan sartzen zergatik nahi zuen lan horretan sartu; beraz gauzei aurrera egiten utzi nien, eta ez nintzen hartaz gehiago kezkatu. Egitea erabaki baldin bazuen, ez zegoen zereginik.

Ettxera iritsi ginenean, etxea ilun eta isiltasunean zegoen; eta errauts biltegi ondoko etxetxora abiatu ginen han zegoena aztertzer. Etxe inguruko lur sailean barrena joan ginen, zakurrek nola jokatu zuten ikusi ahal izateko. Ezagutzen gintuzten, eta ez zuten mendiko zakurrek inguruan edozer gauza ikusten dutenean egiten duten zarata bera baino handiagorik egin. Txabolara iritsi ginenean, aurrealdea eta bi alboak aztertu genituen; eta ezagutzen ez nuen alboan, ipar aldekoan, alegia, leiho tankerako zuloa aurkitu genuen, goi xamar, zeharka jarrita zegoen ohol lodia iltzatuta zuelarik. Esan nuen:

— Hemen diagu konponbidea. Zulo hori nahikoa handia duk Jim ateratzeko, ohola kentzen badiogu.

— Hori bat-bi-hiru bezain erraza duk, hirurak lerroan jartzea, edo piper egitea bezain erraza — esan zuen Tomek—. Nik pentsatzen nian gauza katramilatuxeagoren bat aurkituko genuela, Huck Finn.

— Orduan —esan nuen—, zer deritzok Jim ateratzeko egurrak zerratzeari, ni hil ninduten baino lehenago egin nuen moduan?

— Ez zegok gaizki —esan zuen—. Gauza misteriotsua duk benetan, zailtasunak ditik, eta ego-
kia duk; baina apustu egingo niake bi aldiz bide
luzeagoa aurki dezakegula. Presarik ez diagu;
begira dezagun inguruan.

Hesia eta etxetxoaren artean atzealdean
oholez eginiko estalpe bat zegoen, txabolaren
hegatsarekin lotzen zelarik. Etxetxoa bezain
luzea zen, baina estuagoa..., gutxi gorabehera
sei oin zituen zabaleran. Atea hegoaldera begira
zegoen, eta giltzarrapoa zuen. Tom xaboiaren
pertzerraino joan zen, eta inguruan zerbaiten bila
ibili ondoren, pertzaren estalkia altxatzeko zera-
bilten burdina eskutan zuela itzuli zen; burdina
erabiliz harri-mailetako bat balankatu zuen.
Katea erori egin zen, eta atea ireki zuen; sartu,
eta atea itxi genuen, pospoloa piztu, eta ikusi
genuen estalpea txabolaren kontra eraikita
zegoela eta beste loturarik ez zuela harekin;
estalpeak ez zuen zorurik, eta ez ezer; aitzurra,
pala, eta pikotxa zahar herdoilduak, eta golde
hankamotza besterik ez zegoen. Pospoloa itzali
zitzaigun, kanpora joan ginen, eta harri-maila
bere lekuan sartu genuen berriz, eta atea lehen

bezain ongi geratu zen itxita. Tom pozik zegoen, eta esan zuen:

— Ondo ari gaituk orain. Lurra zulatu eta hortik aterako diagu. Astebete edo beharko diagu!

Gero etxerantz abiatu ginen, eta atzeko atetik sartu nintzen: larruzko soka bati tiratu besterik ez nion egin behar horretarako, atea ez zituzten giltzatzen eta..., baina hori ez zen nahikoa erromantikoa Tom Sawyerrentzat; ez zuen tximistorratzaren burdinan gora igotzea baino gauza gustukoagorik. Baina bide erdiraino hiru aldiz iritsi, eta guztietan huts egin eta erori ondoren, azkenekoan ia burmuinak bere lekutik atera zituelarik, iruditu zitzaion amore emateko ordua zuela, baina atsedeen hartu eta, esan zuen beste saioa egingo zuela zorterik zuen ikusteko, eta ordukoan bidaia osoa egin zuen.

Goizean egunsentiarekin batera jaiki ginen, eta beltzen etxetxoetara abiatu ginen zakurrak laztandu eta Jimi janaria eramaten zion beltzaren lagun egitera..., Jim baldin bazen behintzat janaria hartzen zuena. Beltzek orduantxe bukatu zuten gosaria eta soroetara joateko prest zuden; Jimen beltza latorrizko ontzi batean ogia,

haragia eta beste gauzak ari zen pilatzen; eta besteak alde egiten ari ziren bitartean, etxetik giltza ekarri zuen norbaitek.

Beltz hori on hutsa zen, txoriburu aurpegia zuen, eta ilea mototsa txikitan hariz bilduta. Hori sorginak uxatzeko egiten zuen. Esan zuen sorginak atzetik segika zituela eten gabe azken gaue-tan, eta era guztietako gauza harrigarriak ikus erazten ziotela, eta soinu eta hitz arraroenak entzun erazten, eta ez zitzaiola bizitza osoan bururatu horren denbora luzean sorgindurik ibili beharko zuenik. Horrenbesteraino jo zuen horrek bihotzean, eta isildu gabe bere arazoez hizketan jardun zuenez gero, ahaztu egin zitzaion zer egi-tera zihoan. Orduan Tomek esan zuen:

— Norentzat dituzu janariak? Zakurrei jaten emateko?

Beltzari irribarrea zabaldu zitzaion aurpegian, buztin putzu batean adreilu zatia botatzen duzuean gertatzen den bezala, eta esan zuen:

— Bai, Sid jauna, zakurrari. Zakur bitxia gainera. Nahi duzu ikustera etorri?

— Bai.

Tomi bultza egin, eta ahopeka esan nion:

— Egun argiz sartu behar al duk? Hori ez huen gure asmoa.

— Ez huen..., baina orain izango duk.

Mutil arraioa! Aurrera jo genuen, baina niri ez zitzaidan oso gustukoa iruditu. Etxetxora sartu ginenean, ia ez genuen ezer ikusten, oso ilun zegoelako; baina han zen Jim, bai horixe, eta hark ikus gintzakeen; eta oihu egin zuen:

— Baina, Huck! Eta, ene! Ez al da hori Tom jauna?

Banekien hori gertatuko zela; hori espero nuen. Ez nekien zer egin; eta jakinez gero ere, ezin esango nukeen, halako batean beltza sartu baitzen.

— Baina, alajainkoa —esan zuen beltzak—, ezagutzen al zaituzte, jaunak?

Orduan ongi xamar ikus genezakeen. Tomek beltzari begiratu zion, geldi geldirik eta harriduraz, eta esan zuen:

— Nork ezagutzen gaituela?

— Beltz iheslari horrek.

— Ez dut uste; baina nork sartu dizu hori buruan?

— Buruan sartu? Ez al du oraintxe oihu egin ezagutuko bazintuzte bezala?

Tomek esan zuen, ezin sinetsirik balego bezala:

— Hori gauza bitxia. Nork egin du oihu? Noiz egin du oihu? Zer esan du oihuka? —eta niri lasai-lasai begira geratzeko jira egin zuen, eta esan zidan—: Inor entzun al duzu oihu egiten?

Jakina, gauza bakarra nuen esateko, eta hori esan nuen;

— Ez; ez dut Inor ezer esaten entzun.

Gero Jimi begiratu zion, eta goitik behera aztertu zuen inoiz ikusi izan ez balu bezala; eta esan zuen:

— Oihu egin al duzu?

— Ez, jauna —esan zuen Jimek—. Ez dut ezer esan, jauna.

— Hitzik ere ez?

— Ez, jauna; ez dut hitzik ere esan.

— Inoiz ikusi al gaituzu?

— Ez, jauna; nik dakidala ez behintzat.

Tomek beltzari begiratu zion orduan, beltzak begirada zoroa eta nahigabetua zuelarik, eta esan zion haserre xamar:

— Zer iruditzen zaizu gertatzen zaizula? Zer sinets erazi dizu norbaitek oihu egin duela?

— Oi ene, sorgin madarikatu horiek dira, jauna, eta hilik egon nahiko nuke, bai horixe. Horrela ari zaizkit beti, eta ia akabatu naute beti horrela ikaratu eta ikaratu. Mesedez, ez inori esan hemen gertatutakoa, bestela Silas jaunak zigortu egingo nau eta; berak esaten baitu sorginik ez dagoela. Hemen egotea nahi nuke... orduan ikusiko genuke zer esango lukeen! Ez luke oraingoan hau azaltzeko beste biderik aurkituko. Baina beti berdin gertatzen da; buruan zerbait sartuta duenak, ez du amore eman nahi izaten, ez du bere kabuz ezer aztertu nahi, eta zuk aurkitu eta esaten badiozu, ez dizu sinesten.

Tomek hamarreko txanpona eman, eta ez ziola inori esango hitz eman zion; eta hari gehiago erosteko esan zion ilea mototsetan lotzeko. Gero Jimi begiratu zion, eta esan zuen;

— Osaba Silasek urkatuko al du beltz hau. Ihes egiteko bezain esker txarreko beltza harra-patuko banu, ez nioke inori emango, urkatu egingo nuke.

Eta beltza ate ondora joan zen bitartean hamarrekolari kosk egin, eta egiazkoa ote zen ikusteko, Tomek esan zion Jimi ahopeka:

— Ez agerian utzi ezagutzen gaituzunik. Eta zuloa egiten inor sumatzen baduzu gauez, gu izango gara: hemendik aterako zaitugu.

Jimek gure eskuei eutsi eta gogor estutzeko besterik ez zuen denborarik izan, eta orduan beltza itzuli zen. Beltzari esan genion itzuliko ginela beste batean hark nahi bazuen; eta baietz esan zigun, gauean bereziki, sorginak batez ere gauez joaten baitzitzaizkion bila, eta orduan ona izango zela lagunak inguruan izatea.

Hogeita hamabosgarren atala

la ordubete falta zen gosaltzeko ordurako, eta baso alderantz alde egin genuen, Tomek esan baitzuen zuloa egiteko argia beharko genuela, eta linternak argi indartsuegia ematen zuenez gero, istiluak ekar liezagukeela, eta egur ustel puskak hartu beharko genituela, *axeri sua* edo esaten diotena, leku ilunean jarri eta distira motela besterik ematen ez duena. Besokada bana hartu genuen, eta sasi artean ezkutatu, eta atsedean hartzeko eseri ginen. Tomek esan zuen lur jota zirudielarik:

— Arraioa, hau ez zekiat zer baino errazagoa eta aldrebesagoa duk. Eta benetan zaildu egiten dik plan zaila prestatzea. Begiralerik ez duk ageri guk drogatu ahal izateko... Begiraleren bat izan beharko genuke. Zakurrik ere ez zegok zer-bait jan erazi eta loak hartzeko. Eta hor zegok Jim hanka ohearen hankarekin kateatua duelarrik, hiru metrotako kateaz; eta ohearen egitura altxa eta katea azpitik atera besterik ez duk egin behar. Osaba Silasek, berriz, edonorengan dik

uste ona; giltza ematen zioz beltz txoriburu giza-
jo horri eta ez dik inor bidaltzen beltza zertan
dabilen ikustera. Dagoeneko alde egin zezakean
Jimek leiho zuloatik, ez balitz hiru metrotako
katea hankari lotuta duelarik ezingo lukeelako
bidaia egitera joan. Baina, sinets nazak Huck,
inoiz ikusitako antolamendurik burugabeena duk
hau. Zailtasunak asmatu beharrak dituk. Zeregi-
nik ez diagu ordea, eskuarteak dugunarekin ahal
dugun modu hoberenean moldatu beharko
diagu. Dena dela, badugu zerbait gure alde;
harrotzeko arrazoi handiagoa zegok zailtasun
eta arriskuen artean Jim askatzen baduk, zailta-
sunak jarri behar zituztenek bakar bat ere jarri
ez, eta denak hire buruak asmatu behar ditue-
nean. Linternarena bat ezak kontutan adibidez.
Gauzak hotzean aztertuz gero, besterik gabe
adierazi beharrean gaudek linterna arriskutsua
dela. Baina uste diat, nahi izanez gero, suzizko
segizio osoa ondoan dugula lan egin genezakee-
la. Orain hori aipatzean, zerra bat egiteko zerbait
harrapatu behar dugula bururatu zaidak, aukera
dugun bezain laster.

— Zertarako behar diagu zerra?

— Zertarako behar dugun zerra? Ez al diagu zerratu behar Jimen ohearen hanka katea askatzeko?

— Baina, esan duk ohearen egitura edonork altxa zezakeela eta katea azpitik atera.

— Hire modukoa duk hori ere, Huck Finn. Haurren jokaera hartzen duk beti gauza guztien aurrean. Baina, ez al duk inoiz libururik irakurri? ...ez Trenck Baroia, ez Casanova, ez Benvenuto Cellini, ez Henri IV a, ez horien moduko heroirik? Nork entzun dik inoiz preso aska daitekeela neskazarren tankerako era horretan? Ez; autoritate onenek egiten duten modua ohearen hanka bi zatitan zerratzea duk, hanka lehen bezala utzi, eta zerrautsa irentsi, inork arrastorik aurki ez ditzan, eta lurra eta koipea jarri zerratu-tako lekuaren inguruan, seneskal azkarrenak ere zerratua izan den arrastorik ikusi ez, eta hanka oso osorik dagoela sinets dezan. Gero, alde egiteko prest dauden gauean, ostikoa eman hankari, eta eroriko da; katea azpitik atera, eta kito. Sokazko eskailera almenetan zintzilikatu besterik ez duk egin behar, handik behera irrist egin, erretenean hanka puskatu..., soka beti sei metro

motzagoa izaten baita, badakik..., eta han izango dituk zain zaldiak eta zerbitzari leialak; uretatik atera, eta zela gainera botako haute, eta alde egingo duk, Languedoc edo Nafarrora, edo beste edonora. Aparta duk, Huck. Txabola horrek erretena izatea nahiko nuke. Denbora baldin badugu, ihesaldiaren gauean erreten zuloa egingo diagu.

— Zertarako behar diagu erretena —esan nuen—, txabola azpitik arrastaka atera behar badugu?

Baina ez zidan entzun. Ahaztu egin zen nitaz eta beste gauza guztiez. Eskua kokotsaren kontra jarrita zuen, eta pentsatzen ari zen. Berehala hasperen egin zuen, eta buruari eragin zion; gero hasperen egin zuen berriz, eta esan zuen:

— Ez, ez diagu egingo..., premiarik ez zegok horretarako.

— Zertarako? —esan nuen.

— Bada, Jimen hanka zerratzeko —esan zuen.

— Ene bada! —esan nuen—. Ez al zegok horretarako premiarik? Eta, edozein modutara ere, zertarako moztu beharko hioke hanka?

— Autoritate onenetako batzuek hala egiten diate. Katea moztu ezin bazuten, orduan eskua moztu eta alde egiten ziaten. Eta hanka are hobea litzateke. Baina ezin egin zezakeagu. Gure kasuan ez diagu behar den premiarik; eta gainera Jim beltza duk eta ez lituzke arrazoi horiek ulertuko, eta ezta hori Europako ohitura denik ere; beraz, hori baztertu egin behar diagu. Baina gauza bat geratzen duk..., eskailera izan zezakek; gure maindireak hartuko ditiagu, puskak egin, eta erraz xamar egin zezakeagu eskailera. Eta pastelean sartuta bidaliko zioagu; horrela egiten duk gehienetan. Eta pastel oke-rragoak jan ditiat nik.

— Baina, Tom Sawyer, zer diok —esan nuen—. Jimek ez dik kako eskailera hori ezertarako behar.

— Behar dik. «Hik zer dioan», esan zezakek hobe; ez dakik horretaz tutik ere. Eskailera izan behar dik; denek diate.

— Baina zer arraio egin zezakek eskailera izanik?

— Zer egin? Ohean ezkutatu, ezta? Hori duk denek egiten dutena; eta Jimek ere egin beharko

dik. Huck, iruditzen zaidak ez dituala beti egiten diren gauzak egin nahi; denbora guztian gauza berriak asmatzen aritzea nahi duk. Jo dezagun ez duela ezertarako erabiltzen..., ez al litzateke ohean geratutako arrastoa izango, hark alde egin ondoren? Eta ez al zaik iruditzen arrastoak bilatu nahiko dituztela? Noski nahiko dituztela. Eta ez al zaiek batere utzi behar? Polita izango litzake hori! Ez diat inoiz antzekorik entzun.

— Arauetan baldin badago —esan nuen—, soka izan behar duela, konforme, izan dezala; nik ez diat nahi eta arauetan huts egin; baina bada beste gauza, Tom Sawyer..., maindireak hautsi behar baditugu Jimi eskailera egiteko, izeba Sallyrekin istiluak izango ditiagu, ziur baino ziurrago. Begira, nire iritziz, intxaurrondo azalezko eskailera egitea oso erraza duk, eta ez duk ezer alferrik galdu behar, eta erabil daitekeen edozein sokazko eskailera bezain ona duk pastel batean sartzeko, edo lastaira barruan ezkutatzeko; eta Jimi dagokionez esperientziarik ez dik, eta ez zaiok axolako zein motatako...

— Baita zera ere, Huck Finn, hi bezain ezjakinaren banintz, isilik egongo nintzateke..., horixe

egingo nuke. Nork entzun dik inoiz preso batek intxaurrondo azalez eginiko eskailera erabilita ihes egin duenik? Txorakeria galanta duk hori.

— Konforme, Tom, egin ezak hire erara; baina aholku bat ematea nahi baduk, arropa zintzilik dagoen sokatik maindire bat tarte baterako hartzen utziko didak.

Baietz esan zuen. Eta horrek beste gauza ekarri zion burura, eta esan zuen:

— Har ezak alkandora baita ere tarte baterako.

— Zertarako behar diagu alkandora, Tom?

— Jimek egunkaria idazteko.

— Baita zera ere, egunkaria... Jimek ez zekik idazten.

— Idazten ez badaki ere zer... ezta inuzko koi-lara edo burdinazko kupel zahar baten aroa erabiliz luma egiten badiogu, arrastoak egingo ditik alkandoran, ezta?

— Eta, Tom, ezin al zioagu antzarari luma kendu eta luma hobea egin; eta azkarrago egin gainera?

— Presoek ez ditiztek antzarak ziega inguruan izaten haiei lumak kentzeko, kaiku alaena.

Lumak egiteko beti hartzen ditiztek brontzezko argimutil sapar baten puska gogor, sendo, eta erabilgaitzenak, edo eskura duten antzeko zer-bait; eta asteak eta asteak behar izaten ditiztek, eta hilabeteak eta hilabeteak horiek marruskatzeko, hormaren kontra igurtziz egin behar izaten baitiate. Ez lukete antzar lumarik erabili-ko eskura izanik ere. Ez duk horrelakorik inoiz egi-ten.

— Eta, nondik aterako diagu tinta?

— Askok egin izan diate herdoila eta malkoak erabiliz; baina hori preso arruntek eta emaku-
mezkoek egiten diate; autoritate onenek beren odola erabiltzen ditek. Jimek hori egin zezakek; eta nahi badu mezu misteriotso, arrunt, txiki, eta betiko horietakoa idatzi, eta munduari jakin erazi preso non dagoen, sardexka hartu eta plater baten atzealdean idatz zezakek, eta gero leihotik kanpora bota. Burdinazko Maskarak beti horrela egin izan dik, eta hori ere primerako sistema duk.

— Jimek ez ditik latorrizko platerik. Jana ontzi batean ematen ziotek.

— Hori ez duk ezer; emango zioagu baten bat.

— Inork ezingo ditik haren platerak irakurri.

— Horrek ez dik zerikusirik, Huck Finn. Hark egin behar duen guztia duk platerean idatzi, eta gero platera kanpora bota. Ez duk irakurtzeko gai izan beharrik. Erditan ezin duk irakurri preso batek latorrizko platerean edo beste edozein tokitan idazten duena.

— Orduan, zertarako platerak alferrik galdu?

— Baina, zer arraio, ez dituk presoaren platerak.

— Norbaitenak izango dituk ordea.

— Eta hala bada ere, zer axola zaiok presoari?

Eten egin zion hizketari, gosaritarako tutua entzun genuelako. Eta lasterka abiatu ginen etxerantz.

Goiz horretan maindirea eta alkandora hartu nituen arropa zabaltegitik; zaku zaharra aurkitu eta bertan sartu nuen dena, gero *axeri suaren* bila joan ginen, eta hori ere zakuan sartu genuen. Pixka baterako hartu esaten nion nik horri, aitak hala esaten baitzion beti; baina

Tomek zioen ez zela hartzea, lapurtzea baizik. Esan zuen presoarena egiten ari ginela; eta presoari ez zitzaiela axola gauzak nondik atera, non-baitetik ateratzea baizik, eta inork ez ziela hori leporatzen. Ez omen zen legez kontrakoa presoak alde egiteko behar zuena lapurtzea; eskubidea omen zuen; eta horrenbestez, presoarena egiten ari ginen bitartean, eskubide osoa genuela etxe hartako gauzarik txikiena lapurtzeko, handik ihes egiteko behar baldin bagenuen. Esan zuen presoak izan ez bagina oso bestelakoa izango litzatekeela, eta pertsona zitalak besterik ez lukeela lapurretan egingo presoak izan gabe. Beraz, adierazi genuen eskura genuen edozer gauza lapur genezakeela. Tomek ordea, errieta galanta egin zidan handik egun batzuetara beltzen baratzetik sandia lapurtu eta jan nuenean; eta beltzengana joan erazi ninduen haiei hamarreko txanpona ematera. Tomek esan zidan, behar genuena lapur genezakeela esan nahi zuela berak. Bada —nik esan nion—, sandia behar nuen nik. Baina esan zuen hori ez nuela presondegitik ihes egiteko behar; hortxe zegoen aldea. Labaina haren barruan ezkutaturik Jimi

eman nahi izan banio ordea, zuzen legokeela. Gauzak zeuden bezala utzi nituen, baina hala ere, ez nion presoarena egiteari alde on handiegirik ikusten, eseri eta urre-bitsa baino xehetasun meheagoak aztertzen hasi behar bagenuen, sandia bat harrapatzeko aukera nuen bakoitzean.

Esaten ari nintzen bezala, goiz horretan denak lanean hasi, eta etxe inguruko lur sailean inor ikusi ez genuen arte itxaron genuen; orduan Tomek zakua hartu eta estalpera sartu zuen, nik urrutixeago zelatan egiten nuen bitartean. Handik tarte batera irten zen eta egur pilaren gainean eseri ginen hitz egiteko. Esan zuen:

— Dena prest zegok, erremintak ezik; eta hori errez konponduko diagu.

— Erremintak? —esan nuen.

— Bai.

— Erremintak zertarako?

— Zuloa egiteko. Ez diagu zuloa horzka egingo, ezta?

— Ez al dituk horko pikotxak eta beste gauza zahar hondatuak beltz bat ateratzeko adinakak? —esan nuen.

Jira egin eta errukiz beterik begiratu zidan, inori negarra eragiteko moduan, eta esan zuen:

— Huck Finn, inoiz entzun al duk preso batek pikotxak eta palak, eta tresna moderno guztiak armairuan gordeta dituela zuloa egin, eta pre-sondegitik ateratzeko? Orain galdera bat egingo diat..., zentzu pixka bat baduk..., zer aukera emango zenioke heroi izateko? Giltza ere eman hiezaiokeen, eta kontu guztia bukatu. Pikotxak eta palak..., erregeari ere ez lizkiokete emango eta.

— Orduan —esan nuen—, pikotxak eta palak ez baditiagu behar, zer behar diagu?

— Labaina pare bat.

— Txabolaren zimenduetan zuloa egiteko?

— Bai.

— Baita zera ere, hori zorakeria duk, Tom.

— Berdin zioz zorakeria bada ere, modu zuzena hori duk..., eta betiko modua duk. Eta beste modurik ez zegok, nik entzun dudarik behintzat, eta gauza horiei buruz informazioa ematen duten liburu guztiak irakurri dizkiat. Beti labainaz egiten diate zuloa..., eta ez lurra dagoen lekuan, ez pentsa; gehienetan harkaitz gogo-

rrean egiten diate zuloa. Eta asteak eta asteak, eta asteak behar izaten ditiztek, eta bizitza osoan aritu behar izaten diate. Begira ezak d'lfeko gazteluko beheko ziega batean zegoen preso, modu horretan atera huen; eta zenbat denbora behar izan zuela iruditzen zaik?

— Ez zekiat.

— Asma ezak.

— Ez zekiat. Hilabete t'erdi?

— Hogeita hamazazpi urte..., zera, eta Txinan atera huen. Horrela behar dik. Gordeleku honen azpia harkaitz gogorrezkoa izatea nahi nuke.,

— Jimek ez dik Txinan inor ezagutzen.

— Eta horrek zer axola dik. Beste horrek ere ez zian han inor ezagutzen. Baina beti inguru-
mingurutan habil. Zergatik ez hatzaio gai nagusiari lotzen?

— Ederki..., berdin zaidak non aterako den, ateratzen bada behintzat; eta uste diat Jimi ere berdin izango zaiola. Baina beste gauza bat..., Jim zaharregia duk labaina erabiliz zuloa egiteko. Ez dik nahikoa iraungo.

— Bai iraungo dik. Ez duk pentsatuko hogeita hamazazpi urte beharko dituenik lurrezko

zimenduetan zuloa egin eta hortik ateratzeko, ez?

— Zenbat denbora beharko dik, Tom?

— Ezin diagu behar genukeen adina luzatzen arriskatu. Osaba Silasek laster izan zitzakek berriak New Orleans ondoko leku horretatik. Jakin zezakek Jim bertakoa ez dela. Gero hurrena Jimen iragarkiak jarri edo antzeko zerbait egingo duk. Beraz ezingo diagu arriskatu zuloa egiteko beharko genukeen denbora guztia erabiltzen. Zuzena, nire ustez, urte pare batean aritzea izango litzateke; baina ezin diagu. Gauzak horren zalantzazkoak direnez gero, hau duk niri egokia iruditzen zaidana: berehala zuloa egiten hasi behar diagu, ahal dugun bezain laster; eta gero, geure buruei sinetsarazi hogeita hamazazpi urte behar izan ditugula. Ondoren alarma seinalerik sumatu bezain laster atera eta azkar eraman zezakeagu hemendik kanpora. Bai, modurik onena iruditzen zaidak.

— Horrek badu zentzurik —esan nuen—. Itxura egitea gauza erraza duk; itxura egi teak ez dik lanik ematen, eta behar izanez gero, berdin zaidak ehun eta berrogeita hamar urte behar izan

ditugula itxura egitea. Indar handirik ez nuke egin beharko horretarako, behin ohituz gero. Banoa beraz ibilalditxo egitera, eta labaina pare bat harrapatzera.

— Hiru harrapa itzak —esan zuen—; zerra egiteko beharko diagu bat.

— Tom, arauen kontra eta erlijioaren kontra joatea ez bada hau proposatzea —esan nuen—, zera, baduk hor aho herdoildua duen zerra zahar bat teilatu oholen artean sartuta, janariak keztatzeko tokiaren atzean.

Lur jota eta indarrik gabe balego bezala begiratu zidan, eta esan zuen:

— Alferrik duk hiri zerbait irakasten ahalegin-tzea, Huck. Alde egin ezak hemendik eta harrapa itzak labainak..., hiru labaina. Eta hala egin nuen.

Hogeita hamaseigarren atala

Gau horretan, denak lotan izango zirela iruditu zitzaigunean, tximist orratzaren burdinaran behera jaitsi ginen, estalpe barruan sartu, atea itxi, eta handik egur argitsua atera genuen eta lanera joan ginen. Metro t'erdian edo zeuden gauza guztiak kendu genituen, egituraren ardatz bateko enborrharen erdiaren inguruan. Tomek esan zuen Jimen ohearen atzean ginela orduantxe, eta haren azpian egingo genuela zuloa, eta lana amaitzean txabola barruko inor ez zela konaturatuko han zuloa zegoenik, Jimen ohe estalkiak ia lurreraino zintzilikatzen baitzuen, eta hura altxa beharko litzateke haren azpian zuloa ikusteko. Zuloa egin eta egin aritu ginen, labainak erabiliz, ia gau erdira arte; gero leher eginik geratu ginen, eskuak babaz beteta genituen, eta ez zirudien oraindik gehiegi aurreratu genuenik. Azkenean esan nuen:

— Hau ez duk hogeita hamazazpi urtetako lana, hogeita hemezortzi urtetako lana duk, Tom Sawyer.

Ez zuen ezer esan. Baina hasperen egin zuen, eta tarte batean utzi zion zuloa egiteari, gero tarte luzeagoan pentsatzen ari zela konturatu nintzen. Orduan esan zuen:

— Alferrik duk, Huck, ez diagu aurrera aterako. Presoak gu izan bagina egin ahal izango genuke, nahi adina urte izango genituzkeelako, eta presarik ez; eta ezingo genuke egunean minutu batzuetan besterik zuloa egin, zaintza aldatzen ziaten bitartean, eta horrela eskuak ez litzaizkiguke babaz beteko, eta aurrera egin ahal izango genuke, urte batean eta bestean, eta zuloa ongi egingo genuke, legeak esaten duen bezala. Baina ezin diagu denborarik galdu, azkar ibili beharra diagu; ez diagu denbora alferrik galtzeko astirik. Beste gau batean modu honetan arituz gero, astebetetz utzi beharko genioke zultzeari eskuak sendatu bitartean..., ezingo genuke lehenago labanarik hartu.

— Eta, zer egingo diagu orduan, Tom?

— Esango diat. Ez duk gauza zuzena, ez duk morala, eta ez nuke inork jakitea nahi..., baina bide bat besterik ez zegok; pikotxak erabiliz egin

beharko diagu zuloa, eta labainak direla itxura egingo diagu.

— Orain hitz egin duk behar bezala! —esan nuen—. Gero eta buru argiagoa duk, Tom Sawyer —esan nuen—. Pikotxak dituk gauza zuzena, legezko izan al ez izan; eta niri behintzat, bost axola zaidak horren legezkoatasuna. Beltza lapurtzen badut, edo sandia, edo igandeetako eskola liburua, ez zaidak batere axola nola egin, egitea baizik. Beltza nahi diat, edo sandia behar diat, edo igandeetako eskola liburua; eta pikotxa baduk gauzarik eskuragarriena, hori erabiliko diat beltza zulotik ateratzeko, edo sandia, nahiz igandeetako eskola liburua eskuratzeko; eta arratoi hilik ere ez nuke emango autoritateek horretaz zer dioten jakiteagatik.

— Beno —esan zuen—, horrelako kasuan aitzakia badiagu pikotxak erabiltzeko eta itxurak egiteko; hala ez balitz, ez nuke onartuko, eta ez nintzateke arauak hausten ikusten hor bazterrean ezer egin gabe geratuko..., zuzen dagoena zuzen baitago, eta oker dagoena oker, eta inork ezin dik oker jokatu ikasi gabea ez denean eta jakinaren gainean dagoenean. Hiretzat egokia

izan daiteke Jim pikotxa erabiliz ateratzea, itxuririk egin gabe, ezer ez dakik eta; baina niretzat ez, nik gauzak ongi ezagutzen baititut. Eman iezadak labaina.

Berea eskutan zuen, baina nirea eman nion. Labaina lurrera bota, eta esan zuen:

— Eman iezadak labaina.

Ez nekien zer egin..., baina orduan ulertu nuen. Erreminta zaharren artean bila ibili nintzen, eta aitzurra hartu eta eman egin nion; hartu zuen eta lanean hasi zen, hitzik esan gabe.

Horrelakoa zen beti. Legez eta araez bete betea.

Orduan pala hartu nuen; pikotxa eta palari eraginez txandaka aritu ginen, eta lana airean zihoan aurrera. Ordu erdiz edo jardun genuen, zutik iraun genezakeen artean; baina etekin handia atera genion lanari, eta zulo galanta egin genuen. Eskailerak igo nituenean, leihotik kanpora begiratu nuen eta Tom ikusi nuen ahalegin guztiak egiten tximist orratzetik gora igotzeko, baina ezin zuen; eskuak urratuegiak zituen. Azkenean esan zuen:

— Alferrik duk, ezin diat. Zer egingo diat? Ez al zaik ezer bururatzen?

— Bai —esan nuen—, baina uste diat ez dela legezkoa. Eskaileratan gora igo, eta itxura egin ezak tximist orratzaren burdina dela.

Eta hori egin zuen.

Hurrengo egunean Tomek eztañuzko koilara eta brontzezko argimutila lapurtu zituen etxean, Jimi idazteko luma egitearren, eta sei kandela bilgorrezkoak; eta beltzen txabolen inguruan ibili nintzen ni, latorrizko platerak lapurtzeko aukera bila. Tomek esan zuen ez zirela nahikoak; baina nik esan nion inork ez zituela Jimiek botatako platerak ikusiko, leiho zuloaren azpiko miru belar eta sorgin belarren tartera eroriko zirelako... Ondoren horiek berak gorantz bota eta berriz erabil zitzakeela. Tom gustura geratu zen horrekin. Gero esan zuen:

— Orain, Jimengana gauzak nola irits erazi aztertu beharko diagu.

— Zulotik sartuko zizkioagu —esan nuen—, zuloa egiten behin bukatuz gero.

Mesprezuz beterik begiratu zidan, eta esan zuen inork ez zuela inoiz horrelako tentelkeriarik

entzun, edo antzeko zerbeit, eta gero pentsatzen hasi zen. Handik tarte batera esan zuen bi edo hiru modu asmatu zituela, baina oraindik ez zela beharrezkoa horietako bat aukeratzea. Esan zuen aurretik Jim jakinaren gainean jarri beharko genuela.

Gau horretan tximist orratzaren burdinatik behera jaitsi ginen hamarrak jo eta berehala, kandela bat eramane genuen, leiho zuloaren azpian geratu ginen entzuten, eta Jim zurrungan entzun genuen; barrura bota genuen kandela, baina Jim ez zen esnatu. Orduan jo eta ke hasi ginen zuloa egiten pikotxa eta pala hartuta, eta bi ordu t'erditan edo amaitu genuen lana. Arrastaka sartu ginen txabolan Jimen ohe azpiraino, haztamuka ibili ginen, eta kandela aurkitu eta piztu egin genuen. Jimen aurrean zutik egon ginen tarte batean, eta osorik eta onik zegoela ikusi genuen, ondoren esnatu egin genuen poliki eta pixkanaka. Gu ikusteagatik poz pozik zegoen, eta ia negar egin zuen; eta laztanak esan zigun, eta bururatu zitzaizkion hitz maitagarri guztiak; eta nahi zuen gu lehenbailehen burdin guraize baten bila joatea, hori erabiliz, berehala

oinean zuen katea moztu, eta handik denborarik galdu gabe alde egiteko. Baina Tomek adierazi zion legez kontrakoa izango zela hori egitea, eta eseri eta gure asmoak esan zizkion, eta asmoak alda genitzakeela arriskurik ikusten genuen bezain laster; eta inolako kezkarik ez izateko, zalantzarik gabe aske utziko genuelako. Jimek esan zuen konforme zegoela, eta eseri, eta iraganeko garaiaz hizketan aritu ginen, eta gero Tomek galdera pila egin zizkion, eta Jimek esan zionean osaba Silas egunero edo bi egunez behin joaten zitzaiola berarekin errezatzera, eta izeba Sally ea ongi zegoen eta jateko nahikoa ote zuen ikustera joaten zitzaiola, eta biak oso atseginak zirela, Tomek esan zuen:

— Orain bazekiat zer egingo dugun. Horien bidez bidaliko zizkioagu gauzak.

— Ez horrelakorik egin —esan nuen—; inoiz entzun dudan astakeriarik handiena duk hori.

Baina ez zuen arretarik hartu eta aurrera egin zuen. Beti horrela jokatzeko zuen planak prestatuak zituenean.

Esan zion Jimi sokazko eskaileraren tartan bidaliko geniola ezkututan, eta beste gauza

handi asko Naten bidez, alegia, janariak erama-
ten zizkion beltzaren bidez, kontuz ibili beharko
zuela, ez zuela harritu beharko, eta ez ziola Nati
ikusten utziko berak gauzak nola irekitzen
zituen; gauza txikiak sartuko genituela osabaren
berokiaren poltsikoan eta handik lapurtu behar-
ko zituela; eta beste gauzak lotuko genituela ize-
baren mantalaren zintetatik edo mantalaren pol-
tsikoan sartuko genizkiola, aukera izanez gero;
eta esan zion zer gauza izango ziren horiek eta
zertarako beharko zituen. Tomek esan zion baita
ere alkandoran egunkaria idatzi beharko zuela
bere odola erabiliz, eta guzti hori. Dena esan
zion. Jimek Tomek esandako gauza gehienei ez
zien inolako zentzurik ikusten, baina adierazi
zuen gu zuriak ginela, eta berak baino hobeto
jakingo genuela zer egin; pozik geratu zen, eta
esan zuen dena Tomek esan bezala egingo
zuela.

Jimek arto pipita eta tabako ugari zuen txabolan; eta oso une atsegin eta ona izan genuen; gero zulotik arrastaka irten ginen berriz, eta etxera joan ginen lotara, eskuek itxura tamalgarran genituelarik. Tom pozez zorutzen zegoen.

Esan zuen bizitza osoan izandako unerik jostagarriena izan zela hori, eta intelektualena; eta harekin aurrera egiteko moduren bat asma baleza, egoera hori bizitza osorako luzatuko lukeela eta Jim handik ateratzea gure umeez egin zezaten utzi; uste baitzuen Jimi gero eta atseginagoa irudituko litzaiokeela bere egoera, ohitu ahala. Modu horretan zortzi urtetara luza omen zitezkeen, eta inoiz erabilitako denborarik luzeena izango omen zen. Eta esan zuen horrek ospetsu bilakatuko gintuela parte hartu genuen guztiok.

Goizean egur pilaren lekura joan ginen eta brontzezko argimutila zati erabilgarriagoetan puskatu genuen, eta Tomek puska horiek eta eztauzko koilarea poltsikoan sartu zituen. Gero beltzen txaboletara abiatu ginen, eta nik Nati beste aldera begira erazten nion bitartean, Tomek argimutilaren puska bat bota zuen Jimen kazolan zegoen arto ogiaren tartean, eta Nati lagundu genion zer gertatuko zen ikusi ahal izateko, eta primerakoa izan zen; Jimek ogiari kosk egin zionean ia hortz guztiak txikitu zituen; eta ez zen horrek baino emaitza hobetik izan zezakeen gauzarik. Tomek berak esan zuen. Jimek ez

zuen ezer esan, harriren bat edo antzeko zerbait izango zela besterik ez, ogian askotan izaten diren horietakoak, badakizu; baina geroztik ez zion inoiz janariari kosk egiten lehenago sardexka hartu eta bi edo hiru tokitan zuloa egin gabe.

Eta argi ahul horretan zutik ginelarik, zakur pare bat irten zitzaizkigun Jimen ohe azpitik; eta gero eta gehiago pilatu ziren hamaika zakur sartu zitzaizkigun arte; ia arnasa hartzeko lekurik ez zen geratzen. Arraioa, estalpeko atea ixtea ahaztu zitzaigun! Nat beltzak: «sorginak!», oiuhukatu besterik ez zuen egiten, eta halako batean, zakurren artean zerraldo erori zen lurrera, eta marmarka hasi zen hiltzen ariko balitz bezala. Tomek kolpetik atea zabaldu zuen eta Jimen haragiaren zati bat kanpora bota zuen, eta zakurrak horren atzetik joan ziren, eta bi segundotan bera ere kanpora joan, eta berriz etorri eta atea itxi zuen, eta banekien beste atea ere itxi zuela. Ondoren beltzarengana joan zen, lausenguka eta goxo-goxo aritu zitzaion, eta galdegin zion berriro ere zerbait ikusi zuela amets egin ote zuen. Beltza zutik jarri zen, harriduraz inguruan begiratu, eta esan zuen:

— Sid jauna, esango duzu burutik eginda nagoela, baina ez baditut ikusi milioi bat zakur, edo deabru, edo ez dakit zer, hemen bertan hilik gera nadila nire oinen aztarnetan. Ikusi ditut, ziur nago. Sid jauna, sumatu ditut..., sumatu ditut, jauna; gainean nituen. Madarikatuak, nahiago nuke sorgin horietako bat harrapatu izan banu..., bat besterik ez..., besterik ez dut eskatzen. Baina are gehiago nahiago nuke ni bakean uztea, bai horixe.

Tomek esan zuen:

— Esango dizut niri zer iruditzen zaidan. Zerk erakartzen ditu sorginak beltz iheslari honen gosari garaitara? Goseak; hori da arrazoia. Sorgin tarta egin behar diezu; hori da zuk egin behar duzuna.

— Baina, ene, Sid jauna, nola egingo diet sorgin tarta? Ez dakit nola egiten den. Ez dut orain arte horrelakorik entzun.

— Orduan, neronek egingo dizut.

— Egingo al didazu, laztana?... bai? Zuk zapaldutako lurra musukatuko dut!

— Ederki, egingo dut, zuretzat delako, eta gurekin zintzoa izan zarelako eta beltz iheslaria

erakutsi diguzulako. Baina kontu handiz ibili behar duzu. Gu etortzen garenean, zuk beste aldera begiratu beharko duzu; eta gero kazolan edozer gauza jartzen dugula ere, ez duzu ikusi duzunik aditzera emango. Eta ez begiratu, Jimek kazola husten duenean..., zerbait gerta liteke, ez dakit zer. Eta batez ere, ez ukitu sorginen gauzarik.

— Ukitu, Sid jauna? Zer diozu? Ez nuke nire hatzaren pisua horien gainean jarriko, ezta bostehun mila milioirengatik ere, ez jauna.

Hogeita hamazazpigarren atala

Dena konponduta zegoen. Orduan irten, eta etxe atzeko lursaileko zabortegira joan ginen, bota zaharrak, piltzarrak, botila puskak, eta latorrizko gauza hondatuak, eta antzeko trasteak gordetzen zituzten lekura; gauza horien artean bila ibili ginen eta latorrizko garbiontzi zaharra aurkitu genuen, eta zuloak ahal izan genuen bezain ongi estali genizkion, pastela bertan egosteko; etxeko satora eraman genuen eta lapurtutako irinez bete genuen, eta gosaltzera gindoazela iltze lodi pareta aurkitu genuen, eta Tomek esan zuen oso erabilgarriak izango zirela presoak bere izena eta zoritxarrak gazteluko ziegaren hormetan zirriborratzeko, eta horietako bat aulki batean zintzilik zegoen izeba Sallyren mantalaren poltsikora bota, eta bestea osaba Silasek bulegoan zuen sonbreiruaren zinta barruan sartu genuen, umeei entzun baikenien esaten aita eta ama goizean beltz iheslariaren etxera joatekoak zirela; gero gosaltzera abiatu

ginen, eta Tomek eztaizuzko koilarea osaba Sila-
sen berokiaren poltsikoan sartu zuen, eta izeba
Sally oraindik iritsi ez zenez gero, pixka bat itxa-
ron behar izan genuen.

Iritsi zenean bero-bero zetorren, aurpegia
gorrituta, eta haserre, eta ezin zuen bedeinka-
zioa bukatu arte ere itxaron; berehala hasi zen
kafea esku batean hartu eta zerbitzatzen, eta
beste eskuan zuen titareaz gertuena zuen umea-
ri kanka-kanka buruan ematen, eta esan zuen:

— Dena goitik behera begiratu dut, eta inon-
dik inora ezin dut asmatu non den zure beste
alkandora.

Bihotza hondoratu zitzaidan birika, gibel, eta
beste gauzen artean, eta horren atzetik ezta-
rrian behera joan zitzaidan ogi azal puska gogor
bat, eta bidean eztula topatu zuen eta ogia
mahaiaren beste alderaino irten zen airean, ume
bat jo zuen begian, zizarearen moduan bihurritu
erazi zuen umea, eta borroka-deiadarraren neu-
rriko garrasia bota erazi zion; Tomi aurpegia goi-
beldu zitzaion, eta gauzak oker xamar ibili ziren
minutu laurdenean edo luzexeago, eta horrekin
amaitzeko dena erdi prezioan saltzeko prest

nengoen, eskaintzailerik topatuz gero. Baina horren ondoren gauzak bere onera etorri ziren..., bat-bateko harridurak utzi gintuen modu horretan zor eta lor. Osaba Silasek esan zuen:

— Oso gauza harrigarria eta bitxia da, ezin dut ulertu. Ziur nago erantzi nuela, izan ere...

— Izan ere, bat besterik jantzita ez duzulako. Hara zer esaten duen gizonak! Badakit erantzi zenuela, eta zuk baino hobeto dakit, atzo zintzilik zegoelako..., neronek ikusi nuen han. Baina desagertu egin da..., eta horixe gertatu da, eta horren ordeztan franelazko gorria jantzi beharko duzu nik berria egiteko denbora hartzen dudana bitartean. Eta bi urtetan egiten dizudan hirugarrena izango da; eta horrela batek beti airean egon beharra du zu alkandoraz hornitzeko; eta ezin dut inondik inora ulertu zer egiten duzun horiekin. Uste nuen alkandorak zaintzen ikasiko zenuela honez gero.

— Badakit, Sally, eta ahal dudana neurrian saiatzen naiz. Baina ez dut uste dena nire erruz gertatu denik, zuk bai baitakizu ez ditudala ikusten, eta ez dudala horiekin inolako zerikusirik

jantzita ez baldin badituz; eta ez dut uste inoiz jantzita neramana galdu dudarik.

— Ez zen zure errua izango jantzita ez bazenuen Silas..., ahal izanez gero, hala izanik ere galduko zenuela uste dut. Eta alkandora ez da desagertu den gauza bakarra. Koilare bat ere desagertu da; eta hori ez da dena. Hamar genituen, eta orain bederatzi besterik ez ditugu. Iru-ditzen zait zekorrak alkandora eramane zezakeela, baina zekorrak ez du inoiz koilarerik hartzen, hori bai dela egia.

— Eta zer gehiago desagertu da, Sally?

— Sei kandela..., horixe. Arratoiek eramane zitzaketen kandelak, eta uste dut hala egingo zutela, eta ez dakit zergatik ez duten etxe osoa eramane; zuloak estaliko dituzula esane ari zara beti, eta ez duzu inoiz egiten; eta tentelak ez balira zure ilean bertan egingo lukete lo, Silas..., eta ez zinateke konturatuko; baina ezin zaie arratoiei koilarearena leporatu, eta horren zalantzarik ez dut.

— Beno, Sally, errudun naiz, eta badakit; axo-lagabea izan naiz; baina ez da biharko eguna igaroko nik zulo horiek estali gabe.

— Oi, ez larritu, datorren urtean egingo duzu bestela... Matilda Angelina Araminta Phelps!

Danba egin zuen titareak, eta umeak atzaparrak atera zituen azukre ontzitik ingurura ezertarako begiratu gabe. Orduantxe, emakume beltza korridorean sartu zen, eta esan zuen:

— Andrea, maindirea desagertu da.

— Maindirea desagertu! Ene, Jaungoikoaren izenean!

— Gaur bertan estaliko ditut zuloak —esan zuen osaba Silasek, errukiz betea zirudielarik.

— Oi, isilik egon!... uste al duzu arratoiek eraman dutela maindirea? Non izan daiteke, Liz?

— Ene, ene, susmorik ere ez dut, Sally andrea. Atzo zintzilik zegoen, baina desagertu egin da, han ez dago.

— Munduaren amaiera datorrela uste dut. Bizitza osoan ez dut horrelakorik ikusi. Alkandorra, eta maindirea, eta koilarea, eta sei kandela.

— Andrea —neska gazte beltza sartu zen—, brontzezko argimutila desagertu da.

— Alde hemendik, lotsagabe hori, edo zartagina hartu eta astinduko zaitut!

Irakiten zegoen emakumea. Aukera bila hasi nintzen; alde egin nahi nuen eta basora joan giroa baretu bitartean. Haserre bizian zegoen izeba, matxinada bere kabuz aurrera zeramalarik, eta beste guztiak otzan-otzan eta isilik; eta azkenean osaba Silasek, ergel aurpegia jarrita, koilarea atera zuen poltsikotik. Andrea isildu egin zen, ahoa zabalik eta eskuak altxatuta geratu zen; eta niri dagokidanez nahiago nuke Jerusalemen edo beste nonbait egon han baino. Baina horrek ez zuen denbora luzea iraun, andreak esan baitzuen:

— Nik sumatzen nuena. Poltsikoan izan duzu denbora guztian, eta beharbada beste gauzak ere hor izango zenituen. Nola iritsi da horra?

— Benetan ez dakit, Sally —esan zuen gizonak, barkamena eskatu nahiko balu bezala—, badakizu bestela esango nizukeela. Gosaldu baino lehen Apostoluen Eginen hamazazpigarren atala ari nintzen aztertzen, eta uste dut orduan sartuko nuela koilarea, konturatu gabe, Testamentua sartzen ari nintzelako ustetan, eta horrela izan beharko du, Testamentua ez dudalako poltsikoan, baina orain begiratuko dut, eta

Testamentua lehengo lekuan badago, ez dudala poltsikoan sartu esan nahiko du horrek, eta Testamentua utzi eta koilarea sartu dudala, eta...

— Ene, Juangoikoaren izenean! Utz nazazue bakean! Alde hemendik mundu guztia, eta ez berriz nire aurrean azaldu ni lasaitu bitartean.

Hitz horiek bere buruarentzat esan izan bali-tu ere, berdin-berdin entzungo nituzkeen, zer esanik ez ozenki esan zituelarik; zutitu eta hark esandakoa egingo nukeen, baita hilik egon banintz ere. Egongelatik igarotzen ari ginenean, etxeko jaunak sonbreirua hartu zuen, eta iltze lodia lurrera erori zitzaion, eta lurretik jaso eta tximiniaren apalaren gainean utzi zuen, ezer esan gabe, eta alde egin zuen. Tomek gizona hori egiten ikusi zuen, eta koilarearena etorri zitzaion burura, eta esan zuen:

— Ez ditiagu gauzak osabaren bidez gehiago bidaliko; ez duk fidagarria.

Gero esan zuen:

— Baina, edozein modutara ere, mesedea egin ziguk koilarearekin, ezer jakin gabe, eta guk ere berak ezer jakin gabe beste mesedea egingo zioagu..., arratoien zuloak estali.

Zulo pila ederra zegoen sotoan, eta ordu osoa behar izan genuen, baina lana behar bezala, ongi, eta txukun egin genuen. Orduan eskaileretan behera norbait zetorrela sumatu genuen, kandela itzali, eta ezkutatu egon ginen; eta han azaldu zen etxeko jauna, esku batean kandela zekarrela, eta bestean fardela, beti bezain arreta gabea zirudielarik. Burua beste nonbait zuela zirudien, lehenik arratoi zulo baterantz, eta gero beste baterantz jo zuen, denak ikusi zituen arte. Gero host minutu edo egin zituen han zutik, kandelaren tanto lehorrak kentzen eta pentsatzen. Ondoren eskaileretara joateko poliki eta ametsetan balego bezala jira egin zuen, eta esan:

— Alafede, hori noiz egin dudan ez dut gogotan. Esan diezaioket ez naizela errudun arratoin horretan. Baina berdin da..., utz dezagun hori bakean. Uste dut horrek ez lukeela ezer aldatuko.

Marmarka jo zuen eskaileretan gora, eta gero gu irten ginen. Oso gizon atsegina zen. Eta hala da oraindik ere.

Tom oso kezkatu zegoen koilarea nola eskuratu ez zekielako, baina esan zuen beha-

rrezkoa genuela; eta pentsatzen hasi zen. Konpondu zuenean, nola egingo genuen esan zidan; orduan koilare otarraren ondora joan eta zain egon ginen izeba Sally zetorrela ikusi genuen arte. Tom koilareak zenbatzen hasi zen eta otarraren alboko bazter batean uzten, eta nik horietako bat hartu eta maukan gora sartu nuen, eta Tomek esan zuen:

— Baina, izeba Sally, bederatzi koilare ditugu oraindik.

— Segi hemendik jolasera —esan zuen izebak—, eta ez ni amorratu erazi. Badakit denak daudela, neronek zenbatu ditut.

— Bada, nik bi aldiz zenbatu ditut, izeba, eta bederatzi batzen ditut.

— Bere onetik aterata zegoela zirudien, baina noski koilareak zenbatzera hurbildu zen..., edo nork gauza bera egingo luke.

— Ene, Jaungoikoa, bederatzi besterik ez daude eta! —esan zuen izebak—. Baina zer arraio gertatu da! Berriro zenbatuko ditut.

Orduan koilarea irristatzen utzi nuen, eta zenbaketa bukatu zuenean esan zuen:

— Baina zer istilu zikin da hau? Orain hamar daude! eta haserre eta kezkatuak zegoela zirudien. Baina Tomek esan zuen:

— Baina, izeba, ez dut uste hamar daudenik.

— Tentel hori, baina ez al nauzu zenbatzen ikusi?

— Bai, baina...

— Beno, berriz zenbatuko ditut.

Orduan bat harrapatu nuen, eta bederatzi batu zituen aurrekoan bezala. Su eta gar zegoen..., dardara bizian, horren haserre zegoenez. Baina zenbatu eta zenbatu aritu zen, erabat nahasirik amaitu arte, eta batzuetan otarra ere koilarea balitz bezala zenbatzen zuen; hiru aldiz ongi ateratzen zitzaion, eta hiru aldiz gaizki. Orduan otarra hartu eta etxeko beste muturrera bota zuen eta katua jo eta hankaz gora utzi zuen; esan zigun alde egiteko eta bakean uzteko, eta bazkaltzeko ordua baino lehenago azaltzen baginen bere inguruan traba egiten, larrutuko gintuela. Horrela lortu genuen zorioneko koilarea; eta izebaren mantalaren poltsikoan sartu genuen azken aginduak ematen zizkigun bitartean, eta Jimek eguerdia baino lehenago

eskuratu zuen batere arazorik gabe, iltze lodia-
rekin batera. Oso pozik ginen egindako lanare-
kin, eta Tomek esan zuen horrek, emandako
nekeak baino bi aldiz gehiago balio zuela, izebak
ezingo zituelako berriz bi aldiz koilare horiek
zenbatu emaitza berberarekin, ezta bere burura
salbatzeko ere; eta ongi zenbatuko balu ere, ez
lukeela sinetsiko; eta Tomek esan zuen burua
galdu arte ondorengo hiru egunetan zenbatzen
aritu ondoren, iruditzen zitzaiola etsi egingo
zuela eta norbaitek berriz zenbatzeko esaten
bazion hura hiltzeko prest egongo litzatekeela.

Gau horretan berriz jarri genuen maindirea
sokan zintzilik, eta beste bat lapurtu genuen
armairutik; bere lekura itzultzen eta berriz lapur-
tzen aritu ginen eten gabe egun pare batez, ize-
bak zenbat maindire zituen zalantzan jarri zuen
arte, eta esan zuen ez zitzaiola axola, eta ez
zuela horregatik arima atsekabetuko, eta ez
zituela berriz zenbatuko ezta bere bizitza salba-
tzeagatik ere, hori egin baino lehenago nahiago
zuela hil.

Arazorik ez genuen orduan alkandora, main-
direa, koilarea eta kandelei zegokienean, zeko-

rrari, arratoiei, eta zenbaketa nahasiari esker-
rrak; eta argimutilari zegokionean, ez zuen
garrantzi handirik, ahaztuko zuen handik tarte
batera.

Baina pastela egitea, horrek bai lana eman
zigula; arazo amaigabeak izan genituen pastela-
rekin. Basoan prestatu genuen, eta bertan egosi;
eta azkenean amaitu genuen, eta oso ongi gai-
nera; baina ez genuen dena egun bakar batean
egin; hiru garbiontzi erabili behar izan genituen
irinez beteak pastela amaitu ahal izateko, gorpu-
tzak alde guztietan erre zitzaizkigun, eta begiak
mindu zizkigun keak; izan ere, beheko oreka bes-
terik ez genuen egin nahi, eta ezin genuen tente
jarri, zuloa egiten zitzaigun beti. Baina azkenean
modu egokia bururatu zitzaigun; alegia, eskaile-
ra ere pastelaren barruan egostea. Bigarren
gaua Jimekin igaro genuen, eta maindirea tira
txikietan puskatu genuen, bata bestearekin txiri-
kordatu genituen, eta eguna argitu baino askoz
lehenago soka polita egina genuen, norbait urka-
tzeko ere erabil zitekeelarik. Itxura egin genuen
bederatzi hilabete behar izan genituela soka hori
egiteko.

Eguerdia baino lehenago basora eramán genuen, baina ez zen pastelean kabitzen. Main-dire oso batez egina zegoenez, nahi izanez gero, berrogei pastel egiteko adina soka genuen, eta pila ederra geratuko zen gainera erabili gabe, zopan, saltxitxetan, edo beste edozer gauzetan sartzeko. Bazkari osoa egin genezakeen.

Baina ez genuen behar. Pastelarentzat beste-rik ez genuen behar, eta gainontzekoa bota egin genuen. Garbiontzian ez genuen pastelik egosi, galdatutakoa urtuko ote zitzaigun beldurrez; baina osaba Silasek bazuen oheak berotzeko brontzezko su-ontzi bikaina, egurrezko kirtena eta guzti, eta bere arbasoren batena izan zelako asko maite zuena; eta Ingalaterratik etorri zen William Konkistatzailearekin batera *Mayflower* edo hasierako ontzi horietakoren batean. Ganbaran ezkutaturik zuten beste ontzi eta gauza baliotsuekin batera, ez baliorik zutelako, ez baitzuten batere, erlikiak izateagatik baizik, badakizu. Handik isil isilik atera eta kanpora eramán genuen; baina lehenengo pasteletan huts egin zuen, nola erabili behar zen ez genekielako, baina azkenan dotore irten zitzaigun. Ontzia

hartu eta orez bete genuen, sutan jarri, eta sokazko eskailera sartu genuen, eta gero orezko teilatua egin genion, ontziari estalkia jarri, eta txinhar beroak erantsi genizkion guztiaren gainean, eta ia bi metrotara geratu ginen zutik, kirten luze horri eutsiz, berotu gabe eta gustura, eta hamabost minututan begiratu genion, eta harro senti erazteko moduko pastela izan genuen aurrean. Baina hori jaten zuenak hobe luke txotxa kaxa parean alboan izan, sokazko eskailerak lan ederrak emango zizkion eta, baina, tira, ez dakit zertaz ari naizen hizketan; eta gainera horrek sortutako sabeleko minak hurrengo aldirara arte iraungo lioke.

Natek ez zuen begiratu sorgin-pastela Jimen kazolan jarri genuenean; eta latorrizko hiru platerak kazolaren hondoan jarri genituen, janariaren azpian; eta horrela Jimek dena primeran jaso zuen, eta bakarrik geratu bezain laster pastela txikitu eta sokazko eskailera hartu eta lastaira barruan gorde zuen, eta latorrizko plateretan arrastoak egin eta leiho zulotik kanpora bota zuen.

Hogeita hemezortzigarren atala

Idazteko lumak egitea oso lan nekagarria zen, eta zerra egitea ere bai, eta Jimek esan zuen inskripzioa egitea lanik gogorrena izango zela. Hori presoak horman egin behar zuen zirriborroa zen. Baina nahitanahiez izan behar genuen inskripzioa. Tomek esan zuen egin behar genuela; ez zela estatuko preso bakar bat inskripzioa idatzita utzi ez zuenik, bere armarrria eta guzti gainera.

— Begira adibidez lady Jane Grey —esan zuen—; begira Gilford Dudley; begira Northumberland zaharra! Huck, lan handia izango dela uste baduzu ere... zer egingo diogu?.., nola utziko dugu egin gabe? Jimek inskripzioa eta armarrria egin beharko ditu. Denek egiten dute.

— Baina, Tom jauna —esan zuen Jimek—, nik ez dut armarririk; ez daukat alkandora zahar hau besterik, eta badakizu bertan egunkaria idatzi beharra dudala.

— Ez duzu ulertzen, Jim; armarrria bestelako gauza da.

— Beno, dena dela —esan nuen—, Jim zuzen dago armarririk ez duela esaten duenean, horrelakorik ez baitu.

— Jakinaren ganean nagoela uste dut —esan zuen Tomek—, baina apustu egin dezakezu hemendik atera baino lehen izango duela berea..., behar bezala aterako baita, eta ibilbideak ez baitu akatsik izango.

Jim eta biok idazteko lumak adreilu puska baten kontra arraspatzen genituen, Jimek berea brontzea erabiliz, eta nik nirea koilareaz egiten nuelarik; bitartean Tom eseri egin zen armarrria nola egin asmatu nahian. Handik tarte batera esan zuen —era askotakoak bururatu zitzaizkiola, eta ia ezin zuela bakar bat aukeratu, baina bazuela bat aukeratuko zuela uste zuena. Esan zuen:

— Ezkutuan *urrezko* banda izango dugu eskuineko oinarrian, faxan sautore morea, eta zakur bat etzanda, blasoi arrunta dela adierazteko, eta horren oin azpian almena marrazkidun katea, esklabutza adierazteko, gapirio berdea

ezkutuaren buru angrelatuan, eta hiru kontra-banda lursail urdin ilunean, behean mutur atzaparkaria azpildura horzdunaren gainean; goiko muturrean, beltz iheslaria, beltzez, fardela bizkar gainean daramalarik, eta barra siniestratuaren gainean, eta alboetan euskarri gorri pare bat, zu eta biok izango garelarik; eta goiburu gisa, «*Maggiore fretta, minore atto*». Liburu batetik atera dut, eta esan nahi du, zenbat eta presakago, orduan eta motelago.

— Arraiopola! —esan nuen—. Baina zer esan nahi du beste guztiak?

— Ez dugu denborarik horretaz kezkatzeko —esan zuen—, jo eta ke aritu beharra dugu lanean zoro moduan.

— Dena dela —esan nuen—, zer dira horietako gauza batzuk? Zer da sautorea?

— Sautorea..., sautorea da..., ez duzu hori zer den jakin beharrik. Esango diot nola egin garaia iristen zaionean.

— Tom —esan nuen—. Nik uste dut esan egin beharko zenukeela. Zer da barra siniestrata?

— A, ez dakit. Baina ezkutuak hori behar du. Noblezia guztiak du.

Hori zuen jokabidea. Gauza bat azaltzea ez bazitzaion egokia iruditzen, ez zuen azaltzen. Astebetean hari zerbait atera nahian ibiliko zinen, baina alferrik izango zen.

Armarriari zegokion guztia konponduta zuen, eta orduan lanaren gainontzekoa bukatzeari ekin zion, alegia, inskripzio mingarria asma-tzea... Esan zuen Jimek bat beharko zuela, beste guztiek zuten bezala. Pila bat asmatu zituen, paper batean idatzi, eta honela irakurri zituen:

1. Hemen lehertu zen bihotz gatibu bat.

2. Hemen ahitu zen munduak eta lagunek alde batera utzi zuten preso gizajo baten bizitza errukarria.

3. Hemen hautsi zen bihotz bakarti bat, eta haren arima minduak bakean atsedean hartu zuen, hogeita hamazazpi urtetako gatibualdia bakardadean igaro ondoren.

4. Hemen, etxerik gabe eta lagunik gabe, hogeita hamazazpi urtetako gatibualdi samina-ren ondoren, hil zen atzerritar noble bat, Louis XIV.aren seme berezkoa.

Tomen ahotsak dardara egiten zuen esaldiak irakurtzen zituen bitartean, eta ia indarrak galdu

zituen. Bukatu zuenean, ezin zuen bat aukeratu Jimek horman idatz zezan, denak oso onak zirenez gero; eta azkenean adierazi zuen denak marrastu beharko zituela. Jimek esan zuen urtebete beharko zuela egur gainean iltzea erabiliz gauza guzti horiek idazteko, eta gainera, ez zekiela letrak egiten; baina Tomek erantzun zion berak marrastuko zizkiola, eta horrela marren gainean zulatu besterik ez zuela egin beharko. Handik pixka batera esan zuen:

— Pentsatzen hasi, eta iruditzen zait enborrek ez dutela horretarako balio; gazteluetako ziegek ez dituzte enborrezko hormarik izaten: inskripzioa harria zulatuz egin beharko dugu. Harria ekarriko dugu.

Jimek esan zuen harria enborrak baino okerragoa izango zela; esan zuen denbora luzeegia beharko zuela harria zulatzeko, eta ez zela inoiz handik aterako. Baina Tomek esan zuen onartuko zuela nik Jimi horretan laguntzea. Gero Jim eta bioi lana begiztatu zigun, lumak zer moduz egiten genituen ikusteko. Lan madarikatua, nazkagarria, gogorra eta motela zen, eta ez zion nire eskuei aukerarik ematen urratuak sendatze-

ko, eta ez zirudien gauza handirik aurreratzen ari ginenik. Orduan esan zuen Tomek:

— Badakit nola konponduko dugun. Harria behar dugu armarrirako eta inskripzio mingarrietarako, eta horrela bide batez bi mandatu egingo ditugu. Badago errotarri ikusgarria han behean errotan, ezkutuan harrapatuko dugu, eta horren gainean zizelatuko ditugu gauzak, eta lumak eta zerra bertan arraspatu ere bai.

Ez zen nolana hiko ideia; eta harria ere ez zen nolana hiko; baina ekingo geniola onartu genuen. Oraindik ez zen gauerdia, eta errota alderantz irten ginen, Jim lanean utzi genuelarik. Errotarria hartu, eta zutik jarri genuen jirabiraka etxeraino joan zedin, baina benetan lan latza zen hori. Batzuetan, ahalegin guztiak eginik ere, ezin genuen zutik eutsi, eta erortzen zen bakoitzean ia azpian txikitzen gintuen. Tomek esan zuen ziur zegoela harriak guretako bat azpian harrapatuko zuela lana amaitu aurretik. Bidearen erdia egin genuen harria bultzaka, eta leher eginik geratu ginen, eta ia izerditan itota. Konturatu ginen alferrik ari ginela: Jimen bila joan beharra genuen. Ohetik jaiki zen, eta ohearen hanka

azpitik katea atera, eta lepo inguruan bildu zuen, eta zulotik arrastaka irten ginen kanpora eta lehengo lekura joan ginen. Jim eta biok errotrari bultza egin genion, eta oso erraz eraman genuen aurrerantz; eta Tomek lana gainbegiratu zuen. Gainbegiratzaile lana edozein mutilek baino hobeto egiten zuen. Bazekien gauza guztiak nola egin behar ziren.

Gure zuloa handi xamarra zen, baina hala ere ez zen nahikoa errotarria handik sartzeko; baina Jimek pikotxa hartu eta txikiagoa egin zuen. Orduan Tomek iltzea hartu eta arrastoak egin zituen haren gainean, eta Jim lanean jarri zuen marrak zulatzen, iltzea zizel gisa erabiliz, eta estalpeko zakarren artean aurkitutako burdinazko sarraila mailu gisa; Tomek esan zion Jimi kandela ahitu arte lan egin zezala, eta gero ohera joan zitekeela, eta errotarria lastaira barruan ezkutatu eta horren gainean lo egiteko. Ondoren katea berriz ohearen hanka azpian sartzen lagundu genion, eta oheratzeko prest ginen. Baina Tomi zerbait bururatu zitzaion, eta esan zuen:

— Armiamarik ba al duzu, Jim?

— Ez, jauna, Jainkoari eskerrak ez, Tom jauna.

— Ederki, bilatuko dizkizugu batzuk.

— Baina, laztan hori, ez dut horrelakorik nahi. Beldurtzen naute. Nahiago ditut kriskitin-sugeak inguruan ikusi.

Tomek minutu pare batez pentsatzen aritu zen, eta esan zuen:

— Ideia ona iruditzen zait. Eta uste dut noiz-bait egingo zela. Egin behar izan da; badu zentzurik. Bai, primerako ideia da. Non gorde zenezakeen?

— Gorde zer, Tom jauna?

— Bada, kriskitin-sugea.

— Ene, Jaungoikoa, Tom jauna! Hona kriskitin-sugea etorriko balitz, horko enborrezko hormatik irtengo nintzateke burua horren kontra astinduta.

— Baina, Jim, ez zaitu beldurtuko, berarekin denbora pixka bat egin ondoren. Hezi zenezake.

— Hezi!

— Bai... erraz. Animalia guztiak esker onekoak izaten dira modu atseginean erabili eta laztanduz gero, eta ez litzaieke bururatuko laztan-

tzen dituen pertsona zauritzea. Edozein liburuk esaten dizu hori. Saiatu..., hori besterik ez dizut eskatzen; saiatu bizpahiru egunetan. Denbora gutxi barru ikusiko duzu maite izango zaituela; eta zurekin egingo du lo; eta ez da une batean ere zugandik urrunduko; eta lepo inguruan bil dezazun utziko dizu, eta burua zure ahoan sartzen.

— Mesedez, Tom jauna... ez horrelakorik esan! Ezin ditut ikusi! Burua ahoan sartzen utziko dit... mesedea egiteko, ezta? Bada, uste dut denbora luzea beharko nukeela nik sugeari horrelakorik eskatu baino lehen. Eta gainera, ez dut nahi nirekin lo egitea.

—Jim, ez horrelako ergela izan. Presoak aldamenean animalia kirten horietakoren bat behar du, eta kriskitin-sugea ez bada inoiz erabili, bada, merezimendu handiagoa irabaziko zenuke lehenengoa izateagatik, eta zure bizitza salbatzeko asma zenezakeen beste edozein moduk baino handiagoa.

— Baina, Tom jauna, ez dut horrelako merezimendurik nahi. Sugeak Jimen kokotsari kosk egingo dio, eta orduan non izango dut merezi-

mendua? Ez, jauna, ez dut horrelako gauzarik nahi.

— Baina, zer arraio, ezin al duzu saiorik egin? Saioa egitea besterik ez dut nahi..., ez duzu aurrera egin beharko ongi ez badoa.

— Baina akabo lan guztiak, sugeak kosk egiten badit saioa egiten ari naizen bitartean. Tom jauna, ia edozer gauza egiteko prest nago, gauza zentzuzkoa izanez gero, baina zuk eta Huckek kriskitin-sugea ekartzen badidazue hona nik hezteko, alde egingo dut hemendik, horixe baietz.

— Orduan, ezer ez, ezer ez, horren buru gogorra jartzen bazara. Ziraunen bat edo ekarriko dizugu, eta isatsean botoiak lotu, eta itxura egin dezakezu kriskitin-sugea dela, eta uste dut horrela moldatu beharko dugula.

— Horiek jasan ditzaket, Tom jauna, baina, zer arraio, ez nuke horien premiarik, hori ere garbi esaten dizut. Ez nekien preso izateak horrelako kezka eta lanak ematen zituenik.

— Hala izaten da beti, lana behar bezala egiten bada. Arratoirik ba al dabil hemen inguruan?

— Ez, jauna, ez dut bat ere ikusi.

— Beno, ekarriko dizkizugu batzuk.

— Baina, Tom jauna, nik ez dut arratoirik nahi. Inon ikusi ditudan izaki madarikatuenak dira jendea atsekabetzeko, eta karraskan ibiltzen zaizkizu inguruan, eta oinetan kosk egiten dizute, loak hartu nahian zaudenean. Ez, jauna, eman ziraunak, hala izan behar badu, baina arratoirik ez eman, nekez jasan ditzaket.

— Baina Jim, izan behar dituzu..., denek dituzte. Beraz ez aitzaki gehiagorik jarri. Arratoirik ez duen presorik ez da inoiz izan. Ez dago bestelako adibide bakarrik. Eta hezi egiten dituzte, eta laztandu, eta trikimailuak irakasten dizkiete, eta euliak bezain lagunarteko bilakatzen dira. Baina musika jo behar diezu. Musika jotzeko ezer ba al duzu?

— Ez dut orraze handi bat eta paper puska bat besterik, eta musugitarra; baina uste dut ez lioketela jaramon handiegirik egingo musugitarri.

— Bai egingo liokete. Bost axola zaie zer musika mota den. Musugitarrarena nahikoa ona da arratoientzat. Animalia guztiei atsegin zaie musika..., kartzelan ezitan egoten dira musika entzuten. Bereziki, musika mingarria; eta hori

besterik ezin da musugitarraz jo. Beti gogoia pizten zaie; zer gertatzen zaizun ikustera irteten dira. Bai, ongi dago hori; ederki pentsatu duzu. Ohean eseri beharko duzu, gauetan, oheratu baino lehen, eta goizetan goiz, eta musugitarra joko duzu; jo ezazu «Azken kate-maila hautsi da»: hori da arratoia beste ezer baino lehenago irten eraziko duena, eta bi minutuz edo jo ondoren, arratoi guztiak, eta sugeak, eta armiarmak eta denak ikusiko dituzu zutaz kezkatzen hasi, eta irtengo direla; eta denak gainean jarriko zaizkizu, eta primeran ibiliko zara.

— Bai, horiek hala ibiliko direla uste dut, Tom jauna, baina nola ibiliko da Jim? Ezin dut inondik inora ezer ulertu. Baina egin behar badut egingo dut. Uste dut hobe dudala animaliak gustura edukitzea, etxean arazorik izan ez dadin.

Tom pixka batean pentsatzen aritu zen, besterik ez ote zen aztertzen; eta berehala esan zuen:

—O!.... ia ahaztu dut beste gauza bat. Uste al duzu hemen lorerik haz zenezakeenik?

— Ez dakit baina agian bai, Tom jauna; baina ilun xamar dago hemen barruan, eta gainera nik

ez dut lorerik ezertarako behar, eta horrek lan handia emango lidake.

— Beno, dena dela, saiatu. Beste preso batzuek egin izan dute.

— Azeri buztanaren tankera duten apo-belarra haziko da hemen inguruan, Tom jauna, baina ez luke emango lukeen lanaren erdia ere balio izango.

— Ez pentsa. Txiki bat ekarriko dizugu, eta zuk hor bazterrean landatu, eta zainduko duzu. Eta landareari ez esan apo-belar, esan iezaiozu Pitchiola..., hori du izen zuzena, kartzelan dagoenean. Eta malkoz ureztatu beharko duzu.

— Baina iturriko ura gainezka dut, Tom jauna.

— Ez duzu iturriko urik behar; malkoz ureztatu behar duzu. Horrela egiten dute beti.

— Baina, Tom jauna, garbi esaten dizut nik bi aldiz haziko nukeela apo belar horietako bat iturriko ura erabiliz beste gizon batek malkoz behin haziko lukeen bitartean.

— Hori ez da kontua. Malkoz egin beharra duzu.

— Eskutan hilko zait, Tom jauna, ziur nago; nik ia inoiz ez baitut negar egiten.

Tom nahasturik zegoen. Baina hori pixka bat aztertu ondoren, esan zuen nola edo hala moldatu beharko zuela tipula batekin. Hitz eman zion goizean beltzen txabolara joango zela, eta ezkutatuan Jimen kafe ontzira bat botako zuela. Jimek esan zuen hori baino nahiago zuela tabakoa botatzea kafeari; eta oso aldrebasa iruditu zitzaion ideia hori ere, eta apo-belarra hazteko lanak eta trabak, eta arratoiei musugitarra jotzea, eta sugeak, armiarmak eta horrelakoak laztandu eta lausengatu beharra, luma eta inskripzioekin zituen lan guztiez gain, eta egunkariak, eta beste gauzak, eta guzti horrek preso izatea neke, kezka eta erantzukizunez betetzen zuen, berak inoiz izandako eginkizunetan baino areago; Tom ia aspertu zen berarekin, eta esan zuen munduan izandako edozein presok baino aukera ikusgarriagoak izan zituela ospea irabazteko, eta hala ere ez zekiela horiek behar bezala kontutan hartzen, eta alferrik galtzen zituela. Orduan Jim damutu egin zen, eta esan zuen ez zuela berriz horrelakorik egingo, eta gero Tom eta biok lotara alde egin genuen.

Hogeita hemeretzigarren atala

Goizean herrira joan ginen eta arratoiak harrapatzeko burdin harizko sare-arteak erosi eta etxera eramanez genuen, arratoi zuloak oneratuak ireki, eta ordubete barru edo hamabost ederretakoak genituen; eta gero hartu eta arriskurik gabeko lekuan jarri genituen izaba Sallyren oherazpian. Baina armiarma bila joan Binen bitartean, Thomas Franklin Benjamin Jefferson Alexander Phelps txikiak aurkitu zituen, eta atea ireki zuen arratoiak irtengo ote ziren ikusteko, eta irten egin ziren; eta izaba Sally sartu zen, eta itzuli ginenean ohera gainean zegoen zutik algara bizian, eta arratoiak ahaleginak egiten zituzten hura aspertzen ez uzteko. Izebak makila hartu eta hautsak astindu zituzkigun bioi, eta bi ordu behar izan genituen beste hamabost edo hamar hartzeko, demontre, hura umearen muturra sartu beharra, horiek ez baitziren arratoi oneretakoak, aitzitik lehenengo aldiak harrapatutakoak taldeko bikainenak ziren. Ez dut inoiz lehe-

nengo aldiko arratoi piia bezain talde ederrik ikusi.

Armiarma desberdinen bilduma aparta genuen, eta zomorroak, eta igelak, eta harrak, eta animalia ren bat edo beste; eta liztor-habia hartu nahi izan genuen, baina ezin. Familia etxean zen. Ez genuen berehalakoan etsi, eta horien zain egon ginen ahal izan genuen arte; erabaki baikenuen guk nekaraziko genituela edo haiek gu nekaraziko gintuztela bestela, eta haiek irabazi zuten. Gero edozer gauza sendatzen zuen sendagarria hartu eta igurtzi genituen zimikoak, eta ia erabat sendatu zitzaizkigun, baina hala ere, ezin genuen behar bezala eseri. Orduan suge bila joan ginen, eta dozena pare bat ziraun eta suge arruntak harrapatu genituen, poltsa batean sartu, eta gure gelan utzi genituen, eta afalordua egin zitzaigun ordurako, eguna zinez eta gogor lanean eman ondoren; eta goseak horregatik?... oi, ez, ez horixe! Eta suge madarikatu bakar bat ez zen han geratzen, gelara itzuli ginenean..., ez genuen nonbait poltsa ongi lotu, eta irten egin ziren, eta ihes egin ziguten. Baina horrek ez zuen garrantzi handie-

girik, etxean nonbait ibiliko baitziren oraindik. Iruditu zitzaigun horietako batzuk berreskura genitzakeela. Ez, ez zen suge premiarik izan etxean denbora luze xamarrean. Noiznahi ikus zenitzakeen zutabeetatik eta beste tokietatik tantoak bailiren azaltzen zirela; eta ia beti plate-rean lur hartzen zuten, edo lepoaren atzealdetik behera, eta gehienetan aurkitu nahi ez zenituzkeen lekuetan. Dotoreak ziren eta marradunak, eta horietako milioia elkaturik ere ez lukete kalterik egingo; baina bost axola zitzaion hori izeba Sallyri; sugeak gorrotatzen zituen, edozein motatakoak zirela ere, eta ezin zituen jasan nahi zenuen modutan aurkezturik ere; eta horietako bat gainera erortzen zitzaion bakoitzean, edozer gauza egiten ari zela ere, lana utzi eta alde egiten zuen. Eta haren oihuak Jericon ere entzun zitezkeen. Ez zenioke buruan sartuko suge horietako bat uki zezan, ezta orrikak erabilita ere. Eta ohean beste aldera jira egin eta bat aurkituko balu, kanpora jauzi egin eta tankera horretako garrasia bota ondoren, etxea sutan zegoela pentsatuko zenuke. Horrenbestearaino aspertu zuen senarra, non honek esan baitzuen, nahiago

lukeela sugeak sortuak izan ez balira. Azken sugeak etxetik alde egin eta handik astebetara ere, izeba Sallyk ez zuen oraindik gaintitu; eta gaintitzeko bidean ere ez zebilen; eserita zegoenean zerbaitetan pentsatzen, atzetik lepoan luma igurzten bazenion, jauzi egiten zuen bat-batean, galtzerdietatik ere irtengo zela zirudielarik. Oso bitxia zen. Baina Tomek esaten zuen emakume guztiak horrelakoxeak zirela. Hark zioen horrela zeudela eginak; arrazoi bat edo bestea zela medio.

Astindu ederra ematen zigun gure sugeren bat aurrean azaltzen zitzaion bakoitzean; eta esaten zuen astindu horiek hutsa zirela etxea berriz sugez beteko bagenu emango lizkigukeen ondoan. Astinduak ez zitzaizkidan axola, ez baitziren gauza handia; baina bai ordea beste suge pila eskuratzeko izan genituen lanak. Hala ere, eskuratu genituen, eta beste gauzak ere bai; eta ziur nago ez duzula inoiz ikusi Jimena bezain txabola alairik, zomorro guztiak batera musika entzutera irten eta Jimen gainera abailtzen zirenean. Jimek ez zituen armiarmak atsegin, eta armiarmek Jim ere ez; horregatik eraso egiten

zioten eta atsekabetzen zuten. Eta esaten zuen arratoiak, eta sugeak, eta errotarria batera jarri, eta ohean ia lekurik ez zela berarentzat; eta baldin bazuen ere, ezin zuela loak hartu, hango festak zirela eta, eta beti izaten omen ziren han festak, animaliek ez zutelako inoiz batera loak hartzen, txandaka baizik, eta horrela sugeak lotan zeudenean arratoiek zaintza egiten zuten, eta arratoiak loak hartzen zituztenean sugeek egiten zieten txanda, horregatik Jimek beti zuen talderen bat bere azpian traba egiten, eta beste talderen bat gainean zirkoa egiten, eta beste leku batera joateko altxatzen bazen, armiarmek eraso egiten zioten gelan zeharka zihoan bitartean. Esan zuen noizbait ihes egitea lortuko balu, ez litzakeela berriz preso izango, ezta ordainduko baliote ere.

Hiru aste igaro ondoren, dena behar bezala zegoen. Alkandora laster iritsi zen, pastel baten barruan, eta arratoiren batek Jimi kosk egiten zion aldiro, zutitu eta egunkarian pixka bat idazten zuen tinta berria zuen bitartean; idazlumak eginak zeuden, inskripzioak eta abar errotarrian zizelatuak; oheko hanka bi zatitan zerratu, eta

zerrautsa jan genuen, eta horrek sekulako sabeleko mina eman zigun. Iruditu zitzaigun hil egingo ginela hirurok, baina ez zen hala gertatu. Inoiz ikusitako zerrauts ehogaitzena zen; eta Tomek gauza bera esan zuen. Baina esaten ari nintzen bezala lan guztia egina genuen azkenean, eta nahikoa leher eginik ginen, Jim batez ere. Etxeko nagusiak bialdiz idatzi zuen Orleanetik harantzagoko landaketara beltzaren bila etor zitezten, baina ez zuen erantzunik izan, han ez baitzen halako landaketarik; eta orduan esan zuen Jim St Louis eta New Orleanseko egunkarietan iragarriko zuela; eta St. Louisekoa aipatu zuenean, hotzikarak hartu ninduen, eta konturatu nintzen ez genuela denbora galtzerik. Tomek esan zuen anonimoen garaia iritsi zela.

— Zer dituk horiek? —esan nuen.

— Jendearentzat oharrak zerbait gertatzen ari dela esateko. Batzuetan modu batera egiten duk, besteetan bestera. Baina beti izaten duk norbait inguruan espiatzen, gazteluko gobernariari berri emateko. Louis XVI.a Tullerietatik ihes egitera zihoanean, neskatxa zerbitzari batek egin zian. Oso modu egokia duk, eta gauza bera

eskutitz anonimoak. Biak erabiliko ditiagu. Gauza ezaguna duk presoaren amak semearekin arropak aldatzea, eta ama barruan geratu, eta semeak haren arropak jantzita ihes egitea. Hori ere egingo diagu.

— Baina, begira, Tom, zertarako esan behar zioagu inori zerbait gertatzen ari dela? Asma dezatela beraiek..., beren eginkizuna diate.

— Bai, bazekiat; baina ez dituk fidagarriak. Begira nola jokatu duten hasiera hasieratik..., gure eskutan utzi diate dena. Oso usteoneko eta txoriburuak dituk eta ez dituk ezertaz konturatzten. Eta ohart eraziko ez bagenu, inork eta ezerk ez liguke trabarik egingo, eta gure lan gogorra eta neke guztien ondoren ihesaldia zailtasunik gabea izango litzateke; ez luke ezer balioko..., errazegia izango litzateke.

— Beno, nik behintzat, Tom, hori nahiko nuke.

— Utikan —esan zuen, eta haserre zegoela zirudien.

Orduan esan nuen:

— Baina ez diat oztoporik jarriko. Hiri ongi iruditzen zaiana niri ere ongi irudituko zaidak.

Zer egingo duk neska zerbitzariaren gai horrekin?

— Hi izango haiz. Gauerdian ezkututan irten-go haiz eta neska beltzaren soinekoa lapurtuko duk.

— Baina horrek arazoak ekarriko ditik hurrengo goizean; ziur aski soineko bat besterik ez baitu izango.

— Bazekiat; baina hamabost minututarako besterik ez duk beharko, eskutitz anonimoa eramane eta sarrerako ate azpitik sartzeko.

— Ederki, orduan, egingo diat; baina horrela bezain errez eramane nezakeen eskutitza nire arropak jantzita.

— Baina ez zenuke neska zerbitzariaren antzik izango orduan, ezta?

— Ez, baina hala ere ez duk inor bertan izango zeren antzik dudan ikusteko.

— Horrek ez dik zerikusirik. Guk zera egin behar diagu, gure eginkizuna bete, eta ez kezkarik izan inork ikusten gaituelako edo ez gaituelako. Hik ez al duk inolako legerik?

— Ederki, ez diat ezer esango; ni izango nauk neska zerbitzaria. Nor izango duk Jimen ama?

— Ni izango nauk. Izeba Sallyren soinekoa lapurtuko diat.

— Orduan, hik geratu beharko duk txabolan Jim eta biok alde egitean.

— Ez luzaroan. Jimen arropak lastoz beteko ditiat eta ohe gainean jarri bere ama mozorroturik dela itxura egiteko, eta Jimek izebaren soinekoa jantziko dik, eta denok batera ihes egingo diagu. Goi mailako presoak ihes egiten duenean, *iihesaldia* esaten zaiok. Horrela esaten zioagu erregeak ihes egiten duen guztietan adibidez. Eta gauza bera erregearen semea bada; eta alderik ez zegok seme naturala edo ez-naturala izan.

Tomek eskutitz anonimoa idatzi zuen, eta nik gau horretan neska beltzaren soinekoa lapurtu eta jantzi nuen, eta eskutitza sarrerako ate azpitik sartu nuen, Tomek esan zidan bezala. Honela zioen:

Kontuz. Azpijokoan ari dira. Erne ibili.

LAGUN EZEZAGUNA

Hurrengo egunean burezurra eta bi hezur gurutzatuak zituen irudi bat itsatsi genuen ate nagusian, Tomek odolez marraztutakoa; eta hurrengo gauean hilkutxa bat zuen beste bat atzeko atean. Ez nuen familia horrelako estualdian inoiz ikusi. Ez lirateke ikaratuagoak ibiliko etxea, gauzen atzean, ohe azpitan, eta airean alde batetik bestera dardarka beraien atzetik zebiltzan mamuz beterik balute. Atea kolpetik ixten bazen, izeba Sallyk jauzi egin, eta «ai!» esaten zuen, zerbait erortzen bazen, jauzi egin eta «ai!» esaten zuen, ezustean ukitzen bazen, beste aldera begira zegoelarik, gauza bera egiten zuen; ezin zuen leku batera lasai begiratu, uste zuelako denbora guztian zerbait zuela atzean..., eta bat-batean jira egiten zuen, eta «ai!» esaten zuen, eta itzuli laurdena eman baino lehen, beste aldera egiten zuen jira, eta berriz gauza bera esaten zuen; eta oheratzeko beldur zen, baina esna egoten ez zen ausartzen. Tomek esan zuen oso ongi ari ginela; inoiz ez omen zuen lan gustukoagorik egin. Esan zuen lana ongi egin genuela esan nahi zuela horrek.

Esan zuen orduan: «Orain azken ukaldiaren garaia duk!» Hurrengo goizean, eguna argitu bezain laster, beste eskutitza prestatu genuen, eta ez genekien zer komeni zitzaigun egitea, izan ere etxekoei esaten entzun baikenien beltz bat jarriko zutela zelatan gau osoan ate bakoitzean. Tom tximist orratzaren burdinan behera jaitsi zen ingurua espiatzeko; atzeko ateko beltza lotan zegoen, eta eskutitza atzealdetik sartu nion lepotik behera, eta berriz etorri zen. Eskutitzak honela zioen:

Ez niri saldukeriarik egin, zure laguna izan nahi dut. Bada lepoak mozten aritzen den jende multzo zoro bat, eta gaur gauean Indiarren lurraldetik etorri eta zuen beltz iheslaria lapurtzera doa. Zuek ikaratu nahian ibili dira, eta horrela zuek etxean geratu erazi eta haiei bidea libre utz diezaiezuen. Taldekoa naiz, baina erlijioan sinesten dut, eta taldea utzi eta bizitza zuzena eraman nahi dut berriz, eta horren deabrukeriazko asmoa salatu. Iparraldetik etorriko dira ezkutuan, hesi ondotik, gauerdian puntu puntuan, eta gezurrezko giltza ekarri eta beltza-

ren txabolan sartuko dira hura handik ateratze-ko. Nik urrutixeago egon beharko dut eta lato-
rriko tronpeta jo arriskurik ikusiz gero; baina
horren orde, ardiek bezala be egingo dut horiek
txabolan sartu orduko eta ez dut tronpetarik
joko; orduan kateak askatzen dizkioten bitar-
tean, ezkututan hurbildu eta barruan giltzatuak
utziko dituzue, eta zuen gustura hil ditzakezue.
Nik esaten dizuedana besterik ez egin, besterik
egiten baduzue susmo txarra izango dute eta
sekulako saltsa izango da. Ez dut saririk espero,
zuzen jokatu dudala jakin baizik.

Lagun ezezaguna

Berrogeigarren atala

Gustura ginen gosaldu ondoren, eta kanoa hartu eta errekarantz jo genuen arrantzara, bazkaria eta guzti; ongi pasa genuen eta almadia aztertu eta ongi aurkitu genuen, eta afaltzera berandu iritsi ginen etxera. Izerditan eta larri aurkitu genituen guztiak, burua non zuten ere ez zekitelarik. Afaldu orduko ohera bidali gintuzten zuzenean, eta ez ziguten zer gertatzen zen esan, eta hitzik ere ez zuten esan eskutitz berriaz, baina ez zuten esan beharrik, edonork bezain ongi baikenekien gertatutakoa, eta eskailera erdia igo genuen bezain laster, eta izebak beste aldera begiratu orduko, ezkutuan sotoko armai-rura joan ginen, janari pila igo genuen gure gelara, eta ohera joan ginen. Hamaika t'erdietan jaiki ginen, eta Tomek izeba Sallyri soinekoa lapurtu zion. Janaria hartu eta irtetera zihoan, baina esan zuen:

— Non duk gurina?

— Puska ederra jarri zian arto ogi zati baten gainean—esan nuen.

— Orduan, beste nonbait utziko huen, hemen ez zegok eta.

— Hori gabe ere moldatuko gaituk —esan nuen.

— Horrekin ere moldatuko gaituk —esan zuen—; satora joan hadi isilik eta ekar ezak. Eta gero tximist orratzaren burdinatik ezkutuan jaitsi eta hator guregana. Ni banoak eta Jimen arropak lastoz beteko ditiat bere ama mozorroturik dela irudikatzeke, eta prest egongo nauk ardiek bezala be egin eta hi etorri bezain laster alde egiteko.

Hura kanpora joan zen, eta ni berriz satora. Gurin puska, pertsona baten ukabilaren neurrikoa bera, nik utzi nuen lekuan zegoen. Gurina gainean zuen arto ogi zatia hartu, kandelaren argia itzali eta eskaileretan gora jo nuen, kontu handiz, eta arazorik gabe iritsi nintzen lehenengo solairura; baina han zetorren izeba Sally kandela eta guzti. Gauzak sonbreiruan sartu nituen, eta sonbreirua buruan presaka jarri nuen; berehalaxe ikusi ninduen, eta esan zuen:

— Sotoan izan al zara?

— Bai andrea.

— Zertan ibili zara?

— Ezertan ere ez.

— Ezertan ez!

— Ez andrea.

— Orduan, ze demotreringatik jaitsi zara gaueko garai honetan?

— Ez dakit bada, andrea.

— Ez al dakizu. Ez niri horrelakorik esan, Tom, sotoan zertan ibili zaren jakin nahi dut.

— Ez naiz ezertan ere ibili, izeba Sally, goiak daki ezetz.

Uste nuen alde egiten utziko ninduela, bestetan egingo lukeen bezala, baina horrenbeste gauza harrigarri gertatzen ari zirenez, iruditzen zait bere lekuan ez zegoen gauza txikienak ere kezka erazten zuela. Orduan esan zuen etsi etsian:

— Sar zaitez oraintxe egongelan eta hor egon ni joan arte. Egin behar ez zenuen zerbaitetan aritu zara, eta ziur egon zaitezke zertan ibili zaren asmatuko dudala zurekin amaitu baino lehen.

Izebak alde egin zuen, eta nik atea ireki nuen eta egongelan sartu nintzen. Ene, hori zen jende-

tza hori! Hamabost nekazari, bakoitzak bere eskopeta zuelarik. Oso gaixorik jarri nintzen, eta isil isilik aulki bateraino hurbildu, eta eseri egin nintzen. Gizonak gela inguruan eserita zeuden, batzuk ahopeka hitz eginez, eta guztiak urduri eta ezinegonean, baina lasai zeudela itxura egin nahian; nik banekien ordea urduri zeudela denbora guztian sonbreiruak kendu eta jarri ari zirelako, buruan hatz eginez, lekuz aldatzen, eta botoiekin jolasean. Ni ere ez nengoen lasai, baina hala ere, ez nuen sonbreirua kendu.

Izeba Sally etor zedin nahi nuen, guzti horrekin amaitzeko, eta astinaldi batzuk eman nahi baldin bazizkidan, hori ere berdin zitzaidan, eta gero alde egiten utz nintzala Tomengana joan eta neurriak hautsi genituela esateko, ikaragarriko liztor habian sartu ginela, eta tontakeriak utzi eta Jimekin berehala hanka egin behar genuela, gizatxar horiek pazientzia galdu eta gure bila etorri baino lehen.

Iritsi zen azkenean, eta galderak egiten hasi zitzaidan, baina ezin nituen behar bezala erantzun, ez bainekien zertan ari nintzen ere; izan ere orduan bai ezinegonean zeudela gizonak,

eta batzuek berehala hasi nahi zuten legez kanpoko lapurren bila, eta esaten zuten minutu batzuk besterik ez zirela gauerdiko falta; eta besteek geldi erazi nahi zituzten ardi seinalea entzun arte; eta bitartean izeba galderak egin eta egin, eta ni dardarka goitik behera eta zor eta lot beldurrak hartuta. Gelan gero eta beroago zegoen, eta gurina urtzen hasi zitzaidan, lepoan behera eta belarri atzeetatik irrist eginez; orduan gizon horietako batek esan zuen: «Txabolara joan behar dugula iruditzen zait, oraintxe bertan, eta iristen direnean hantxe harrapatu», ia bertan behera erori nintzen, eta gurin zurrusta tantoka erortzen hasi zitzaidan kopetan behera. Izeba Sallyk ikusi zuen eta maindirea bezain zuri geratu zen, orduan esan zuen:

— Jaungoikoaren izenean zer gertatzen zaio umeari? Burmuin sukarra du, ziur baino ziurrago, eta burmuinak urtzen ari zaizkio!

Eta denak ikustera etorri ziren korrika, eta izebak sonbreirua hartu eta buru gainetik kendu zidan, eta ogia eta urtu gabe geratu zen gurina irten ziren, estu eutsi eta besarkatu ninduen, eta esan zuen:

— Ene, ederki ikaratu nauzu! eta bai pozik nagoela eta eskerrak ematen ditut okerragorik ez delako izan; zoritxarrak besterik ez baititugu, eta bata bestearen atzetik gainera, eta gauza hori ikusi dudanean uste nuen zureak egin zuela, kolorearengatik eta iruditu zait burmuinak... zera egiten ari zirela. Laztana, laztana, zergatik ez didazu esan horren bila jaitsi zarela, ez zidakeen axolako. Orain joan zaitez ohera, eta ez nire begien aurrean azaldu goiza arte!

Goian nintzen segundo batean, eta tximist orratzean behera hurrengoan, eta ilunpetan estalperantz lasterka joan nintzen. Ia ezin nuen hitzik esan, horren urduri nengoenez; baina ahal nuen bezain laster esan nion Tomi berehala hanka egin behar genuela handik, minutu bakarra galdu gabe..., eta etxea gizonez beteta zegoela eskopetak eta guzti!

Haren begiei distira zerien; eta esan zuen:

— Bai zera! Ez duk egia izango? Ez al duk primerakoa? Huck, hitza ematen diat dena berriro egin ahal bagenu berrehun gizon bildu baietz! Pixka batean atzeratu bageneza zera...

— Azkar! azkar! —esan nuen—. Non duk Jim?

— Hire aldamenean; besoa luzatzen baduk ukitu dezakek. Jantzita zegok, eta dena prest diagu. Orain isilka alde egin zezakeagu eta ardiaren seinalea emango diat.

Baina orduan gizonen oin hotsa entzun genuen aterantz hurbiltzen, eta sarrailan zebil-tzala sumatu genituen, eta gizon baten ahotsa entzun genuen honela zioelarik:

— Esan dizuet nik goizegi zela; ez dira oraindik etorri..., atea itxita dago. Tira, zuetako batzuk txabolan itxiko zaituztet eta ilunpetan itxaron ezazue horiek etorri arte eta hil itzazue etortzen direnean; eta gainontzekoak hor inguruan sakabanatu, eta erne egon zaitezte ea hurbiltzen sumatzen dituzuen.

Sartu ziren txabolara, baina ezin gintuzten ikusi ilunpetan ginelako, eta ia zapaldu gintuzten ohe azpian presaka sartzen ari ginenean. Baina lortu genuen sartzea, eta zulotik kanpora irtetea ere bai, azkar, baina isilik... Jim aurrean, ni haren atzetik, eta Tom azkena, berak agindutakoaren arabera. Estalpean ginen orduan, eta kanpoan gertu oin hotsak entzun genituen. Lurrean arrastaka ateraino joan ginen, eta Tomek han geldi

erazi gintuen, zirrikitu batetik begiratu zuen, baina ez zuen ezer ikusten, oso ilun zegoenez; ahopeka esan zigun oin hotsak urrundu arte entzuten arituko zela, eta bultza egiten gintue-
nean Jimek irten behar zuela lehenengo, eta berak azken. Belarria zirrikituan jarri zuen entzu-
teko, eta entzun eta entzun aritu zen, eta oin hotsak kanpoan arrastaka ari ziren denbora guz-
tian; azkenean bultza egin gintuen, ezkutuan kanpora joan ginen, eta makurtu egin ginen; ez genuen arnasa hartzen, eta soinu txikienik egin ere ez, eta kontu handiz jo genuen hesirantz bata bestearen atzean, indiarren moduan, eta ongi iritsi ginen bertara. Jim eta biok jauzi egin genuen beste aldera, baina Tomi prakak goiko langako ezpal batean trabatu zitzaizkion, eta norbait zetorrela entzun zuen, eta tira egin izan behar zuen, ezpala hautsi eta soinua entzun zelarik; eta gure ondora erori zenean eta lasterka hasi ginenean, norbaitek oihu egin zuen:

— Nor dabil hor? Erantzun, edo tiro egingo dut bestela!

Baina ez genuen erantzun; oinak airean jarri eta ihes egin genuen. Orduan zurrumbiloa entzun

zen, eta danba! danba! danba! eta balak gure inguruan txistu egiten zuten! Entzun genuen oihuka esaten zutela:

— Hemen daude! Ibairantz doaz! Harrapa ditzagun, mutilak, eta askatu zakurrak!

Gure atzetik etorri ziren lasterka bizian. Entzun genitzakeen, botak zeramatzatelako, eta oihu egiten zutelako, baina guk ez genuen botarik eta ez genuen oihu egiten. Errotako bidean ginen, eta nahikoa hurbildu zitzaizkigunean, sasi batzuetara jauzi egin genuen, eta aurrera joaten utzi genien, eta gu horien atzetik aurrera egin genuen. Zakur guztiak isilik zeramatzaten, lapurrak uxatu ez zitzaaten; baina ordurako norbaitek askatu zituen, eta han zetozen mila zakurrek egingo luketen iskanbila sortuz, baina gure zakurrak ziren; eta guregana iritsi ziren arte zain geratu ginen, eta gu besterik ez ginela, eta gauza zirraragarririk ez geniela eskaintzen ikusi zutenenean, kaixo esan ziguten besterik gabe, eta aurrera jo zuten zalaparta eta oihuen alde-rantz. Presaka eta korrika joan ginen horien atzetik ia errotara iritsi arte, eta orduan sasi artera sartu ginen, kanoa han loturik bainuen.

Barrura jauzi egin, eta indar guztiz arraun egin genuen ibaiaren erdirantz, baina ezinbestekoa genuen zarata besterik egin gabe. Ondoren lasai eta eroso hurbildu ginen uhartera, almadia bertan bainuen; eta ibai bazter guztian bata besteari oihuka eta zaunka ari zirela entzun genitzakeen, gu urrundu ahala hotsak moteldu eta hil egin zirelarik. Almadiara igo ginenean esan nuen:

— Orain, Jim zaharra, gizon librea zara berriz, eta hitza ematen dizut ez zarela inoiz esklabo izango.

— Eta bai lan bikaina izan dela, Huck. Dotore antolatua zegoen, eta dotore egina, eta ez dago inor hori bezain plan nahasi eta apartarik asmatzeko gai denik.

Hirurok pozik ginen ahal genuen neurrian, baina Tom zegoen inor baino alaiago, bala bat sartuta zuelako zango sagarrean.

Jim eta biok hori entzun genuenean, ez geunden lehenago bezain sutsu. Min ere ematen zion, eta odola zerion; kanpadenda barruan etzan genuen eta dukearen alkandoretako bat puskatu

genuen zauria bendatzeko, baina Tomek esan zuen:

— Emazkidazue puskak, neronek egin dezaket. Ez gelditu orain; ez denborarik galdu, ihesaldia horren dotore egiten ari garelarik; denok arraun egitera, askatu soka! Mutilak, dotore egin dugu! ...bai horixe. Luis XVI.aren ihesaldiaren ardura izan nahi nukeen, ez zen izango «San Luisen semea, igo zaitetz zerura!» eta horrelakorik haren biografian idatzirik; ez, jauna, mugaren beste aldera besotan eramango genukeen..., horixe egingo genukeen horrekin... eta gainera oso modu trebean eta ez nolana. Zoazte arraun egitera... zoazte arraun egitera!

Baina Jim eta biok elkarri galdezka eta pentsatzen ari ginen. Eta minutu batean pentsatzen aritu ondoren, esan nuen:

— Esan, Jim.

Eta esan egin zuen:

— Beno, haxe iruditzen zait niri, Huck. Bera izan balitz aske utzitakoa, eta mutiletako bati tiro egin izan baliote, esango al luke: «Ni salba nazazue, burutik kendu medikuari dei egitea beste hori salbatzeko?» Tom Sawyer jaunaren

tankera al du horrek? Horrelakorik esango al luke? Ez horixe! Eta, orduan, Jimek esango al du? Ez, jauna... ez dut hemendik inora alde egingo, medikurik ez badator; ezta berrogei urte behar badira ere!

Banekien Jim zuria zela barrutik, eta esan zuena esango zuela espero nuen..., eta orain dena ongi zegoen, eta esan nion Tomi medikua-
ren bila joango nintzela. Hark gogor xamar kontra egin zigun, baina Jim eta biok gogor egin genion eta ez genuen amore eman; Tomek kanpora arrastaka joan eta almadia askatu nahi zuen, baina ez genion utzi. Orduan errierta egin zigun, baina hori ere alferrik izan zen.

Kanoa prestatzen ari nintzela ikusi zuenean, esan zuen:

— Joatea erabaki baduk, esango diat zer egin herrira iristean. Atea itxi, medikuari begiak estaliezazkiok, zapia estu-estu jarrita, eta zin egin eraziezaiok zerraldoa bezain isilik egongo dela, eta urrez betetako poltsatxoa jariezaiok eskuan, eta eraman ezak etxarteetan barrena atzera eta aurrera ilunpetan, eta gero kanoan ekar ezak hona, uharteetan jirabiraka ibili ondoren, eta

gizona miatu ezak eta klariona ken iezaiok, eta ez berriro eman herrira iristen zareten arte, bestela almadian arrastoak egingo zizkiguk berriz aurkitu ahal izateko. Hala egiten diate denek.

Baietz esan nion eta alde egin nuen, eta Jim basoan ezkutatuko zela erabaki genuen medikua hurbiltzen ikusten zuen bezain laster, hark berriro alde egin arte.

Berrogeita batgarren atala

Medikua gizon zaharra zen; gizon atsegina eta on itxurakoa iruditu zitzaidan ohetik jaiki erazi nuenean. Esan nion anaia eta biok ehizan aritu ginela bart arratsean Uharte Espainiarrean, eta almadia zati bat aurkitu eta bertan kanpatu genuela, eta gauerdia inguruan anaiak ostiko bat eman behar izan zuela, eskopetak tiro egin baitzuen, hanka zauritu ziolarik, eta bertara joan zedin nahi genuela hari hanka sendatzera eta dena isilik gordetzea, inori ezer ez esatea, gau horretan bertan etxera iritsi nahi genuelako, eta familiakoak ustekabean hartu.

— Zeintzuk dira zuen familiakoak? —esan zuen.

— Phelpstarrak, han behekoak.

— Hara —esan zuen.

Eta minutu bat igaro eta esan zuen:

— Nola esan didazu tiro egin zuela?

— Ametsetan ari zen —esan nuen—, eta eskopetak tiro egin zion.

— Bitxia ametsa —esan zuen.

Linterna piztu eta bide zorroa hartu zuen, eta abiatu ginen. Baina kanoa ikusi zuenean, ez zitzaion haren itxura gustatu... esan zuen baten-tzat nahikoa izango zela, baina arriskutsua zirudiela birentzat. Nik erantzun nion:

— Ez duzu beldurrik izan behar, jauna, gu hirurok erraz eraman gaitu.

— Nortzuk hiru?

— Bada, ni eta Sid, eta... eta... eta eskopetak; hori esan nahi nuen.

— Oi! —esan zuen.

Baina oina karelean jarri zuenean kanoa balantzaka hasi zen; buruari eragin, eta esan zuen beste handiagoa bilatuko zuela inguruan. Baina denak giltzaturik eta kateaturik zeuden; orduan nire kanoa hartu zuen, eta esan zidan han itxaroteko bera itzuli arte, edo han inguruan kanoa bila ibil nintekeela, edo nahi izanez gero, hobe litzatekeela agian etxera joan eta bertakokak ezustearen jakinaren gainean jartzea. Baina ezetz esan nion; almadia nola aurki zezakeen azaldu nion, eta gero alde egin zuen.

Berehala zerbait bururatu zitzaidan. Esan nuen nire artean, jo dezagun ezin duela Tomen

hanka sendatu amen esan orduko, esaerak dioen bezala. Jo dezagun hiru edo lau egun behar dituela. Zer egingo dugu?... Han geratu horrek dena lau haizetara zabaldu arte? Ez jauna, badakit zer egingo dudan. Zain egongo naiz, eta itzultzen denean esaten badu berriro joan beharra duela, nik lagunduko diot, igeri egi-ten joan behar badut ere; eta medikua hartu eta lotu egingo dugu, eta gurekin batera ibaian behera eramango dugu; eta Tomek haren beharrik ez izatean, zor dioguna, edo daukagun guztia eman, eta gero ibai bazterrera joaten utziko dugu.

Egur-pila baten tartean sartu nintzen lo kuluxka egitera; eta esnatu nintzenerako eguzkia burua baino gorago nuen! Ziztu batean alde egin nuen medikuaren etxera, baina esan zidaten gauean noizbait irten zela, eta ez zela oraindik itzuli. Beno, pentsatu nuen, horrek ez du batere gauza onik adierazten Tomentzat, eta oraintxe noa zuzen zuzenean uhartera. Lasterka abiatu nintzen, eta kale kantoari bira eman, eta ia kaskarreko bat eman nion osaba Silasi sabelean! Esan zuen:

— Baina, Tom! Non ibili zara, denbora guzti honetan, bihurri hori?

— Ez naiz inon ibili —esan nuen—, beltz ihes-lariaren bila besterik ez... Sid eta biok.

— Baina, nora joan zarete? —esan zuen—. Zuen izeba oso kezkatu dago.

— Ez zuen zertan egon beharrik —esan nuen—, ongi ginen eta. Gizonen eta zakurren atzetik joan ginen, baina atzean utzi gintuzten, eta galdu egin genituen; iruditu zitzaigun uretan entzun genituela, eta kanoa bat hartu genuen eta horien atzetik joan ginen ibaiaren beste alde-raino, baina ez genuen arrastorik aurkitu; orduan ibai bazterretik gorantz jo genuen nekatu eta gogogabetu ginen arte; kanoa lotu eta lotara joan ginen, eta ez gara duela gutxi gorabehera ordubete arte esnatu, gero honantz arraun egin dugu berririk jaso ahal izateko, eta Sid postetxera joan da berririk entzun zezakeen ikustera, eta ni beste aldera jo dut jateko zerbaiten bila gero etxera joateko.

Postetxera joan ginen Siden bila; baina susmatzen nuen bezala, han ez zen Sid ageri. Etxeko jaunak eskutitza jaso zuen bulegotik, eta

pixka batean zain egon ginen, baina Sid ez zen etorri; eta gizonak esan zuen: goazen, eta Sid oinez joan dadila etxera, edo kanoan, denbora galtzen bukatzen duenean... baina gu zaldi gainean joango gara. Ez nion buruan sartu han geldituko nintzela Siden zain; eta esan zuen ez zela beharrezkoa, eta etxera joan behar nuela izeba Sallyri ongi ginela jakin erazteko.

Etxera iritsi ginenean, izeba Sally horren pozik zegoenez ikusi ninduenean, negar eta barre batera egin zuen, eta besarkatu ninduen, eta hutsa ziren bere astinaldi horietako batzuk eman zizkidan, eta esan zuen beste horrenbeste emango zizkiola Sidi etortzen zenean.

Gela leporaino zegoen bazkaltzera joan ziren nekazari eta nekazarien emazteez beteta; eta inoiz entzun ez dudan berriketa zerabilten. Hotchkiss atsoa okerrena zen; haren mingaina jo eta ke ari zen denbora guztian. Honela zioen:

— Begira, Phelps ahizpa, goitik behera miatu dut txabola hori eta uste dut beltz hori burutik eginda zegoela. Hori bera esan diot Damrell ahizpari... ez al da hala, Damrell ahizpa? ...hala esan diot, beltz hori burutik eginda dago, zera...

horrelaxe esan nion. Denen aurrean esaten dut: burutik eginda dago, zera; gauza guztiek hori adierazten dute. Begira errotarri horri, esan diot, uste al duzue bere onean dagoen inork horrela-ko zorakeriak zirriborratuko lituzkeela errotarri batean? Halako eta halakori bihotza lehertu zitzaion, eta hala eta hala egin zuen aurrera hogeita hamazazpi urtetan, eta guzti hori... Luis «ezdakitnoren» seme berezkoa, eta amaitzen ez diren lelokeriak. Zoro hutsa da, esan diot; horixe esan nuen hasieran, horixe esan nuen tartean, eta hori esan dut denbora guztian... beltza zoraturik dago... Nabukodonosor bezain zoroa, zera.

— Eta begira oihal zatiz eginiko eskailera hori, Hotchkiss ahizpa —esan zuen Damrell atsoak—, zer demontretarako beharko zuen...

— Horixe bera esan diot oraintxe bertan Utterback ahizpari, eta berak esango dizu bestela. Esan dit: begira oihalezko eskailera horri, eta nik: bai, begira... zertarako nahiko zuen, bada. Berak esan dit: Hotchkiss ahizpa...

— Baina, dena dela, nola arraio sartu dute errotarria txabolan? eta nork egin zuen zulo hori? eta nork...

— Horixe bera esaten dut nik, Penrod anaia! Esaten ari nintzen... azukre lapa plater hori emango al didazu mesedez?... Dunlap ahizpari duela gutxi esaten ari nintzaion bezala, nola sartuko zuten errotarria txabolan, zera. Laguntzarik gabe, alegia, ...laguntzarik gabe! Hortxe dago koska. Ez duzue esan beharrik, zera; laguntza izan du; laguntza handia, gainera, hori esaten dut nik, dozena bat pertsona izan dira beltz horri laguntzen, eta hemengo beltz guztiak bana banan larrutuko nituzke, baina asmatuko nuke nork egin zuen, bai horixe; eta gainera esan nion...

— Dozena bat esan duzu!... berrogeik ere ezingo lukete guzti hori egin. Begira labainez eginiko zerrak eta gauza horiek, nolako lan nekeza egin behar izan dute; begira horiek erabiliz zerratutako oheko hanka, sei gizonentzat aste-beteko lana da hori; begira ohe gainean zetzan lastoz eginiko beltz hori; eta begira...

— Oso ongi esan duzu, Hightower anaia! Horixe bera esaten nion Phelps anaiari. Berak esan dit: zer deritzozu horri, Hotchkiss ahizpa? eta nik esan diot: zeri, Phelps anaia? Oheko

hanka modu horretan zerratua egoteari, esan dit. Zer deritzodan? Ziur nago ez zela bera baka- rrik zerratu, esan diot..., norbaitek zerratu du; hori da nire iritzia, gustatu ala ez gustatu, agian ez du ezertarako balioko, zera, baina hori da nik uste dudana, eta inori hoberik bururatzen bazaio, esan dezala, horixe esaten dut nik, eta kito. Dunlap ahizpari esan diot, zera...

— Deabruak naramala, etxea gauero beltzez beterik ez baduzue izan han barruan lau aste osoz, lan guzti hori egin ahal izateko, Phelps arreba. Begira alkandora..., zati txikiena ere odol- ez egindako Afrikako idazkera sekretuaz estali- rik! Talde galantak aritu beharra zuen lan eta lan ia denbora guztian. Bi dolar emango nituzke nor- baitek hor dioena irakurriko balit; eta idatzi zuten beltzei dagokionean, hitza ematen dizut hartu eta zartailua dantzatuko nukeela horien gainean, ahalik eta..

— Laguntzaileak izango ez zituen bada, Mar- ples anaia! Duela egun batzuk etxe honetan izan bazina, baietz esango zenukeela uste dut. Esku- tara etortzen zitzaizkien gauza guztiak lapurtu dituzte... eta gu denbora guztian zelatan, ez

pentsa. Alkandora hori lehortzen zintzilik zegoe-
la lapurtu zuten! Eta eskailera egiteko erabili
duten maindirea ez dakigu zenbat aldiz lapurtu
duten; eta irina, eta kandelak, eta argimutila,
eta koilareak, eta oheak berotzeko su-ontzi
zaharra, eta dagoeneko burutik joan zaizkidan
mila gauza gehiago, eta nire perkalezko soineko
berria; Silas eta biok, eta gure Sid eta Tom gau
eta egun zelatan etengabe, eta esan dizuedan
bezala, inork ez du horien arrastorik ikusi, ez
entzun eta ez sumatu; eta hara nola, azken
minutuan, gure muturren aurrean ihes egiten
duen, eta ziria sartzen digute gainera, eta ez
guri bakarrik, baita indiarren lurraldeko lapur
horiei ere, eta beltza bizirik eta osorik daramate,
une horretan hamasei gizon eta hogeita bi zakur
orpoz orpo dituztelarik! Benetan esaten dizut,
makalak iruditzen zaizkit orain arte entzundako
guztiak. Izpirituek ere ezingo lukete lana hobe
egin, eta buru gehiagorekin. Eta uste dut izpiri-
tuak izango zirela..., izan ere, ezagutzen dituzu
gure zakurrak, eta badakizu zakur hoberik ez
dela; bada, zakurrek ez zuten behin ere horien

arrastorik aurkitu! Argitu hori, ahal baduzu!...
edonork argitu dezala!

— Beno, egia esateko...

— Alajainkoa, inoiz ez...

— Aitaren eta semearen, nik ez...

— Etxean lapurretan horretaz gainera...

— Santu guztien izenean, beldurturik nengo-
keen horrela bizi behar...

— Beldurturik bizi diozu!... horren beldurturik
nengoenez, ez nintzen ia ohera joatera ausar-
tzen, ez jaikitza, ez etzatera eta ez esertzera,
Ridgeway ahizpa. Lapur ziezadaketen baita...,
ene, ezin pentsa dezakezu nolako estualdian
nengoen bart gauerdia iritsi zenerako. Jainkoo-
ren izenean, familiakoren bat lapurtuko ote
zuten ere beldurrez nengoen! Horrelako egoeran
burua ez nuen ezertarako. Orain, egun argiz,
txorakeria dirudi; baina esaten nuen nire artean:
hor daude lotan gure bi mutil gizajoak, goiko
gela bakartian; eta egia esango dizut horren
odoleztu nengoenez, gora joan eta gelan giltza-
tu egin nituen! Edonork egingo luke. Badakizu,
modu horretan ikaratzen zarenean, eta horrela-
ko gauzak pentsatzen aurrera egiten baduzu,

gero eta gauza okerragoak etortzen zaizkizu burura, burua joan egiten zaizu, eta era guztietako zentzugabekeriak egiten dituzu, eta geroxeago burura etortzen zaizu: eta ni mutiko horietakoa banintz, eta hor goian banengo, eta atea giltzatu gabe, eta...

Eten egin zuen, eta kezkatua zirudien, gero burua mugitu zuen inguru osoan poliki-poliki, eta haren begiradak nirearekin topo egin zuenean..., zutitu egin nintzen eta ibilalditxo egin nuen.

Esan nuen nire artean: hobe azalduko diot gaur goizean zergatik ez ginen gelan, kanpora bazter batera irteten banaiz eta hori pixka bat aztertzen badut. Eta hala egin nuen, baina ez nintzen oso urrutira joaten ausartu, izebak norbait nire bila bidali baitzuen. Eta egunak aurrera egin, eta jende guztiak alde egin ondoren, etxean sartu eta esan nion zaratak eta tiroek esna erazi gintuztela Sid eta biok, eta hango festa ikusi nahi genuela, eta atea giltzaturik zegoenez, tximist orratzaren burdinan behera irrist egin genuela eta biak min hartu genuela, eta ez genuela hori berriz egingo. Eta gero osaba Silasi esandako guztia errepikatu nion; eta gero

esan zuen barkatuko zigula, eta ez zela horren oker handia edozein modutara ere, edonork espero zezakeela mutil batzuek hori egitea, mutil guztiak txoriburu xamarrak baitziren bere iritziz; eta kalterik izan ez zenez gero, hobe iruditu zitzaion denbora, bizirik eta ongi ginelako, eta bere ondoan gintuelako, eskerrak emateko erabiltzea, gertatutakoaz eta amaiturik zegoenaz kezkatzea baino. Ondoren musu eman zidan, eskua buruan jarri eta ukitualditxoak eman zizkidan, eta gogoetak egiten arituko balitz bezala geratu zen. Berehala jauzi egin, eta esan zuen:

— Baina, alajainkoa, ia gaua egin da, eta Sid ez da oraindik etorri! Zer gertatuko zitzaion mutil horri?

Aukera ona iruditu zitzaidan, eta azkar jauzi egin eta esan nuen:

— Herrira lasterka joan eta ekarriko dut.

— Ez, ez zara joango —esan zuen—. Zauden lekuan bertan geratuko zara; nahikoa da bat gal-tzea aldi bakoitzean. Afaritarako ez badago hemen, osaba joango da bila.

Ez zen afaritarako etxeratu; eta afaldu ondoren irten zen osaba.

Hamarrak inguruan itzuli zen, ez oso lasai; ez zuen Tomen arrastorik aurkitu. Izeba Sally oso kezkatu zegoen, baina osaba Silasek esan zion ez zegoela horretarako arrazoirik... mutilak beti mutilak izango dira, esan zuen, eta ikusiko duzu bihar goizean nola azalduko den bizirik eta osorik. Horrekin lasaitu behar izan zuen. Baina, badaezpada ere, pixka batean haren zain esna egongo zela esan zuen, eta argia piztuta utziko zuela hark ikus zezan.

Eta lotara igo nintzenean gelara nirekin etorri zen eta kandela zekarren; ohean estali ninduen, ama baten eran laztandu, eta gaiztoa nintzela senti erazi zidan. Ezin nion aurpegira begiratu. Ohean eseri zen eta denbora luzean jardun zuen nirekin hizketan. Esan zidan Sid mutil aparta zela, eta ez zirudien hartaz hitz egiten amaitu nahi zuenik; behin eta berriz galdegiten zidan, ea galdu egin ote zen uste nuen, edo zauritu, edo beharbada ito, une horretan nonbait lurrean etzanda egongo ote zen, minez edo hilik, han lagunduahal izateko bera ondoan ez zegoelarik,

eta malkoak isuri zituen isiltasunean. Nik esaten nion Sid ongi izango zela, eta ziurrenik etxeratu-ko zela goizean; eta berak eskua estutzen zidan, edo agian musu eman, eta berriro esateko eska-tu, etengabe esateko, on egiten baitzion, horren kezka handia zuenez gero. Eta irtetera zihoa-nean begietara begiratu zidan, lasai eta modu atseginean, eta esan zuen:

— Atea ez duzu itxita izango, Tom; eta hor dituzu leihoa eta burdina; baina zintzoa izango zara, ezta? Eta ez duzu alde egingo? Egidazu mesede!

Jaungoikoak daki gogoz alde egin nahi nuela, Tomen berri jakiteko, eta alde egiteko asmoa nuen; baina horren ondoren, erreinu guztienga-tik ere ez nuke alde egingo.

Buruan nuen izeba, baina Tom ere buruan nuen; eta ezin nuen atsedetik hartu loak hartze-ko. Bitan burdinan behera jaitsi nintzen gauean berandu, eta ezkutuan joan nintzen sarrerako aterantz, eta leiho ondoan eserita ikusi nuen izeba kandela alboan zuelarik, eta begiak etxeko bideari begira malkoz beteak zituen; zerbait egin nahi nukeen hari laguntzeko, baina ezin nuen,

handik aurrera izeba nahigabetuko zuen ezer ez
nuela egingo zin egitea besterik ez. Eta goizal-
dean esnatu nintzen hirugarren aldiz, behera
irrist egin nuen, eta han zegoen oraindik; kande-
la ia amaiturik zuen, haren buru gris zaharrak
eskuen gainean atsedean hartzen zuen, eta lotan
zegoen.

Berrogeita bigarren atala

Etxeko nagusia herrira itzuli zen gosalduta ondoren, baina ez zuen Tomen arrastorik aurkitu; izeba eta biak mahai aurrean eseri ziren, eta ezer esan gabe pentsatzen aritu ziren, atsekabeak ziruditelarik, kafea hoztu eta hoztu, eta ezer jan gabe. Eta geroxeago esan zuen etxeko jaunak:

- Eman al nizun eskutitza?
- Zein eskutitz?
- Atzo postetxean jaso nuena.
- Ez, ez didazu eskutitzik eman.
- Ahaztu egingo zitzaidan.

Poltsikoetan bila aritu zen, eta gero haren bila joan zen ahazturik utzi zuen lekura, eta izebari eman zion. Honek esan zuen:

- San Petersburgkoa da..., Sisena da.

Iruditu zitzaidan beste ibilalditxo bat egitea ongi etorriko zitzaidala, baina ezin nuen mugitu. Eskutitza zabaldu aurretik ordea, lurrera bota eta korrika alde egin zuen... zerbait ikusi zuelako. Eta nik ere ikusi nuen. Tom Sawyer zen las-

taira batean etzanda, mediku zaharra, Jim, perkalezko soinekoa jantzita zuelarik eta eskuak atzean lotuta, eta jende pila. Eskueran nuen lehenengo gauzaren atzean ezkutatu nuen esku-titza, eta presaka irten nintzen. Izeba Tomen gainera habaildu zen negarrez, eta esan zuen:

— Ene, hilik dago, hilik dago, badakit hilik dagoela!

Eta Tomek burua jiratu zuen pixka bat, eta zerbait xuxurlatu zuen, eta izeba bere senean ez zegoela garbi utzi zuen; orduan eskuak zabaldu zituen, eta esan zuen:

— Bizirik dago, eskerrak Jaungoikoari! Eta hori nahikoa da! —eta musu eman zion bat-batean, eta airean joan zen etxera Tomi ohea presta ziezaioten; ezker eskuin beltzei eta bidean topatzen zituen guztiei aginduak banatu zizkien, mingainak ahal zuen bezain bizkor.

Gizonen atzetik joan nintzen Jimekin zer egin behar zuten ikusteko; eta mediku zaharra eta osaba Silas Tomen atzetik sartu ziren etxean. Gizonak suminduta zeuden, eta batzuek Jim urkatu nahi zuten, inguru hartako beltzak onbidatzeko, ihes egiteko ahaleginik egin ez zez-

ten, Jimek egin zuen bezala, horrelako arazo pila sor eraziz, eta familia osoa, horrenbeste egun eta gauz ia hiltzeko zorian jarri zuelarik. Baina besteek esaten zuten: ez horrelakorik egin, ez da gure beltza, eta nagusia azalduko da eta ziur ordain eraziko digula. Horrela pixka bat baretu ziren, zuzen jokatu ez duen beltza zintzilikatzeko irrikan egoten direnak, horiexek dira gero, atera behar ziotena atera ondoren, irrikan egoten ez direnak harengatik dirua ordaintzeko.

Jimi madarikazioka luzaroan aritu zitzaizkion arren, eta noizean behin buruaren alde batean kaskarreko bat edo beste eman ere bai. Hark ez zuen ezer esaten, eta ez zuen inoiz agerian jarri ni ezagutzen ninduenik, eta lehengo txabola berera eraman zuten. Bere arropak jantzi zizkio-ten, eta berriz kateatu zuten, baina oraingoan ez oheko hankarekin, txabolaren oinarrietako enbor batean sartutako harri-maila handi batean bai-zik. Eskuak ere kateatu zizkioten, eta bi hankak, eta esan zioten handik aurrera ez zuela jateko ogia eta ura besterik izango, nagusia bila etorri, edo denbora luzean nagusirik ez agertzeagatik, enkantean saldua izan arte; gure zuloa estali

zuten, eta esan zuten nekazari pare batek esko-
petak eta guzti txabola inguruan gauero zaintza
egingo zutela, eta egunez zezen txakurra atean
loturik jarriko zutela; eta gutxi gorabehera
orduan amaitu zuten lana eta amaierarekin
batera agurtzeko madarikazio orokorrak bota
zizkioten, eta orduan mediku zaharra azaldu
zen, inguruan begiratu, eta esan zuen:

— Beharrezkoa dena baino gogorrago ez jar-
dun horren kontra, ez baita beltz gaiztoa. Mutila
aurkitu nuen lekura iritsi nintzenean, konturatu
nintzen ezingo nuela bala atera laguntzarik izan
ezean, eta mutila ez zegoen ni handik laguntza
bila joan eta bakarrik uzteko egoeran; eta gero
eta okerrago jarri zen, eta denbora luzea igaro
ondoren burua joan zitzaion, eta ez ninduen
beregana hurbiltzen uzten, eta esan zidan alma-
dian klarionaz arrastoak egiten banizkion hil
egingo ninduela, eta antzeko zentzugabekeria
ugari, eta harekin ezin nuela ezer egin kontura-
tu nintzen; eta esan nuen, laguntza eskuratu
behar dut nola edo hala; eta hori esan nuen
unean bertan, arrastaka irten zen beltz hori non-
baitetik, eta lagunduko zidala esan zuen, eta

lagundu egin zidan, eta oso ongi gainera. Noski pentsatu nuela beltz iheslaria izango zela, eta ni han! eta han geratu beharko nuen egun osoan mugitu gabe, eta gau guztian. Egoera larria zen, benetan esaten dizuet! Kalentura zuten gaixo pare bat nituen, eta gustura joango nintzatekeen horiek ikustera, baina ez nintzen ausartzen, beltzak ihes egin zezakeelako, eta orduan ni izango nintzatekeelako errudun; eta txaluparik ez zen hurbilean ageri hari oihu egin, eta laguntza eskatu ahal izateko. Beraz han geratu beharra izan dut gau osoan gaur goizean egunak argitu duen arte; eta ez dut inoiz ikusi hori baino beltz zaindari hoberik edo lagun leialagorik, gainera bere askatasuna arriskuan jartzen zuen hori egiteagatik, eta oso nekaturik zegoen, eta agerian zuen azken aldian gogor aritu behar izan zuela lanean. Atsegin zitzaidan beltza horregatik; benetan esaten dizuet, jaunak, horrelako beltz batek mila dolar balio ditu..., eta trataera atsegina ere bai. Nik behar nuen guztia nuen, eta mutila etxean balego bezain ongi zegoen..., hobe agian, hango isiltasun handiarengatik; baina han nintzen ni biak ardurapean nituelarik; eta han

geratu beharra izan dut, gaur goizeko egunsentira arte; orduan gizon batzuk txalupa batean gure ondotik igaro zaizkigu, eta zorionez, beltza lastairaren aurrean eserita zegoen, burua belautan gainean erorita zuelarik, lo zerraldo; eta isil isilik keinuak egin dizkiet gizonei hurbiltzeko, bere atzetik igo, harrapatu, eta lotu egin dute beltza, hura ezertaz konturatu baino lehen, eta ez dugu inolako arazorik izan. Mutilak loaldi arma zuenez gero, arraunen hotsa gozatu egin dugu, eta almadia txaluparekin lotu, eta atoian eraman poliki eta zaratarik egin gabe, eta beltzak ez zuen hasiera hasieratik istilurik sortu eta ez hitzik esan. Ez da beltz gaiztoa, jaunak; hori da nik beltzaz pentsatzen dudana.

Norbaitek esan zuen:

— Oso ekintza ona dirudiela esan beharrean nago, mediku jauna.

Eta besteak ere pixka bat baretu ziren, eta eskerrona adierazi nahi nion mediku zaharrari Jimi mesede hori egiteagatik; pozik nengoen baita ere nire aurreiritzia zuzena izan zelako, bihotz onekoa eta gizon ona iruditu baitzitzaidan medikua, lehenengo aldiz ikusi nuenean. Orduan

denek onartu zuten Jimek oso ongi jokatu zuela, eta hori kontutan hartu behar zutela, eta sariren bat emango ziotela. Guztiek hitza eman zuten, zinez eta aho betean, ez zirela gehiago haren kontra madarikazioka arituko.

Gero txabolatik irten ziren eta giltzatu egin zuten. Espero nuen esango zutela kate bat edo beste kenduko ziotela, pisu handia baitzuten, edo haragia eta barazkiak emango zizkiotela ura eta ogiarekin batera, baina ez zuten hori kontutan hartu, eta iruditu zitzaidan hobe nuela neure burua horretan ez nahastea. Baina medikuaren istorioa, modu batera edo bestera, izeba Sallyri jakin eraztea erabaki nuen, aurrean nituen oztopoak gainditu bezain laster orde, alegia, azalpenak eman, eta argitu ondoren zergatik ez nuen aipatu Sid tirokatu zutela zoritxarreko gau horretan, hura eta biok beltz iheslariaren bila arraunean aritu ginela esan nuenean.

Baina banuen denbora. Izeba Sallyk gaixoen gelan ematen zituen egunak eta gauak; eta osaba Silas aztoratuta zihoala ikusten nuen bakoitzean, itzuri egiten nion.

Hurrengo goizean entzun nuen Tomek hobetu egin zuela, eta izeba Sally lo kuluxka egitera zihoala. Gaixoen gelan sartu nintzen ezkutuan, eta pentsatu nuen Tom esna aurkituz gero familiar sinesteko moduko istorioren bat asma genezakeela. Baina lotan zegoen, eta oso lasai gainera; aurpegia zurbila zuen eta ez sutan etxera ekarri zutenean bezala. Eseri egin nintzen eta hura esnatzeko zain geratu nintzen. Ordu erdi barru, izeba Sally sartu zen poliki-poliki, eta han nintzen ni, berriz harrapatuta! Geldirik egoteko keinu egin zidan, eta ondoan eseri zitzaidan, eta ahopeka hasi zen hizketan, eta esan zuen oso pozik egon gintezkeela, gaitz aurrekoak oso onak zirelako, eta aspalditik modu horretan lotan zegoelako, gero eta itxura hobea eta lasaiagoa zuelarik, eta hamar baten kontra zituela aukerak esnatu eta bere senera etortzeko.

Eseri eta Tomi begira geratu ginen, eta geroxeago pixka bat mugitu, eta begiak normaltasunez ireki zituen. Ingurura begiratu eta esan zuen:

— Kaixo, baina etxean nago eta! Zer gertatu da? Non da almadia?

— Ongi dago —esan nuen.

— Eta Jim?

— Ere bai —esan nuen, baina ezin nuen hori oso modu sutsuan esan. Hark ordea ez zuen hala ulertu, eta aitzitik esan zuen:

— Ederki! Primeran! Orain ongi eta arriskutik kanpo gaude! Esan al diozu izeba Sallyri?

Baietz esatera nindoan; baina izebak parte hartu eta esan zuen:

— Esan zer, Sid?

— Bada, kontu guztia nola egin dugun.

— Zein kontu guztia?

— Kontu guztia, bada. Bat besterik ez dago; nola askatu genuen beltz iheslaria... nik eta Tomek.

— Ene Jaungoikoa! Askatu beltz ihes... Zertaz ari da ume hau! Ene, ene, burua galdu du berriz!

— Ez, ez dut burua galdu; badakit zer esaten ari naizen. Guk askatu genuen... nik eta Tomek. Hori aurrera eramatea erabaki genuen, eta hala egin genuen. Eta dotore egin gainera.

Hasi zen hizketan, eta izebak ez zuen geldi erazi, eseri eta zor eta lor begiratu eta begiratu

besterik ez zion egin, hitz egiten utzi zion, eta ikusi nuen alferrik tela parte hartzen saiatzea.

— Izeba, ikaragarritzko lana eman digu... asteak lanean... orduak eta orduak, gauero, zuek lotan zineten bitartean. Eta kandelak, maindi-reak, alkandora, zure soinekoa, koilareak, lato-rrizko platerak, labainak, oheak berotzeko su-ontzia, errotarria, irina, eta gauza pila lapurtu behar izan genituen, eta ezin pentsa dezakezu nolako lana izan zen zerrak, idazteko lumak, inskripzioak, eta gauza bat eta beste egitea, eta ezin pentsa dezakezu zein gustura ibili ginen. Eta hilkutxa eta beste gauzen marrazkiak asma-tu behar izan genituen, eta lapurrek bidalitako eskutitz izengabea, eta tximist orratzean gora eta behera ibili, eta txabolaraino zuloa egin, eta eskailera, eta pastel baten barruan egosi, eta giolareak eta lan egiteko beste gauzak, zure mantalaren poltsikoan sartuta bidali...

— Aitaren eta semearen!

— ...eta txabola arratoiez eta sugeez eta beste gauzez bete Jimek lagunak izan zitzaizkizun; eta gero Tom hemen horren denbora luzean izan zenuenean, gurina sonbreiru barruan zuela, ia

lan guztia alferrik galdu zenuen, gizonak gu txabolatik irten baino lehen etorri baitziren, eta presaka ibili behar izan genuen. Sumatu gintuzten eta guregana tiro egin zuten, eta nik egokitu zitzaidana hartu nuen, eta bidetik bazterrera jo genuen eta aurrera joaten utzi genien, eta zakurrak iritsi zirenean ez ziguten jaramonik egin, eta zarata handiagoa zegoen lekura abiatu ziren. Guk kanoa hartu, eta almediarantz jo genuen, eta arriskutik kanpo ginen guztiak. Jim gizon librea zen, eta guk bakarrik egin genuen dena. Ez al da primerakoa, izeba!

— Ez dut bizitza osoan antzeko gauzarik entzun! Orduan zuek izan zarete, lotsagabe horiek, istilu guztiak sortu dituzuenak, eta jende guztia bere onetik atera eta ia hiltzeko zorian jarri arte ikaratu duzuenak. Inoiz baino gogo biziagoa dut oraintxe bertan zuei ordainak emateko. Pentsatzea ere, hemen izan naizela gaua joan eta gaua etorri, ...osa zaitez azkar, arlote hori, eta hitza ematen dizut deabrua gorputzetik kanpora astinduko dizudala!

Baina Tomek, horren harro eta pozik zegoez, ezin zuen isildu, eta mingainak aurrera egi-

ten zion jo eta ke..., izeba hizketan eta sua zerio-
la, eta biak batera isildu gabe, katu bilera balitz
bezala. Izebak esan zuen:

— Egin, egin ahal duzun barre guztia orain,
baina zin egiten dizut berriz harrapatzen bazai-
tut harengana zoazela muturra sartzera...

— Muturra sartzera norengana? —esan zuen
Tomek irribarrea utzi eta harrituta zirudielarik.

— Norengana? Beltz iheslariarengana, noski.
Norengana uste zenuen bada?

Tomek oso kopetilun begiratu zidan, eta esan
zuen:

— Tom, ez al didazu oraintxe esan ongi zego-
ela? Ez al du ihes egin?

— Horrek? —esan zuen izeba Sallyk—. Beltz
iheslariak? Noski ezetz. Hona ekarri dute berriz,
bizirik eta osorik, eta txabolan dago berriz, jate-
ko ogia eta ura besterik ez duelarik, eta katez
ederki hornituta, norbait bila etorri edo saldua
izan arte!

Tom zuzen jarri zen ohean eserita, begiei sua
zerien, eta sudurzuloak arrainen zakatzak beza-
la ireki eta ixten zitzaizkion, eta oihu egin zidan:

— Ez dute lotzeko eskubiderik! Zoaz!...eta ez denborarik galdu. Aska ezazu! Ez da esklaboa; lur gainean dabilen edonor bezain librea da!

— Zer esan nahi du ume honek?

— Esan dudana esan nahi dut, izeba Sally, eta norbait ez badoa neroni joango naiz. Betidanik ezagutzen dut, eta Tomek ere bai. Watson andereño zaharra duela bi hilabete hil zen, eta lotsaturik zegoen beltza ibaian behera saldu nahi izan zuelako, eta hori esan zuen; eta libre utzi zuen hilburukoa egin zuenean.

— Orduan zer demontretarako nahi zenuten libre utzi, libre baldin bazen ordurako?

— Hori galdera, hori, emakumezkoen tanke-rakoa! Abentura nahi nuelako, eta leporaino odolatan sartuko nintzatekeelako horrela... Ene Jaungoikoa, *izeba Polly!*

Eta huraxe bera zen ate ondoan zutik, eta pastelak jaten erdi aserik dagoen aingerua bezain ezti eta pozik zegoela zirudien!

Izeba Sallyk jauzi egin zuen, eta harengana joan zen, eta haren besarkadek ia burua bere lekutik atera zioten, negar egi n zuen, eta nik leku aproposa aurkitu nuen ohe azpian ezkuta-

tzeko, gauzak oker xamar jartzen ari zitzaizkigula ikusi bainuen. Zirrikitu batetik begiratu nuen, eta handik pixka batera Tomen izeba Polly besarkadatik askatu zen, eta Tomi begira geratu zitzaion betaurrekoen gaintetik..., badakizu, bertan txiki-txiki egin nahiko balu bezala. Eta orduan esan zuen:

— Bai, hobe duzu beste aldera begiratzea..., nik ere hori egingo nuke zure egoeran, Tom.

— Ene, ene! —esan zuen izeba Sallyk—. Horren aldatuta al dago? Baina hori ez da Tom, Sid da; Tom... Tom hori... baina non da Tom? Oraintxe bertan hemen zen era.

— Non da Huck Finn esan nahiko duzu... hori esan nahiko duzu! Uste dut urte askotan hazi dudala gure Tom bihurri hau, ikusi orduko ezagutu ahal izateko. Hori besterik ez genuen behar, irten ohe azpitik, Huck Finn.

Hori egin nuen. Baina ez nengoen oso adoretzu.

Izeba Sally inoiz ikusi dudan pertsonarik nahasiena zen; beste norbait ezik, osaba Siias, alegia, gelan sartu eta dena esan ziotenean. Mozkortuta balego bezala geratu zen, eta ezer

ere ez zuen asmatu handik aurrera egun osoan, eta gau horretan eliza bileran egin zuen predikuak oso izen ona eman zion, munduko gizon zaharrenak ere ezin uler ziezaiokeelako. Eta horrela Tomen izeba Pollyk nor eta zer nintzen esan zien; eta nik parte hartu behar izan nuen eta esan halako estualdian nengoenez, Phelps andreak Tom Sawyerrekin nahastu nindue-
nean... (izebak esan zuen orduan: Oi, izeba Sally orain arte bezala, ohiturik hago eta ez duzu aldatu beharrik), izeba Sallyk Tom Sawyerrekin nahastu nindue-
nean, jasan beharra izan nuela..., beste biderik ez nuen, eta banekien Tomi ez zitzaiola gaizki irudituko, pozez zorutzen jarriko baitzen gauza misterioitsu horrekin, eta abentura antolatuko zuen horren kontura, eta oso gustura ibiliko zen. Eta horixe gertatu zen, eta berak Sid zela jakin erazi zuen, eta ahal izan zuen guztia erraztu zizkidan gauzak.

Eta Tomen izeba Pollyk esan zuen hura zuzen zegoela Watson andereño zaharrak hilburukoan Jim libre utzi zuela esan zuenean; eta horrenbeste, garbi ikusi nuen, Tom Sawyerrek horrelako neke eta lanei aurre egin ziela beltz libre bat

askatzeko! Hizketaldi hori entzun nuen arte ez nuen ulertzen, nola haren heziketa ona kontutan hartura, laguntza eman ziezaiokeen inori beltz bat libre uzteko.

Izeba Pollyk esan zuen izeba Sallyk Tom eta Sid bizirik eta onik iritsi zirela idatzi zionean, esan zuela berekiko:

— Hara berriz! Jakina gertatuko zela, mutila horren urrutira joaten utzita, eta zaintzeko inor eraman gabe. Orain ibaian behera mila eta ehun milatako bidaia luzea egin beharko dut, ume hori oraingoan zertan dabilen ikusteko..., bitartean zure erantzunik jaso ez nuenez gero.

— Baina nik ez nuen zure eskutitzik hartu — esan zuen izeba Sallyk.

— Baina nola da posible? Bitan idatzi nizun Sid han zegoela esatean zer esan nahi zenuen galdezka.

— Ez nituen jaso.

Izeba Pollyk poliki eta modu zorrotzean begiratu zuen ingurura, eta esan zuen:

— Zu, Tom?

— Eta... zer? —esan zuen haserre xamar.

— Ez niri horrelakorik erantzun, umelotsaga-bea... emazkidazu eskutitzak.

— Zein eskutitz?

— Eskutitz horiek. Astindu egin beharko zaitut ez badizkidazu...

— Kutxan daude. Ez da horrenbesterako. Eta postetxetik hartu nituenean bezalaxe daude. Ez ditut ireki, ez ditu ukitu. Baina banekien arazoak sortuko zizkigutela, eta pentsatu nuen presako gauza ez bazen...

— Astintzea merezi duzu, zalantzarik ez dago... Eta beste bat ere idatzi nizun etorriko nintzela esanez, eta uste dut hori ere...

— Ez, atzo iritsi zen; ez dut oraindik irakurri, baina ongi dago, hori badut.

Izebari bi dolarretako apustu egitea bururatu zitzaidan eskutitza ezetz aurkitu, baina iruditu zitzaidan beharbada hori egitea bezain osasuntsua zela ez egitea. Beraz ez nuen ezer esan.

Azken atala

Bakarrik aurkitu nuen lehenengo aldian, galdegin nion Tomi zer asmo zituen ihesketa garairako... zer pentsatu zuen egitea ihesketa ongi amaitu izan balitz eta ordurako librea zen beltza askatzea lortu izan balu. Esan zuen hasieratik buruan pentsatuta zuena egingo zuela, eta Jim arazorik gabe kanporatu izan bagenu, almadian joango ginatkeela berarekin ibaian behera, ibaiaren ahora iritsi arte, eta etengabe abenturak izango genituela; orduan bere askatasunaren berri emango geniola, eta baporean etxeraino eramango genuela, dotore-dotore, eta galdutako denbora ordainduko geniola, eta iritsi aurretik herrira idatziko zuela inguruko beltz guztiak jakinaren gainean jartzeko, Jim herrian suzizko segizioan, eta txaranga eta guzti, bat zezaten, eta horrela heroia izango zen, eta gu ere bai. Baina iruditu zitzaidan gauzak orduan zeuden bezain ongi egongo zirela.

Jimi airean kendu genizkion kateak, eta izeba Pollyk, osaba Silasek, eta izeba Sallyk jakin zute-

nean zein ederki lagundu zion medikuari Tom zaintzen, begirunez erabili zuten, eta gauzarik onenak eskaini zizkioten, nahi zuen guztia eman zioten jateko, eta atsedenaldia izan zuen, eta lanik ez. Eta gaixoen gelara igo genuen, eta hizketaldi luzea izan genuen. Tomek berrogei dolar eman zizkion Jimi gurekin eramanez handiko pre-soa izan zelako, eta horren ongi lan egiteagatik, eta Jimek eskerrak eman zizkion mila aldiz, eta pozez lehertu, eta esan zuen:

— Hara, Huck, ez nizun esaten nik?... Zer esan nizun nik han goian Jackson uhartean? Esan nizun bular iletua nuela, eta horrek zer esan nahi zuen; eta esan nizun behin batean aberatsa izan nintzela, eta berriro izango nintzela; eta horrela gertatu da, horra hor! Orain ez niri esan gero... seinaleak seinaleak dira, benetan diot; eta orain hemen nagoela bezain ongi nekien berriz aberatsa izango nintzela!

Gero Tomek hizketan eta hizketan aurrera egin zuen, eta esan zuen: ihes egin dezagun hirurok hemendik, gau horietako batean, eta arropak eta gauzak hartu, eta goazen abentura ikaragarriak bilatzera indiarren artean, horien

lurrealdean, aste pare baterako edo; era nik esan nuen: ederki, ongi iruditzen zait, baina ez dut dirurik arropak eta gauzak erosteko, eta ez dut uste etxetik ezer hartu abal izango dudarik, honez gero aita itzuliko baitzen, era Thatcher epailearen etxetik diru guztia hartuko zuen eta edaritan xahutuko zuen dena.

— Ez, ez du eraman —esan zuen Tomek—, han dago oraindik... sei mila dolar edo gehiago; eta zure aita ez da orduz gero itzuli. Ez zen itzuli behintzat ni irten nintzen arte.

Jimek esan zuen, ospez hitz egingo balu bezala:

— Ez da inoiz itzuliko, Huck.

Esan nuen:

— Zergatik, Jim?

— Berdin da zergatik, Huck..., baina ez da inoiz itzuliko.

Baina galdetu eta galdetu aritu nintzaion, eta azkenean esan zuen:

— Ez al duzu gogoan ibaian behera ur gainean zihoan etxe hura, eta barruan estalita zegoen gizona; eta bertan sarta nintzela eta gizona ikusi nuela eta ez nizula sartzen utzi?

Bada, dirua nahi duzunean bar dezakezu, gizon hori bera baitzen.

Tom ia ongi dago orain, eta hala lepo inguruan zintzilik darama erloju kate batean, eta beti begira ari zaio zer ordu den jakiteko, eta besterik ez dut idazteko, eta horrek astro pozten nau, izan ere, jakin izan banu nolako lana zen liburu bat egitea ez nituzkeen ahaleginak egingo eta ez ditut berriz egingo. Baina este dut lurraldera ihes egin beharko dudala besteak joan aurretik, izeba Sallyk semetzat hartu eta zibilizatu nahi nauelako eta nik ezin dut hori eraman. Hori lehendik ere ezagutzen dut.

AMAIERA

BEGIRUNE OSOZ, HUCK FINN